

NAFARROAKO HISTORIA



MEDEETAN ZEHAR LANDUTAKO IDENTITATEA

Nafarroako historia.
Mendeetan zehar landutako identitatea

NAFARROAKO HISTORIA

Mendeetan zehar landutako identitatea

Luis Landa El Busto



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Azalaren eta kontrazalaren motiboa: Karlomagnoen xakea deitutako erlikia-ontzia. Orreaga-ko museoa (XIV. mendea).

Izenburua: Nafarroako Historia. Mendeetan zehar landutako identitatea
Egilea: Luis Landa El Busto.
Azala: Mikel Melero eta Rebeca Arraras.
Argazkiak: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko
Komunikazio Zerbitzuko artxibategia, Bianako Printzea
Instituzioa, Turismo Zerbitzuko argazki artxibategia eta
Mikel Melero.
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura departamentua
Itzulpena: Centro de Comunicación Internacional, S.L.
Aurreinprimatzea: arte 4c, s.a.l.
Inprimatzailea: Castuera Industria Gráfica
Lege-gordailua: NA-1.012/2001
I.S.B.N. 84-235-2116-8
© NAFARROAKO GOBERNUA: Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Sustatzailea eta banaketaria:

Nafarroako Gobernuo Argitalpen Fondoa
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.
Navas de Tolosa k/,21.
31002 IRUÑA
Telefonoa: 948 42 71 21 • Faxa: 948 42 71 23
Helbide elektronikoa: fpubli01@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es

AURKEZPENA

Hezkuntzaren helburuetako bat da ikasleen integrazioa lortzea bizi diren ingurune naturalean, sozialean nahiz kulturean eta haiek parte-hartze gogotsua izatea ingurune horrek eskaintzen dituen onura mota ezberdinetan. Integrazio horren funtsezko parte da berezko historiaren ikasketari dagokiona. Historia bizitzaren oroimena da, eta, alde horretatik, bakar bakarrik historiaren ezagutzak aukera ematen digu herri baten idiosinkrasian sakontzeko; iraganaren ikasketan herriaren sustraiak topatzen ditugu eta bere ezaugarriak ere bai.

Nafarroako iraganean barna egindako bideak (lehen biztanleetatik Hobetzea eta Espainiako Konstituzioraino) aukera emanen digu milurteko berriari eta etorkizuneko Europari aurre egiteko, gure berezitasunaren kontzientziatik eta geure buruarekiko fideltasunetik abiatuta. Foruei buruzko maitasuna, horra hor zein den, behar bada, gure izatearen ezaugarririk aipagarriena, erran nahi baita, gure askatasunari buruzko maitasuna, eta, era berean, gure borondate sendoa, Espainietako elkarren arteko proiektuan partaide izateko.

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, konpromisoa hartua du, modu eraginkorrean, gure herriko his-

toria gordetzeko, sustatzeko eta zabaltzeko. Halaber, gorde, sustatu eta zabaldu nahi du belaunaldi berrien estimua oinordekotzan hartu ditugun kultura-osagaiei buruz. Zorionez, zabala da Nafarroako historiaz eskura dugun bibliografia; hala ere, ongi etorri erran eta eskertu behar zaio ezagutza ildo berriak urratu nahi dituen saiakera orori, ezagutza hori belaunaldi berrien artean hedatu nahi baldin badute, bereziki.

Nafarroako Historia. Mendeetan zehar landutako identitatea argitalpena kokatu beharra dago Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren etengabeko kezkan, irakasleriaren esku utzi nahi izateagatik curriculum ofizialak garatzeko beharrezkoak diren heziketa-gaiak eta sostengurako materialak. Antzeko beste material batzuekin batera, argitaratuak jada, edo argitaratze bidean, lan honek, zalantzarik gabe, hurbilago paratuko ditu Nafarroako bilakaera markatu duten gertakari nabarienak, eta, aldi berean, lagungarri gertatuko da begirunezko jarrerak pizteko, gure nortasuna landu duten kultura-osagai ezberdinen gainean.

Jesús María Laguna Peña
Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria

Aurkibidea

SARRERA	17
1.IRAGANAREN HISTORIA, ORAINA ULERTZEKO ETA ETORKIZUNA- AURREIKUSTEKO APUSTUA	21
1.1. Kokapena denboran eta Historiaren zatiketa	22
1.2. Historiaren iturriak	23
1.3. Iraganaren ulermena eta azalpena	23
1.4. Erregioaren Historia, Historia Nazionalaren barnean	24

I. HISTORIAUREA ETA ANTZINAROA

2. HARRAPARI ETA NOMADA	29
2.1. Iraganaren berreraikitzea	29
2.2. Biziraupenaren bila: paleolitoa	30
2.3. Arteari ekiteko era berezia.	34
2.4. Atapuerca eta gure arbasoak aurkitzeko itxaropena	35
2.5. Klimaren normalizaziorantz	35
3. EKOIZPEN EKONOMIA	37
3.1. Nekazari eta ekoizleak: neolitoko iraultza	37
3.2. Metal-aroa	38

3.3. Adierazpen artistikoa	40
3.4. Hizkuntza-adierazpena	41
3.5. Hildakoen gurtza	43
3.6. Idatzietatik urrats batera: protohistoria	44
4. BASKOIAK ETA ERROMATARTZEA	49
4.1. Baskoiak, berezko hizkuntza eta nortasuna zuen herria	49
4.2. Baskoien bizimoduak	50
4.3. Hispania, erromatar probintzia	51
4.4. Erromatartzea, herri eta hirien moldatzea	52
4.5. Hispaniako administrazioa Erromaren zerbitzuan	54
4.6. Jainko eta ohitura paganoetatik kristautzera	55
4.7. Erromatarren inperioaren krisia	57

II. ERDI AROA

5. BISIGODO, FRANKO ETA MUSULMANAK (v-viii. mendeak)	61
5.1. Iruñeko lurraldearen eraketa	61
5.2. Paisaia naturalaren eta hiribilduen arteko harmonia	63
5.3. Frankoek eta musulmanek setiatutako lurraldea	64
6. IRUÑEA ETA NAFARROAKO ERRESUMAREN SORRERA (ix-xiii)	69
6.1. Erresumaren sorrera	69
6.2. Antso Handia eta bere batasun xedea	70
6.3. Antso VI.a Jakituna, Nafarroako erresumako lehenengo erregea	72
6.4. Judutar eta musulmanen kokalekua	73
6.5. Gutxiengoan erlijioen iratzartzea	75
6.6. Kristau izatearen pribilejioa	75
6.7. Gizarte mailak	77
7. DONE JAKUERAKO BIDEAREN EKARPENAK (x-xiii. mendeak)	79
7.1. Hilobiaren aurkikuntza	79
7.2. Herri eta hirien sortzea eta ekonomiaren bultzada	80
7.3. Arte erromanikoa eta gotikoa	82
7.4. Legenda beltza	85
7.5. Baztertuak	86
7.6. Erdi Aroko literatura Nafarroan	87

8. FRANTSES DINASTIETATIK - ABSENTISTAK ETA HERRIAREN- DIK URRUN ZEUDENAK- MONARKIA GORTESAU ETA NAFARRE- TARA. (XIII-XV. mendeak)	91
8.1. Chanpagneko Etxea	92
8.2. Frantsesen aldia	95
8.3. Evreuxtarren dinastia «nafarra»	97
8.4. Karlos III.a Prestua eta diplomazia	99
8.5. On Karlos, Bianako printzea	102

III. ARO MODERNOA

9. ITZULERARIK GABEKO BIDEA GAZTELARANTZ (XVI mendea)	107
9.1. Nafarroa, Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren artean	107
9.2. Seigarren Merindadea, Bortuz haraindikoa edo Nafarroa Beherea	109
9.3. Urrats sendoaz Gaztelarantz	112
9.4. Nafarroa, Gaztela-Aragoi eta Frantziaren artean	113
9.5. Batasuna, eranstea edo anexioa?	115
9.6. Nafarroa eta Gaztela, «bi aldeen arteko berdintasuna»	116
9.7. Gizartearen aldaketak	120
9.8. Juduak eta musulmanak	122
10. BEREZKO NORTASUNARI EUSTEKO BIDEAN (XVIII. mendea)	125
10.1. Estatuaren erradiografia	125
10.2. Argi-itzalak Gaztela eta Nafarroaren arteko harremanetan	126
10.3. Nafarren bidaiari sena	128
10.4. Karga militarrendako laguntza eskuzabala	131
10.5. Harreman tenkatuak Frantziarekin	132
10.6. Mugimendu «sezesionistarik» ote?	134
10.7. Bere historian landutako nortasuna	137
11. BEREZKO ORGANISMOAK: ERAKUNDEAK (XVII eta XVIII. mendeak) .	139
11.1. Gorteak	139
11.2. Diputazioa	142
11.3. Erregeordea	143
11.4. Errege-Kontseilua, Errege-Gortea eta Kontuen Ganbara	144
11.5. Jaurgoa	145
11.6. Ibarrak, hiribilduak eta hiriak	145

12. BERDINTASUNIK GABEKO GIZARTEA (XVII-XVIII. mendeak)	147
12.1. Noblezia	150
12.2. Kleroa	151
12.3. Petxariak	153
12.4. Herritartasuna: herritar eta biztanleak	153
12.5. Jornalariak eta laborariak	154
12.6. Hiriak	155
12.7. Etxearen oinordekoa: maiorazkoa	156
12.8. Ohitura lege egina	157
12.9. Etniak baztertuak: agotak	158
13. LANA, BIZIBIDE GISA (XVII. eta XVIII. mendeak)	161
13.1. Landako produktuak	162
13.2. Mendiko aberastasuna: bazkalekuak eta abeltzaintza	164
13.3. Artisautza, burdinolak eta bestelako industria	165
13.4. Merkataritzaren hazkundera eta kontrabandoa.	166
14. HEZKUNTZA, ERLIJO ZALETASUNA ETA SORGINKERIA (XVII eta XVIII. mendeak)	171
14.1. Letren irakaskuntza	171
14.2. Herri-erlijiozkotasuna	174
14.3. Sorginkeria eta sineskeriak	174
14.4. Eleaniztasuna	177
15. ARTE ETA LITERATURA-SORMENA: ERRENAZIMENDUA ETA BARROKOA (XVI-XVIII. mendeak)	179
15.1. Errenazimenduaren ideia: natura, edertasuna eta bizitza	180
15.2. Errenazimenduko arkitektura	182
15.3. Eskultura: Juan de Anchietaren erromanismoa	182
15.4. Juan de Landaren pintura eta errenazimenduko urregintza	185
15.5. Kultura barrokoa	186
15.6. Arkitektura barrokoa	187
15.7. Erretaula eta prozesioetako imajinagintza	188
15.8. Berdusanen pintura barrokoa eta Paretan rococoa	190
15.9. Literatura barrokoa	192
15.10. Neoklasizismo arkitektonikoa	193

16. ILUSTRAZIOA ETA BEREZKO ERAKUNDEEN KRISIA	
(XVIII. mendea)	195
16.1. Ilustrazioa eta Despotismo Ilustratua	196
16.2. Felipe V.a Borboiari Nafarroak emandako laguntza (1700-1746)	197
16.3. Gorabeherak aduanen aferan.	198
16.4. Foruak Nafarroako identitatearen oinarri gisa	199
16.5. «Borondatezko dohaintza» eta Gorteei eraso egitea.	202
16.6. Monarkiaren krisia eta kinten zozketa	203
16.7. Nafarrak Borboien Gortean.	204
16.8. Frantziako Iraultza, eta horren eragina Nafarroan	206

IV. XIX. MENDEA

17. ABSOLUTISTAK ETA LIBERALAK: KARLISTADAK	211
17.1. Independentzia gerra.	213
17.2. Liskar ideologikoa: Absolutistak eta Liberalak.	215
17.3. Isabeldarrak eta karlistak	218
17.4. Karlismoaren atzealdea.	220
17.5. Egunkari karlistak: gerrari buruzko informazio ona.	222
18. NAFARROA, PROBINTZIA HUTSA	225
18.1. Nafarroako Foruen Legea.	225
18.2. Beste karlistada bat.	227
18.3. Azken karlistada.	228
18.4. Tejada-Valdoseraren Ituna.	231
18.5. Alderdi politikoen aniztasuna	232
18.6. Gamazada	234
19. NAFARROA HIRITARRAREN ETA INDUSTRIALAREN BIDEAN ..	237
19.1. Autohornikuntzatik nekazaritza-ekoizpena.	239
19.2. Oihan eta abeltzaintza-ustiapena.	240
19.3. Azokak eta merkatuak.	242
19.4. Industria hasberria eta aurrezki kutxa gutxi sortzea.	244
19.5. Errepide bidezko garraioa.	245
19.6. Trenbidearen agerpena.	248
20. NEKAZARITZARI LOTUTAKO GIZARTE TRADIZIONALA.	251
20.1. Hazkunde demografiko motela eta emigrazio handia.	253

20.2.	Esku mortuetan zeuden ondasun eta lursailen salmenta: desamortizazioa.	254
20.3.	Moda, jantzietan.	257
20.4.	Elikadura.	259
20.5.	Familia.	260
20.6.	Bizi-baldintzen hobetzea.	263
20.7.	Eliza liberalismoaren aurka eta gobernua elizaren aurka.	264
21.	GIZARTE HEZIA ETA IKASIAREN ALDE.	267
21.1.	Bigarren Mailako Irakaskuntza finkatze bidean.	269
21.2.	Euskal kultura eta euskararen atzerakada.	270
21.3.	XIX. mendeko pertsona ospetsu nafarrak.	272
21.4.	Lumaren eta arpegioa arteen zale ziren nafarrak.	274
22.	ARTEA ETA ESTILO NAHASKETA.	279
22.1.	Arkitektura neoklasikoa, modernista eta eklektikoa.	280
22.2.	Margolari nafarrak eta bere emigrazioa.	281
22.3.	Mende bukaerako pintura abangoardista.	284
22.4.	Pintore historizistak eta Diputazioaren Jauregia.	287
 V. XX. MENDEA 		
23.	NAFARROA ETA EUSKADI.	291
23.1.	Motibazio politiko eskasa.	292
23.2.	Euskaltzaletasuna.	295
23.3.	Langile mugimendua.	299
23.4.	<i>Euskalerria</i> eratzeko saiakera: 1931ko Lizarrako biltzarra.	300
23.5.	Ezkerreko Biurtekoa (1931 – 1933).	303
23.6.	Eskuineko Biurtekoa (1934-1935).	305
24.	GERRA ZIBILA ETA NAFARROA (1936 – 1939).	309
24.1.	Gerraren hasiera.	310
24.2.	Boluntario nafarrak.	312
24.3.	Zapalketa eta alderdi politikoak.	313
24.4.	Gazte karlistak: erreketekak.	316
24.5.	Gerraren ondorioak.	317

25. FRANKISMOA, TRANSITZIOA, KONSTITUZIOA ETA FORU	
ARAUBIDEAREN HOBETZEA.(1939-1999).	319
25.1. Francoren Diktadura (1939 – 1975).	319
25.2. Harreman tenkatuak karlisten eta falangisten artean.	321
25.3. Félix Huarte, industria-sustapenean giltzarri.	322
25.4. Karlismoaren krisia eta era askotariko antolamendu politikoak.	324
25.5. Trantsizioa.	326
25.6. Nafarroa eta 1978ko Konstituzioa.	328
25.7. Foru Araubidearen Hobetzea.	330
KONTZEPTUZKO MAPAK	333

SARRERA

Historian zeharreko esperientzien metaketak berekin du, bizipen horiek jakintza moduan asimilatzeko eta besterenganatzeko giza gaitasuna. Prozesu honetan, adimenak funtsezko egitekoa du, gauza baita gertakari historikoa denboran erlazionatzeko, sintetizatzeke eta tartekatzeke, *lehena* eta *geroa* baten bitartez.

Hirugarren milurteko honetan, gizakien arteko globalizatzea eta elkartasuna helburu ditugula, xedea da muga sozialak, ekonomikoak eta kulturalak kenaraztea, mundua bat baita eta den denok horretan murgilduak baikaude. Horrexegatik, ezein kontinentek, ezein herrialdek, ezein eskualdek, ezein herrik ez du isolatua geratu behar; dena dela, erdietsi nahi den homogeneizazio horrek, zoritxarrez, oraindik ez ditu liskarrak konpondu, ezta kontraesan eta desberdintasun sozial, politiko, kultural eta ekonomiko izugarriak ere, herri eta nazioen artean.

Eskualde geografikoen arteko ezberdintasunak eta desadostasunak, bilakaera historiko desberdinaren jatorria eta ondorioa dira. Nolanahi ere, era askotako ideia erlijiosoek, arte-sormenek, gizarte-antolaketek eta ekonomia nahiz industria-egiturek osatzen dute, onerako edo txarrerako, lurra planetaren Historia.

Horrexegatik, **Nafarroako Historiaren** ikasketak, bere argi-itzalekin, balio izan digu huraxe Espainiako eta Unibertsoaren Historiari lotzeko. Garai guztiei diziiplina ezberdinen ikuspegia eman nahi izan zaie, non gaiak ez baitira konpartimendu itxiak, baizik eta horietako bakoitza aurrekoan eta hurrengoan txertatua dago, eta modu horretan, bat egiten dute politikak, soziologiak, ekonomiak, gizarteak, arteak eta pentsamenduak.

Unibertsoa duela 15.000 edo 20.000 milioi urte sortu baldin bazen, gure planeta duela 4.600 milioi urte osatu baldin bazen, eta lehenengo izakiak jada, duela 3.800 milioi urte bizi baldin baziren, Nafarroari buruzko liburuki batean laburpen historiko bat moldatzeak, aldi berean, irudi du ausarkeria eta ausardia. Ausardia hori, nire aldetik, handitzen da izen handiko historialarien idazkiak ikusterakoan, gure *erresuma zaharren* ikuspen zehatza eta sakona eman baitute.

25 kapituluotan egin dudana historia-ibilbide labur hau ez zen egin ahal izanen, **Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren** laguntza eta sostengurik gabe, uste osoa agertu eta proiektu horren aldeko apustua egin baitute. Halaber, oso baliosa izan da **Iruñeko Santa María la Real Ikastetxearen** ekarpena, María Rosa Alonso, José María Martínez eta Laureano Palenciarena, bereziki, lana egitera lagundu baitute.

Gure iragana ezagutu beharra

Helmut Köhlek dioen bezala: «Bere historiaren berri ez dakien herriak ez dezake oraina ulertu eta ez dezake etorkizuna eraiki». Horrek bultzarazi nau Nafarroako historia laburra egitera, DBHko ikasleendako, batez ere, nire harri-kozkorra emanaz. Hori egin nahi izan dut Otsailaren 22ko 67/1993 DBHko Curriculumari buruzko Foru Dekretuarekin bat, zeinak adierazten baitu ikasleek «**Nafarroako Iragana eta Oraina**» ezagutu behar dutela. Halaber, Espainia eta Nafarroako ikasketari, aro garai-kidean, dagokion Batxilergoko egitura eta curriculumua ezartzen duen

Ekainaren 23ko 169/97 Dekretuaren arabera, kapitulu hauek Batxilergo-ko ikasleen ikasketen osagarri balio dezakete. Era berean, aukera eskaini nahi diegu gure iraganaren ikuspegi bateratua eta laburbildua edukitzeko jakin-mina eta gogoia duten hiritar guztiei.

Horrenbestez, beharrezkoa da gazteek jakin dezatela ohituren, kulturaren, antolamendu politikoa, soziala eta ekonomikoaren berri, hau da, beren iragan historikoaren berri; lehenik, euren arbaso hurbilenekoen iragan historiko hori jakin behar dute, ondoren, gainontzeko gizakien ikuspen orokorra izateko. Eskolak, hiritarrak hezi behar ditu, euren arbasoen ikerkuntzan jardun eta konpromisoak hartzeko, euren betebeharrak bere gain hartu eta euren eskubideak erabil ditzaten.

Beraz, nafar guztiok behartuta gaude, gure aurrekoek utzi ziguten ondare aberatsa ezagutu, babestu eta zabaltzera. Nafarroa, bere identitatea gordetzeko eskubidea duen Foru Erkidegoa da, eta, hori funtsatzen da izan duen iragan historiko eta kultural berezian.

Gai hauetan zehar, bizitu eta harrotu nahi izan ditut Nafarroan gertaturiko gertakari nabarmenenak, historiaren ikuspegi orokorra, nazionala eta mundu mailakoa galdu gabe. «**Mendeetan zehar landutako identitatea**» azpigituluaren bitartez, azpimarratu nahi izan dut herri honen ahalegina, bere bizitzan zehar, bere identitatea bilatzeko eta gordetzeko hala nola foral eta solidario agertzeko. Forala beraz, zeren eta berezko arau eta erakunde ebolutibo eta dinamiko horiek guztiek, goiz, hiritarren destinoak gobernatu baitzituzten; eta solidarioa, Nafarroa beti presente egon delako eta bere burua eskaini duelako, herri mugakideek jasan dituzten gorabehera edo une latzetan. Horra, bestenaz, Antso III.a Handia, Antso VII.a Azkarra, Lege Itundua edota, gaur egungo laguntza eskuzabala, Gobernu zentrala sostengatzeko.

Orrialde hauen irakurketak balio behar digu **gure historia**, gure ohiturak, gure folklorea, gure kultura **gaurkotzeko eta gogora ekartzeko**. Erdi Aroan, Nafarroak jakin zuen bere nortasunari eusten, are gehiago, erreferentzia markoa ere izan zen erresuma kristautentzat; Aro Moderanoan, Gaztelarekiko batasun itunaren karira, bere berezko «statusa» gor-

de zuen, Gaztelakoaz bestelakoa izan zena, lurraldea, legeak, eskumen eta gobernuari dagokionean; garai absolutistan, bere identitatea zaindu eta aurre egin zien errege zentralistei, errege horiek behartuz nafar foruen zina egitera; garai liberalean (XIX. m), Estatuarekin ituna egingen du (1841eko Legea), nola halako foru-autonomia mantendu ahal izateko; XX. mendean, bere foraltasuna defendatu zuen Errestaurazioan, Primo de Riveraren garaian, Errepublikan eta frankismoan.

1978ko Konstituzioak, erkidego guztiak, eta beraz, baita nafarrok ere, printzipio handien, funtsezko eginkizunen eta lotura handien inguruko batasunera dei egin digu. Dena dela, Nafarroak lortu du duintasunez trata dezatela eta foru-markoaren barrenean, gainera, Foruaren Hobetzeak halaxe berresten duen bezala. Nafarroak bere foraltasuna gordetzeko eskubidea du erregioen edo nazionalitateen Espainian eta herrien Europan.

Azken buruan, historia **bizitzaren maisua da** eta, halaxe denez gero, balio behar digu, ez iraganeko gertaerez jarrera pasiboa hartzeko, baizik eta ikasbide gisa, akuilu eta pizgarri gisa, egunero gure buruari galderak egiteko eta, gaur egun, gizarteak aldarrikatzen dituen eskakizunei erantzun egokia emateko. Historia bat baita, baina historiaz egiten diren interpretazioak aunitz dira, jakintza alor hau ikertzen duten pertsonak bezainbeste. Horra hor zein den nire desioa eta nire helburua liburu honen bitartez.

1

IRAGANEKO HISTORIA, ORAINA ULERTZEKO ETA ETORKIZUNA AURREIKUSTEKO APUSTUA

Gizarte Zientziak diziplina multzoa dira, jakintza arlo hauen helburua delarik giza taldeen eta gizabanakoaren jarduera aztertzea kolektibitatearekiko harremanetan. Asko dira eta elkarren arteko lotura dute, hala nola: Historia, Geografia, Antropologia, Ekonomia, Soziologia, Zientzia Politikoak, Zuzenbidea, Psikologia, e.a. Hauexek dira elkarren arteko osagaiak: informazioaren azterketa, fenomenoen interpretazioa erlazioko kausa ugarirekin, gizon-emakumeen motibazioak nahiz sinesmenak eta gizakien portaerak gizartean.

Gizakia da iraganetik datorren eta etorkizunean jarraituko duen prozesuan txertatua egoteko gauza den izaki bakarra. Bilakaerazko prozesu horri Historia esaten diogu. Historiak irakasten digu iragana ikertzen eta ezagutzen, hau da, Lurra izeneko planetan gertaturiko gizateriaren gertakari nabarmenenak, zergatien azalpena bilatuz, orainaren ulermena eta konfigurazioa eskuratzeko xedearekin, etorkizunean zuzentasunez joka dezagun.

Hasieran, historia ia modu narratibo hutsean agertu zen, alegiazko edo ohituren kontaketa hutsa bailitzan. Ondoren, gaur egun, egiturak aztertzen dituen zientzia bilakatu da, hau da, esparru geografikoa, gizar-

tea, ekonomia eta talde-pentsamoldea. Beraz, denboraren joanean gizon-emakumeek eragindako gertaeren azpian -gerrak, ohiturak, errege-erreginak, arte-mugimenduak, alderdiak-, behatzeko errazak direnak, badira aztertu beharreko beste errealitate sakonagoak, Historiaren Filosofia deritzona.

Historiaren protagonista, ordea, gizateria da. Ez bakarrik izen handiko gizon eta emakumeak, erregeak, nobleak eta aita santuak bezala, baizik eta giza taldeak. Giza talde horiek dira, borondateak elkartuta, bilakaera historikoan gertaera handiak eragiten dituztenak eta horri intrahistoria deritzo.

1.1. Kokapena denboran eta Historiaren banaketa

Historia, bere hezkuntza-xedearen arabera, bi modutara azaldu dezakegu: jakintza zientifiko gisa edo irakasle-ikasle-jakintzak hari gidariaren bitartez irakatsi behar den irakasgai gisa.

Agitzen diren gertaerak neurtu egiten ditugu. Horregatik, **kronologia edo Denbora Historikoa** historiaren zientzia laguntzailea da, gertakariak datatzeaz eta horien ordena zehazteaz arduratzen dena. Kronologiak erreferentziarik egokiena dakarkigu, gertaerak kokatzeko eta gertakarien ordena hierarkikoa ezartzeko. Nabarmentzen dira aldaketa itzulezinak sortzen dituzten gertakariak, hau da, historiaren benetako eragileak, herrien aurrerabidea markatzen dutenak. Hori gertatzean, gertakarien errepikak errefusatu edota bigarren planora pasatzen dira, eta bakar bakarrik aintzat hartzen dira gizateria etorkizun hoberantz aitzinera jotzen ahalbidetzen duten fenomeno edo gorabehera berezi eta bakarrak.

Hauexek dira maizenik erabiltzen diren denbora unitateak: Olinpiadak (greziarrek erabiliak K.a.776tik goiti), Erromako fundazioa (erromatarrek erabilia K.a. 753tik aurrera), Aro kristaua (erreferentziatzat hartzen da Kristoren jaiotza, urte zeroa) eta Hegira (musulmanena, Kristo ondoko 622an hasia). Halaber, «garaia» ere erabiltzen da. Horren ezau-garria da bizimodu berezia izatea, erromatarren garaia, esate baterako; eta

«belaunaldia», hots, data beraren inguruan jaiotako pertsona multzoarendako erabiltzen da.

Historia, parentesirik gabeko gertakarien segida bada ere, aro edo aldietan zatitzen da, hobeki ulertu dezagun. Horrela, antzeko ezaugarriak edo adinkideak dituzten gertaerak elkartzen dira: **historiaurrea, antzinaroa, erdi aroa, modernoa eta garaikidea**. Esparru geografikoari bagagozkio, hitz hauek erabiltzen ditugu: unibertsala, nazionala, erregionala eta tokikoa.

1.2. Historiaren iturriak

Historialaria era askotariko material multzoaz baliatzen da, iraganeko bizimoduak eta gertaera nagusiak berreraikitzeke. Material horiei iturriak esaten zaie. Lekukotasunak, agiriak edo gauzakiak dira, gertakarien ezagutza osoa edo zatikakoa ematen digutenak.

Iturri Idatziak erabil ditzakegu: historiografia (garaiko edo aurre aurreko kronistak idatzitako kontaketa, hau da, tratatuak, legeak, memoriak, egunerokoak, kronikak, prentsa, literatura-testuak) eta bibliografia (gai historikoei buruz idatzitako lan multzoa). Halaber, **Iturri ez Idatziak** daude, iraganaren testigantzak direnak. Honatx hemen: arte-gauzakiak eta hondar arkeologikoak, material grafikoa eta ikus-entzunezkoa, ahozko tradizioak: esaera zaharrak, ipuinak eta elezaharrak.

Era askotariko materiala da, beraz. Bada, material hori baloratzeko eta iragana berreraikitzeke, historialariak historiari lotuak dauden beste zientzia batzuei heldu behar die: geografia, kronologia, etnografia, paleografia, numismatika, epigrafia, arkeologia, eta abarri.

1.3. Iraganaren ulermena eta azalpena

Historia ez da intuitiboa, baizik eta ikerketa gaia, zeinean zehaztu behar baita gertakariari dagokion gauza oro: zer, nola, non eta zergatik. Denboraren joan-etorrian gertatzen diren giza eta gizarte-gertakarietan,

faktore kausal, pertsonal eta inpertsonal asko elkartzen dira. Faktore horiek direla eta, bilakaera historikoaren gaineko gogoetara eta ulermenera jo behar dugu, eta, horretarako, edukiz eta zorroztasunez beteriko azalpenak eman behar ditugu, kasu zehatzetan gertakariei buruzko iritzia eman badaiteke ere.

Historiaren ikasketa, ordea, ez da bukatzen iragandako errealitatearen ikerketarekin eta ahalik eta ondoriorik benazkoena ematearekin, baizik eta **ikasbide gisa balio behar du etorkizunari begira**. Izan ere, halako jarrera zehatz batzuk hartzera eramaten gaitu: hurbileko nahiz urruneko ondare historiko artistikoaren estimua, hobekuntza eta kontserbazioa; elkertasunean oinarritutako gizarte tolerantean bizitzea ahalbidetzen diguten baloreekiko inplikazioa, eta, gizarte horretan tokia izan behar dute ondoko tasun hauek: gizakien eskubide eta askatasunek, hizkuntza eta kultur aniztasunarekiko begiruneak, eta, oroz gain, lege naturalak aintzat hartuko dituzten portaera moral eta etikoeak.

1.4. Erregioaren historia, historia nazionalaren barnean

Gertakari historikoak ez dira modu isolatuan gertatzen. Izan ere, fenomeno erregionalek, autonomikoez edo foralek euren kokapena dute bloke konpaktuaren barnean. Historia ez baitago zatikatua, baizik eta gertakarien kateaketa da, zeinean ez dagoen pausaldirik, ezta hutsarterik ere; gertakari bat bestearen gainean zimendatzen da, kate-maila estekatuez osatutako katea bezala.

Horrexegatik, ez dira bereizita eman behar historiaren ekarpen handiak gainontzeko gorabehera lokaletatik, hauek marko orokorrean biltzen baitira, diziplinarteko ikuspegian, gainera.

Nafarroako historia ez dago penintsulako gainontzeko lurraldeetatik banandua, ezta Europatik ere. Nafarroa Espainien ibilbidean murgildua dago. Espainiak hitz hori ulertu behar da Estatu osatzen duten autonomia ezberdinen multzoa bezala. Izan ere, Nafarroa erresuma independente gisa errotu zen, baina elkertasunez jokatu zuen data histori-

ko batzuetan. Esate baterako, Antso III.a Handiaren jokabidea edota Antso VII.a Azkarraren nafar soldaduen laguntza Navas de Tolosan (1212), almoaden aurka; laguntza oparo horren ondorio gainera, geroago armarria osatu zen borrokatik zetozen kateekin.

Nafarroa ez zen sekula zokoratua bizi izan bere bide luze eta oparo horretan eta ez zien bizkarra eman gainontzeko auzolagunei, denekin izan baitzituen harremanak. Zenbaitetan, erregeen interesengatik, bestetan nobleen berekoikeriarengatik, eta, gehienetan, Gaztela, Aragoi eta Frantziako erresumek lurraldea kendu nahi izan ziotelako. Beraz, Nafarroako historia, historia Nazionalean eta, oro har, Europakoan ere txertatua dago.

Alde horretatik, adierazgarriak dira Rodrigo Ximenez de Rada Toledoko artzapezpiku nafarrak esan zituen hitzak, Navas de Tolosako batailaren karira: «Gaztela, Portugal, Nafarroa eta Aragoi independenteak dira, baina partaide dira gainean dagoen zeru sabai batean. Zeru sabai hori, geografiaz edo urrutiko latinitateen oihartzun historikoaz harataxeago doa: sentimenduen, interesen edo kulturen jarraipena baita».

I
HISTORIAURREA ETA ANTZINAROA

HARRAPARI ETA NOMADA

2.1. Iraganaren berreraikitzea

Historialariaren helburua gaur egungo gizakia azaldu arte lehenengo hominidoen bizitza eta haien bilakaera prozesua nola garatu zen ikertzea da. Garrantzitsuena ez da garapenaren hasieraren data zehatza zein den jakitea, animalia bat arrazoitzen duen gizaki bilakatzera nola iritsi den jakitea baizik. Horri **hominizazio** prozesua deritzogu; hau da, izaki bat gizakia da egintza adimentsuak egiten dituen.

Hominizazio prozesuaren bidez gure arbasoek gizakien berezko ezaugarriak bereganatu zituzten. Badirudi garapen hori burutzeko laurhun mila belaunaldiz osatutako hamabost milioi urte inguru behar izan zituztela. Lehenengo giza formen garaitik (*australopithecus*) gaur egungo gizakia azaldu arte (**homo sapiens**) bizpahiru milioi urte igaro dira.

Gizadia sortu zenetik lehenengo idatziak agertu bitarteko aldi luze horri **historiaurrea** deritzo. Duela milaka urte lehenengo gizarte historikoak sortu ziren, eta horiei, pixkanaka, Lurrako hainbat lurralde gehitu zaizkien arren, oraindik badira historiaurreari bukaera eman ez dioten populazio sakabanatu batzuk.

Hobeki uler dadin, aipatu aldia bizimoduarekin erlazionatuta dauden zenbait etapatan banatu da: **harri-aroa**, horren barruan paleolito, mesolito eta neolitoa; **metal- aroa**, horren azpietapak brontze eta burdin aroak. Idatzi gabeko iturriek ematen digute orduko gertaeren berri. Antzinako lekukotasunek, esaterako, hondar arkeologikoen, objektu artistikoen, kondairek eta usadioek.

Arkeologia, geologia eta paleontologia oinarrizko tresnak dira gizaki eta animalien hezurren hondarren bidez, tresna eta etxebizitzaren hondarren bidez, iragana berreraikitzeke; horretarako sistemarik erabiliena indusketa da.

Lehenengo gizon eta emakumeen bizitza ikertzeko kontuan hartu behar dira alderdi biologikoak (garezur-edukiera, ingurune naturala eta haren aldaketa), gizarte-alderdiak (hierarkizazioa, giza harremanak) eta alderdi ekologikoak (habitata, etxebizitza, elikadura) haien ingurunearekiko moldatzea, bizimodua eta bilakaera teknologikoa nolakoa izan zen jakin ahal izateko. Datazioa laborategian egiten da. Karbono-14 bidez gai organikoak eta ehun mila urte baino gehiago ez duten antigoaleko gauzak datatzen dira; aldiz, Potasio-40 bidez denboraldi luzeagoak iker daitezke.

2.2. Biziraupenaren bila: paleolitoa

Historiaurrea hitzak jatorri hau dauka: «aurretik» esan nahi duen *aurrea* hitzak eta herrialdeen gertaera eta seinaleak ikertzen dituen *historia* hitzak osatzen dute. Historiaurreak, iraganean, gizakiaren bizitzak izan zuen bilakaera ikustera eramaten gaitu, eta lehenengo idatzietan bukatzen du haren ibilbidea. Bi arotan banatzen da, **harri-aroa** eta **metal-aroa**.

Grekerako *paleo* –antzinakoa– eta *litico* –harria– hitzez osatzen den paleolitoa harri aroaren barruko aldirik luzeena da, bizpahiru milioi urte ingurukoa. **Behe paleolitoan**, gizakiak harrizko (kristal-harriak) eta hezurrezko lanabesak lantzen zituen, eta gizarte-alderdiari dagokionez,

klan txikietan antolatzetik ehiztari-taldeetan antolatzera pasa zen bizi-rauteko, gizakiak ez baitzuen ekoizten, baizik eta elikatzen da basoko fruituak biltzetik, arrantzatik eta ehizatik. Gizakia, beraz, erraria, nomada eta harraparia zen; behin baliabideak agortuta, beste leku batera alde egiten zuen.

Nafarroako lurraldean etapa hori K.a. 20000 eta 8000 urte bitartean izan zen. Klima leuna eta hezea zen; landaretza, belarkiek eta zuhaitz gutxik osatzen zuten; fauna, belarjale handiek (elefanteak, bisontek), haragijaleek (lehoiak, tigreak) eta sarraskijaleek (saiak) osatzen zuten, *fase interglaziarrean* zeuden Europako beste lurraldeetan ez bezala.

Baliteke lurraldean ezarri ziren lehenengo gizaki taldeak, Neanderthal kulturaren hurbilekoak, talde txikietan Ebro haranetik jaitsi izatea. Haien luzera ez zen metro eta hirurogeita hamar zentimetro baino gehiagokoa, eta desagertu egin ziren. Hondar zaharrenak Ega, Arga eta Aragoi ibai-terrazetan eta Urbasa Mendian aurkitu dira, batez ere harrizko lanabesak dira, baina ez hezurrezkoak; hala nola, lantza puntak, aizkorak, harraskagailuak. Ega (Lizarra, Zuñiga) eta Irati (Irunberri) ibaietan, baita Urbasako putzu eta iturrietan ere, harri-kozkorrak eta aurpegibiko aizkora bat aurkitu izanak frogatzen du gizakien kokaleku izan zirela; batik bat, bi kokaleku atari zabalean: Mendialdean (Urbasa) eta Ebroren ibai-adarretako ubideetan.

Erdi paleolitoko moustier aldia (K.a. 75000-35000) aldi glaziarra izan zen, tenperatura baxuko garaia, non zelaiak tundraz beterik zeuden. Moustier aldian hain zuzen ere, Neanderthalgo gizakia txikia baina sendoa zen, eta ehiza egiten zuen. Ehiztari taldeak oinarritzko kanpamentuetara joaten ziren, eta behin animalia harrapatuta, bai elikatzeko, bai jantzi eta tresnetarako baliagarriak gerta zitezkeen zatiak aukeratzen zituzten. Horretarako, aukeraturiko ehizakien arrastoari jarraitu, esetsi, jazarri, eraso egin behar izaten zioten, akabatu arte, animalia basatiek oldartzeko etengabeko arriskua zutela. Harrizko lanabesak perfektionatu zituzten, tresna mota gehiago eta txikiagoak lortu zituztelarik. Gezien puntak forma geometrikoko edo zirkulu-formako segmentuak xartatuta zituzten,

animalien gorputzean talka egiterakoan eraginkorrak izan zitezen. Gaur egungo Nafarroan ez dira gizakien hondarrak aurkitu; Frantziako hegoaldean, aldiz, ibaien terrazetan aurkitu izan dira.

Sua aurkitzeak funtsezko aldaketa ekarri zion eguneroko bizitzari, animaliangandik babestu, gau ilunetan argia eman, elikagaiak berotu eta kobazuloetan egotea atseginago egiten baitzuen.

Goi paleolitoan zehar (K.a. 35000-11000), bi arraza bizi izan ziren, desagertu zen **Neanderthala** eta munduan zehar hedatu zen *Homo sapiens sapiens* –**Cromagnon**–. Egungo gizakiaren antzekoa zen, eta garuna oso garatua zuen. Denbora luzea ematen zuen bere jantziak egiten, arma eta etxerako tresnak lantzen eta kobazuloak apaintzen, helburu erlijioso, erritual edo mitikoak zituela. *Homo sapiens sapiens*-aren ekarpenik garrantzitsuenak labar-artean islatzen da; arte horretan baliabide naturalak aprobetxatzeak eta harri nahiz hezurrekin landutako tresnak erabiltzeak sentsibilitatea, erlijio-zentzua eta gustu estetikoa erakusten du.

Lan-teknikak garatu zituzten eta hartxabalak erabiltzen hasi ziren adar eta hezurrekin beste tresna batzuk egiteko. Harraskagailu, punta eta xixelekin ehiza edo arrantzarako amuak, arpoiak eta bultzatzaileak edo josteko puntzoi eta orratzak egiten zituzten, baita euren burua apaintzeko diadema eta lepokoak ere. Madeleine aldiko hainbat lanabes aurkitu dira Urbanan, Olaztin (Koskobilo), Abaurrean (Zatoia) eta Urdazurin; Abautzeko kobazuloa Arraitzen –Utzama– eta Etxauri ere ez dira ahaztu behar.

Beraz, Cromagnon (*Homo sapiens sapiens*) izan zen Pirinioan eta inguruko mendietan finkatu zen gizaki mota; aurrekoak baino adimen gaitasun handiagoa zeukan, hegoalderantz orientatutako kobazuloak aukeratzen zituen eguzkiak hotz handiak leun zitzan. Nafarroan ia ez dira gizakien hezur-hondarrak aurkitu, Gipuzkoako Urtiaga kobazuloan eta Nafarroa Behereko Isturitzen, ordea, bai.

Bizilekua kobazuloaren hondoan ezartzen zuten, baina sarrerako argia haraino iristen zen. Zirkulu-formako zulo batean sua pizten zuten



MUSEOKO HARTXABALAK. Gaur egun, Nafarroak hartzen duen lurraldean ikus daiteke badirela, paleolitoan barna, giza taldeak aterpetzeko moduko bazterrak eta klima-giroak. Ustiakuntza harrapariko jarduerak garatzen zituzten (ehiza eta basa-produktuen bilketa) eta trebetasun berezia zuten, lanabesak egiteko, sukarria eta kuartzita landuz.

Azken glaziazioa zela eta, euskal Pirinioetan eta Bizkaiko itsas ertzean, kobazuloak eta berokiak aukeratu zituzten aterpe gisa. Halaber, lurraldeko ustiategirik egokienak hautatu zituzten, iraupeneko ekonomia-ri begira.

Nafarroan, hona hemen non diren Paleolitoko giza asentamenduen laginak: Koskobilon, Urbasan, Lezaunen, Lizarran, Irunberrin, Bianan (behe eta erdi paleolitoa) eta Berroberrian, Abauntzen, Erriberrin eta Lexotoan (goi-paleolitoa).

eta haren inguruan esertzeko harriak jartzen zituzten. Animalien larruak janzen zituzten, baita apaingarri eta zinginarriak eramane ere, hala nola, hortzak, kuartozko kristalak edo zulatutako maskorrak.

2.3. Arteari ekiteko era berezia

Goi paleolitoko hotzak gizakiek ordu aunitz kobazulo barruan pasa behar izatea ekarri zuen, eta horrek sormena eta irudimena garatzeko aukera eman zien. Orduan hasitako arte berriaren helburua magiko erlijioso zen, emankortasuna eta ehizari lotutakoa. Hori izan zen gizaki, animalia eta venusen pintura eta eskulturak egiteko arrazoia.

Arte adierazpen horiek historiaurreko gizakiaren erlijio, kultur eta ornamentu zentzuaren erakusle dira, eta aldi berean, adimen-garapen handiaren neurgailu zehatza. Horregatik deritza paleolitoko artea **arte-adierazpenen multzoari**, bai higikorriari, bai labar-arteari. Higikorri euskarri batean landu eta leku batetik bestera mugitu daitezkeen edozein objektu izan dira, adibidez: *Urbanan*, ahuntz bat adar-zilindro batean eta orein bat eta zenbait lau hankako zizel batean; *Abauntzen* zeinu batzuk adar makila batean eta *Zatoian* maskor eta hezurrekin egindako lepokoak.

Labar-artean islatzen den pinturaren errealismoa azpimarratzekoa da; arte mota hori, batez ere, kantauriar eta levante aldean landu zen. Sentimenduak adierazteko modu horren barruan zulo natural eta kobazuloe-tako zoru, sabai eta hormetan eginiko eskultura, pintura eta grabatuak ditugu. Gehien irudikatutako gaiak zeinu geometrikoak, erdi-gizaki, erdi-animalia diren hainbat figura eta, era berean, animalien marrazki ugari dira. Pinturarako, naturatik ateratako elementuak erabiltzen zituzten, ikatza, okrea eta arrautzen gorringoa, esate baterako. Nafarroan aurkitu den pintura multzo bakarra *Alkerdi* (Urdazuri) kobazuloan dago; figura grabatuen hamar gaik osatzen dute, eta korridoreko zaldia, bison-tea eta oreina dira aipagarrienak.

2.4. Atapuerca eta gure arbasoak aurkitzeko itxaropena

Atapuerca, Burgosko herria, munduko paleontologian, arkeologian, geologian eta antropologian adituen miran izan da 1970az geroztik. Bertan, iragana eta orainaldia lotuko dituen gizadiaren kate handiaren kate-maila galdua aurkitzeko itxaropena dute; hots, animalia eta gizaki adimentsuaren arteko zubia. Lehenengo hominidoetatik gaur egun bitarteko errealitate historikoaren berri emanen ligukeen lotura aurkitzea da. Ametsak Atapuerca du izena.

Sima de los huesos eta *Trinchera Galerian* **800.000 urte inguruko antzinatasuna duten gizaki-hondarrak** agertu dira. Aurkitu dituzte gizakiaren oso antzeko eskeletoak, garezurrak, kopetak, beso, esku eta oinen hezurak, baita hartz, orein, lehoi, bisonte eta zaldien fosilak ere.

Hala ere, ez dago inolako ahaidetasunik Atapuercako gizakiaren –K.a. 50000 urte inguruan desagertu zen Neanderthal gizakiaren oso hurbilekoa– eta gugandik oso hurbil dagoen madeleine aldiko (K.a. 20000-2000) Cromagnon (Altamira-Cantabria) gizakiaren artean.

Bestalde, Atapuercak Nafarroako historiarekin lotura handia du. Goi erdi aroan, Gaztelako herrian Antso Handiaren semeen arteko borroka asko gertatu ziren, hau da, Nafarroako Gartzia Santxez III.aren eta Gaztelako Fernando I.aren artean. Izan ere, 1054ko irailaren 1ean, nafar eta gaztela-leondarren arteko guda piztu zen, eta bertan Gartzia borrokan hil eta galdu egin zuen. Lekuari Campo de Matanza izena jarri zioten.

2.5. Klimaren normalizaziorantz

Aro batetik bestera igarotzea ez da aldaketa bortitza izaten, aroak banatze itxiak balira bezala. Historiaurreko gertaerak hausturarik gabe jarraitzen zaizkio bata besteari; gizakiaren bizitzaren antzeko prozesu trinkoa da, haurtzarotik nerabazarora, heldutasunera eta hirugarren adinera. Horrela, paleolitotik neolitorako aldaketa ez zen bortitza izan, mesolito izeneko erdiko etapa baten bidez edo epipaleolitoren –paleolito-

ren bukaeraren– bidez modu jarraikorrean bizimodu berrietara egokituz joan zena baizik.

Hori dela eta, bi kultura paralelo izan zirela esatea komeni da. Bata bilakaera prozesu naturalari jarraitu zitzaion, gizarteak nomada izateari utzi eta sedentario nahiz ekoizle bihurtu baitzen; besteak, aldiz, usadioari eutsi zion eta haren ekonomiak ehizan eta arrantzan oinarritzen jarraitu zuen. Lehenengoan aritzeko modua da aldatzen dena: **lanabes aurrera-tuagoekin lan egiten du**, esaterako, arkuekin jaurtitako gezi, hezurrezko amu eta sokaz egindako sareekin. Berroberrian (Urdazuri) arrain, itsas-ki eta itsas kurkuilduen maskorren hondarrak aurkitu dira; Padre Areso (Bigotzari), La Peña (Marañon) eta Aizpea (Aribe) izeneko tokien berokian, berriz, ehizarako tresneria eta etxeko tresnak.

Bestalde, zenbait lanabesen izenen «*aiz*» erroa dela eta, –aitzur, azkon, aizkora– ondoriozta dezakegu eneolitoan jada, Cromagnon motako euskal asentamenduak izan zirela Pirinio aldean.

(K.a. 8500 eta 6500 urte inguruan lurrazalak klima aldaketa izan zuen, eta horrek fauna eta landare-estalkia ere aldatzea ekarri zuen. Klima leunagoa izanik, gizakien kokalekuak altuera handiagoko eta barruragoko lurraldeetara mugitu ziren, hain zuzen ere Nafarroako aurrepirinio eta erdi alderantz.

Flora eta faunari dagokionez, belarkiak gutxitu eta hurritz, zumar, haritz, pago eta iratze oihanak ugaritu ziren; aldi berean, ingurumenera moldatutako animaliak (basurdeak, oreinak) ugaritu eta aurrekoak (bisontea, elur-oreina) beste latitude batzuetara joan ziren.

3.1. Nekazari eta ekoizleak: neolitoko iraultza

Trantsizio edo mesolito aroan, klimak aldaketa handia izan zuen, tenperatura leuntzeak gizakia ibai arroetan lur hobeak eta beste baliabide nahiz elikagai batzuk bilatzera bultzatu baitzuen. Beste etapa bat hasi zen, aurretik gizakiak ez baitzuen elikagairik ekoizten eta harrapari, nomada eta ehiza nahiz arrantzaren menpekoa baitzen.

Neolitoa edo leundutako harri berriaren aroak (K.a. 4500-2500) beste kontzeptu bat, bizitzaren aurrean beste jokaera bat adierazten du, egonkortasun ekonomikoa lortu eta espeziearen etorkizuna ziurtatu zuelako. Gainera, gizataldeak lurrari lotu zitzaizkion nekazaritza-jardueraren bidez, kobazuloak utzi eta txaboletan kokatu ziren atari zabalean, haien jabetzetatik hurbileko herrixketan. **Ingurune naturala (landareak) eta abere-ingurunea menperatzen** hasi ziren, **nekazari eta abeltzain** bihurtuz. *Neolitoko iraultza* dugu.

Bizimodu berriak mentalitate aldaketa kolektiboa sorrarazi zuen: herrixken antolaketa berria; lan banaketa; etxebizitza egonkorra atari zabalean eta tretxu egokia, elikagaiak biltzeko ontziak (zeramika); erein eta uzta biltzeko naturaren zenbait lege ikastea, eta txabolatik hurbil bes-

te sail batzuk, ukuiluak, eraikitzea. Ekoizpenen soberakinek merkataritza-zen sistema eratu zuten, produktuen trukea edo aldaketa. Bestalde, bizi-kalitatea hobetu zenez, hilkortasun tasa jaitsi eta populazioa ugaldutzen; horrela, taldeak izatetik etniak izatera pasatzen dira, hierarkia bidez antolatutako gizartea eratuz. Horrek ere beste kokaleku batzuk bilatzeko migrazioak eragin zituen.

Dena dela, habitat finkoa zuten lehenengo biztanle horien bizitzaren kontzeptu berria ez zen leku guztietan batera garatu. Ekialde Hurbi-lean Kristo aurretik zortzigarren milurteko inguruan agertu zen, baina mediterraneo aldean laugarren milurteko inguruan eman zioten bidea. Horrek esan nahi du gaur egungo Nafarroan neolito eta burdin aroaren arteko epea laburragoa izan zela.

Abauntz eta Zatoian, K.a. 5000 urte inguruan, artean, apaindu gabeko ontzi zatiak eta leundutako harriaz egindako lanabesak agertu dira. Nafarroan agertu diren etxeko abereen hondarrak neolitoko bukaerakoak dira. Izan ere, Zatoiaiko kobazuloan aurkitutako aztarnategiek erakusten dutenaren arabera, ordura arte animalia basatiak ehizatzen jarraitzen zuten ondorengo proportzioan: ehiza xehea –ahuntzak, orkatzak eta oreinak– %7, eta basurdeak %73. Etxeko abere bakarra **txakurra** zen.

Horrek adierazten du behe eta erdi neolitoan zehar mesolitoko ohi-turei eutsi zietela, hau da, kobazuloetan bizitzeari, harrapatu eta ehizatze-ari, eta neolitoko bukaera arte (K.a. 3200-2400) ez zela finkatze prozesua eta nekazaritza nahiz abere-iraultza hasi. Orduan hasi ziren Mendebaleko Pirinioan, esaterako, ardi, behi eta txerri-aziendekin. Azken garai horretakoak dira Urbasan, La Peñan (Marañon), eta Padre Areson (Bigotzari) aurkitutako etxeko animalien hezurak, baita Iruñerriko ibai-terrazetan aurkitu diren igitai-xaflak, zeioak, aizkorak eta esku-errotak ere.

3.2. Metal-aroa

Nafarroako lurraldea, kokapen geografikoa zela eta, beti izan zen asentamenduei eta beste herrien eragin kultural eta teknikoak jasotze-ari

irekia; batzuetan hurbiltasuna zela, bestetan produktuen trukea, eta, gehienetan, bertako asentamenduak zirela edo beste leku batzuetara igerotzeko ezinbesteko bidea zelako.

Kristo aurretik lehenengo milurteko inguruan Europako hegomendebaldean gizadia sustatu zuten bizimoduak sortu ziren, eta Nafarroari mesedegarri gertatu zitzaizkion. Nola iritsi ziren berrikuntza horiek penintsulako iparraldera? Europako erdialdeko inmigrazioen ondorio izan ziren? Badirudi aurrerapen historiko hori gertatu ahal izan zela, lehenik, Akitanian bizi ziren herrialde zeltarren eraginari esker, eta bigarrenik, mesetako «Las Cogotas» en kultura (Los Millares) eta Ebro haraneko herrien arteko harremani esker.

Horrela, hiriaren fenomenoak sendotu zen, eta herri asko ibaiertzetan edo altuera aski handiko leku gotortuetan ezarri ziren, adibidez, Iruñean, Larragan, Arguedasen (El Castejon), Mendabian, Lodosan (El Castillar), Urantzian (La Atalaya) edo Artaxoan (Dorre).

Etxadi eta kalez banaturiko herrixketan bizi ziren; harresi, dorre eta lubanarroak zituzten babes. Etxeak harriz eta pezoz egindakoak ziren, zirkulu-formako oinplanokoak edo oinplano laukizuzenekoak, zehazki. Elikagaiak gordetzeko mota guztietako tresnak zituzten, euren burua hornitu ahal izateko. Cortesko aztarnategiak adierazten duenez, pertsonak, ehi-za baino, elikatzeko nahiago izaten zituzten etxeko animaliak; batez ere, ardiak, txerriak, ahuntzak eta zezenak jaten zituzten. Gehienek pertsona hildakoak erraustu egiten zituzten eta errautsak kutxa batean gorde.

Produktuen trukeari dagokionez, esan behar da merkataritzari ekin ziotela, batik bat, labore eta metalurgi objektuenari. Ordaintzeko, iberiarrek egindako zilar eta brontzezko txanponak erabiltzen zituzten. Iruñetik hurbil, Barscunesen, (K.a. 100-75) txanponak egiten ziren.

Beraz, Nafarroako lurraldean, burdinak aroari izena eman dion arren (burdin aroa) **herrixketan ia ez da metal horren arrastorik aurkitu**. Bitxia da burdin aroaren lehenengo garaian (K.a. 900-350) brontze-

aren metalurgia osotasunean garatu izana; garai horretako belarritako, eskumuturreko, gerrikoen krisketak, lepokoak aleak, e.a., aurkitu dira. Horrez gain, eskuz egindako zeramika arre belzkara oso garrantzitsua izan zen eta tamaina handiko sukaldeko ontzi kopuru handia aurkitu da.

Burdin aroko bigarren aldian (K.a. 350-200) metala maizago erabiltzen hasi zen, *Etxauriko* arma eta tresnek erakusten duten bezala; hala ere, apaingarriak oraindik brontzez egiten zituzten. Tornuan landutako zeramika da agertzen den berrikuntza, oso zeramika landua da, marroi argi kolorekoa eta marra geometrikoen bidez apaindutakoa.

3.3. Adierazpen artistikoa

Artea. Aurretik ikusi ditugu behe eta erdi paleolitoko gizakien adierazpen artistikoak, arte higikor eta labar-arte, alegia, eta Nafarroako lurraldea mugimendu horren gune handien artean zegoela (Akitania, Erdiko Pirinioa, Kantabria). Hala eta guztiz ere, Nafarroako irudi bakarra **Urdazurin** dago.

Etxauri eta **Ziritzako** grabatuak ondorengoaldi batekoak dira (K.a. 3250 –1000), guztiek estilo eskematikoa dute, trazu xumekoak eta gorritz nahiz beltzez egindakoak dira. **Leartzan**, Peña del Cuarton, lau hankako animaliak eta zaldizkoak irudikatzen dituzten zenbait marrazki eskematiko ikus daitezke. Ez da ahaztu behar hainbat apaingarriren aurkikuntza, esaterako, botoiak, gerrikoen belarriak eta lepokoak. Arte higikorari dagokionez, badira helburu magiko edo estetikoak duten objektu asko; neolitoko bizitzari buruzkoak dira, hildakoei buruzkoak, bereziki (megalitoak). Baina badira beste batzuk ere, adibidez, harri berdeko aleak eta Aitzbitako txilibituak.

Protohistoriako (brontze eta burdin aroak) edo historiaren aurretiko arteari dagokionez, esan beharra dago metalurgia eta buztzingintza-teknika berriak aurkitu zituztela, eta hezurra, harria, buztina eta metala izan zirela erabilitako materialak.

Nafarroan badira zenbait eredu, baina, Ebroko haranean gertatzen

den bezala, gehienak beste lekuetako artisten kopiak dira. Hezurra oso erraza da lantzeko eta aurreko garaietan oso ugaria zen, baina hezurrezko hondar gutxi gelditu da, bi gezi punta eta labanendako kirtenak; harriz egindakoak, etxebizitzetako harlanduzko hormak eta galdaketarako moldeak ditugu (Bargotako Castejon); zeramikan ontziak ditugu, eta haien apaingarri eta formaren arabera (Nafarroan geometrikoa da garrantzitsuen), bereiz daitezke lanak iraun zuen denboraren etapak eta zein motako familiari zegokion, ontziak, bakoitzaren ekonomiari eta gizarte mailari egokitzen baitzitzaizkion. Brontze eta burdin aroetako faseak bereiz daitezke, eskuz modelatu ziren edo tornua erabili zuten, baita garaiko moda zein zen ere.

Historiaurreko aldirik oparoena eta aurreratuen **metal** aroa izan zen; orduan meategiak ustiatu, minerala lingoteetan galdatu eta zenbait merkataritza-saretan banatu zen. Minerala landare-ikatzarekin galdatzen zuten labeetan, eta harrizko moldeetara isurtzen zuten. Nafarroako lurraldea ez zen erauzketa gune, ez ekoizle, ezta merkatal-bidea ere izan. Horregatik, guregana oso pieza gutxi iritsi dira, apaingarriak (lepokoak, eskumuturrekoak, diademak, buru-orratzak, gerrikoetarako belarri eta krisketak), eta zenbait arma eta txanpon.

3.4. Hizkuntza-adierazpena

Hizkuntza. Euskaraz, *euskara* hitzak «hizkuntza» esan nahi du, eta *euskaldun* hitzak, «euskara duena»; baina nondik ote dator?, Akitaniako lurraldearekin harremana du edo jatorri indoeuroparra edo afrikarrekoa da? Burdin aroan, Nafarroako lurraldean kokatu ziren herriek baskoi izena ematen zieten bertakoei. Halere, testu grekolatindarren garaia arte itxoin behar dugu (K.a. II. mendea baino geroago) ondoko populazioek eta, eurek bere buruari, zein izen ematen zioten jakiteko. Bestalde, Iruñetik hurbileko komunitateek, hispaniar asentamenduei jarraiki, iberiar grafia zuten zilar eta brontzezko txanponak egiten zituzten.

Dena den, ez da erraza euskara noiz sortu zen zehaztea. Badira komunean «aiz» elementua duten hitzak, adibidez, aitzur, aizkora, aizto; horregatik baliteke eneolitoan jada, hitz egitea. Horrez gain, erromatartzearen hedatze garaiarekin bat ez datozen kondaira, mito eta sineskerietan badira beste hitz batzuk, euskararen antzeko morfemak agertzen dituzten esamoldeak dituztenak.

Ez da nahitaez lehenengo baskoiak kokatu ziren unea hizkuntzaren erabilerarekin lotu behar; baliteke geroago bereganatu izana, Kristo aurretik bigarren milurteko inguruan, hain zuzen ere Afrikako iparraldetik etorritako herriak (iberiarrak) edo Asia Txikian jatorria zuten Kaukaso aldeko herriak iristearekin batera. Horiek metalurgiaren teknika eta beste kultur aurrerapen batzuk ekarri zituzten.

Horrenbestez, biztanleen artean nolabaiteko **homogeneizatzea** gertatzen dela suma daiteke, **hizkuntzaren, kulturaren eta etniaren alorrean**; homogeneizatzeko horrek antzinako asentamenduak eta heldutako biztanle indoeuroparrak zituen oinarri. Zailtasunak izan arren, hurbiltasunak hizkuntzaren mestizajea eta kulturen estekadura ekarri zuen berekin. Haatik, Mendialdean, orografi zailtasunak zirela eta, abeltzaintzan aritzen ziren bertakoek isolatuta jarraitu zuten nolabait. Baliteke indoeuroparrek ere, nahiz eta mendebaleko pirinioak zeharkatu, iparraldeko biztanleekin harremanik ez izatea, eta nekazaritzan aritzeko egokioak ziren lurralde lauagoetan kokatzea, Nafarroako erdialde eta hegoaldean, alegia.

Azken ikerketen arabera, ez du ematen indoeuroparrak ezarri aurretik Nafarroako erdialde eta hegoaldeko lurraldeetan, bertakoez gain, herri horiek zurgatu edo beste leku batzuetara mugiarazi zituzten beste kulturarik egon zenik.

Nafarroako lurraldeko hego eta iparraldeko biztanleak elkar ulertzer behartuta zeuden, eta denboraren joanean kulturen arteko sinbiosia lortu zuten, non indartsuagoa zen kultura indoeuroparra nagusi izan zen. Prozesu natural horrek, ordea, ez zuen erromatarren garaian eraginik izan,

eta, merkataritza-harremanak izanagatik ere, euskal kulturak usadio askori eutsi zion, batez ere *bardulo*, *autrigoi*, *karistio* eta *akitaniarrek*in batera izan zuten hizkuntzari.

Gerora, jatorrizko herriek adierazteko zuten erari *lingua vasconica* izena jarri zioten. Mendialde osoan, mendebaleko Piriniotako iparraldeko isurialdea barne, euskaraz hitz egiten zuten. Ebroko haranean dialekto indoeuopar erabilienak iberikoa eta zeltikoa izan ziren, eta gero, Bardena eta Zarrakaztelun izan ezik, Nafarroako erromantzeak eta latinak ordezkatu zituzten.

Ondorengo mendeetan, Nafarroako lurraldea eratzen joan zen neurrian, euskaldunen hizkuntza (*lingua basconum*) eta nafarren hizkuntza (*lingua navarrorum*) parekatu ziren. Mintzaira hori **Nafarroako lurraldearen hizkuntza** zeritzonetik bereizten zen, hau da, azken horrek latindar jatorria zuen, gaztelararen ahaidea zen eta hizkuntza erromantze edo nafarrarekin erlazionatzen zen.

Prozesu konplikatu da, oraindik ez da azkeneko hitza esan eta historialari guztiak ez datoz bat jatorriaren eta ondorengo prozesuaren azalpena ematerakoan. Oraindik beste ekarpen batzuk sor daitezkeelako itxaropena dute.

3.5. Hildakoak gurtzea

Bizitzaren ikusmolde berriak, sinesmen berriak eta hildakoen gurtzak, monumentu megalitikoetan (harri handiak) islatzen diren adierazpen artistikoak ekarri zituzten berekin. Monumenturik adierazgarrienak ondoko hauek dira: **iruinarr**ia, bertikalki ezarritako harri handi bat; **triku**harria, bi harri edo gehiago bertikalki jarriak eta beste harri batzuek estalita; eta **harrespila**, zirkuluan jarritako iruinarria eta trilitoek osatua.

Gizakiak bazekien izadiaren indarren menpe zegoela: heriotza, beste mundua, ekaitzak, urakanak, euria, lehortekak, eta abar. Hasiera batean, apetak emana gertatzen zirela uste zuten, horregatik emankortasunari

kultua eginez, jainkoak edo izadiaren indarrak gurtuz eta errito magikoak eginez, botereak laudatzen zituzten euren patuak alda zituzten.

Neolitoaren hasieran, hildakoak fetu-jarreran toki jakinetan ehorzten zituzten, adibidez, gizabanakoendako hilobiak, etxeen artean edo hilerrietan, eta, batzuetan, elikagai eta objektu pertsonalekin batera. Gizakien mentalitatea heriotzaren eta beste munduko bizitzaren beste ikusmolde baterantz garatu zen neurrian, monumentu megalitikoak ugarituz joan ziren. Hori aldi zehatz batean eta talde nahiz kultura jakin batzuekin gertatu zen, alegia, Erdiko neolitotik brontze arora bitartean ia mendebaleko Europa osoan.

Penintsulako iparraldera Kristo aurretik hirugarren milurteko aldeira iritsi zen mugimendu hori. Guztiak ez ziren monumentu handiak izan, tumulu eta iruinariak ere aurki ditzakegu. Harri izugarri handi horiek agertzeak ehorzketek zuten garrantzia frogatzen du; horrelako harriak jasotzea oso zaila zen, eta ehorzketak famili edo auzo taldeetan egiten zituzten. Tresneria eta monumentuaren konplexutasunaren arabera, jakin dezakegu hildakoaren gizarte-maila zein zen.

Nafarroako lurraldean lau mota bereizten dira: a) **galeria estalia**, b) **korridorea duen galeria eta hilobi-ganbara** batera dituenak –Arrako Erronkarin–, c) **korridorea duen hilobia**, ganbara eta pasabidea bereizita dituenak –Urbasa– eta d) **trikuharri arrunta**, harlauza bertikalak eta bi harlauza edo gehiago horizontalean ezarrita dituenak –Etxarri Aranatz–. Ezin dira Artaxoako trikuharri handiak ahaztu; halaber, Ziraukikoa edo Bianako hipogea –lurrez estalitako harresiz egindako hilobia–. Zaila da Baztandik Aralar eta Urbasaraino aurkitu diren hamabi iruinari ezberdinei azalpena ematea.

3.6. Idatzietatik urrats batera: protohistoria

Gizadiaren garapena ez zen leku guztietan batera gertatu. Kristo aurretik lehenengo milurtekoan nekazari erkidego batzuk Niloko haranean kokatu ziren; horiei dinastia multzo zabala, xxx hain zuzen ere, jarrai-



FARANGORTEAKO TRIKU-HARRIA ARTAXOAN. Artaxoako dermion dagoen arkeologia-aztarnategia, Maluquerrek aurkitua. Bazegoen eneolico-bronze aroko herrixka bat, txabolak zituena. Aizkora leunduetatik eta zeramikatik hurbil zegoen industria zuen.

Historiaurreko gizarteak, idazketa ezagutzen ez duten herriak dira eta beren ezagutzak nahiz tradizioak ahoz transmititzen dituzte. Hortik dator euren aztarnategiak interpretatzeko zailtasuna.

Fenomeno kultural megalitikoak, neolitikotik bronze arora doan denboraldi kronologikoan garatu zen. Giza mentalitateak historiaurrean izan zuen bilakaeraren adierazpen bat gehiago da. Heriotzaren kontzeptu berria dute, beste munduan beste bizitza bat dagoela sinesten duten bezala. Horregatik, ehorzketak hilibi-erritoz eta misterioz hornituak egiten dituzte. Monumentuen konplexutasun maila eta tresna kopurua dira hildakoaren maila sozialaren berri ematen diguten adierazle fidelak. Azken finean, horrexek ematen die hilibiei eternitaterako etxebizitzaren izaera.

tu zitzaizkien. Eraiki zituzten jauregi eta hilobiak, faraoiek, batez ere Antzinako Erresuman, lortu zuten botere handiaren erakusgarri dira.

Hirugarren milurtekoan Egiptoko Keops, Kefren eta Mizerino hilibi-eraikinak eta Gizehko esfingea, hildakoen hiria, Ekialde eta Mendebaldearen arteko ezberdintasun kulturalen adierazle bihurtu ziren. Sumeriarrek (laugarren milurtekoa), Sirian, alfabeto kuneiformea – ziri formako karaktereak – erabiltzen zuten, eta puntzoi batez buztinezko oholen gainean idazten zuten; hori izan zen lehenengo dokumentu idatzia. Egip-

tiarrek idazkera piktografikoa erabiltzen zuten (figurak marrazten zituzten), horren eredu dugu Rosetta harria. Bitartean, mendebalean kultura megalitikoan zirauten.

Alfabetoa feniziarrek asmatu zuten, baina beste herri batzuek ere –hebraitarrek eta arameoek– erabili zuten. 22 letra zituen, kontsonante bana ordezkatzeko zutenak, eta ez zuen bokalik. Sistema hori, erabilterraza, azkar hedatu zen eta idazketa gizadiaren ondare bilakatu zen.

Ekialdean historian sartu ziren; idazketa perfektionatu zuten, idazketa hieroglifikotik hieratikora (papiro gainean) pasa zen eta, ondoren, idazketa demotiko edo popularrera. Bitartean, Europako hego-mendebalean burdin aroa hasi zen. **Nafarroako lurraldean**, ibaiertzetan eta harrizko gotorleku naturaletan herrixka ugari eraiki zituzten: Tutur-mendia (Oteiza), Muru Astrain (Sansol), El Castillo (Castejon).

Alto de la Cruzen (Cortes), Castillarren (Mendabia) eta Custodian (Biana) ikus daitekeenez, gizakien asentamenduak karriketan antolatuta zeuden. Etxeak 90-100 m².koak ziren, eta zirkulu edo angeluzuzen formako oinplanoa zuten. Zimenduen gainean pezo, harri, edo zurezko partak altxatzen ziren, eta lokatzez estaltzen zituzten tenperatura aldaketa bortitzak gertatzekotan babestearren. Teilatua kanabera eta adarrez egindakoa izaten zen, eta etxe guztia harresiz inguratua zegoen. Altzari ugari zituzten, hala nola, bankuak, jakitokiak, errotak, erretegiak, baita animaliak gordetzeko kaiolak ere.

Hileta-kulturari dagokionez, **errausketa** izugarri zabaldu zen; errausak buztinezko ontzi batean biltzen zituzten eta harlauza edo lurrezko tumuluz babestutako aretoetan edo herrixkatik gertuko kutxa-hilerri batean gordetzen zituzten. Azkeneko ohitura oso arrunta zen hegoaldean (Cortesko La Atalaya eta Valtierra La Torraza). Mendialdean errausak lurrean jartzen ziren, eta inguruan edo tumulu eran harriak paratzen zituzten.

Baina, ia burdinaren arrastorik aurkitu ez bada, nola iritsi ziren lurralde honetara burdin aroko kultur berrikuntzak? Baliteke izatea

Europako erdialdeko herrien inbasioa gertatu zelako (hallstattikoak, indoeuroparrak eta zeltak), Gaztelako mesetan garatutako Las Cogotas deitu kulturarekin harremanak izan zituztelako edo Akitanian ezarritako herri zeltak hurbil zeudelako.

Tornuz egindako eta zeltiberiarrengandik (K.a. IV. m) jasotako estiloerri jarraiki pintatutako zeramikek, etxebizitzetan pintatutako hormetako apaingarriek, hilarriek edo gurpil-errotek erakusten digute aurrerapen teknologiko berria eta beste herri batzuekiko harremana ere bai, Ebro haranaren bitartez egina, batez ere,.

Hala ere, Legingo gainean (Etxauri) erromatartzeari aurrekaria ezartzen dioten hondar gutxi agertu da, hots, animalientzako burdinazko uhaleri eta nekazaritzarako lanabes eredu urriak azaldu baitira. Iberiarrek egindako brontze eta zilarrezko txanponak ez ditugu falta (Iruñeko katedraleko monetarioa); horrek ondoko herriekin zuten merkataritza jardueraren berri ematen digu. Merkatal-harremana bereziki Ebroko haraneko herriekin zuten –gari, garagar, bazka eta baien ekoizpen intentsiboa, behi eta ardi aziendak–.

Hurrengo aroa K.a. II. eta I. mendeetan hasi zen, historialari eta geografoak grekaraz, haien aurretik izandako biztanleei buruzko gertakariak idazten hasi zirenean. Beste aldi historiko bati ekin zioten. Jada, ez dugu hondar arkeologikoetan oinarritutako suposizio edo dedukzioez hitz eginen; gertaerak, protagonistek kontatuak izanen ditugu, hots, errealitatea edo egoera jakin bat *in situ* bizi izan zutenek kontatua. Horri **historia idatzia** deritzogu, alegia.

BASKOIAK ETA ERROMATARTZEA

4.1. Baskoiak, berezko hizkuntza eta nortasuna zuen herria

Ebro ibai arroan eragin indoeuropar eta zeltikoak dituzten burdin aroko aztarnategiak aurkitu dira. Aurkitutako ehunka kastruk berezko ezaugarri etniko, kultural eta linguistikoak zituen herria erakusten dute.

Akitania, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan aurkitutako hezur-hondarrek frogatzen dute *type basque* izendatutako gizaki mota bizi izan zela. Iruñerrian *varskunes* inskripzioa agertzen duten txanponak aurkitu dira; horiek pirinio arroan bizi ziren herriekin erlazioa daitezke. Salustio (K.a. 86-35) izan zen *baskoi* hitza idatzi zuen lehenengo historialarietariko bat, eta Augusto enperadorearen garaiaz geroztik, erromatarrek horrela deitzen zieten herri horiei.

Erromatar iturriek diotenez, baskoiek gaur egungo Nafarroa hartzen zuten, eta Gipuzkoako ipar-ekialderaino, Errioxako iparralderaino eta Zaragoza nahiz Huescako ipar-ekialderaino hedatzen ziren. Pirinioak iparraldeko muga naturala ziren. Erromatarrek, lurralde horretan **Vasconum Ager** (lautada) eta **Saltus Vasconum** (mendialdea) bereizten zituzten.

Herri hori ez zen isolatua bizi, ondoko herriekin harremanak izan baitzituen, eta horiek bizimodu eta tekniketan eragina izan zuten.

Haien hizkuntza **euskara** zen, latina, gaztelera, erromantze nafarra eta okzitaniera baino zaharragoa den hizkuntza. Ahozko hizkuntza, euskara, mendialdean –mendebaldeko pirinioak barne– hitz egiten zuten. Ebroko haranean, aldiz, dialekto indoeuropar, zeltiko eta iberiarrek aztarna hutsalak utzi zituzten, eta latina, erromantze nafarra eta gaztelera nagusitu ziren. Hegoaldean, beraz, Bardea eta Zarrakaztelu izan ezik, ia ez dugu herri euskaldunik aurkitzen; eta, alderantziz, lurralde euskaldunean ez dirudi hizkuntza erromanikorik hartu zutenik.

Baskoiek herri homogenea izateari utzi zioten 1. burdin aroan (K.a. 900-500) indoeuropar izeneko herriak aldizka baina etengabe iritsi zirelako, eta horiek etnia eta kultura dualtasuna ekarri zuten.

Nafarroako Pirinio aldetik iristen ziren indoeuroparrak ez ziren Nafarroako iparraldean ezartzen, leku menditsu eta babesgabea baitzen, non bertakoek abeltzaintzan ziharduten. Erdialde eta hegoaldean ezartzen ziren, bertan nekazaritzan jarduteko lurralde zabal eta emankorrak aurkitu baitzituzten. Lurralde horiek leku batzuk besteekin komunikatzeko ibilbideak zituzten eta ibaiertz nahiz ibarretan zeuden. Bertakoak ere han bizi ziren, beraz bi motako biztanleak bizi ziren: **indoeuroparrak eta bertakoak**.

Asentamenduen hurbiltasun horrek herrien arteko halabeharrezko harremana ekarri zuen, eta transkulturizazioa eta mestizajea sortu zen.

4.2. Baskoien bizimoduak

Arkeologia-datuek adierazten dute gaur egungo Nafarroako iparraldeko aldean, bertako biztanleak abeltzaintza jarduera tradizionalari lotuta zeudela eta **bizirauteko ekonomia** zutela. Herrixketan bizi ziren, haien usadioei eusten zieten eta ia ez zuten harremanik beste lurralde batzuekin.

Baskoiek ez zuten biztanle guztiengan eragina zuen antolaketa poli-

tiko-administratiborik, antolaketa, familia eta taldeen arteko harremanean oinarritzen baitzen. Baina erdialde eta hegoaldean lehenengo eta bigarren mailako asentamenduak zeudenez, herri-agintaritza beharrezkoa zuten.

Herri nagusietan, inguruko bigarren mailako asentamenduetan eragina zuten funtzio politiko eta erlijiosoak betetzen zituzten. Bigarren burdin aroan (K.a. 500-450) izandako aldaketek garapen ekonomiko handia ekarri zuten herrixka askotan.

Nafarroan aurkitutako gizatalde guztiek ez zuten espazioa era berean antolatzen, ezartzeko erabiltzen zuten luraren formaren arabera, egiten baitzuten. Dena dela, guztiek **antzeko ezaugarriak** zituzten: ugaldeen eta komunikatzeko bideen ondoan jartzen ziren; asentamendua harresiz inguratzen zuten; etxeak inguruko materialez egiten zituzten, hala nola, harriz, pezo edo biak erabiliz. Etxeek oinplano karratua edo laukizuzenekoa izan ohi zuten, errenkan jarrita zeuden bata bestetik hurbil. Beraz, nolabaiteko karririk osatzen zituzten.

4.3. Hispania, erromatar probintzia

Erromatarrak K.a. 218 urtean iritsi ziren iberiar penintsulara, eta Levante aldetik eta hegoaldetik sartu ziren. Kartagoarrak garaitu ondoren, penintsula hartzea erabaki zuten, bai arrazoi ekonomikoengatik, lurraldeak nekazaritza eta meatze-baliabide handiak baitzituen; bai arrazoi estrategikoengatik, Mendebaldeko Mediterranea menperatuta, kanpoko erasoan aurrean babestu ahal izanen baitziren.

Badirudi gaur egungo Nafarroako hegoaldera K.a. II. mendean iritsi zirela. Iritsi zirelako berri ziurrak K.a. 75 urtekoak dira; garai hartan, Salustio historialariak, **Pompeyo Magno** jeneral erromatarrak, armadarako hornidura lortzarren, baskoien lurraldera alde egin zuela idatzi zuen. Gertaera horrek, baskoiek jeneral horrekiko jarrera ona zutela pentsarazten digu.

Pompeyo baskoien lurraldean egotea lotuta dago baskoien herrixka

baten gainean bere izena daraman hiria –Pompaelo (Pamplona)– sortzeari. Hiriari, eraiki duen sortzailearen izena jartzea ekialdeko tradizioa zen.

Erromatarrek, behin Hispania hartuta, administrazioaren antolakuntza egin zuten eta hiru probintzia handitan banatu zuten: **Betika, Lusitania eta Tarraconense**. Probintzia bakoitza barruti edo *komentue*-tan bereizi zuten, eta horiek toki-komunitateetan.

Toki-komunitateek kontuak komentu eta probintziako administrazioei eman behar zizkieten.

Gaur egungo Nafarroa, Caesaraugusta (Zaragoza) komentuaren barnean sartua gelditu zen eta, aldi berean, komentu hori Tarraconense probintziaren barnean sartua zegoen.

4.4. Erromatartzea, herri eta hirien moldatzea

Erromatarrek, penintsulak garai hartan zuena baino azpiegitura handiagoa zuten, eta eragin kulturala nahiz politikoa izan zuten bertan.

Erromatarrak konturatu ziren gaur egungo Nafarroako iparraldeko mendialdea (pirinioak) oihanez beteriko lurralde malkartsua zela, bertako herriak antolatu gabe zeudela eta biztanleak, erromatarrek hiritartzea deitzen zuten horretatik oso urrun zeudela. Ez zuten lurralde hori hartu, eta, horregatik, bertakoek haien bizimoduari eta sinesmenei eutsi ahal izan zieten. Erromatarrek, Galiara (Frantzia) iristeko beharrezkoak ziren komunikabideak eraikitzeke besterik ez zuten mendialdean esku hartu.

Erdialde eta hegoaldeak, berriz, haien interesa piztu zuen, lurra lantzeko eta abeltzaintzarako egokiak ziren zelai zabalak baitzituzten; bertako populazioa nahasia zegoen eta eraginei irekia. Eremu horretan, erromatarrek lurraldea berrantolatu eta birmoldatu zuten.

Hegoaldeko biztanleek berehala ezagutu eta bereganatu zuten erromatarren kultura; bertakoek, inbaditzaileek ezarritako printzipioak jaso zituzten. Horri **erromatartzea** deritzo. Latindar hizkuntza bere egin zuten, eta etxeak erromatar erara eraiki eta apaintzen zituzten.



ERROMATARREN GALTZADA ZIRAUKIN. Bide zahar hori eraikia dago Lizarrarako bidean, errekan altxaturiko zubiaren gainean. Bi metro eta erdiko zabalera du. K.a. 27 urtean, Augustok behin-betiko penintsula menderatu, eta Hispania hiru probintzietan zatitu zuten. Bide-azpiegitura hori mesedegarri gertatu zen banaketa horrentzat, toki garrantzitsuenak, elkarren artean, lotu baitzuten.

3 bide handi zihoazen Nafarroan barna. Horietako batek Iruñea zeharkatzen zuen (Tarragona-Oiartzun); bigarrenak Ibañeta, Auritzberri, Atondo eta Arakil-Uharte (Bordel-Astorga) eta hirugarrenak Cascante. Ziraukiko galtzadak Logroño-Lizarrar-Andion-Orbaibarra lotzen zituen. Ez dira ahaztu behar ibar, arro eta lepoetan barna zihoazen mendiko bideak.

Komunikazio bide horiek beharrezkoak ziren artisautza eta merkataritzaren garapenerako.

Hiria (civitas) erromatar zibilizazioaren ezaugarria zen, batez ere, hiriguneetan egokitzen zena. Hiri eta koloniak sortu zituzten; horietan bizitzera jartzen ziren soldadu lizentziatuek bertakoekin harremanak izan eta euren bizimodua ezartzen zuten. Soldadu horiek, armadan burututako zerbitzuengatik, populazio guneak sortzeko eskubidea zuten.

Erromatarrek iritsi aurretik, jada, eratuak zeuden herrixkak berregituratu zituzten, eta bideen sareari probetxu atera eta hobetu zuten. Horrela, hainbat hiri sortu ziren: jada aipatutako **Pompaelo** (Iruñea), **Cara** (Santacara), **Cascantum** (Cascante) edo **Andelos** (Mendigorria inguruan). Horiek merkataritza eta nekazaritza hornikuntzako guneak ziren, galtzada eta karriken bidez lotuta zeuden eta hainbat zerbitzu zituzten, esaterako, azokak, bainu-etxe publikoak, tenpluak eta ubideak.

Bide nagusietan barna igarotzen ziren bidaiariei laguntza eta atsedena eskaintzeko, zenbait establezimendu (*mansiones*) eraiki zituzten bide horietan. Nafarroan, ondorengoak aipa daitezke: Aracilus (Arakil), Alantone (Atondo) edo Ilumberri (Irunberri).

Erromatarren garaian, landa-populatzeko garrantzitsuenak Pompaelo inguratzen zuen lurraldean zegoen eta hortik hegoaldera ere bai, adibidez, Zarrakaztelu, Eslaba, Erriberri, Liedena, eta abar. Asentamendu gehienak Villae ziren, hau da, nekazaritza eta abere-ustiategiak. Bereziki, Ega, Arga, Aragoi eta Arakil ibaien lurralde aberatsak lantzeari esker, ekonomi maila altua eta oparotasun handia lortu zuten.

4.5. Hispaniako administrazioa Erromaren zerbitzuan

Hainbat aurkikuntzari eta antzinako idatziei esker, jakin dezakegu erromatarren garaian, gaur egungo Nafarroa zeharkatzen zuen bide-sare antolatua zegoela.

Erromatarrek, hiriak elkarrekin **komunikatzeko bideak** behar zituzten: horregatik, Pompaelo eta Oiason zehar (Oiartzun) igarota, Tarracotik (Tarragona) Akitaniako mugaraino zihoan galtzada eraiki zuten; baita Astorgan hasi eta Nafarroan barna pasatuz, Bordelen bukat-

zen zen galtzada ere. Komunikatzeko bide horiek, ondoko lurraldeekin, baita urrutikoekin ere, merkataritza-harremanak izatea ahalbidetzen zuten. Galtzaden bitartez Erromatar Inperioko beste lurraldeetako moda edo luxuzko produktuak sartzen zituzten.

Ekonomi harremanak, Galia, Tarraco, Caesaraugusta, baita Erromarekin ere izaten zituzten. Hiri nagusiak azoka banatzaileak izatera ailegatu ziren, produktuak bertara iristen baitziren, eta handik beste hirietara edo landara eramaten zituzten. Pompaelo horren adibide dugu.

Bide nagusiez gain, baziren bigarren mailako beste bide batzuk ere, erromatarren aurreko bideak, agian, administrazioak birmoldatu eta haien komunikabide beharretara egokitutakoak. Erromatarrek egindako beste lan publiko batzuk hauexek dira: zubiak, ubideak eta sistema hidrauliko konplexuak, Andelosen aurkitutakoak, esate baterako.

Indusketetan aurkitutakoek Galia eta Erromarekin **merkataritza harreman handia** izan zutela erakusten dute. Lurralde horietatik produktuak inportatzen zituzten, baita Hispaniako eta gaur egungo Nafarroako eremuko produktuak esportatu ere. Merkataritza-trukeez gain, biztanleen mugimendua handia izan zen, bai Penintsulan jendea sartzen zelako, bai ateratzen zelako.

Ekonomia **nekazaritzan** oinarritzen zen: labore, mahatsondo eta olibondoan laborantza. Ale-errota eta dolare hondarrak aurkitu izan dira. Lortzen zituzten baratze eta abere-produktuak hirietako azoka publikoetan saltzen zituzten.

Halaber, industria garatu zen, **Hispaniar Sigillataren** fabrikazioa, esate baterako, erromatarren mahai-zeramika. Jarduera horri K.o. I. mendetik aurrera ekin zioten. Aipatzekoa da Lantz eta Arizkungo (Baztan) kobre-erazketek agerian uzten duten meatze-industria.

4.6. Jainko eta ohitura paganoetatik kristautzera

Erromatarrek ez zituzten haien erlijio sinesmenak indarrez ezarri, baina biztanleengan eragina izan zuten.

Botozko aldareetan, erromatarren aurreko bertako jainkoen izen asko agertzen dira, baina horiekin batera erromatarren jainko multzoa ere gurtzen zuten.

(K.o. I. mendearen bigarren erdian, Judeatik Ekialde eta Mendebaleko Mediterraneorantz beste erlijio bat hedatzen hasi zen, **kristautasuna**; hala ere, penintsulan ez zen berehala finkatu, ezta baskoien lurraldean ere, jakina. Kristautasunaren hedatzea K.o. III. mendean hasi zen handia izaten. Garai horretan sortu zen Pompaelon lehenengo elizbarrutia, apezpiku batek gobernatutako barrutia, alegia.

IV. mendean, kristauak gurtzeko askatasuna lortu zuten Konstantino I.ak 313 urtean sinatu zuen Milango Ediktuari esker. 380 urtean, baina, **Teodosioren Ediktuaren** bidez kristautasuna inperioko erlijio ofiziala bihurtu zen. Erlijioa hirietara heldu zen lehenengo, eta pixkanaka landan ere eragina izan zuen.

Arteari dagokionez, Nafarroan erromatar artearen arrasto ugari aurkitu izan da: eskultura, pintura, mosaikoa, arte xehea (zeramika, metala, hezurra...). Arkitektura-ordenan ez da eraikinen hondar askorik aurkitu, baina bai arrasto batzuk, adibidez, joniar eta korintiar ordenako zutabeak, fusteak eta kapitelak; korintiar ordenakoak Santacara, Arellano eta Pompaelon.

Harriz egindako eskultura exentuen hondar batzuk aurkitu dira: K.o. I. mendeko gizonezko anonimoa (Santacara), eta K.o. II. mendeko Artemisa-Diana jainkosaren bustoa (Zangoza).

Fresko-pinturek etxebizitzetako hormak estaltzen zituzten, eta badira landare-dekorazioaren fragmentu batzuk, oso adibide urriak, dena den.

Mosaikoa kolore ezberdinetako teselekin osatzen zen, eta behin bukatuta lortzen ziren marrazki edergarriak erabiltzen zituzten eraikinen barrualdeak, zoru eta hormak, apaintzeko. Gai mitologikoak, landare-dekorazioa eta abar irudikatzen zituzten; aipatzekoak dira *Teseu eta Minotauroa* (Pompaelo), *Bakoren garaipena* (Andelos) eta *Musak* (Arellano). Arte

xeheari dagokionez, eredu ugari dago lortutako ekonomi mailaren erakusgarri: gerrikoendako krisketak, ontziteria, fibulak, giltzak eta hainbat apaingarri.

Azkenik, erromatarren buztingintza-ekoizpena oso preziatua izan zen eta zeramika-merkataritzan nagusi izan zen. Bertakoek teknika ikasi eta imitatu zuten. Hispaniar buztingileek *terra sigillata* landu zuten, baina Nafarroan ez da tailer mota horien arrastorik aurkitu.

4.7. Erromatarren inperioaren krisia

V. mendean, Nafarroako lurraldea, Hispaniako beste lurraldeen antzera, gizarte eta politika aldaketa fasean sartu zen.

III. mendeaz geroztik, Erromatarren Inperioa **krisi sakonean** murgilduta zegoen. Batetik, inperioko tronua lortzeko borrokek gerra zibilak ekartzen zituzten; bestalde, herri *barbaroak*, Europako ekialde eta erdialdetik etorritako taldeak, eraso egiten hasi ziren, eta horiek Mendebaleko Erromatar Inperioa desegin zuten. Ekialdeko Inperioak beste hamar mendez bizirik iraun zuen.

Barbaroen armadak egindako txikizioek Nafarroako lurraldean eragin handia izan zuten, Galiatik Hispaniarako **pasabidea** baitzen, eta horregatik, penintsula hartu nahi zuten guztiek handik sartu behar zuten.

Hiriak leku arriskutsuak gertatu ziren, horregatik bertako biztanleak **landako lurraldeetara**, Villae-etara, **alde egiten** hasi ziren. Horrek merkataritza egiturei eta komunikabideei erasan zien, eta, ondorioz, ekonomiaren gainbehera etorri zen.

Garai horretan zehar, landan villa handiak garatu eta euren burua asetzeko erkidegoak sortu ziren. Aldiz, Andelos, Cara eta Pompaelo hiriak landa itxurako herrixka bihurtu ziren, nahiz eta Pompaelok, barrutiko apezpikuaren egoitza izanik, bere ospeari eutsi ahal izan zion.

II
ERDI AROA

BISIGODO, FRANKO ETA MUSULMANAK

V-VIII. MENDEAK

5.1. Iruñeko lurraldearen eraketa

Voltairek esan zuen erromatar inperioaren erorialdia «hiri harrigarri batetik atera eta lurralde huts eta desatseginean barneratzen den bidaiariaren antzekoa» izan zela. Erroma desegitearekin batera hasi zen aldiari, bidegabeki, erdi aroa esaten zaio modu mesprezagarrian. Horrekin adierazi nahi zuten historiako bi garai bikainen arteko –greziar eta erromatarren kultura eta humanismoaren arteko– garai iluna izan zela, basakeria eta sineskeriari lotua, kulturarik gabekoa. XIX. mendean, erromantizismoko pentsalariak erdi aroaren berezko nortasuna eta irudi ona azpimarratu zuten, orduan sortu baitziren Europako lehenengo nazioak eta zibilizazio kristau, bizantziar eta musulmanak.

V. mendean, mendebaldean, erromatarren mugak urratuta, Asia eta Europatik iritsitako germaniarrek –barbaro edo atzerritar izendatuak– inbasioei ekin zieten. 409an, suebo, bandalo eta alanoak Hispanian sartu ziren, baina berehala bisigodoek garaitu zituzten, eta horren ondoren, 476tik aurrera, azkeneko horiek independentzia osoz aritu eta ia penintsula osoa hartu zuten. Pirinioko mendia, frankoen erregetzaren, Galian, eta Hispania aldeko godo eta baskoien arteko muga naturala zen.

VI. mende bukaeratik VIII. mende hasiera arte, bisigodoek etengabe eraso zieten baskoiei, haien lur zati bat bereganatzeko. Gasteiz sortu zuten, eta erdarazko izena dator, Leovigildoren garaian, baskoien aurka lortutako garaipenaren omenez, Vitoria izena eman ziotelako; presoen laguntzaz Erriberri eraiki zuten. Pirinioko iparraldeko baskoiek Akitaniako dukeei laguntza eman zieten errege frankoak garaitzeko, eta harrez geroztik, lurralde horri Gaskoina (Baskonia) izena eman zioten. Hispaniar-godoek baskoi hitza Iruñea aldeko biztanleak izendatzeko erabiltzen zuten; Sevillako S. Isidorok *Historia de los reyes godos*-en idatzi zuenaren arabera, baskoiek hispaniar-godoekin borrokatzeko haien mugak zeharkatzen zituzten (VII.m.).

Egia da erdi aroko lehenengo mendea aldi iluna izan zela, bikaintasun ezagatik baino, testimonio urriengatik. Antzinako historia berantiarra dei daitekeen hori erabakigarria izan zen Iruñeko erresuma berria eratzeko.

Hispaniar-godoek, erromatarrengandik udal-barrutien antolaketa hartu zuten; Iruñea, Kalagorri eta Tarazonari laugarren bat gaineratu zioten, hots, Deio izenekoa, hau da, Urbasa, Deio eta Jurramendi arteko barrutia. Banaketa horiek, halaber, balio izan zuten, apezpikuaren egoitza zuten kristau lurraldeak antolatzeko. Toponimia erromatarraren leku-izenak berriz ere agertu ziren, Urantzia (Curnonium), Andion (Andelos) eta Erriberri (Oligito), alegia.

Bestalde, nekazarien errentei esker aristokrazia sendotu zen; talde hori, lurrak inbasioetatik babesteko, elkartu zen lehenbizi, eta gerora, erregeek hartzen zuten erabakietan, eragina izateko.

VIII. mendean, Ebroko ibaiertzeko lurrak musulmanek menperatu zituzten; Iruñeko barrutia, berriz, hispaniar-godoen monarkia desagertzekoan, aristokrata multzo txiki batek zuzendu zuen.

IX. mendean, bertako indarrei eta musulmanen laguntzari esker, Iruñeko kristauak frankoen erasoak, behin betiko, atzera bota zituzten, eta, horren ondorioz, Iruñeko lurraldeak, berriz ere, Kordobatik zuzentzen hasi ziren. Gertaera horrek erresuma berria eta Aritza familiaren ena-

muintzea ekarri zuen. Iruñea **erregetzaren gune** bilakatu zen, barrutiburu, soldadu goarnizioa eta apezpikuaren egoitza baitzen.

5.2. Paisaia naturalaren eta hiribilduen arteko harmonia

Erromatarrek Hispania indarrez hartzen zuten bitartean, baskoiek ez ziren gizartearen garapenetik, tribu edo familia-klanen garapenetik bazter geratu; hirien inguruan biltzen ziren eta gizarte nahiz politika sistema antolatua zituzten; txanponen bereizketa ere egiten zuten.

Erromatarrek, landa-eremuen aldean, hirigunearen garapena bultzatzen ahalegindu aurretik, baskoiek bultzatua zuten jada, alde aitzinetik. Baina, IV. mendean, eta, batez ere, V.ean, rolak aldatu eta landako lurjabe handien aristokrazia indartu zen. Aristokraziaren bizitasun hori nabarmena izan zen erromatar, baskoi eta bisigodoen artean.

Gaur egun, badira oraindik jabeengandik datozen izenak gorde dituzten herriak. Euskal jatorrikoak: Belaskotik Belaskoain, Olexoatik Olexoa, Urdiatik Urdian, Lakidetik Lakidain; erromatar jatorrikoak: Aureliustik Arellano, Verinianustik Barañain, Asteriutik Asterain, Barbarutik Barbarin. Germaniar, akitaniar, erromatar edo baskoi jatorriko izenek erakusten dute **aristokraziak**, haien pribilegioei eustearren, politikaren gorabeheri **aurre egiteko** eta edozein inbasiori egokitzeke zuen **gaitasuna**. Orobat, ezkontzaren bidez penintsulako beste lurraldeetako noble-jatorriko familiei lotu ziren, Casio familiari, adibidez, konde hispaniar-godoa zena, Banukasitarren aurrekoa.

Hiribildu eta herrixka kopuru handiak paisaia naturala aldatzen du. Honela osaturik zeuden: jabea eta bere lur zabalak, lur zati txiki bat –hektarea erdia– lantzen zuten familiak eta elkarren arteko lekuak: oihan, mendi eta animalientzako bazkalekuak. Erriberan herrixkak handiagoak ziren, eta elkarrengandik banatuago zeuden; lursailak ez zeuden horren zatituta, bazkarako alor zabalak erabiltzen zituzten eta ureztatze-sailetarako, aldiz, Ega, Arga eta Aragoi ibaien arroak aprobetxatzen

zituzten. Mendialdean, hiribilduak guztiz finkatuta zeuden eta lur gehiena abeltzaintzarako erabiltzen zuten.

Euskaldunen populazio dentsitatea handia zen, horregatik franko eta bisigodoen lurraldeetan etengabe sartu behar izaten zuten lanabes eta elikagaiez jabetzeko. Izan ziren erromatar armadan edo galiar dukeen agintaritzapean mertzenario sartu ziren baskoiak ere.

Demografia etengabe handitzeak asentamenduetarako beste lurralde batzuk bilatu behar izatea ekarri zien, nahiz eta lur horiek bazterrekoak edo marjinalak eta emankortasun gutxikoak izan. Horrela, zenbait herrixketan –Orradre (Erromantzatua), Apardoze (Urraulbeiti) edo Adoain (Urraulgoiti)– landu zitekeen lurra ez zen %30era iristen ere.

Neurriz gaineko biztanleria izatea funtsezkoa izan zen franko eta musulmanen etengabeko inbasioen aurka indarrak batzeko.

5.3. Frankoek eta musulmanek setiatutako lurraldea

Frankoak. Galia izeneko probintzia erromatarrean ezarritako germaniarrak ziren, gaur egun Frantzia deritzon lurraldearen bultzatzaileak. Merovingioek (V-VIII. m) eta carolingioek (VIII-IX) beste lurralde batzuetara hedatu zituzten frankoen mugak; horregatik, Pirinio aldean maiz gertatu ziren haien erasoaldiak.

Frankoen ordezkari gorenak, Karlomagnok, kristautasuna zabaldu zuen eta Erromaren antzerako inperioa eratu nahi izan zuen. Europa batuaren bultzatzailetzat jotzen da, horregatik gaur egun Akisgranen «Karlomagno saria» eman ohi zaie urtebetez Europaren batasunaren alde lan egiten duten pertsoneri.

Historia eta, batez ere, legenda nahasten duten Errolanen eta Orreagako kantek Orreagako gudua kontatzen digute (778); bertan baskoiek Errolan eta armada karolingioa makurrarazi zituzten. Kantek Karlomagnoaren ahotan jartzen dituzten hitzak haren minaren eta galoengan izan zuen eraginaren adierazle dira «Ene iloba hilik da, Errolan jaun ona! Zu hilik bazara, deus gutxi da Galia».



LEIREKO KUTXATILA (1005). NAFARROAKO MUSEOA. Ehiztari musulmana ageri da taparen erliebean, piztia lant-
zaz zauritzen ari dela.

Bolizkoa da eta arte hispaniar-musulmanari dagokio. Nunilo eta Alodia santuen erlikiategi gisa erabilia,
Medina Al-Zaharako tailer kordobarrean egin zen Hejirako 395ean. Faray maisuak eta bere lau ikasleek
egindako lana da eta hartzailea Almanzorren seme Abdelmalik izan zen. Kutxatila jori eta oparo apaindua
dago. Baditu medailoi polilobulatuak, jokoz eta torneoz hornituriko festa irudikatzen dutenak.

Europako gainontzeko eskualdeetan ez bezala, erdi aroko Espainiako ezaugarria aniztasuna da, arrazari,
erlijioari eta kulturari begira. Mendeetan zehar, kristauak, juduak eta musulmanak bizikide izan ziren.
Arabiarren egonaldia kultura-ekarpen handikoa gertatu zen penintsulan.

Kulturaren goieneko aldia bizi izan zuten: trivium eta quadriviumaren bitartez irakaskuntza sustatu zuten, letra xehea erabili zuten eta bizantziar artea ere bai. Pirinioak zeharkatu eta penintsulan finkatu zirenek, edo Donejakueko hilobira zihoazen inmigranteek transmititu eta hedatu zuten aipatutako artea eta letren loratzea. Gaur egungo Nafarroak hartzen duen lurraldeak frankoen kulturari onura atera ahal izan zion, Orreaga, Belate eta Zangoza baitziren, besteren artean, aukeratzen zituzten bideak.

Franko hitza ez zen bakarrik ondoko herrialdeko etorkinak izendatzeko erabili, oro har, **Europako lurralde guztietatik iristen zirenei** deitzeko baizik. Migrazio mugimendu horiek auzo edo burguetan finkatu zirenean, *burgese* izena eman zitzaion (San Zernin, San Nikolas). Burgesek, odolezko nobleziatik eta hirugarren estamentu edo nekazariengandik bereizten zen beste gizarte maila bat osatu zuten. *Hiribildu frankoetako* kideei *kaletar edo karrikagizon* deitzen zieten.

XIII. mende erdialdean, gizarte maila horrek indar handia egin zuen, Gorte nagusia osatzen zuten prokuradore multzoan sartu ahal izateko, eta, horrela, Erresumako Gorteen herriko adarra bilakatu ziren.

Musulmanak. Mahomak, Islam erlijioiko profetak, musulmanen nagusi erlijioso eta politikoak, bere erlijioa ezagutzera eman eta zabaldu zuen; berehala milioika jarraitzailek bere egin zuten, inperio handia osatu zutenak. Doktrinak eta fedegabeen aurkako gerra santuak, batailan hildakoek paradisia erdietsiko zutela agintzarekin batera, hedatze handia ahalbidetu zuen.

Bisigodoen arteko ahuleziari esker, musulmanek iberiar penintsula hartu zuten eta Guadaletan (711) errege Rodrigo garaitu zuten. Hispania islamiar inperioaren probintzia bihurtu zen, Al-Andalus, izenekoa. Hala ere, Kantauriar eta Piriniotako mendietan kristauen lehen erresistentzia guneak piztu ziren. Adibide gisa, Pelaijo jaunaren Cobadongako garaipe-na dugu.

Musulmanek penintsula **menperatzearen** ondorioz, Ebroko arroa eta bisigodoen Iruñeko gotorlekua ere menperatu zuten. VIII. mende

erdialdean, hegoaldea guztiz menperatuta zuten, pertsona asko islamdar-tu zen eta Tuteraren hiri-gune izaera sendotu zen. Ondorengo mendeetan, Banu Qasi –muladi aberatsak– izan zen familiarik garrantzitsuena.

Baina, Alfontso I.a Borrokalariak Erriberako lurraldeak Nafarroako erresumara bildu zituenean, islamiar biztanleen egoera aldatu zen. Batzuk, errege kristauen menpe gelditu eta harresiz kanpoko mairu-auzo eta aljametara bizitzera joan ziren; beste batzuek, kristauen biztanleria handitu zenez, Aragoi aldera eta Queiles (Monteagudo, Ablitas, Cascante) eta Ebro (Ribaforada, Cortes, Fontellas) ibaien arroetara alde egin behar izan zuten.

Cortesen musulmanak, judutarrak eta kristauak bizi ziren eta udal-gobernua bi musulmanak eta hiru kristauk osatzen zuten. Mahomatar biztanleriaren %56 Corella, Cascante eta Tuteran bizi zen.

Musulmanei jarri zieten *mairu* ezizena erromatarren garaitik dator; orduan Mauritaniako biztanleei *mairu* ezizena eman zieten, eta ondoren Mahomaren erlijioaren jarraitzaile guztiei ere bai.

IRUÑEA ETA NAFARROAKO ERRESUMAREN SORRERA IX-XIII. MENDEAK

6.1. Erresumaren sorrera

Baskoien lurraldeak 5.000km² inguru hartzen zituen. Mendebaleko Piriniotan antzinako erromatar hiri baten gainean apezpiku-egoitza kokatzen zen. Aipatu egoitzak, VIII. mende hasieran, monarkia hispaniar-godoaren esku gelditu arren, ohitura juridiko eta kristauak gordetzen zituen.

Mendearen gainerako urteetan, lurraldea frankoen infiltrazioen mehatxupean egon zen, eta horrez gain, Kordobaren menpean egoteak –musulmanek lurraldea hartua zuten– ondoeza sortzen zuen. Garai horretan hasi zen milurtekoan zehar eratzen joan zen *antzinako erresuma*, inongo botere nagusiagorik muga ez zezakeen boterea, alegia. Horrela, **Eneko Aritza, bere seme Gartzia Iñígez eta biloba Fortun Gartzes** lehenengo erregetzat jo izan ziren. Hala ere, Al-Andalusen menpe egonik, benetan buruzagi hutsak (jaunak, kondeak, printzeak) besterik ez ziren izan.

Iruñeko erresumak 350 urte iraun zuen eta mugak Kalagorri, Naxera eta Aragoi eta Gallego ibaien haranen artean sortutako konderrira

hedatu zituen. Antso Gartzesek (905-925), lurralde eta erlijioaren hedapenarekin gogotsu, Al-Andalusko musulmanei lotzen zien zilborrestea eten zuen. Leongo eta Asturiasko erregeek eta Gaztelako kondeek Iruñeko monarkia hasi berriari laguntza eman zioten. Ez zituen bakarrik odolaren loturak borrokan batzera bultzatu, kristau idealek ere mugiarazi zituzten, Islamen estekaduratik askatu nahi baitzuten. Antso Gartzesen gorpuzkinak Deioko San Esteban (Monjardin) gotorlekuaren ondoan ehortzi zituzten. Hura leku adierazgarria izan zen, Gartzesek berak sarrazenoei kendu baitzien Ega ibaitik hurbil zeuden inguruko beste herri batzuekin (Urbiola, Olexoa, Legaria) eta Logroñoeko zati batekin batera.

Erregearen ondorengoek, Gartzia Ximenez, Gartzia Santxezek eta Gartzia II.a Abarkak hedapena sendotu zuten famili lotura edo hitzarmenei esker eta hurbileko erresumekin izan zuten harreman onari esker.

6.2. Antso Handia eta bere batasun xedea

Antso Gartzes III.a, Handia (1004-1035) Gaztelako kondearen alaba Muniarekin ezkondu zen. Almantzor (1002) eta bere seme Abd al Malik hildakoan, taifen erregealdien bitartean, Antso Gartzes III.ak errege kristauekin harreman onak izan zituen, bakeari eusteko eta, bere lurraldeak babestu eta handitzeko musulmanen kalterako, (Sobrarbe eta Ribargotza). Geroago, Araba eta Bizkaia hartu zituen, Gaztelako konde-erriko jabetzak zirenak.

Done Jakuerako bidea europar kutsua hartzen zihoan, eta Iruñeko erregeak lehenbizi eta semeek, gerora, horri onura atera zioten; lurraldeak birpopulatu, bidea babestu, tenplu, monasterio eta ospitaleak eraiki, eta erlijio-erakundeen barnean berrikuntzak egin baitzituzten. Maiz izan zituen adiskide omen handiko elizgizonak: Oliba de Ripoll abadeak, adibidez, garaiko kultur eta erlijio-prozesu berrietan bideratu eta trebatu zuen.

Antsok, hainbat matxinada baretzea eta familiak Leon eta Gaztelan zituen eskubideak defendatzea erdietsi zuen. Baina hain lurralde zabala



LEIREKO SAN SALBADOR MONASTERIOKO KRIPTA ERROMANIKOA (1057). Oinplano ia karratua du, harri handiz eraikia da eta harri horiek goiko elizaren zimentarria dira. Erdi aroko gizarte nafar berriaren egituraren eta ongizate ekonomikoaren ondorioz, eraikin erlijioso asko altxatu ziren, ahaztu gabe, jakina, fededunen jaiera, zenbaitetan gastuak ordaindu zituztenak.

Leirek zer ikusia du Iruñeko eta Nafarroako Erresumen jatorriekin eta bere hormetan ehortzirik daude haien errege-erreginen gorpuzkinak. Alde horretatik, errege-panteoitzat jotzen da.

Leiren, San Virila abadea bizi izan zen (X. m). Elezaharrak dio abade hori 3 mendez egon zela, estasiak hartuta, urretxindorraren kantu ederrak xoratuta. Halaber, Nunilo eta Alodia santuen erlikiak gordeta daude. Donejakue bideko erromesek –Aragoiko ibilbidea– geldialdia egiten dute, noski, inguru zoragarri honetan, Esako urtegiaren eta Xabierko Gazteluaren ondoan.

eskuratzen egindako ahalegina eta indar guztiak gainetik behera etorri ziren lurraldea haren semeen –Gartzia, Fernando, Gonzalo, Ramiro– eskuetan gelditu zenean. Anaien arteko liskarrei ekin zieten; Atapuercan, Gaztelako Fernandoren aurkako borrokan Gartzia, primua, hil egin zen (1054); haren oinordekoa, Antso IV.a, Peñalenen erahil zuten (1076). Orduan, Antso Ramirez Aragoiko erregeak Iruñeko errege titulua jaso zuen eta gainerako lurraldeak ere hartu zituen. Aldi berean, Alfontso VI.ak, Gaztela eta Leongo erregeak, Araba, Bizkaia eta Errioxa eskuratu zituen.

Iruñeko erresuma, erresuma handia izatetik, eta gainontzeko erregeen erreferentea izatetik, zoko txikia izatera pasatu zen, aragoitar eta gaztelarren faboretan.

6.3. Antso VI.a Jakituna, Nafarroako erresumako lehenengo erregea

Antso Ramirez, Pedro I.a eta Alfontso Borrokalaria, artean, Iruñeko errege titulua erabili zuten. Azkeneko hori hil zenean, Gartzia Ramirez, Berritzailea deitutakoa (1076-1094), tronuratu zuten nobleen, Ladron kondearen, Iruñeko apezpikuaren eta Leireko abadearen laguntzari esker. Aragoi eta Gaztelak Iruñeko lurraldea hartu nahi zuten, baina bai Gartzia, bai bere seme Antso Jakitunak lotura saihestea lortu zuten. Beraz, errege baino, **printze basailutzat jo daitezke**.

1162an, Antso VI.a Jakituna Gaztelako Alfontso VII.aren heriotzaz baliatu zen basailutza uzteko eta *baroiekiko* zuen menpekotasuna ere, hautaketari dagokionez. Hori da gutunetan **Nafarroako erregea** titulua erabiltzen hasi zena (rex Navarre). Bere buruari ezarritako jentilizio horrekin natur-espazioaren eta bertako biztanleen –gizarte maila kontuan hartu gabe (noblezia, elizgizonak, burgesia eta herria)– nagusi bihurtu zen. Iruñea erresumako buru bilakatu zen.

Nafarroa hitzaren etimologiari dagokionez, badira hainbat iritzi: hasiera batean, Nafarroa lurralde malkartsu eta menditsua zen, Estelle-rrian, Deierri eskualdearen inguruan; *nabar*, golde-muturra edo golde-

-muturrak egiten duen ildo da. Beraz, navarrus *arator*-en sinonimoa litzateke, goldatzen duena edo nekazari eta herritarra, alegia. Beste iritzi batek dio Nabarra mendiz inguratutako lautada esan nahi duen *nava* edo *naba* gaztelera-terminoak eta euskarazko *-erri* hitzek osatzen dutela: *navae-rria*, lautaden lurraldea. *Nabarri* nekazariak ziren (euskarazko *nabaherri*, nabaren herria) beste hipotesi baten arabera, edo baliteke *navar-dunumtik* etortzea, baskoien lurraldean kokatutako gotorleku zeltikoaren seinale.

Nafarrak hitza agertzen duen testu zaharrenetariko bat *-Annales regii-* 806 urtekoa da; Orreagan karolingiarrek izandako porrota kontatzen du: «Iruñea suntsituta, euskaldunak, espainolak eta nafarrak ere menpean zituela, bere lurraldera itzuli zen Karlomagno».

Calixto III.a aita santuak **rex Navarrorum** titulua eman zion oinordekoari, Antso VII.a Azkarrari (1194-1234). Baina ez zen gertakari eraginkorra izan, Gaztelak eta Aragoik bat egin baitzuten, Bidasoara heldu ahal izateko, Arabako eta Gipuzkoako zenbait jabetza kentzeko; horrela, Nafarroak Hondarribiako itsasorako irteera galdu zuen.

Tirabira horiek ez zuten galarazi Antso Azkarrak, arrazoi erlijiosoak zirela eta, Al-Nasirren kontrako gurutzadan parte hartzea, eta Jaengo Navas de Tolosako borrokan (1212) gogotsu aritzea. Lortutako garaipenak, ekonomia arrakastatsuak eta batzeko asmoek berriz erasotzera bultzatu zuten, eta horrela Aragoiko Petilla, Xabier, Peña eta Nafarroa Behe-rea hartu zituen.

Oinordeko legitimorik ez zuenez, haren iloba Teobaldo I.ak (1234-1253) ordezkatu zuen; horrek bertako noblezia baztertu zuen, eta aholkulari atzerritarrez inguratu zen. 1238an, *Antzinako Forua* idatzi zuten, Nafarroan idatzitako lehenengo konstituzioa.

6.4. Judutar eta musulmanen kokalekua

Paisaiaren eta klimaren aniztasuna Nafarroaren bereizgarria bada, aurkako sentimendu erlijiosoak zituzten pertsonen asentamenduek aniztasun hori areagotu zuten.

Bost mende baino gehiagotan zehar, herri musulman, judutar eta

kristauak *elkarrekin bizi* izan ziren, norbera bere sinismenaren araberrako fedeari atxikia. Iruñea eta Nafarroako erregeek lege markoa ezarri zuten musulman eta judutarrek meskita eta sinagogatan euren sinismenari bidea eman ziezaioten, eta haien auzotan bizi eta herritarren betebeharrak –batez ere, zergak ordaintzea– bete zitzen.

Erdi aroaren bukaeran, Valtierra, Arguedas eta Cadreitan mairuen komunitate edo aljamak populazioaren %40 betetzen zuten, eta egoitza nagusia Tuteran zuten. Halaber, aipatzekoak dira Cintruenigo, Cascante, Monteagudo eta Cortes; azken horren hirigunea 240 suk edo familiak osatzen zuten, eta horietatik 46 musulmanak ziren. **Nafarroako biztanleriaren %27 betetzen zuten**, hots, 510 familia, eta Tuterako merindadean % 21.

Judutarrei dagokienez, bi dira lurralde garrantzitsuenak: Done Jakuerako bidea (Iruñea-Gares-Zangoza-Biana) eta Tuteran egoitza zuen Ebroko harana.

Done Jakuerako bidearen garrantziak judutar eta frankoen birpopulazioa ekarri zuen; judutegi eta burgetan ezarri ziren, Lizarra, Zangoza, Gares, Urantzia eta Biana, esaterako. Egako hiriak Elgacena auzoan hartu zuten lehenengo judutar komunitatea, eta Iruñean, aldiz, Nabarrerria eta Apezpikuaren jauregiaren artean ezarri ziren.

Judutar kopururik handiena –biztanleen %27'50, hots, bi mila pertsona inguru–Ebro haranean, Tuteran inguruan zegoen. Tuterako judutegia kontsulta gune eta mendebal guztirako erreferentzi bihurtu zen. Nabarmentzen dira, adibidez, Tuterako Benjamin, ezagutza linguistiko eta historikoengatik, Erriberriko merkataria Samuel Alfaqui edo Ablitasko On Ezmel bankaria.

Nafarroako lurraldean **ehun familatik zortzi judutarrak ziren**, eta 37 hiribildu baino gehiagotan sakabanatuta zeuden. Ekonomi botere handia eskuratu zuten, finantza eta jarduera intelektualetarako gaitasun handia baitzuten. Zergak biltzen eta administratzen aritzen ziren eta lukurrari eta mailegu-emaileak zirelako beste komunitateen inbidia piztu zuten zenbaitetan.

6.5. Gutxiengo erlijioen iratzartzea

Musulman, judutar eta kristauen elkarbizitza ez zen beti erraza izan, baina batzuek eta besteek norberaren herriaren ekonomia sustatu zuten. Meskita, sinagoga, eliza, zokoa eta azokak oinarrizko erreferentzia puntu ziren. Halaber, **hiru erlijioek elkarren artean zuten Jainko bakarrarengan sinistea**: Jainko hori Yahve zen judutarrentzat, Ala musulmanentzat eta Jesukristo kristaudentzat.

Judutar eta musulmanek moneta-merkataritza eta mailegu sarea eratu zuten; bat Done Jakuerako bidean eta bestea Iruñea-Tutera inguruan. Gainera, jatorrizko ondasunak eskueran zituzten; oihal, larru eta bitxiak saltzen zituzten eta alokatzaile, zilargile eta artisauak ziren. Medikuntza arloan ospe handikoak ziren, esate baterako, Orabuena eta Ezkerak Karlos II.a eta bere semeari laguntza eman zieten. Maila apalagoan, musulman eta judutarrak arotz, jostun, brodatzaile eta zapatari izan ziren.

Arteak aurrerapen izugarria izan zuen Nafarroako hegoaldean. Musulman arte sortu berriak eragin klasiko, bizantziar eta bisigodoak izan zituen; ferra-arkua, arku gainjarriak, apaingarri mozarabiarrez hornitutako ganga eta erliebe arabiar eta geometrikoak.

Elikatzeari dagokionez, erlijioaren debekuek kristauekin parekatzea galarazten zieten. Haragia eta ardoa oinarrizko elikagaiak zituzten. Txerria eta zaldia baztertzen zuten eta gainerako animaliak modu berezi batez moztu behar zituztenez, zati askori ez zioten etekinik ateratzen. Ardoa, elikatzeko, liturgiarako eta terapeutikarako erabiltzen zuten.

6.6. Kristau izatearen pribilejioa

Kristauak, musulmanei errekonkistaturiko herriak birpopulatu zituzten bisigodoen ondorengoak ziren. **Kristau zaharra** benetako kristaua zen, hau da, judutar edo islamiarrek kutsatu gabeko odola zuena. Mozarabiarrak Al-Andalusen bizi ziren kristauak ziren.

Herri eta hirietako jende xehearen bizimodua kristau erlijioaren

inguruan mugitzen zen. Gizarteko hiru taldeek (lan egiten duena, borrokatzen duena eta otoitz egiten duena) bizitzeko modu jakin batzuk ezarri zituzten. Honatx zeintzuk ziren bizimodu horien oinarriak: familiaren batasuna, taldeko nagusiaren autoritatea eta arbasoen ohituren ahozko transmisioa.

Kristauak, kasik superstizio ziren erlijio sinismen sakonei lotuta bizi ziren. Laborariaren pentsaera sufrimendua eta menpekotasuna onartzean zetzan, hori baitzen ebanjelioaren mezua, eta batzuetan baita zenbait errito paganotan ere. Gose, izurrite eta gerren mehatxupear bizi ziren.

Erdi aroan zehar, elizak erlijio festak, ereite, uzta-biltze eta mahats-biltzearen bukaeran ezarri zituen. **Jainko paganoei gurtzea sailduen gurtzearekin ordezkatu zuen.** Herriarengan piztu zuen lilura hainbatekoa izan zen, non VIII. mendea arte edozein apezpikuk haren inguruko edozein pertsona kanonizatzeko ahalmena izan zuen fededunek hala eskatzen bazuten. Sailduak sortzeko era erraz horrek desbideratze erlijio-soei bidea eman zien, horregatik 993 urtean Elizak Egoitza Sailduaren baimenik gabe, hildako bat publikoki gurtzea debekatu zuen. Neurria ez zen oztopo izan Nafarroako ia etxe guztietan *sailduen* erlikiak (hezurrak, jantziak eta erabilitako objektuak) jaiera handiz gorde zituzten.

Gizakiak heriotza igarobide erritotzat jotzen zuen, bizitza hilobitik beste mundura luzatzen zuen gauza naturala bezala. Hartziko gurutze edo hilarri asko ez ziren hilobian jartzen, bide jendetsuen bazterretan baizik, bizitzaren laburra etengabe gogoraztearren eta hildakoengatik otoitz egitera (sufragioak) bultzatzearren.

Erljio eta tradizioenganako *fede itsu* giro horretan harrera ona izan zuen Jakue apostoluaren gorpua aurkitu zuteneko kontakizunak (IX. mendea). Gertaera horrek garrantzi handiko mugimendu erlijiosoa sortarazi zuen; erromesaldiak, gurutzadak eta Nafarroa osoan zehar eliza eta monasterioak eraikitzea.

Noble eta jaunak, ospea, dirua eta ohorearengatik, edo, hori lortzeko, bizi ziren; aldiz, laborarien bizitza oso gogorra zen: goseari zioten beldurra, uzta txarrek ekartzen zuten larritasuna eta izurriteen arriskua eure-

kin zituzten beti. Emakume nobleek gizezkoek baino aukera eta esku-bide gutxiago zituzten; ezkontzak leinua ziurtatzeko adostutakoak ziren. Dena den, XII. mendetik aurrera, poetek damak gurtzea modan jarri zuten eta Elizak Amabirjinarenganako jaiera indartu zuen; horrek emakumeenganako kontsiderazio handiagoa ekarri zuen. Kontrako aldean, emakume laborariak garbitasunik gabe eta gaizki jantzita, landako etxeetan bizitzera behartuta zeuden, seme-alabak heztera, soroetako lanak egitera eta animaliak zaintzera.

Erdi aroko erdialdean, Carmen Jusuek Urraulbeitin ikertutakoaren arabera, nafarren etxea horrelakoa zen: «harrizko hormak eta zurezko teilatu eta atea zituen, 50 metro karratu inguruko oinplano laukizuzena edo karratukoa zen. Barneko horma batek bi zatitan banatzen zuen etxea, kalera irteera zuzena zuen sukaldea, eta barnerago logela. Zenbaitetan aleteria edo ukuilua eta baratza izaten zuten ondoan».

6.7. Gizarte mailak

Ohiko eskemak aldaketak izan zituen judutar, arabiar, franko eta beste erlijio ordena batzuk agertzerakoan.

ODOLEZKO NOBLEZIA, *lurra eta gerraren jaunak* izendatutakoak, zergarik ordaintzen ez zuten zaldun eta infanzoi zirenak. Erregakuriak besterik ezin zituen epaitu, nekazaritza-lur zabalak zituzten, eta haien karguari eta erregeari eskainitako ohoreari onura ateratzen zioten. Jarduera militarretan ez ezik, ehizan, dibertsiotan eta luxuzko bizitza egiten ere aritzen ziren.

Bazen, bestalde, erregearen laguntzaile zorrotzen talde txikia. BAROIAK (baró, gizon aberatsa) errege-kontseiluko partaideak ziren, bere bikarioak barruti edo *tenentzietan*. XIII. mendetik aurrera *gizon aberats* deitu zieten.

Noblezia eta laborarien artean, Pirinioko lurraldeetatik Compostelarako erromesaldiak zirela-eta *hiribildu* edo *burgu itxietara* iritsitako FRANKO edo BURGESAK zeuden. Antso Ramirez eta bere ondoren-

goek emandako foru bereziak zituzten, eta etxeak, lurrak eta abar lortzeko nahiz besterentzeko askatasuna zuten. Merkatari, mailegu-emaile, alokatzaile eta artisauek ziren. Horrela, noble-jatorririk gabeko beste gizarte maila bat sortu zen: diruaren noblezia.

LABORARI edo PETXARIAK nekazaritza eta abeltzaintzan aritzen ziren. Nafarroako biztanle gehienak gizarte maila horretan zeuden. Etxea, ondoko lurrak, bazkaleku, baso eta mendiak eduki zituzketen, baina ez ziren horren guztiaren jabeak. Horren truke nagusi edo jaunari ekoizpenaren zati bat (petxak) ematen zioten eta egun jakinetan haren lurretan lan egiten zuten (lurgintza).

Koroa, eliza eta noblezia nekazarien zergei esker –lanak, petxak, hamarrenak, errentak, zergak, hasikinak edo laurdenak– aberasten ziren.

Gizartearen azkeneko maila NEKAZARI-MORROIEk osatzen zuten; morroitzak jaunari lotzen zituen, eta haren lurrak landu behar izaten zituzten. Azkenik, baztertuak, gizartetik urrun bizi ziren gutxiengoen etniak zeuden: agotak, maragatoak, legendunak, eta abar.

ELIZGIZONEN NOBLEZIAk ekonomi eta gizarte botere handia zuen jatorrizko ondasunak baitzituen. Zenbait apezpikuk Nafarroako lurraldean eskumena zuten: Baiona, Calahorra, Zaragoza, Iruñea eta Taronako elizbarrutiak. Halaber, Orreaga, Leire, Iratxe, Fitero, La Oliba, Irantzu, Tulebras eta Martzillako Elizako Establezimenduek zergak kobratzen zituzten. Ez da ahaztu behar Temple eta Jerusalengo Joan Sainduaren Militar-ordenek gomendio kopuru handia zutela. Gainera, jardueira espiritualetan aritzen ziren eta bizitza intelektualaren bermea ziren.

DONE JAKUERAKO BIDEAREN EKARPENAK

X-XIII. MENDEAK

7.1. Hilobiaren aurkikuntza

Tradizioak dioenez, Santiago Handia apostolua, Zebedeo eta Salomeren semea, Jerusalem aritzen zen bere betebeharreran, eta Herodes Agripak bertan martirizatu zuen (K.o. 44 urte inguruan). Handik, sarkofagoa, itsasoan barna, urrun zegoen asturiarren erresumaraino eraman zuten, Ulla ibaian zehar, hilerri batetik hurbil zegoen Iria Flavian gelditzeko, Galizia erromatarraren hiriburua zena.

Santiagoren gorpuzkinak mendeetan zehar ahaztuta izan zituzten, IX. mendean Pelaio ermitauak, haren apezpiku Teodomiroren baimena zuela, izar batek gidatuta, marmolezko kutxa batean Jakueren hezurak aurkitu zituelako berria zabaldu zen arte. Lekuari Compostela izena jarri zioten eta hilobiaren gainean tenplu bat eraiki zuten.

Lyongo Flororen martirologioan (IX. mendea) irakur daiteke: «Jakue apostolu dohatsuaren hezur sakratuak, Espainiara eramandakoak, herrialdeko mendebaleko muturrean gurtzen dituzte, Britainiako itsasoaren parean, eta bertako biztanleek harenganako jaiera izugarria daukate».

Berehala, haren mirari eta mirakuluen berriak non-nahi hedatu

ziren, eta erromesaldiak hasi ziren; horien eragin politiko, ekonomiko eta soziokultural izugarriak herri eta hiriak itxuraldatu zituen. Zalantzarik gabe, Europako historian mugarri garrantzitsuenetariko bat izan da, Erroma eta Jerusalemekin batera kristau erromesen gunea baita.

Jakueren hilobia kristau erresumetako erregeen *santu-zeinua* bihurtu zen, eta indarrak batu zituzten musulmanek profana ez zezaten. Horrela, iruindar, gaztelar eta leondarrek Almantzorren kontra borrokatzeko armadak bateratu zituzten Calatañazorko guduan (1002).

Fedegabeen aurkako borrokan Jakue *mairu-hiltzailea* zaldizkorik hoberena izan zen. Hori da, behintzat, ahozko tradizioak dioena, eta hamaika harginak Jakuerako bideko tenplu eta katedraletako kapitul nahiz tinpanoetan irudikatu zutena. Jainkozaletasunak, tradizioak eta irudimenak, frogatzen zailak diren hamaika gertaera egokitu zizkieten Jakueri.

IX. eta X. mendeetan zehar, hilobia bertakoek bisitatu zuten, baina XI.enetik aitzinera, bidea nazioarteko bihurtu zen, eta Europako alde guztietako erromesak iristen hasi ziren. Karlo magno izan zen, tradizioaren arabera, *bidearen babesle eta lehenengo erromesa*.

Nafarroak garrantzi handia lortu zuen, geografia guztia erromesen bide bilakatu baitzen. Batzuk Orreagatik (**Frantziako bidea**), beste batzuk Zangozatik (**Aragoiko bidea**) edo Belatetik sartu eta Garesen elkartzeko ziren, *izarraren zelaira* azkar iristeko asmoz. Baziren hautazko beste bide batzuk ere, **Ebrokoa**, alegia; beraz, Nafarroa osoak kutsu konpostelarra hartu zuen.

7.2. Herri eta hirien sortzea eta ekonomiaren bultzada

Erromesaldiek Mendebalaren beste kontzeptu bat sorrarazi zuten, eta horrekin batera, fedegabe eta barbaroen aldean, kristau erresumen nortasunaren garapen handia ere bai. Erdi aroko politikaren oinarritzko gertaera izan zen, eta Europako herrialde guztiak *finis terrae*-rekin (Finisterre) elkartzeko aukera eman zuen.

Compostela, promesa erlijiosoak betetzeko, barkamena lortzeko edo zigorraz libratzeko jomuga izateaz gain, helburu jakin hauxe lortzeko bidea ere izan zen: bidearen arrimuan sortu ziren herri eta hirien garatze ekonomiko, sozial, artistiko eta erlijiosoa, alegia. Alde horretatik, Iruñea eta Nafarroako erregeek lurraldean barna iragaten zen jendetza handiaren mugimenduaz baliatu ziren asentamenduak sustatzeko, bidea gordetzeko, zubiak eraikitzeko, monasterioak, ospitaleak, lazaretoak bultzatzeko eta erromesak lapur eta gaizkileengandik babesteko. Antso Handia, bere semeak eta bere ilobak, Gaztelako Alfontso VI.a, batez ere, proiektu horren sustatzaileak izan ziren.

Erdi aroko lehenengo mendeetan zehar, Nafarroako jarduera garrantzitsuenak nekazaritza eta abeltzaintza izan ziren, biziraupen ekonomian oinarrituta, betiere, eta, gerrek, izurriteek eta lehorteez ederki astindua. Done Jakuerako bideari esker, XI. mendean, merkataritzak eta artisautzak indar handia hartu zuten, transakzioak egiten hasi ziren, baita larru, oiha, metal eta espeziak inportatzen ere. Diruaren noblezia sortu zen, jatorrizko edo odolezko nobleziari lotuta ez egon arren, gizartean lehenetasun handia lortu zuen gizarte-maila berria, alegia.

Antso Ramirezek (1063-1094) eta Alfontso Borrokariak (1104-1134), Iruñea eta Aragoiko erregeek, frankoen asentamendua bultzatu zuten, eta, horrekin batera, hiri eta landa-sustapena ere bai. Horretarako, biztanle guztiei salbuespenak eta onurak eskutaratu zizkieten.

Lehenengo saioa Jakan izan zen, biztanleei forua eman baitzieten, eta, ondoren, egindako gauza hura Done Jakuerako Bidera zabaldu zuten: Lizarra (1090), Zangoza, Gares (1122) eta San Zernin nahiz San Nikolas burguetara (Iruñea). Halaber, Donostia eta Iruñeko foruak hedatu zituzten. Frankoak burgu edo auzoetan biltzen ziren, nafarregandik (nabarre-riak) edo beste herri batzuegandik bereizita (judutegi eta mairu-auzoak). Burguetan bizi ziren nafarrei *poble menutz* zeritzen, hau da, nekazaritza lanez edo burgesendako morroi lanez arduratzen ziren pertsonak. Aldiz, frankoek pribilejio bereziak zituzten eta lurak luberritzeko eta

saltzeko eskubidea zuten; merkatari, mailegu-emaile, alokatzaile eta artisauek ziren.

Herri eta hiriak Bidearen bazterrean pilatu ziren, eta bertan nafarrak, frankoak, judutarrak eta musulmanak elkarrekin bizi izan ziren.

7.3. Arte erromaniko eta gotikoa

Franko ugari iristek eta haien garrantzi ekonomiko nahiz soziala erakutsi nahi zuten burgu edo auzoen arteko lehiek, harresi, eliza, monasterio, basiliza, ospitale eta abar eraikitzea ekarri zuten; azken batean, erromaniko eta gotikoko altxorrek Compostelanzko bidean.

ARTE ERROMANIKOA (IX-XIII) Cluniko abadeek (Frantzia) Europan barna hedatu zuten, eta, izen hori jaso zuen, hizkuntza erromantzeekin batera sortu zelako edo erromatar arkitekturako elementuak erabili zituztelako. Estilo hori, adierazgarrienetariko bat, Nafarroako geografia osoan oparo zabaldu zen.

IX. eta X. mendeetan iritsi ziren Nafarroako adierazpen artistikoak goieneko mailara. Erromanikoaren banaketa ez dator Done Jakuerako bidearekin bat, baina badira oso joriak diren zenbait eskualde, esate baterako, Iruñerria eta Estellerria. Beste eskualde batzuetan, berriz, ereduak urriak dira, hain zuzen ere Zangoza eta Tiebas, edo Luzaide eta Iruñea artean. Bideari lotzen ez diren gunek erromanikoak Tutera, Izarbeibar, Irunberri eta Agoitz izan ziren. Nafarroan, nahierara eraikitzearen zergatia litzateke lurralde galoetatik arkitektura-egitura berriak iritsi zirela, eta bai herrietan, bai hirietan, eraiki ahal izateko baliabideak zituzten famili gunek jakinak zeudela.

XI. mendean, gutxi eraiki zuten: Leire (1057), Uxue (1089) eta Artaxoa. Hurrengo mendea oparoagoa izan zen: Iruñeko katedral zaharra (1127), Iratxe, Aralar, Zangozako Santa Maria, eta oinplano oktagonaleko Eunate eta Torres del Rio. Garesen, Gurutzearen eliza, Jakue parrokiako bi portada erromanikoak eta Arga ibai gaineko zubia ditugu, azken



ERROMESEN ZUBI ERROMANIKOA ARGIA IBAIAREN GAINEAN (XII. MENDEA). Errege Antso Handiaren emaztearen aginduz edo –zenbait historialarik diotenez– Gartzia Naxerakoaren emazte Estefaniaren aginduz, *Ponte Regina*-n eraikia. Erdi aroan, Compostela milioika erromesen jomuga zen. Izan ere, monasterioz, elizaz eta ostatuz beteriko hainbat ibilbidetan zehar, bidez bide, joaten ziren Santiago gurtzeko, Kristandadeko sinbolo bihurtua baitzen. Donejakue bidearen ertzean herri eta hiriak sortu eta garatu ziren, ekonomia, gizartea eta kulturaren aldetik: Lizarra, Zangoza, Gares.

Nafarroako errege-erreginak mugimendu horretaz baliatu ziren bideak gaizkileetatik babesteko eta asentamendu berriak bultzatzeko, hala nola merkataritzaren eta artisautzaren garapenerako. Arte-mugimenduaren adierazpen goren arte erromanikoa da. Elizek gurutze latindarraren itxura hartzen dute, erdi-kainoiko ganga eta erdi-puntuko arkuak dituztela.

horrek erdi-puntuko sei arku eta zutabe irekiak dituela. Tuteran, hainbat eliza eraiki zituzten, baina gaur egun eredu eskasak gelditzen dira, katedrala eta Magdalena, bezala. Ez dugu erromaniko landatarra ahaztu behar, horren eredu ditugu Olexoa, Leartza, Olleta eta Etxano; oinplano soila izan arren, harlanduz beteta daude eta edertasun handiko eraikinak dira.

Antso Handia, Gartzia Santxez III.a (1035-1054), bere seme **Fernando** (Leongo San Isidoro eraikiarazi zuen) eta **Alfontso Borrokalaria** santutegi horietako askoren sustatzaileak izan ziren.

Bai batzuetan, bai besteetan, arku txarenbilduz apaindutako portadak, lore edo kontakizunez hornituriko kapitelak eta eszena biblikoak irudikatzen dituzten tinpanoak nabarmentzen dira. Barrualdean, gurutze latindarreko oinplanoa, kanoi eta gurutze erako gangak, lehio gutxi eta eraikina ongi eusteko hormabularrak agertzen dituzte.

ARTE GOTIKO EDO ZORROTZA (XIII-XV. mendeak). Zizter-ordenan du jatorria (Frantzia). Adierazpenik gorena katedrala du; beirate ugarietan islatzen diren argia eta koloreen bitartez, altxatzen dute euren altuera, edukiera eta dimentsioa, zerua eta lurra batzeko nahia adierazteko. Katedralak kristau fedearen eta hirietako burgesiaren botere eta aberastasunaren irudi ziren.

Nafarroan, frantziarren erregealdiak hasi zirenean, lurraldeak haien kultura eta artea jaso zuen. Horregatik, hainbat arkitekto, pintore eta irudigilek Pirinioa zeharkatu eta, Nafarroa, gotikoaren abangoardia bihurtu zuten; Tolosako (Frantzia) katedrala izan zen, bereziki, beste eliza guztien eredu. Aipagarrienak hauexek dira: La Oliva, Fitero, Tulebras, Irantzu (1176), Tutereta eta Orreaga hala nola Iruñeko katedraleko nabeak eta klaustroa. Areto sakratu guztietan ikus daitezke mugimendu, samurtasun eta leuntasunez beteriko figurez hornituriko portada ederrak, gurutze-gangak, arbotanteak, girola eta arku zorrotzak.

Lizarrako, *Toledo txikia*, monumentu askok bi estiloak batzen dituzte: Hilobi Sainduak abside erromanikoak eta portada gotikoa ditu; Ruako San Pedrok, mairuen eragina duten arku zorrotzeko portada, estilo oparoko hiru nabe eta erromaniko berantiarreko klaustroa agertzen ditu; San Migeleko portada erromaniko ederra eta Erregeen jauregi erromanikoa (XII. m).

Bi estilotan, eskultura eta pintura eraikinari eransten zaizkio, eta, edertzeaz gain, **funtzio didaktikoa** ere betetzen dute, fededunei irakasteko funtzioa, alegia. *Harrizko biblia* deitu izan zaio. Azkeneko epaiketa, infernua eta deabrua izan ohi ziren eszena erabilienak; horiek erdi aroko artisauen irudimena pizten zuten, baina ez dira idatzi sakratuetako pasar-

teak ahaztu behar. Gaiak sinbolo eta figura errealean bidez irudikatzen zituzten, tinpano eta portadetan zizelaturik eta pintura nahiz mosaikoe-tan ere bai.

Nafarroa osoa, historiaz, erlijiotasunaz eta tradizioz beteriko monu-mentu zibil eta erlijiosoz jositako lurraldea da, maisu, hargin eta pinto-reen argitasun eta irudimenari esker. Raul Glaberren esanetan (XI. m): «Elizen zuritasunak Nafarroako paisaia estali zuen».

7.4. Legenda beltza

Done Jakuerako bideari buruz, erdi aroan idatzitako idazki gutxi iritsi dira gureganaino eta ez dira oso objektiboak eta sentimendu kon-traesankorrez beterik daude. Aipagarrienak, Buletoten *Cronicas de Geofroi* (1381), *Itinerario* (XIV. m) eta *Viaje del Señor Caumont* (XV. m) dira.

Baina lehenengo gida turistikoa Aymerid Picaud bildumariari ego-kitu behar zaio (XII. m), *Liber Sancti Jacobi*, Codice Calixtinoren bosgarren alea, alegia. Bertan, bere erromes esperientziaren berri ematen du, baita Frantziatik abiatzen ziren hainbat ibilbiderena ere. Liburuan badira nafa-rrak eta haien lur emankorrek gorai patzen dituzten pasarteak: «Haran hori atzean utzita, nafarren lurraldera heltzen zara, ogi, ardo eta esne uga-ri duen lurraldera». Jarraitzen du: «Ausartak dira bataila-eremuan, lehiatsu erasoan, arduratsu hamarrenak ordaintzen eta saiatuak aldareari eskaintzak egiten».

Hala ere, ugariago dira Picauden irainak edo purrustada laidoga-riak: «Ikusten den bezala, nafarrak gaizki jantzita ibiltzen dira, gaizki jan eta edaten dute. Nafarrak beltzak dira, doilor itxura dute, maltzurak, gaizkileak dira..., basatiak». «Euskaldunek Done Jakuera doazen errome-sei guztia lapurtu ohi diete, eta haien gainean jartzen dira astoak baili-ran». «Jakuera gindoazela bi nafar topatu genituen ibaiertzean, labanak zorrozten ari ziren, ohi bezala, erromesen animalien buruak mozteko. Erromesek ura ona al zen galdetutakoan, baietz erantzuten zuten. Zal-

diak, ordea, ura edanda hil egiten ziren, eta han bertan lepoa mozten zieten.»

Aymericen iritziek ezinegona eta beldurra piztu zuten Nafarroako lurraldeetan sartzen ziren erromesengan; baita ondorengo kronisten idatziek ere. Horrela, kondaira beltza sortu zen. Denboraren poderioz, bidaiariak, kronistek esandakoa benetako frogen bidez desmitifikatu zuten, nafarren eskuzabaltasuna eta espiritu irekia haragitan ezagutzeko aukera izan baitzuten. Ba ote ziren esaldi mingarri horiek Orreagako guduan –non Errolan hil egin zen eta Karlomagno makurrarazi egin zuten– galek baskoien aurka jasandako porrotaren fruitu? (Errolanen Kantua eta Orreagako Kanta). Bestalde, lurraldeko nekazaritza-produktuek Aymeric liluratu zuten; bereziki, Nafarroako eta Errioxako ardoak, ardo frantsesa bezain aparta eta kalitate handikoa baitzen.

7.5. Baztertuak

Done Jakuerako bidea herri madarikatuen topagune, eta, aldi berean, herri horiek gaitzesteko bide izan zen; gizarteak isolatu, esetsi eta mesprezitzen zituen jende talde baztertuak ziren: etorkinak, kolonoak, gutxiengoan etniak eta abar. *Erreserba* antzeko zerbait osatzen zuten, ezin zuten erraz gainerakoekin harremanik izan, eta jasan zuten bazterkeria sozial eta erlijiosoak betiko markatu zituen. Banaketa horrek konpartimendu mugiezinak sortarazi zituen, inor ezin baitzen bertatik atera, ezta sartu ere; okultismoa, sorginkeria, magia eta lanbidearen sekretuak nahasten ziren.

Euskal mitologiako jentilak edo mitologia katalaneko gentils, Asturiako vaqueiros, Leongo maragatoak, Kanarietako guantxeak, zorroztaileak, pertzagileak. Den denak baztertutako taldeak ziren.

Nafarroako erromanikoan talde baztertuak irudikatzen zituzten hainbat eszena zizelatu ziren: batez ere, pobrezia (Unx), legendarra, txiroak

(Iruñeko katedrala), herrenak (Etxanoko San Pedro) –herrena izatea, zinen bat hausteagatik jasotako maldizioaren sinboloa zen– eta islamiar fedegabeei egozten zaizkien beltz koloreko aurpegiak (Iratxe).

Horrez gain, agotak ere baziren (frantsesez, cagots edo zakur go-doak), «zoritarrekoak» zirenak: Baztan, Zaraitzu, Erronkari eta Zangozan; cretia, crestia edo **kristau berriak**, kristaututakoen seme-alaba edo ondorengoei deituak; legenardunen seme-alabak, besteak kutsatzeko arriskua zela-eta, janzkera berezia eraman behar izaten zutenak, eta, era berean, ezkila bat eraman behar zuten, bidean edo karrikan barna zihoa-zela iragartzeko; **sorginei**, meza beltzak (akelarreak) ematea eta soro, animalia eta pertsonen aurkako ekaitz eta sorginkeriak sortaraztea leporatzen zieten (Urdazuri eta Zugarramurdi).

7.6. Erdi aroko literatura Nafarroan

Nafarroako geografiaren aniztasuna ugaria bada, ez zen bestelakoa izan, erdi aroko ageripideetan ahoz edo idatziz adierazteko bideen ugaritasuna. Iruñea eta Nafarroako erresuman elkarrekin aldaera linguistiko asko bizikide izan ziren: euskara, erromantze nafarra, gaztelania, frantsesa, okzitaniarra, mozarabiera, arabiera eta hebraiera; denek erresumako kultur ondarea aberastu zuten.

Euskarak garrantzi handia izan zuen lurraldean baskoien jatorrizko hizkuntza zelako, eta *lingua navarrorum* bilakatu zelako; bai landako eremuetan, bai herri eta hirietan euskaraz hitz egiten zuten. Hala ere, 1545 urtea arte ez zen hizkuntza horretan testu idatzirik izan, ezta aniztasun literariorik ere. Urte horretan Nafarroa Behereko Bernart Etxeparek *Lingua Vasconum Primitiae* euskaraz idatzitako liburua argitaratu zuen; liburua maitasun, erlijio eta euskararen laudorio olerkiek osatzen dute. 1571n, Joanes Leizarragak protestanteen Testamentu Berria euskaraz idatzi zuen.

Erromantze nafarra edo dialektoa, latinaren aldagai linguistiko bat zen eta gaztelaniaren antza handia zuen. Erdi aroan, lehentasuna izan

zuen, Karlos III.a Prestua koroatzean (1390), Nafarroako erresumako hizkuntza ofizialtzat hartua izan zen (*Ydiomate Navarre terre*). Garaiko tes-tuak erromantzez idatzita daude, eta nobleen artera iritsi nahi zuen guz-tiak erromantzez jakin behar zuen. Horrela, Bianako Printzeak (xv. m) *Cronicas de los Reyes de Navarra* dialekto horretan idatzi zuen.

Gaztelaniari dagokionez, esan behar da, x. eta xi. mendeetan, Iru-ñeko erresumak bere mugak egungo Errioxako lurralderaino hedatu zituela, beraz, San Millan de la Cogolla haren barne zegoen. Bertan idatzi ziren gaztelaniazko lehenengo hitzak (*Glosa Emiliarrak*). Okzitaniera eta frantsesa Galiatik iritsi eta Done Jakuerako bidean zehar kokatu ziren etorkinen berezko hizkuntzak ziren. Gaur egun, oraindik, Garesen edo Iruñeko San Saturninon okzitanieraz idatzitako agiriak gorderik daude.

Mozarabiar, arabiar edo judutarren **hizkuntzek** hedapen handia izan ez bazuten ere eta eremu jakinetan erabiltzen bazituzten ere, litera-turan garrantzi handia hartu zuten xii. mendean, Alfontso Borrokalariak arabiarrei Tuterako kendu zienean, zehazki. Lirikan Tuterako Itsua poeta arabiarra nabarmendu zen, hamaika olerkitxo herrikoi eta irrigarri (moa-xajak) idatzi zituen. Horrez gain, Jehuda-na-levi eta Tuterako Benjamin judutarrak ere nabarmendu ziren. *Himno a la creación* erlijio poema eta *Iti-nerario* bidaia liburua idatzi zutenak, hurrenez hurren.

xiii. mendean zehar, trobalariak –Tuterako Guillermo, batik bat– noble eta jaunengaztelu eta jauregietan barna aritzen ziren, baita Cham-pagne familia frantsesaren Nafarroako Erresumako gortean ere, maitasun poemak eta doinu lirikoak kantatuz. Bestetik, Rodrigo Ximenez de Rada historialari garestarra (1170-1247) –artzapezpikua, errege eta aita sain-duen aholkularia, eta, legegilea ere izandakoa– gailendu zen, *Historia Arabum* eta *Historia Gothic* idazkien bitartez.

Judutarrak bota zituztenean, xiv. mendean, hebraitar literaturak atzera egin zuen, gertaerak eragin txarra izan zuen Nafarroako judutegi guztietan eta, horregatik, sormen apala dago. Salbuespena, Lizarrako Menahem Aben Zerah judutarra dugu (1328), aljamako gertaera tristeak nabarmendu zituen.

Done Jakuerako bideari esker sortu ziren abesti eta poemak ez dira ahaztu behar, ezta bertako juglarenak ere. Horrenbestez, ondoriozta deza-kegu erdi aroko Nafarroako literaturaren ezaugarri nagusiak hauexek izan zirela: arabieraz eta hebraieraz idatzitako testuen nagusitasuna, erlijio kutsua, kontakizun historiko ugari eta antzerki lan urri, juglare-izaera eta literatur ildoen nahiz estilo frantsesen eragina.

FRANTSES DINASTIETATIK -ABSENTISTAK ETA
 HERRIARENGANDIK URRUN ZEUDENAK- MONARKIA
 GORTESAU ETA NAFARRETARA.

XIII-XV. MENDEAK

XII. mende bukaeratik aurrera, Errekonkistan murgilduta, penintsulak loraldi ekonomikoa izan zuen. Nafarroa ez zen kanpo gelditu, eta, frankoen asentamenduei, Europako erromes ugariren etorrerari eta Ebroko haranaren konkistari esker, merkataritzak mugimendu handia izan zuen. Antso Azkarra ekonomiaren egoera bikainaz baliatu zen, Aragoiko nobleziari laguntzeko, lursail eta hiribilduak erosteko eta horien antolamendu eta saneamendurako administrazio publikoko eredu bat lortzeko.

Kleroak ere egoera ekonomikoari onura atera zion, eta, apezpikuak, kapituluak eta monasterioek ondasunak nahiz mendeko eremuak handitu zituzten. Tuterako katedrala eta klaustroa, Iruñeko katedraleko sail batzuk, Tulebras, Fitero, Iratxe, La Oliba, Irantzu eta Orreagako tenpluak, San Nikolas, Tuterako Magdalena, Lizarrako San Migel eta San Pedro, Zangozako Santa Maria eta Santiago, Garesko Santiago eta Erriberriko San Pedro elizak eraiki zituzten. Eraikin horietan estiloak nahasi egiten dira, erromanikotik gotikorako aldaketa dela eta.

Gizartearen egitura tradizionala aldatu egin zen morisko, judutar, frankoen eta ordena erlijiosoen asentamenduak bultzatuta. Erregeek boterari eutsi zioten noble eta kleroaren laguntzari esker; dena den, Antso

Azkarra bere kasa aritu zen eta elizako ordezkarietara eraso egin eta, zenbaitetan, noblezia baztertu ere egin zuen.

Tronuratzeari dagokionez, Nafarroako erregeek ez zituzten olioak igurtzen eta koroatzen, pabes gainera igotzen zituzten besterik gabe. Igurtzi eta koroatu zuten lehenengoa Evreuxko Karlos II.a izan zen; errege horrek ekintza taumaturjikoekin zuten, hau da, pertsona aunitzek, minak sendatzeko, erregeari eskuak haien kopetan jar zitzaizkion eskatzen zioten, errege-botereak karisma handia ematen ziolakoan. Aipatu erritua XI. mendean jada, Ingalaterra eta Frantziako errege-erreginek egiten zuten.

8.1. Champagneko Etxea

Teobaldo I.a (1234-1253) Nafarroako Blanka eta Champagneko Teobaldo kondearen semea zen, eta, ondorengorik gabe hildako Antso Azkarren iloba. Bada, tronuratu berria zela, Aragoi, Gaztela eta Ingalaterrarekin hitzarmena egin eta Gaztelako Fernando III.ari Araba eta Gipuzkoa eskatu zizkion, batez ere. Hasieratik, nobleziatik urrundu zen, eta atzerriko aholkulariek maneiatu zuten.

Horrela, ia mende batez, nafarrak, haien hizkuntza eta kultura eza gutzen ez zituzten pertsonen menpe egon ziren, erresumatik urrun bizi eta administrazioa frantsesen esku uzten zutenen menpe, hain zuzen. Gertakari horiek ondorengo eragin zuten, baina pizgarri gertatu ziren, ahaleginetan bategin eta, geroago, frantsesen eraginetatik askatzeko.

1238an, zaldun, elizgizon eta gizon aberatsen batzordea eratu zuten, *Antzinako Forua* idazteko, hots, erresumako lehen konstituzio idatzia. Idatzi horri jarraiki, erregea erresumako lege eta foruen menpe gelditzen zen, eta ez zuen gobernatzerik aldezturik Forua zintzen gabe.

Noblezia, erregeak bakarrik gobernatzearen kontra eta aholkulari frantsesen kontra izan zen beti. Horregatik, infantzoiak, aldi behin, Batzordean (Obanos) elkartzeko ziren, erregeek gauzatzen zuten justiziaz mesfidatzen baitziren. Erregeak estreinakoz, *Cort general* deitu erakundea batzartu zuen, hots, nobleziak eta Iruñeko apezpikuak osatutako ez-ohiko

batzarra, zerga berezia eskatzeko; horiek, ordea, haren leialtasuna zalantzan jarri zuten, eta, horrez gain, erregearen eta seneskal edo gobernariaren boterea murriztu nahi izan zuten. Seneskalak lurraldea gobernatzen du erregea kanpoan dagoenean.

Tenentziak, erresumako eskualdeak administratzen zituzten gizon aberatsak ziren. Bada, Teobaldo I.ak, funtzionario edo merioekin –hortik dator merindade izena– ordezkatu zituen, funtzio fiskal eta polizialak bete zituzten. Azkenik, kontabilitate idatzia sartu zuen, eta diru-sarrera eta gastuak erregistratzen hasi zen. Erregeak justizian esku sartzeagatik, Iruñeko apezpiku Gazolazko Ximenezek hari aurre egin eta eskumikatu zuen.

Teobaldo nabarmendu zen, poesia eta musikarekin zituen dohaiengatik. Jainkoari gurtza, maitasuna eta Lurralde Santuko gurutzadak –bertan gogatsu parte hartu zuen– gaitzat zituzten maitasun kantak eta musika-doinuak idatzi eta konposatu zituen. Aldi berean, trobalaria bultzatu zituen, Iruñeko gortean hala nola Tuter, Lizarra, Zangoza eta Erriberriko jauregietan zehar, haien konposizioak eta lanak jotzera.

Bere ondorengoak, **Teobaldo II.ak** (1253-1270), hamalau urte zituela, foruen zina egin zuen eta *Nafarroako herri osoa babestuko* zuela agindu. Nobleek, euren eskubideak finkatzea lortu zuten, ez pribilegio gisa, baizik eta konstituzio-eskakizun gisa; hala ere, erregeak, erabaki politikoe-tatik kanpo utzi zituen. Teobaldok, bestalde, ez zuen foruen menpe egotea onartzen, horregatik aita sailduak olio igurtzea eta koroatzea lortu zuen (1259), errege-erreginen jatorri jainkotiarra justifikatzearen.

Burgesiak begi onez ikusi zuen erregeak ez ohiko zergak ezartzea eta Teobaldok ospe politikoa eta baliabide ekonomikoak eman zizkien. Herri askok, baita frankoek ere, foruak lortu zituzten, eta erregeak ere frankoak gobernuan sartu zituen. Aurizberri deitutako hiribildua sortu eta lurralde osoan barna komentuak eraiki zituen. Halaber, Lizarra, Tuter, Zangoza, Iruñea eta Bortuz bestaldeko merindadeak finkatu ziren; administrazio mekanismoak eta erresumako diru-sarrera nahiz gastuak hobetzea erdietsi zuten. Horri esker izan dezakegu biztanle kopuruaren,

aurrekontuen eta zergak ordaintzen zituztenen berri. Aurrekontuaren %6'57 burokrazia zibilak hartzen zuen; %33'87 administrazio militarrek eta %59'56 erregeak eta bere kudeaketak. Administrazioan idatziz jasota zegoenaren arabera, Nafarroak 150.000 biztanle zituen.

1256an, Gaztelako erregearengandik Donostia eta Hondarribia izeneko hiribilduak eskuratu zituen, hots, itsasorako irteera, eta merkataria nafarrei frankiziak eman zizkien mendeko gainerako urteetan. 1270ean hil egin zen, bere aitaginarreba Frantziako San Luis IX. arekin Tunezko gurutzadatik bueltan zetorrela.

Teobaldo II.ak, gorte kultuan hezia, erregearen betebeharreran aritzeaz gain, gurutzadako borroketan eta trobalari estiloko poeta jardueretan ere jardun zuen, txandaka. Poesiari musika jartzen zion eta gorteko damei eskainitako maitasun bertsoak osatzen zituen. Gustukoen zuen gaia hauxe zen: maitearengandik urrun egoteak eta maiteak maite ez izateak sortzen duen samina. Poesia erlijiosoetan, Amabirjinari eskatzen zion maitasunaren fruitu ona eman ziezaion, berak baino mingostasun eta sufrimendu handiagorik ez baitzuen inork pairatu.

Teobaldo 1242an jaiotako Isabelekin ezkondu zen; emaztea nabarmendu zen eder ederra izateagatik. Trobalari anonimo batek ondoko bertsoak eskaini zizkion: « haren gorputzaren luzera, irribarre goxoa, aurpegi argia eta bere ibilera liraina ikusteak liluratzen nau. Natura artatsu aritzen huraxe osatzean. Ez dago huraxe maitatzeari utziko dionik. Bere begirada apalak urre eta zilarrezko altxorra balio du. Jainkoak, haren irudia ikusten duenaren gozamenerako egin zuen.»

«Gorputz liraina dauka, adats soltea, sorbalda apalak, oin ongi jantziak, aho irribarretsua, bular gogorra, arrosak maitatzean baino ezpain gorriagoak, aurpegiko larruazal argia, bekain artistikoak».

«Kanta, ez zaitez gelditu. Esan ezazu Provinsko jai handian izan zinela, 320 damen artean. Ongi jakin, goratu eta esan dut: bat ere ez da gazte koroatua bezain eder jaio».

Ondorengoa, Teobaldo II.aren anaia **Enrike I.a** (1270-1274) izan zen. Gutizia izan zen bere ezaugarri nagusia, ez baitzuen hiru burguak batzea onartu, Nabarreriarekin zituen tirabira ekonomikoak zirela medio. Herri eta hiri askori pribilegioak eman zizkien, esaterako, Lizarra, Urantzia eta Bianari, eta ekonomia nahiz ondasun higikorren alorrean, harreman onak izan zituen nobleziarekin. Bere kanpo politikak eta ezkontzek ez zuten bukaera zoriontsurik izan, ez baitzioten nahi bezain emaitza onik eman. Administrazioan, bere aurrekoaren politika berberari eutsi zion. 1274ko uztailean hil eta katedralean ehortzi zuten.

8.2. Frantsesen aldia

Errege frantsesek Nafarroan *frantses erara* antolatutako gobernua ezarri nahi zuten; gobernadore, ordezkari militar edo seneskal batekin konpontzen zuten etengabeko absentismoa. Nafarroako buruzagiek frantses politika hori gaitzesten zuten.

1274an, Nafarroako Blankak, 18 hilabeteko alaba Joanaren erregeordetza hartu zuen, eta Monteagudoko Pedro Santxez izendatu zuten gobernadore. Errege frantsesak bere seme Felipe eskaini zuen, Joanarekin ezkontzeko, baina Frantziako seme zaharrenaren bat-bateko heriotzak (1276) Felipe Frantziako erregegai bihurtu zuen.

Bitartean, Iruñean, Antso Azkarraren garaian hasitako San Zernin eta San Nikolas burguen eta Nabarreriarren arteko gatazkak irautesen. Horrek gobernadorearen dimisioa ekarri zuen, eta errege frantsesa egoeraz baliatu zen bere konfiantza osoko pertsona bat, Beaumarchais, ezartzeko. Baina, *sendabidea gaitza baino okerragoa izan zen*, Gaztelakoen nahien kontra egin eta Nabarrerria babesik gabe utzi baitzuen, beste bi burguen faboretan. Gertakari horrek apezpiku, kapitulu eta nobleziaren ordezkariak bultzatu zituen gobernadorearen aurka altxatzera, eta borroka odoltsuak izan ziren (1276).

Gobernadorea frankoen burguetan babestu eta frantsesei laguntza eskatu zien; Nabarrerriak, bere aldetik gaztelarrei. Frantsesek Nabarrerria

setiatu zuten bitartean, Alfontso x.ak bidalitako soldaduek Biana eta Mendabia hartu zuten, baina Erreniegan gelditu ziren, borrokan hasiera ausartu gabe. Aginteburu nafarrek, Baztango Ibañez eta Almorabiz nobleek, laguntza heltzen ez zenez, auzotik ihes egin zuten, frantsesei bidea irekita utziz. Katedrala eta etxebizitzak harrapakatu zituzten, biztanleak bortxatu, lepoa moztu eta auzoari sua eman zioten. Harrapakin handia lortu zuten.

Lekuko batek, Frantziako Tolosako **Guillermo Arelier** trobalariak, *Nafarroako gerra* olerkian ikuskizun ikaragarri hura deskribatu zuen: «Soldaduak alde batetik bestera lasterlean ikus zitezkeen: zerraldoak ireki eta txikitzen, burmuinak barreiatu eta buruak zatitzen, dama eta dontzeilak jotzen, gurutze santuari koroa lapurtzen eta zilarrezko lanparak hartu eta ezkututzen, kutxak ireki eta erlikiak, kalizak eta gurutzeak ebasten eta abar. Eta Nabarrerria, horren abaildua ikusiko zenukete, non ezingo zenuketen astebetean aterpean egon. Aitzitik, belarra egin eta garia erein zenezakete».

Nafarren erreboltak Capetotar errege frantsesen ankerkeria ekarri zuen, nobleei ondasunak bahitu eta administrazioaren kontrol zorrotza ezarri baitzuten. Postu nagusiak frantsesek bete zituzten, eta, Nafarroa bazterturik utzi zuten Frantzia handiaren aldean. Joanarekin ezkonduko Felipe IV.a Frantziakoa eta Nafarroako I.a erregetzean, egoera ez zen aldatu. Errege-erreginak ez ziren gordean bizi, administrazioa Parisetik kontrolatzen zuten eta Nafarroa, gobernadore, merio eta prokuradore frantsesek zuzentzen zuten.

Aitoren semeak eta lursail txikien jabeak, prelatuak, gizon aberatsak eta zaldunek batzarra osatu zuten, zentralismo frantsesaren aurrean haien askatasuna defendatzeko. «Batzordea» deitu izan zutenak Obanosko Infantzoiaren leloa zeraman: «**Pro libertate patria, gens libera state**». (Zutik gizon askeak aberriaren askatasunaren alde!).

Joana erregina hildakoan (1304), Nafarroako gizarte-taldeek Luis infantea erregetzea eskatu zuten, baina Felipe IV.ak ezezkoa eman zuen. Altxamenduaren arriskua ikusita, eta nafarrek erresumako Fortun Almo-

rabid alferiza errege izenda zezaketela ikusita, ordea, onartu zuen eta, 1305ean, Luis I.a, *Hutin Setatia* (1305-1316) ezizenez, errege izendatu zuten Iruñean. Laster desegin zituen nafarren ilusioak, bai Luisek, bai Felipe Luzeak (1316-1322), bai Karlos I.a Burusoilak (1322-1328), haien nagusitasuna inposatu baitzuten, talde buruak zigortu eta Frantziaren eraginpean gobernatu baitzuten. Horrela bukatu ziren Capetotarren familiakoen erregealdiak.

8.3. Evreuxtarren dinastia «nafarra»

Nafarroako Karlos I.a eta Frantziako IV.a hil zenean, Valoisko Felipe IV.ak hartu zuen Frantziako erregetza. Nafarroako buruzagiak, koroa hutsik gelditu zenez, Frantziarekin loturarik ez zuen errege bat bilatzeko batu ziren. Bitartean, nekazariak ekonomi krisi larria salatzen ekintzak antolatu zituzten, eta judutar aberatsen gutxiengo taldeari leporatu zioten horren errua. Lizarra, Andosilla, Gares, Funes, Biana, Alesbes eta Leringo judutegiei eraso egin eta aljamak suntsitu zituzten. Iruñea eta Tuterakoak onik atera ziren gobernadorearen esku-hartzeari esker.

Erresumako indar zoliak, Obanosko Infantzoien Batzordea, esaterako, Garesen batu ziren 1328ko martxoaren 13an, eta aho batez Luis Hutinen alaba Joana eta haren senarra Felipe III.a, Evreuxko kondea, aukeratu zituzten. Horrela Nafarroako koroak koroa frantziarrarekin zuen lotura askatu zuen, errege-erreginak jaiotzez frantsesak izan arren; baina, hala ere, aurrekoen antzera Parisko gortean bizi izan ziren eta agintea gobernadore frantsesen esku utzi zuten.

Alde ona aipatzearen, esan behar da legebiltzarra sendotu zela, eta hura izan zela gizarte maila guztien ordezkariak elkartzen zituen batzarra. Hiriko burgesiak garrantzi handia hartu zuten bertan, eta horrek ekarri zuen behe nobleziak eta infantzoiek indarra galtzea. Bestalde, administrazioa hobetu zen, inbentarioak eguneratu eta Nafarroa ordezkatzeko batzordea eratu zen, biztanleen bizitza bideratzea helburu zuen arau multzoa osatzeko, *Felipe III.aren Amejoramendua*, alegia.

Felipe III.ak, errege ekintzailea izaki, Frantzia eta Ingalaterrako koroekin harreman onak izan zituen, eta Granadako errege musulmanaren kontrako gurutzada bultzatu zuen. Gurutzadan zegoela, ordea, Jerez-en hil egin zen (1343). Bere emazte Joanak ordezkatu zuen 1349 arte.

Beste errege bat tronuratu zuten, Karlos II.a Gaiztoa (1349-1387); horrek auzua herrialdearekiko harremanak apaldu zituen, amarengandik jarauntsitako Normandia, Montpellier eta Borgoinako lurraldeak eman ez zizkiotelako. Mehatxua egin zien eskatuko ziela berari zegokion Frantziako tronua, baina Esteban Marcel hildakoan, hura hartzeko aukera izan zuenean, errefusatu zuen.

Karlos II.ak bizitokia Nafarroan jartzea erabaki zuen, baina bere erregealdia penintsulako erresumetako arazoek zipriztindu zuten; Pedro I.a Krudelaren alde egin behar izan zuen, hura Pedro IV.a *Zeremoniatsua*ren –Aragoiko errege eta nafarraren koinatua– kontra ari zela. Azkenean, Campo de Montielen (1369) gaztelarra labankada batez hil zen.

Karlosek aurki aldatu zuen iritzia, eta Aragoiko erregeak agindutakoak bultzatuta, Trastamarako Enrikerekin kidedu, eta mertzenario frantsesei, Gaztelako Pedro I.aren aurka borrokatzeko, bere lurraldetik pasatzen utzi zien. Trastamarako sasikumearen garaipenak Frantzia eta Gaztelaren etengabeko mehatxua ekarri zion Nafarroari. Arabako jabegoak utzi behar izan zituen, eta Fitero besterik ez zuen berreskuratu.

Baina Nafarroako erregeak ez zuen etsi, eta Ingalaterrari laguntza eskatu zion Frantziako lurraldeak aldarrikatzeko. Frantziako erregeak gatazkari amaiera eman zion, eta bere seme Karlos infantearen Frantziako jabetzak bahitu eta hura ere preso hartu zuen. Gainera, Gaztelako erregeak jakin izan zuen Nafarroako erregea Logroño hartzeko azpijokotan zebilela; horregatik, Gaztelako armadak Nafarroan sartu ziren, eta Tiebasko gaztelua suntsitu eta Iruñea setiatu zuten. Azkenean, Brionesko Bakean (1379) porrota iraingarria sinatu behar izan zuen.

Karlos II.ari historiak *Gaiztoa* ezizena jarri zion bere asmo sekretuengatik, eta errealtatearenak baino nobela bateko gertaerak ematen zuten eszenaz beteriko bizitzagatik. Aldiz, bere aitagarreba Joan II.ari

Ona ezizena jarri zioten. Karlosen alde esan daiteke erresumaren osotasunari eutsi ziola, urte aunitzez Nafarroan bizi izan zela, administrazioa modernizatu zuela eta bertakoek bete zituztela lanpostu horiek, hirietako merkataritza sendotu zuela, burgesek gizarte eta politikan gora egin zutelara, eta oinarriak jarri zituela, bere seme Karlos III.aren erregealdia oparota izan zedin. Hala ere, izurri beltzak eta landa-eremuetako etengabeko istiluek herri xehea astindu zuten. Hala eta guztiz ere, nekazariak, koroaren gastu handiak mantentzeko, diru-emate berezia egin behar izan zuten.

Iruñeko apezpiku **Barbazango Arnaldo** (†1355) garaiko pertsona garrantzitsua izan zen; kanonikoak atzerriko unibertsitateetara bidaltzeko beka-poltsa sortu zuen, eta Iruñeko otoitz-orduen bi liburu zaharrenak idatzi zituen. Halaber, katedrala berritu zuen, esaterako, gaur egun bere gorpuzkinak gordetzen dituen Santa Maria kapera, *barbazana*, eraikiarazi zuen. **Guesclingo Beltran** ere aipatzekoa da, militarra zelarik agintzeko gaitasun handia zuena; Nafarroan egon zen bitartean oso eraginkorra izan zen. Bera izan omen zen Montielgo zelaian Trastamarako Enrike hilzorian zegoen Pedro I.aren gainean ezarri eta, esaldi historikoa esan zuena: «Ez dut erregea jartzen, ezta kentzen ere, baina nire jaunari laguntzen diot».

Parisko Nafarroako ikastetxea ezin dugu aipatu gabe utzi. Nafarroan unibertsitaterik ez zegoen, Tuteran bat eratzeke Teobaldo II.ak egin zuen saiakerak arrakastarik ez baitzuen izan; horrela, ikasle nafarrak, kanonikoak, batez ere, Avignon, Montpellier, Tolosa eta Parisera ikastera joan zitezten, Evreuxko erregeak mezenas izan ziren. Ostatu hartzea errazteko aipatu ikastetxea eratu zuten (1304). Bertan 70 ikasle egon zitezkeen, eta bereziki, teologia ikasketak ematen zituzten; ospe handia izan zuen.

8.4. Karlos III.a Prestua eta diplomazia

Nafarroako herriak itxaropenez itxoiten zuen hurrengo erregearen etorrera. Jada, infante zelarik, bere aitaren etsaiekin, bakea egiteko gaitasuna zuela erakutsi zuen. Frantzia eta Ingalaterraren arteko liskarretan

parte hartu zuen, Elizaren Zisman tartean sartu nahi izan zuen, eta, erregetu zenean, arazo burokratikoak konpontzeko administrazio eraginkorra eta arina topatu zuen.

Karlos gortean hezia izan zen. Beraz, etiketa eta protokoloaren xehetasunak ederki zekizkien; horrela, sarri lortu zuen Frantziako Karlos V.a erregearen eta haren inguruko nobleen konfiantza. Bere politikaren helburuak, Frantzia, Gaztela eta Aragoi, hau da, aitaren etsaien adiskidetasuna berreskuratzea eta Elizaren zismaren arazoa konpontzea izan ziren.

Karlos III.a Prestua (1387-1425) Nantesen jaio eta Frantziako gortean hezi zuten, baina bizilekua Erriberriko jauregia izan zuen. Bertan eraikin galantak altxarazi zituen; orobat, Tuteran eta Tafallako jauregiak eraikiarazi zituen. Frantzia eta Gaztelarekin *ententea* gauzatu zuen, Avignonon Benedicto XIII.a apezpikuari jarraitu zitzaion, eta, batez ere, udalerrri bakarren eratuak, Iruñeko hiru burguak lasaitu zituen (Batasunaren Privilegioa, 1423).

Erriberrin, mota guztietako luxuz inguratua bizi izan zen: pinturak, tapizak, artisautza-lanak, altzariak, erlojuak, liburuak. Beste kargu nagusi batzuk egokitu zituen, baroiak, bizkonde, mariskalak eta abar, eta horiek luxu-maila bera zuten euren etxeetan. Errege Prestuak beste politika mota bati ekin zion, diplomatikoari, alegia. Borroka militarrek indarraren bidez ezin irabaz zitezkeenez, jauregietan, hitzarmenen bidez lortu behar ziren. Enbaxadoreek urratsez urrats akordioak prestatzen zituzten, eta, azkenean, erregeari aurkeztu eta horrek *negoziazioari azkena* ematen zion. Diru-sarrerak ahalbidetzen zituen administrazio ona izan zuen, gastu diplomatikoak handiak baitziren eta gortearen mantenuari eustea ere ez baitzen erraza, bertan beste erresumetatik *iritsitakoek* abegi ona izaten baitzuten.

Karlos Prestuak, azken batean, gorteko festak, arrandia, enbaxadak, bidaiak eta, herriak, huraxe errege aldarrikatzen zuela aditzera ematen zuten ekintzak gustuko zituen, eta, horretarako dirutza handia behar zen. Erresumak, ordea, ezin zezakeen halakorik jasan eta ez zuen halako dirutzarik. 14 seme-alaba izan zituen, haietarik 8 legitimo eta beste 6ak sasi-



KARLOS III.AREN ZIGILUA (1387-1425). Errege-erreginek ikurrak, zigiluak eta entseinak erabiltzen zituzten beren pertsonaren, leinuaren eta erresumaren sinbolo bezala. Zigilua Espainiara XII. mendean iritsi zen eta, hasieran, apezpikuek erabili zuten eta, geroago, errege-erreginek. Agindua betearazteko, indar handiagoa zuen bere irudiak errege-erreginak ematen zituen arrazoinamenduek baino.

Nafarroan, Antso VI.aren lehenbiziko zigilua gorde dugu (1157). Zeinu pertsonala zen hura eta, aldi berean, erresumaren identitate zeinua.

XIV. mendetik aitzinera, ezberdintasuna ezartzen da erregearen pertsonaren zigiluaren –armarriaren bidez irudikatua– eta estatu-izaerako zigiluaren artean –erregearen irudiaren bidez sinbolizatua.

Karlos III.ak garrantzi handi handia ematen zien zigiluei. Horrela, *Batasunaren Pribilegioa* delakoaren sinaduran (1423) agindua ematen du bere aurrean Iruñeko burguen zigiluak desegin eta urratzeko. Zehazki, «*desfacer e lacerar*» hitzak erabili zituen, eta, zigilu berria egitea agintzen du, sortu berri den hiri berri-rako.

koak. Horrenbestez, ezkontza ugari hitzartu behar izan zituen, guztiak egoera ekonomiko onean uzteko.

Politikari dagokionez, horrenbesteko dirutza eta denbora behar izan zuen diplomaziaren lan nekeza eta zailak fruituak eman zituen. Ingalaterra eta Frantziarekin zituzten arazoak konpondu ziren, baina Zismaren kontu korapilatsuak hor zirauen. Hasiera batean, Karlos III.ak Avignongo aita santuaren alde egin bazuen ere, ondoren atzera egin, eta Constanzako Kontzilioan parte hartu eta gero, azkenik, Martin V.aren alde egin zuen. Horren ostean, sistema berberari jarraiki, erresuma antolatzeari ekin zion.

Karlos III.a errege kaskarintzat jo izan zuten, bere gorte liluragarriaren handikeria eta zarrastelkeria zirela eta, Paris edo Londreseko gorteen parekoa baitzen. Baina, horrez gain, erregeak nortasun baketsua ere bazuen. Nafarroa 35 urte baino gehiagoz bakean bizi izan zen, eta, horrek, beste gai batzuei ekitea eta eragin-eremua handitzea ahalbidetu zuen.

8.5. On Karlos, Bianako printzea

Karlos Prestua hildakoan, **Aragoiko On Joanen** (Nafarroako Blankaren senarra eta, azken hori Karlos III.a Prestuaren alaba) eta bere primu Karlos Bianako Printzearen arteko borroka zibilak berriz ere hasi ziren, ehun urte lehenago hasitakoak, Beaumont eta Agramondarren arteko borroka, alegia.

Printzerria, erdi aroan, koroari garrantzi handiagoa emateko sortutako ohitura zen. Horrela, Ingalaterran Galesko Printzea (1283); Frantziar Delfin de Vienne (1346); Aragoien Gironako Printzea (1350) eta Gaztelan Asturiasko Printzea (1388) ditugu. Bianako printzerria Karlos III.ak sortu zuen, koroaren oinordekoek goza zezaten. Tituluak berekin, ondasunak, hiribildu eta lurraldeen jabetza zekarzkie oinordekoari. Bianakoak Bianako eta inguruko herrien errenta jasotzen zuen, baita Azkoien, Cadreita, Cintruenigo eta Corellakoa ere.

Joan, Nafarroako Blankaren senarra, Gaztelako Joan II.aren aurretik lehian aritua zen, azken horrek, bera eta bere anaiari, Aragoiko infan-

teei, Gaztelako lurretan zituzten ondasunak bahitu baitzizkien, eta haren nobleen artean banatu. Joan haserretu, eta lurraldeak berreskuratzeko noble talde bat elkartu nahi izan zuen.

Alabaina, Erregina Blanka Erriberrin bizitzera jarri eta gorteko kontuetan aritzen zen; bere aita ez bezala, era xumean bizi zen. Oso emakume erlijiosoa zen, Uxue, Orreaga eta Zaragozako El Pilar-era erromes joandakoa. Bere bigarren alabaren eta Asturiasko Printzearen ezkontzara zihoala, Santa Maria de Nievan hil egin zen (1441). Joanek koroa eskuratu zuen, baina Gaztelako borroketan murgilduta, ia ez zen Nafarroan izan; 1421ean, Peñafiel (Valladolid) jaiotako Karlos printzea izan zen horren ordezkari militarra. Azken hau bere amaren soiltasun eta apaltasunari baino, bere aitonaren bizimoduari jarraitu zitzaion, protokoloa eta handikeriari lotutako gorteko bizimoduari, alegia.

Gatazka, Blanka erreginaren testamentuak sortu zuen, bertan bere seme Karlos koroaren oinordeko aldarrikatu baitzuen, baina senarrari duintasuna ez kentzearen, ezin zuen errege titulua hartu aitaren baime-nik gabe. On Joan Nafarroara itzuli zen bere ondasunak berreskuratzearren (1449), Gaztelari eraso egiteko noble talde bat osatu nahian; semeak ia errege funtzioa betetzen zuen bera iristerakoan.

Karlosek ez zuen ongi ikusi aitaren presentzia eta tronua eman nahi ez ziola adierazi zion; gainera, ez zuen onartu bere aita Joana Enrikezekin ezkontzea, erresumako kontuetan eskua sartzen baitzuen. Gerra hasia zen jada. Nafarroa bitan zatitua zegoen: batetik, beaumontarrak zeuden; Beaumonteko Joanek, Leringo kondeak, zuzentzen zituen eta printzearen alde zeuden. Bestetik, Mosen Pierres Peraltak gidatzen zituen agramondarrek Joan II.aren alde egin zuten.

Gaztelarrek, **aita eta semearen arteko tirabira**, printzea euren aldera eramateko erabili zuten, eta Gaztelako **Isabel** printzesarekin ezkontzea eskaini zioten. Gatazka hasi zen, baina borroka armatua baino, eraso, uzta erretze, espedizio eta atxilotzeak gertatu ziren. Horrela, Leringo kondea eta printzea Oibarren preso hartu zituzten, eta, aita semeari karguak eta eskubideak kendu (1455) eta bere alaba Leonor eta Gaston

IV.a –Foixko kondeak– jarri zituen ordezkari eta ondorengo. Gero, printzeak osabaren, Aragoiko Alfontso V.aren bitartekotza eskatu zuen laudoa eman ziezaion, baina Aragoiko erregea hil zenean, Karlos Nafarroa eta Aragoiko oinordeko bihurtu zen.

Berriz ere, aitak giltzapetu zuen gaztelarrei laguntza emateagatik, baina Joan II.ari buruzko deskontentuarengatik, gaztelarrak altxatu eta katalanak matxinatu ziren, eta, horren ondorioz, semea askatu behar izan zuen; katalanek printzea oinordekotzat jo zuten. Azkenean, printzea, pleuresi eta tuberkulosiak jota hil zen, baina herriak heriotza bere amaorde Joana Enrikezi leporatu zion. Izan ere, 1453an, gerora Fernando Katolikoa izanen zena munduratu zuen, eta, huraxe Aragoi eta Nafarroako errege izatea nahi zuelako. Karlosen gorpuzkinak Pobleten gorde dira, Aragoiko errege-erreginekin batera.

Nafarroa gainbeheran eta gatazka zibiletan zebilen bitartean, ekoizpen literarioak maila handia erdietsi zuen. BERPIZKUNDEKO humanismo nafarraren adierazgarri bat Bianako Printzea izan zen. Poeta, historialari eta irakurketaren maitalea izan zen; erlijio, historia eta narrazio liburuz hornituriko liburutegi aberatsa zuen. Katalaneraz eta gazteleraz poemak idazteaz gain, Nafarroako erromantzez, estilo erretoriko eta bihurria erabiliz, *Cronica de los Reyes de Navarra* idatzi zuen. Bestalde, gertaera historiko eta fantastikoz jositako biografia berezia zela eta, Bianako printzearen bizitzak balio izan du, historialari eta literatoek eleberri moduan idatzi eta mito bihurtzeko; halaber, garai batean, Bianako San Karlos izena eman eta gurtua izan zen.

III
ARO MODERNOA

ITZULERARIK GABEKO BIDEA GAZTELARANTZ XVI. MENDEA

9.1. Nafarroa, erdi aroa eta aro modernoaren artean

Bianako Printzea hil ondoren, bere aitak, Joan II.ak, jabetzak handitu eta legez zegokion jaraunspena lortzeko asmoari eusten zion; Katalunian, batik bat, gerra luzean aritu zen. Bestalde, erregeak, Gaztelatik Aragoiko estatuak kontrolatu nahi zituen eta Frantzia alboratu. Horretarako, bere seme Fernando Gaztelako Isabelekin ezkonarazi zuen. Galtzaillea Nafarroa izan zen, Frantzia, Gaztela eta Aragoiren aurrean baztertuta gelditzen baitzen.

Luis IX.ak Nafarroa zatitu nahi izan zuen, Lizarrako merindadea Gaztelara pasa zedin (1461), Kataluniako gerran gaztelarrak abandonatzeagatik. Azkenean, ez zen aldaketa gauzatu, baina data horretan bertan, Gaztelako soldaduek Biasteri eta Urantzia hartu eta ez ziren 1753 arte berreskuratu.

1462an, Leonor eta Foixko Kondea ofizialki Nafarroako ordezkari militar izendatu zituzten, baina egonkortasun ezak irauten zuen, beaumontarrak eta Leringo kondea, Beaumonteko Luis, itzuli zirenean, haien

ondasunak eskatu baitzituzten. Joan II.ak erresuma bere konfiantzazko gizonaren esku utzi zuen, Azkoiengo Piarres agramondarraren esku; horrengan, bere alaba Leonorengan baino konfiantza handiago zuen, alabak frantsesen aldeko isuria agertzen baitzuen. Agramondarrak Kataluniako eta Gaztelako fronteak baretu zituen, eta penintsulako erresumak batzeko lorpenik handiena erdietsi zuen, Isabel eta Fernandoren ezkontza, alegia.

Nafarroa eta Aragoiko erregeak horrenbesteko jarduera izan zuen, non bere alaba, gobernatzeko gai ez zelako, ordezkarietatik kendu eta bere biloba Gaston –Frantziako Luis XI.enaren alaba Magdalenarekin ezkondu- ta zegoena– jarri zuen. Gaston gazte hil zen eta, berriro ere, bere alaba jarri behar izan zuen karguan; alabak, beaumontar eta agramondarren arteko liskarrak jasan behar izan zituen. Bere aita hildakoan (1479), Fernando eta Gaztelako Isabelekin itun bat sinatu zuen, Nafarroa Gaztelako protektoratu izan zedin, eta Frantziarekiko neutraltasuna agindu zuen.

1479an, Foixko Frantzisko Febo, Foix kondeen biloba, erregetu zuten, eta bere ama Magdalenak erregeordetza bete zuen. Lehenengo istiluak, **Narbonako Joanek**, Francisco Feboren osabak, tronua eskatu zuenean, sortu ziren. Bere anaia Gaston errege izatera iritsi ez zenez, bere seme-alabak, Francisco eta Katalina ezin ziren oinordekoak izan, beraz, bera seme zaharrena zenez, berari zegokiola esan zuen. Arazoak larriago egin ziren Francisco hil eta bere arreba Katalinak ordezkatu zuenean. Albretako Joanekin ezkondu eta hamar urtez erregetzeko arazoak eta zailtasunak izan ondoren, 1494an koroatu zituzten. Baina beaumontar eta agramondarren arteko azpikeria eta ezadostasunak, eta narbonatarren zango- trabek –erregetza desorekatzeko frantsesekin kidetu ziren– Nafarroa gobernatzea zail egin zuten.

Frantziako errege Luis XII.ak babesturiko Bloisko itunak (1512) Nafarroako errege-erreginak frantses koroaren eskuetara eraman zituen. Egun batzuk geroago, Albako Dukea, Leringo kondea eta Gongorako

markesa Burunda eta Arakiletik sartu, eta uztailaren 23an, Iruñera iritsi ziren. Horren ondorioz, erreginak Biarnora alde egin zuen. Iruñeak 1512ko Done Jakue egunean eman zuen amore. Tuteran etsi zuen azkena izan zen. 1515ko Burgosko gorteetan Fernandok Nafarroa Gaztelarekin batu zuen.

Une historiko horren barruan ezin dugu **Cesar Borgia**, Valentinois-ko dukea (1475-1507) ahaztu; agramondar eta beaumontarren arteko matraka batean zaurituta izan ondoren, Mendabia eta Biana artean hil zen. Nafarroako erregearen arreba Albreteko Karlotarekin ezkondu zegoen (1499), eta agramondarren errege-armadaren burua zen.

Cesarrek, Iruñeko apezpiku, Valentziako artzapezpiku eta kardinalak, kardinal-kapeluari uko egin zion Italian erresuma bat osatzeko asmoz, eta lurralde zabalak eskuratu zituen. Alejandro VI.a aita sainduaren semea izanik, pontifizeen laguntza jaso zuen, baina bere aita hil zenean, Borgiatarren etsai batek Erromako apezpikutzat hartu zuen, eta, orduan preso hartu zuten eta Espainiara bidali Medina del Campoko gazteluko kartzelara (1504). Handik ihes egin zuen eta bere koinatuak, Nafarroako Joan III.a Albretekoak, babesa eman zion. Borgiatarrek (Borja) espainiar jatorria zuten, Xativakoak (Valentzia), hain zuzen; Italiara aldatu eta han ospe handia hartu zuten. Familiako bi kide aita saindu aukeratu zituzten, Calixto III.a (1455-1458) eta Alejandro VI.a (1492-1503).

9.2. Seigarren Merindadea, Bortuz haraindikoa edo Nafarroa Beherea

Asko izan dira mendiz haraindiko lurralde hori –oroitzapenez beteriko lurra, bere ama lurretik, hau da, Nafarroatik indarrez erauzia– izendatzeko erabili izan diren izenak. Seigarren merindadea, Pirinioz haraindiko zazpi eskualdeen erresuma, Basse Navarre (izen frantsestua), Baxenafarroa edo Bortuz haraindiko merindadea deitu izan zaio.

Nafarroa Garaia, hau da, gainerako lurraldeari kontrajartzen zaion Nafarroa Beherea izena XVI. mendean zehar hedatu zen. *Merindade* izena, egia baino utopia izan zen, *sei merindadeen Erresuma* sortzearekin

amets egiten baitzuten. Nafarroa Beherea 1.800 suk edo familiak osatzen zuten, eta hiru mailatan banatuta zeuden: infantzoiak (edozein motatako nobleak); etxe frankoak edo erregearenak (noble mailarik gabekoak, baina erregearen aginpidepekoak) eta feudoak zituzten etxeak (haien lurrak eta jaurgoarenak landu eta, gainera, zergak ordaintzen zituzten).

Hizkuntzaren nortasunaren funtsezko datu gisa esan behar da euskal hizkuntza idatziaren jatorria zazpi eskualdeen lurraldean dagoela. Garazin bizi zen Bernat Etxeparek 1545ean euskarazko lehen testu idatzia argitaratu zuen, *Linguae vasconum primitiae*. 1571ean, kalbindar bihurtutako Albreteko Joanak eskatuta, Joanes Leizarragak *Testamentu berria* euskaratu zuen, lehenbiziko aldiz. Hizkuntza horretan idatziriko beste testu aipagarri bat, Nafarroako erregina Albreteko Joanaren seme jaioberriaren, Enrikeren, omenez idatzitako sei bertsoko poema da.

Beraz, Bortuz haraindi hizkuntza idatzi bat sortu zen; lehenengo euskal literatoak, Etxeparek, zioen bezala, grekoa eta latinaren parera iritsi nahi zuen hizkuntza, hots, hizkuntza landua bihurtu nahi zuena. Hala ere, Joan Etxegarai, *Artzain gorriaren* idazlea eta Arnaud de Logras poeta nabarmendu ziren. Nafarroan, horrenbestez, hiru hizkuntzen ernamuina gertatu zen: euskara, erromantze nafarra eta gaztelera.

Bestalde, Nafarroa Beherea, Nafarroa, Frantzia, Gaztela eta Aragoiko errege-erreginen topagune eta, aldi berean, liskargune bihurtu zen. Nafarroako Antso III.a Handiak († 1035) bere ametsa egia bihurtu zuen, Gaztelatik Garona ibaira bitarteko errege izan baitzen. Baina bost mende geroago, Albako Dukeak Bortuz haraindikoa eta Iruñea hartu zituen, eta, ordutik aurrera, Nafarroa Garaiaren eta Beherearen bizitzak paraleloak izan ziren. Ez, ordea, senidetuak.

Espainiako Karlos I.ak ezin izan zuen, ordea, Nafarroako lurralde osoa bere menpean atxiki, *Baxenabarr*ko lurralde gehiena Frantziako Enrike II.aren eskuetan zegoelako, errege eta zerga-biltzaile gisa. Espai-

nia, Nafarroa eta Alemaniako erregea, Donibaneko gotorlekua edukitzearekin konformatu zen, Nafarroan Luzaidetik sartu ahal izateko.

Espainiako Erresumako Diruzaintzan idatziz agertzen da (1527) Bortuz haraindiko zergak egiaztatzeari utzi ziotela. Hortaz, horrek esan nahi du **Karlos I.ak ez zuela lurraldea kontrolatzen**. Alfredo Floristán historialariak dioenez: «Karlos I.a ez zen erresuma osoari eusteko bere aitona Fernando bezala ahalegindu. Izatez utzi zuen, ez eskubidez, inon ez baita agertzen lurralde horri formalki uko egin zionik». «Zalantzarik gabe, Espainia eta Nafarroako erregeak, lurralde baten truke –Nafarroa Beherea– frantsesekin bakea izatea merezi zuela, pentsatu zuen, turkiarren arriskua Vienara hurbiltzen ari baitzen (1529)».

Orduan, Albreteko Enrike II.a eta Angulemako Margarita Nafarroatik banaturiko Erresuma independenteko errege-erregina bihurtu ziren; hiriburua Paue izan zen. Bertan, gaur egun, oraindik Nafarroako Legebiltzarra kontserbatzen da. Bere biloba, Enrike III.a, Frantzia eta Nafarroako errege izan zen (Enrike VI.a deitua), eta handik aurrerako errege-erreginek bi titulu horiek izan zituzten harik eta 1789ko iraultzan, Nafarroako Erregearen titulua kendu zuten arte. Bortuz haraindikoa, Zuberoka, Biarno eta Lapurdirekin batera, Pirinio Atlantikoetako Departamenduen menpean gelditu zen. Gauza berbera gertatuko da Espainiako erregeekin, hots, Nafarroa Garaiaren gaineko jabetzarengatik: Karlos I.a, Felipe II.a eta abar, eta, ondorioz, Felipe IV.ak Nafarroako errege titulua Frantziako Luis XIII.a bere koinatuarekin partekatu zuen.

Albretarren Gortea Nafarroa Beherean garrantzi handiko kultur gune bilakatu zen; sustatzaileetariko bat Angulemako Margarita, *Heptameronen* idazlea, izan zen. Shakespeareren *Maitasun galduaren lanak* idazkia ere lurralde horretan girotu zen.

Horrenbestez, Nafarroatik eta bere biztanleengandik, lurraldea banatu eta zati bat erauzi zieten; halaber, bere historiari dagokionez, administrazioaz frantsesa izanagatik ere, lurraldea nafarra baitzen sentimendu, ohitura, folklore eta hizkuntzaren aldetik.

9.3. Urrats sendoaz Gaztelarantz

Nafarroa, inguruko erregeen *harrapakin gutiziatua* izan zen, Gaztela, Aragoi eta Frantzia artean kokapen estrategikoa zuelako. Interes horiek nafarren ondoeza eta desosegua zekartzaten, gaztelar oheratu eta frantses jaikitzea erraza baitzen.

Nafarroak bi mende baino gehiago zeramatzan frantsesen eraginpean, bertako bizimodu, kultura eta erakundeei egokitu ez ziren frantses jatorriko errege-erreginak izateagatik. Erlijio katolikoa, hizkuntza, kultura eta ekonomiaren aldetik Nafarroak Gaztelarekin antza handiagoa zuen. Gaztelarrek lurraldea hartu zutenean, familia batzuk Aragoi eta Gaztelakoei odolez lotuta zeuden, esaterako, Luis Beaumont, Leringo bigarren kondea Fernando Katolikoaren koinatua zen.

Beraz, Nafarroa erresuma independente izaten ezin segitzekotan, bazirudien Gaztelari lotzeak eragin gutxiago izan zezakeela, Frantziari lotzea baino. Denbora luzean erresuma berezia izan arren, Gaztelarekin azkar eta arazo handirik gabe batu zen; gizarteko hainbat sektorek ongi eta lasai ere hartu zuten, gerrez eta errege-erregina frantsestuen handikeriez nekatuta baitzeuden, eta Gaztela maila handiko erresuma baitzen eta On Fernando egile ona.

Nafarroak, Frantziako mugan egonik, garrantzi militar, erlijioso eta estrategiko handia izan arren, Gaztelako erregeek bigarren mailakotzat jotzen zuten munduko beste jabetzekin alderatuta. Hauxe nahi zuten soilik: Iruñeko gotorleku militarra eduki, aduanako zergak kontrolatu, armada handitzeko nafarren parte hartzea *kupoan*, gobernu zentralari ordaindu behar zitzaion *dohaintza* edo zerga Gorteen onestea, eta, erregeek, Gortean egindako lege gehienei on ikusia ematea.

Anexioak ez zuen galarazi aro moderno osoan **erdi aroko foru guztiei eustea**, errege guztiek egiten zuten zin egiteari esker. Zinaren bitartez, erregeek, legeak errespetatu eta betearaziko zituztela agintzen zuten, eta, Gorteen lehenbizi, eta, Diputazioa gero, zin egindakoa betetzen

arduratuko ziren. Baina gizartea aldatzen denez, erakundeak eta foruak, garaian garaiko aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoei egokitu behar izan zitzaizkien.

9.4. Nafarroa, Gaztela-Aragoi eta Frantziaren artean

Gaztelakoek Nafarroako hegoaldean egin zuten lehenbiziko okupazioa hain izan zen azkarra eta erraza, non ez baitzitekeen pentsa behin betikoa izanen zenik. Nafarroak, 1515ean, hasi zuen bere ibilbidea Gaztelako koroarekin, baina urteak igaro ziren ofizial egin arte, Felipe IV.ena-rekin gertatu baitzen hori.

Aurretik ere, zenbait alditan, anexioa gauzatzeko zorian izan zen, hala Frantziaren aldetik, nola Gaztelaren aldetik. Gertakaria azkartu zen ondokoagatik: gaztelarrak konturatu ziren Nafarroako erregeak inpartzial ez zirela eta frantsesekin elkar aditzen zutela; bestetik, Italiako iparraldean Espainia eta Frantziaren arteko borrokak irauten zuen, eta, azkenik, agramondar eta beaumontarren arteko liskarregatik.

Frantziako Luis XII.aren eta Joan III.a zein Katalinaren artean sinaturiko **Bloisko Itunak** (1512ko uztailaren 18a) frogatu zuen frantsesek nafarrei babesaren ematen zieten, baita azken horien partzialtasuna ere, nafarrek «adiskideen adiskide eta etsaien etsai» izanen zirela agindu baitzuten. Horri gaineratu behar zaio errege-erreginek gaztelarren aldekoa zen Leringo kondeari lurraldeak kendu zizkiotela. Itunak, berez, Nafarroaren inpartzialtasuna agintzen bazuen ere, benetan Ingalaterra eta Espainiarekin haustea ekarri zuen. Joan eta Katalinak ez zuten nafarren ongizatea kontuan hartu, zentzuzkoena baitzen babestuko lituzkeen armada indartsua zuten Espainia eta Ingalaterrarekin batzea. Ordea, euren interesei erreparatu zieten, Frantziako erregeek bertan lurralde zabalak eta babesaren agindu baitzizkieten, baina frantziarren armada ahulagoa zen.

Nafarroako errege-erreginen jarrera ikusita, artilleria nahikoa eta eraso egiten esperientzia handia zuen armada hispaniar-ingelesa, beaumontarren laguntzarekin, Iruñean sartu zen, Albako Dukea buru zuela

(uztailak 25), ia erresistentziarik gabe. Albreteko Joanek Zangoza aldera alde egin zuen, berehala. Lurrealdea hartzeko erraztasunak ikusita, **Nafarroa osoa hartzea erabaki zuten**. Fernandok exijitu zuen nafar guztien obediencia zina.

Fernando Katolikoak, hasiera batean, behin-behinekoa zen okupazioa behin betiko izan zedila nahi izan zuen; hala agertzen da Julio II.a aita santuak eman zuen *Pastor Ille Caelistis* buldan (1512), neutraltasun politikoa izan zezaten Nafarroako erregeak ikaratzearren. Bestalde, Gaztelako erregeak Sevillako apezpikuari bidali zion gutunean (uztailak 25) azaldu zion Iruñea hartzea erraza gertatu zitzaiola, eta Elizaren onerako egin zuela, horrela Nafarroa zismatik, eta frantsesek Avignongo apezpikuari ematen zioten laguntzatik, urrundu egiten baitzuen.

Konkistak ez zuen, beraz, oposiziorik izan; **Albako Dukea** ongi armaturiko 15.000 soldadurekin sartu zen Iruñean. Giza baliabide eta artilleriarik gabeko hiriak babesik gabeko harresia besterik ez zeukan, eta, gainera, ez zuen frantsesek agindutako laguntza jaso. Dukeak jarritako baldintzak abantailatsu eta eskuzabalak izan ziren; batzearen aurreko foruak, pribilegioak eta ohiturak errespetatuko zituela eta ondasunak kenduko ez zizkiela, agindu zien. Era berean, agramondarrei eta ihes egin zuten guztiei etxera itzultzea eskaini zien, eta horrek biztanle gehienak poztu zituen.

Alabaina, Tuterak, Nafarroako errege-erreginen interesei tinko eutsi zien, eta 1512ko irailaren 9a arte ez zuen kapitulatu. Albako Dukeak Iruñean paseo arranditsua egin bazuen, Aragoiko Alonsok zailtasun gehiago izan zituen eta benetako erasoari ekin behar izan zion. Tuteran, babesik gabe egon arren, frantsesen laguntza iristea espero zuten eta azkeneko eraso atzeratzen saiatzen ziren bahituen truke. Baina Luis XII.ak ere Tuterara laguntza bidaltzea atzeratu zuen, nahiago baitzuen Bidasoa ibai ondoko Guyena babestu Albreteko Joani laguntza eman baino. Azkenik, armada franko-nafarra Tuterara iritsi zen, baina denbora luzea igarota zen

egoera horretan iraun ahal izateko. Kasu honetan konkista militarra inposatzailea eta bortitza izan zen; erbesteratzeak, exekuzioak eta ondasunen bahiketak izan ziren.

Orduan ere, frantsesak, berriz ere, Iruñea setiatzen saiatu ziren, baina Enrike VIII.ak bidalitako armada ingelesaren laguntzaz gaztelarrek garaitu zituzten (1512ko azaroa). Frantses erretagoardia erretiratzen ari zela, Belateko mendatean, gipuzkoarrek eraso egin zieten; mila frantses baino gehiago hil zituzten eta kendu zizkieten, gaur egun, Gipuzkoak bere ikurrean agertzen dituen 12 kanoiak.

9.5. Batasuna, eranstea edo anexioa?

Fernando Katolikoa *koroaren gordailuzaina* izatetik Nafarroako errege izatera pasa zen; behin-behineko okupazioa behin betikoa bihurtu zen. Baina horrek guztiak nazioartean justifikatzea eskatzen zuen, eta hori egin zuen Burgosen 1512ko abuztuan; hala ere, erdizka kontatutako egiak eta isiluneak tartekatzen dituen idatzia faltsukeria ugariren adierazlea da.

Aipatu idatzian, Fernandok bi aukera zegoela adierazi zuen: bere alde edo bere kontra egotea, Erromako apezpikuaren alde egon edo Elizaren kontra egotea. Bestalde, frantsesak koldartzat jo zituen, Nafarroako errege-erreginei laguntza ez emateagatik, eta Nafarroa, Frantziako zismatik babestearren hartu zuela. Horrela zuritu zuen bere burua. Odolez zegozkion eskubideak, Nafarroako Joan II.aren semea izateagatik edo Foixko Germanarekin ezkontzeagatik zegozkionak, alde batera utzi zituen.

Batik bat, giro politikoetan Fernando errege sendotzat agertu nahi izan zuten; nazioartean boterea eta sona zuen erregea, eta erlijio bakarra eta inperio handia –Indietan eta Napolin– izanen zuen **Hispania erro-matarren batasuna lortzea** helburu zuena. Nafarrek ere errege Katolikoa Gaztelako gobernatzaile egokia zela ikusi zuten, justizia egin eta herri xehearekin arduratzen zena, baita bere lurraldeetan bakeari eusteaz ere. Gainera, Nafarroak mendeak zeramatzan egonkortasun eta batasunik

gabe. Burgesek haien negozioetan, Albako Dukeak agindu zien arrakastarekin amets egiten zuten.

Penintsulako giro kultuetan argudiatu eta begi onez ikusten zuten gaztelarrek Nafarroa hartu izana, garaiko modako liburuaren, hots, **Maquiaveloren** *Printzea* (1513) izenekoaren, eraginez. Liburuaren arabera, helburuak bitartekoak justifikatzen ditu, «beti zilegi ez diren bitartekoak erabili daitezke haien bidez guztioi komeni zaigun bakea lortuz gero».

Nafarroako buruzagitzak ere Gaztelari eranstea onartu zuen, eta, sarri, herria dinastia jarri berriari moldatu zitzaion, horrek legeak eta foruak errespetatzen zituelako, frantses kalbinismoaren aurrean erlijioaren batasuna lortu zuelako, eta, azkenik gerrak urrun gelditzen zirelako.

Eztabaidak, haatik, hor dirau: batasuna, gehitzea edo anexioa izan zen? Ez dira sinonimo, eta garaiaren arabera ñabardura bereziak izan dituzte. Horrela, XVI.-XVIII. mende bitartean, adibidez, *batasun eta gehitze* hitzak modu bertsuan erabiltzen dira. Hori islatzen dute, behinik behin, Fernando Katolikoak Gaztelako Gorteetan (1515) adierazitakoak edo Erriberriko Gorteetako idatziek (1645). Zenbait autorek *anexioa*, independentzia eta dinastia galtzarekin parekatu izan dute, baina XVI. mendeko gertaera historikoa ezin dugu egungo inperialismoaren ikusmolde kolonialista eta menperatzaitetik abiatuta ulertu. Garai guztietan ez da motibazio berbera izaten, eta, beraz, gaur egungo ikuspuntutik abiatuta, ezin dugu iragana –eta are gutxiago orduko terminologia- osoki baloratu, ezta juzkatu ere.

9.6. Nafarroa eta Gaztela, «bi aldeen arteko berdintasuna»

Luis XII.ak eta Albreteko Joan III.ak porrota onartu ez, eta erresuma berregiten saiatu ziren (1515ko azaroa). Hori galarazteko, Fernandok gotorlekuak konpondu zituen, agramondarrei barkamena eman eta Azkoiengo Alonsori Faltzesko Markes titulua eman zion. Nafarroako Gorteak estreinakoz elkartu ziren (1513ko martxoa), eta Katolikoak Valladoliden foruen zina egin zuen.



ESPAINIAKO ARMARRIA, NAFARROAKO KATEAK SARTUAK DITUELA. Nafarroa, xvi. mendearen hasieran, «pieza» guti-ziatua zen frantziarrak eta gaztelarrentzat, elkarren arteko lehia baitzebiltzan euren hegemonia Europan mantentzeko. Nafarroa Frantziarekin kidetuz gero, Errege Katolikoek Pirinioetako defentsa naturala galtzen zuten; erregetza espainolean sartuz gero, Frantziak etxe barnean izanen zuen etsaia, errege-erregina nafarrek lurralde zabalak baitzituzten Galian.

Bloisko Tratatuaren sinaduraz geroztik (1512), Nafarroa eta Frantzia arteko akordioarekin, On Fadrique de Acuña, hots, Albako Dukeak, eta bere armadak aisa lortzen dute garaipena eta Iruñeko kapitulazioa ere bai. Nafarroa Gaztelako koroan sartzen da bere foruak eta bere identitate-zeinuak galdu gabe. Armari katedunak, Nafarroako ezaugarri horiek irudikatzen ditu, eta, armari hori, aldi berean, Espainiako ikurrean txertatua geratzen da.

Nafarroa Gaztelako koroari behin betiko erantsi zitzaion 1515eko uztailaren 7an, Burgosen deitutako Gaztelako Gorteen hala erabaki ondoren. Fernandok beti nahi izan zuen bere bigarren emaztearen, Foixko Germanaren, oinordeko bat izan, eta hari Aragoi eta Nafarroako errege titulua eman, bere biloba Ganteko Karlosekin ez baitzen sobera fidatzen. Ez zuen, ordea, lortu, eta jada, oso larri zegoenean, bigarrena aukeratu behar izan zuen.

Lasaitasunak gutxi iraun zuen, Luis XII.a hildakoan, Frantziako I.a erregetu berriak Nafarroarekiko interesa suspertu eta Albreteko Joani laguntza eman baitzion. Baina, azkenean, Karlos I.ak Frantziako muga zaintzeko garrantzi berezia zuen lurralde gisa anexionatu zuen. Eransteko era zehaztugabea izan zen, eta 1645 arte, ez zen Nafarroaren *statusa* zehaztu; orduan Felipe IV.ak, nafarrek gaztelarren antzera onura eta egitekoetan parte har zezaketela onartu zuen. «Pareko nagusitasunaren batasuna» deitu beharko genioke, berdinetik berdinerakoa, hots, **aldean arteko berdintasuna**. Ordutik aurrera, Nafarroakoa, Aragoi eta Gaztelako erresumek zuten maila, berezitasun eta tradizio bereko erresumatzat jo zuten.

Frantziako I.ak eta Albreteko Joan III.ak birkonkistatzeko bigarren saioa egin zuten 1516an. Karlos I.ak Gaztela eta Aragoiko koroa eskuratzean izan zuen harrera hotzaz, Gaztelako nobleen batasun ezaz eta agrarondarren desilusioaz, baita beaumontarren etsipenaz ere, baliatu ziren. Albreteko Joanek indartsu ikusi zuen bere burua, frantsesen laguntza alde batera utzi, eta erbesteratutako nafarrak eta lurraldeko gaskoi eta biarnotarrak elkartu zituen. Nafarroako Pedro jauna buru zutela, Nafarroa birkonkistatu nahi izan zuten, baina lurjotzea izugarria izan zen, militarra baino, morala, desertzio ugari izan baitzen eta buruzagi agrarondar nagusiak harrapatu baitzituzten. Aldi berean, **Cisneros kardinalak** gazteluei *goiko aldea mozteko* eta gotorleku nahiz harresiak suntsitzeko agindu zuen, buruzagitza berriz altxatuko zen beldurrez baino erdi aroko egiturei itxura berria ematearren.

Albreteko Joanen azken porrotak jada, bere alde horrenbeste jende-

rik ez zuela adierazten zuen, eta, horrekin batera, nafarrek dinastia aldaketa onartu zutela, bizimodu lasaiago horretara moldatu zirela eta, batez ere, oso seguru sentitzen zirela armada sendo batek babestua eta **nafarren foruak nahiz gaztelarren pribilegioak** zituztela.

Joan eta Katalinak Nafarroako tronua berreskuratzeko erabilitako diplomaziak ez zien nahi zutenerako balio izan; gainera, Karlos I.ak mota guztietako argudioak erabili zituen Nafarroa defendatzeko, eta Frantziaren aurka borrokatzeko entseina eta arrazoi bihurtu zuen. Hirugarren saiakera 1521an izan zen, baina Noainen, Iruñeko atarian, berriz ere porrot egin zuten. Nafarroa konkistatzea ez zen benetan helburu bakarra, Milango dukerria lortu eta Italia menperatzeko borroka irekia baizik.

Horrenbestez, beste behin liskarra piztu zen. Foixko Andres, Asparrosko jauna, Francisco I.ak babesten zuen frantses armada berrindartua, eta agramondarren laguntza zuela, Nafarroan sartu zen, eta babesik gabeko Iruñea bi astetan setiatu zuen. Hiriak berehala eman zuen amore, eta bertan Loiolako San Inazio zauritu zuten. Frantses armadaren akatsa Urantziari (orduan Gaztelakoa) eta Logroñori eraso egitea izan zen, horrek nobleak eta herri xehea haserrarazi baitzituen.

Kondestableak, 30.000 gaztelar eta aragoitar batzuk bere agintean zituela, Subiza eta Tiebas artean kanpatuta zegoen jeneral frantsesa berehala inguratu zuen, gaztelarrak Noain eta Ezkirotzen ezartzen zirela. Azkeneko borroka **Noainen** izan zen, 1521eko ekainaren 30ean; bost mila hildako baino gehiago izan ziren, eta **Gaztelak Nafarroa Garaia osoa** berreskuratu zuen, **ez, ordea, Bortuz haraindiko lurra**.

Independentziari eusteko azkeneko erresistentzia guneak Amaiurko gaztelua (1522) eta Hondarribia (1524) izan ziren; kronista eta historialariek «Nafarroako numantziarrak» izena erabili dute bertako defendatzaileak izendatzeko.

Arturo Campionek, Victor Praderak, Jose Moretek, Francisco Alezonek eta Martin Azpilikuetak, besteren artean, historiako gertakizun horiei buruzko iritziak idatzi zituzten. Oro har, uste zuten Gaztelarekin batzeak ez zuela nazioaren bukaera ekarri, garai hartan litekeena baitzen

hainbat nazio errege bakarraren menpe egotea. Halaber, gizarte-mailek baten edo bestearen alde egitea, nafar abertzaletasun sentimenduagatik edo nazio jakin batekoa izateagatik baino, Fernando edo Albretarrak begiko izatearen edo ez izatearen arabera zen.

9.7. Gizartearen aldaketak

XIV. mendean zehar, izurriteek, uzta txarrek eta gerrek biztanleria nabarmen gutxitzea ekarri zuten. Eskualde batzuetan, gutxitzea ikaragarria izan zen, bereziki 1332tik 1366ra bitartean.

Jauretze eta leinu batzuk sortu ziren; gizon aberatsek tituluak eta gortean kargu garrantzitsuak eskuratu zituzten, maiz, errege-ondasunen kontura. Karlos III.a Prestuaren erregealdian, Leringo konderrria (1425) –Luis Beaumont eta Leonel erregearen sasikoarentzat–, Cortesko konderrria –Godofre mariskalarentzat– eta Muruzabal eta Izarbeibarko bizkonderrria –Leonelen sasikoa zen Nafarroako Feliperentzat– sortu ziren. Nobleziak Nafarroako biztanleen %15 osatzen zuen.

Krisi demografiko eta ekonomikoa pairatzen ari zen herri xehearen aldean infanzoi, aitoren seme eta prelatuek osatzen zuten gizarte-maila altua sendotu zen. Horiek, erregeen antzera, ez zuten petxa eta zergarik ordaindu behar izaten; berriz, arrandia, jai eta zarrastelkeriaz beteriko errege-jauregiak eraiki zituzten, eta gastu handi horiek zergadun bakarrekin ordaintzen zituzten, laborari, musulman eta judutarrek, alegia.

Egoera horrek laborari askoren matxinadak sorrarazi zituen, esate baterako, Faltzeskoa (1357); laborariak gobernatzailerari oldartu zitzaizkion, eta, horregatik, urkamendira zigortu eta ondasunak kendu zizkieten. Beste batzuk aitoren seme bihurtzen saiatu ziren zergak ordaindu behar ez izateko; Karlos Prestuak zenbait herriri kaparetasuna eman zien, adibidez, Artaxoa, El Busto, Amaiur, Etxarri, Azuelo eta Berari.

Aldi berean, maiorazkoak sortu ziren, gortesauen kopurua handitu eta **botere burgesaren gorakada azkarra** gertatu zen. Era berean, Nafarroako lurraldeen arteko ezberdintasuna oso handia zen; iparraldean

pobreagoak ziren eta ekonomi baliabide gutxi zituzten, eta hegoaldean, berriz, lurrak emankorrako eta zabalagoak ziren, horregatik gizarte-maila altuko jendea han ezarri ohi zen.

xv. mendean, nobleziak protagonismo handia eskuratu zuen, gobernu nahiz erresuma babesteko lanak bete eta erregearen aholkulari zelako. Erregeak, horren truke, babes, ohorea, onura eta dirua ematen zien. Nobleen klaseak Nafarroa guztian zehar armiarma sarea osatu zuen, haien arteko ahaidetasuna zela, elkarri babes ematea komeni zitzaielako eta ekonomia aldetik berekoiak zirelako. Maiz erregearen boterea nobleen interesen menpe jarri zuten, eta jakina, haien basailuak mugiarazi zituzten. Dena dela, nobleen arteko tirabirak ere gertatu ziren, hala nola, agramondar eta beaumontarren artean edo Zabaletatar eta Alzatetarren artean.

Baina xv. mendean, askotan garrantzirik gabeko haserrealdi edo eztabaida gisa hasitakoa, aurki, adiskidetu ezin izanen duten bi alderdi bihurtu ziren. **Agramondarrak eta Beaumontarrak** elkarri gorrotoa izateko jaiok ziren; borroka koroaren ondorengotzako krisiarekin hasi zen, baina berehala larriagotu eta liskarra nazioartera hedatu zen.

Faltzesko markesa eta Leringo kondea, bi alderdien buruak, hurrenez hurren, aldi berean biltzaile eta sakabanatzaile izan ziren, idealak batu eta erresuma bitan zatitzeko gai izan baitziren. Agramondarrak Bortuz harainditik datoz, baina izena ez dator bat buruzagien leinuarekin, horien jatorria Peralta, Navarra, Ezpeleta eta Garro familia baitzen. Beaumontarrak, Luis Beaumont infantearen –Nafarroako Felipe III.aren seme ez-legitimoa eta Karlos II.aren anaia– ondorengoak dira. Luis, Beaumonteko kondea zen, Sena ibarreko eta Evreuxetik hurbileko lurraldea. Horren iloba, Luis, Leringo Kondea, Bianako Printzearekiko leialtasuna eta hari egindako zerbitzuengatik nabarmendu zen.

xv. mendean, familia nobleak gizartean ospe eta errenta nahiz ondare handiagoak lortzeaz arduratzen ziren bitartean, laborariek, biztanleen heren batek, erresumako ekonomiari eusten laguntzen zuten petxa eta jaunaren karguekin. Izurriteak, uzta txarrak eta gerrak zirela eta, ia

ordaindu ezin zituztenez, zerga-biltzaileek zailtasunak izan zituzten kobratu ahal izateko eta zergak deuseztatzea eskatzeko.

Txirotasun egoera hori ikusita, herrixka askori bilauak hiritar bihurtzen zituen **frankizia eman** zieten, eta hiri-gune askori kaparetasuna. Populazioaren zati handi bat hirietan bildua zen, frankoen auzo asko zeudela, –ia biztanleen erdia osatzen zuten– Iruñea, Lizarra eta Garesen, esaterako, gertatzen zen bezala eta zenbait zerga kendu zizkieten. Asentamendu horiek merkataritzaren garapen handia ekarri zuten.

9.8. Judutar eta musulmanak

Nafarroan, istiluak izanagatik ere, judutar eta musulmanak errespetatu zituzten. Judutarrak, 1492ko martxoaren 31n Gaztela eta Aragoitik bota zituzten, eta haietariko asko Nafarroako aljametara joan ziren, bertan erlijioakideek ongi hartzen baitzituzten. Gertaera horrek, agintariak, bereziki Erriberakoak, erne jarri zituen. Izan ere, beldur ziren ez ote zen Gaztelako koroa minduko eta haiekiko haustura gauzatuko, judutar asko iritsiz gero.

Tutera, Corella, Cortes eta Cascantek hartu zituzten etorkin gehien, baita Iruñeak, Zangozak, Uxanabilla eta Bianak ere. Horrela, administrazioak *bertako judutar eta judutar etorkinen* artean bereizketa egiten zuen petxak kobratzeko orduan. Nafarroako agintariek judutarrak babestu zituzten, baina aljametatik ateratzea debekatu zieten, kutsatzeak galarazteko eta kristauak erlijio horretara bihur ez zitezen.

Itxurazko babesak, ordea, ez zuen luze iraun. 1498an, Albreteko Joan eta Foixko Katalina Nafarroako errege-erreginek **judutarrak kristau bihurtu edo lurraldetik alde egin** beharko zutela xedatu zuten. Neurri hori hartu zuten, batetik, erresuman judutarren kontrako sentimendua zegoelako; bigarrenik, mailegutzan eta lukurrerian aritzen zirelako; eta, azkenik, Nafarroako koroa inguratzen zuten erresumei, Gaztela eta Aragoiri (hauek sei urte lehenago erabaki bera hartu zuten) eta Frantziari, atsegin emateko.

Hebraitar kopuru handia kristautasunera bihurtu zen –kristau berriak–, zegozkien zergak ordaindu behar izan zituzten, baina, hala ere, komuneko ondasunak eta sinagogak kendu zizkieten. Musulmanak sei udalerritan biltzen ziren, batez ere, Tuteran, Corella, Cascante eta Cortesen. Batik bat, nekazaritzan jarduten zuten, eta mairu-auzoetan isolatuta bizi ziren.

Musulmanen lasaitasunak ere ez zuen, baina, luze iraun, 1515ean Fernando Katolikoak kristautasunera bihurtzera edo Nafarroatik alde egitera behartu baitzituen. Haietariko asko Aragoira joan zen, non 1526 arte ez zuten alde egiteko agindua jaso.

Erabakiak Erriberan eragin handia izan zuen, biztanleria nabarmen gutxitu baitzen.

10
BEREZKO NORTASUNARI EUSTEKO BIDEAN
XVII. MENDEA

10.1. Estatuaren erradiografia

Ehunurteko honen bereizgarria alor guztietako estatu-krisia da. Espainiaren gainbehera Felipe III.aren erregealdian (1598-1621) hasi zen, boterea balidoen eskuetan utzi zuena. Moriskoak kanporatzen jarraitzeak ez zuen, ekonomia aldetik, gauza onik ekarri, baizik eta erresumako alor ekonomikoa, militarra eta politikoa hondoratzea. Potentzien arteko itunetan ez zuen, jada, zeresanik, eta Frantziako gortearekin hitzartu zuen Espainiako infanta Ana Frantziako Luis XIII.a erregearekin ezkonaraztea eta Felipe IV.a Borboiko Isabelekin ere bai.

Felipe IV.aren erregealdian, (1621-1665) egoerak samingarria izaten jarraitu zuen, barrualde eta kanpoaldean etengabeko gerretan murgilduta baitzegoen, eta erabakiak bere balido Olivaresko konde-dukearen esku uzten baitzituen. Ironikoki esan ohi da Felipe IV.arekin bi gauzek besterik ez zutela aurrera egin: erregearen ehizaldiek –bere absentismoaren isla– eta Calderon de la Barca eta Lope de Vegaren antzezlanak ikusteko jendez gainezka egon ohi ziren *corral* edo antzokiek. Ekonomi gabeziak ahazteko botika ona! Felipe IV.arekin, Espainiako batasuna hautsi

zen, eta arrazoi erlijiosoengatik eta Austriako adar inperiala babesteko, Hogeita hamar Urteko gerran borrokatzen jarraitu zuten.

Karlos II.a (1665-1700) Austriako dinastiako azken erregearen garaian egoera larriagotu zen, atzerrian nazioak ez zuen jada, inolako garrantzirik eta Herbeheretan zituen lurraldeak galdu ere egin zituen. Frantziako Luis XIV.ak Espainiako ahuleziari etekina atera zion, eta isolaturik utzi zuen, kontinente zaharreko baliorik gabeko zoko bat bailitzan.

Beraz, XVII. mendea krisialdi garaia izan zen, baina, hala ere, erregearen botere absolutua eta arte nahiz letren garapena sendotu zen. Estamentu-egiturak mendean zehar iraun zuen, baita diferentziak areagotu ere. Ekonomian merkantilismoa sortu zen, eta, horren bidez, estatuek haien industria babestu eta produktuak beste lurralde batzuetara hedatu zituzten. Kulturari dagokionez, Espainian Urrezko mendea izan zen; zientziak, literaturak eta arte ederrek goreneko maila lortu zuten: pinturari Velazquez, Murillo, Ribera eta Zurbaran; Lope de Vega, Quevedo eta Calderon idazleak eta herrerianoaren gehiegizko zorroztasunari aurre egin zioten arkitekto barrokoak. Europan, literaturan Shakespeare Ingalaterran eta Molière Frantziar nabarmendu ziren; bestalde, pentsamenduaren bi ildo garrantzitsuenak garatu ziren: Descartesaren arrazionalismoa eta eskola ingelesaren enpirismoa, Locke eta Hume, alegia.

10.2. Argi-itzalak Gaztela eta Nafarroaren arteko harremanetan

Nafarroa Gaztelari gehitzeak ez zuen berekin erakundearen protagonismoaren murrizketa edo urritasuna ekarri. Bai Errege-erregina Katolikoek, bai Karlos I.ak jakin izan zuten Gaztelatik oinarrizko arauak nola betearazi, eta foru-erakundeei ere nola eutsi. Kontuen Ganbarak, bertako Gorteeak, Errege Kontseiluak, aduanak, baita erregeordeak ere, berezko funtzioak zituzten egitura nazionalaren barruan.

Nafarrantzat irabazi beharreko lehenengo borroka, hiru mendez tinko zirauten **foruei eustea** zen. Haien legeen defentsa numantziarrak ez zuen inobilismoa edo iraganean errotuta gelditzea adierazten, gaztelarren protagonismo eta autoritateari aurre egiteko nabarrismo erako erreak-

zioa izan zen. Pertsonak edo objektuak galtzen direnean, gehiago baloratzen dira; hori bera sentitu zuten nafarren bihotzek, eta haien eskubideak agertzen zituzten erakundeak babestu zituzten.

Baina eskubide horiek defendatzea, idealismoa, nazionalismoa edo foraltasuna hutsa zela pentsatzea utopia da. Izan ere, pertsona arrunten ilusio garbiak eta aristokrazia edo burgesiaren interes endekatu eta kontraesankorrak tartekatzen ziren: batetik, Koroan sartzerakoan, haien eraginak eta diru-sarrerak gutxitzen ziren, baina, bestetik, Gaztelan zehar botere politikoa eta merkataritza-interesak handitu eta hedatu ahal izateaz pozten ziren.

Errealitatea oso bestelakoa zen, hurbileko zuhaitzek ez zieten baso sarria ikusten uzten. Garrantzizko kontu eta gaiak Madrilen konpontzen zituzten, eta Gorteen eta tokiko Diputazioaren erabakiak bigarren mailara baztertzen zituzten; bilerak egiteko eraikin finkorik ere ez zuten. Auzitegiek eta erregeordeak besterik ez zuten haien gizarte mailari zegokion egoitza.

Erregeek beti onartu zuten Gaztela eta Nafarroako erregeak zirela, horregatik erregealdi bakoitzaren hasieran foruen zina ekitaldia egiten zuten, elkarrenganako konpromisoa adieraziz: «lege, ordenantza, usadio, ohitura..., pribilejio eta lanbideekiko errespetua». Era berean, **Hiru Besoek** (militarrak, elizjendea eta herria) errege eta jaunarenganako leialtasuna, menpekotasuna eta errespetuaren gaineko zina egiten zuten.

Zina horiek ez zuten erregearen erabateko boterea adierazten, baizik eta **berezitasun historikoak** –foruak eta ohiturak– **errespetatzeak** mugatzen zituen eskubideak (errege-eskubideak). Halaber, erregetza ez zen konstituzionala, erregeak estatu eta politika gaietan –bakea, gerra, itunak– botere osoa baitzuen. Hala ere, beste gai batzuk, esaterako, hiriko gaiak, gizarte taldeenak, zergak, soldaduen kupoa eta herrietako garrantzi txikiko arazoak Nafarroako gorteetan jorratzen ziren. Garaiko dokumentuetan, erregeen aipuak, lehenbizi, Gaztelari zegokion zenbakia eta, ondoren, Nafarroari zegokiona, jarrita agertzen dira. Horrela, Felipe, Gaztelako IV.a eta Nafarroako VI.a zen, eta Karlos, aldiz, Gaztelako II.a eta Nafarroako V.a.

Gertaera horrek erakusten du Nafarroan komuneko gizartearen kontzeptua, Gaztelatik bereizten zen nazio edo eskualde bereziaren kontzeptua, garatzen ari zela; Agramont, Jose Moret eta Alesonen idatziek kontzeptu hori bururaino eramane zuten. Gizartea, hala ere, ez zen guztientzat berdina, «bizikide» ziren gizarte-estamentuek eskubide, pribilegio eta betebeharrak ezberdinak zituztelako; beraz helburu orokorra elkar errespetatzean zetzan eta «**aniztasunean berdin**» izatean ere bai.

Nafarroako Gorteek gero eta gai gutxiago izan zituzten lantzeko. 1536 arte, ia urtero elkartzen ziren, ordutik 1612ra 2 edo 3 urtetan behin egiten zuten bilera, eta 1612 eta 1801 bitartean, 4, 6, 8 edo 15 urte eman zituzten elkartu gabe.

Bi erresumen arteko harremanak ez ziren beti onak izan, muga hispaniar-frantsesaren kontrolak eta Gaztelako armadan sartu behar zuten soldaduen kupoa zehazteak tirabirak sortu baitzituen. Erregeordea laudatetik erdeinatzera erraz pasatzen ziren; hala gertatu zitzaion Valparaisoko markesari, Frantziako erasoaldian izan zuen porrotaren ondoren kargua uztea eskatu zioten. Felipe IV.ak (1646) Nafarroara etorri behar izan zuen kontuak argitu eta giroa baretzera. **Olivares konde-dukearekin**, nahigabeak bere horretan iraun zuen, Olivaresek bere eskumenak areagotu eta boterea zentralizatu nahi zuenez, laguntza ekonomiko eta militar gehiago eskatu baitzituen. Aldiz, **Karlos II.aren** erregealdian –jarduera militarra Kataluniako mugara aldatu zen eta administrazio krisi larria gertatu zen– erregeordeak malguagoak izan ziren, eta diputazio eta gorteei laguntza eman zieten kontuak arintzeko; beraz, Nafarroako erakundeek garrantzi handiagoa hartu zuten.

10.3. Nafarren bidaiari sena

XVI. mende bukaerarako, Nafarroako biztanleriak %60 egin zuen gora; horrekin batera oparotasun ekonomikoak ere gora egin zuela adierazten dute ospatzen ziren zeremonien handitasunak eta eraiki ziren monumentu erlijiosoen arrandiak. Neurritz gaineko demografiak lurralde-

tik kanpo bilatu zituen irtenbideak, horregatik penintsulako, Europako edo Amerikako lurraldeetara jo zuten.

Frantziako hegoaldean, gehiegizko demografiaren arazo bera zuten, batez ere, Nafarroa Behereko euskaldunek; hori zela eta, aunitzek muga igaro zuten beste bizimodu baten bila. Tuteran izandako Gorteen (1583) erregeari eskatu zioten iritsitako horiek ez onartzeko, eta Felipe II.ak eskaera onetsi zuen baina euskaldunek jada, zituzten eskubideak mantendu zituen. Gainerako frantsesei, berriz, muga itxi zien, batik bat, ideia protestanteak sar ez zitezen.

Nafarrek aurki izan zuten penintsulako eta Amerikako lurraldeetara aldatu eta hango antolaketa parte hartzeko aukera, haien izena darmatzaten leku eta pertsonak erakusten dutenaren arabera. Amerikara joandakoak, bereziki, behe nobleziako familien bigarren semeak ziren; soldadu sartu, lanpostu publikoak bete edo merkataritzan aritzen ziren. %32 senideren baten babespean joaten zen, %31k arrazoi ekonomikoen karira, alde egiten zuen, %27k abentura eta aberastasun bila eta %10k merkataritzan aritzeko.

Amerika eta Filipinas artean Nafarroako 48 herrik baino gehiagok euren erreplika dute. Horrela, Estellerrikoen artean, Oko (Peru), Carcar (Filipinas), Lerin (Mexiko), Baigorri, Goñi eta Arteaga (Argentina), Ganuza (Kuba), Bakedao eta Zuñiga (Txile). Zangozako merindadeko 16 herri daude. Toponimiaren arrastoek, aro modernoko nafarrak lau puntu kardinaletan barreiatu zirela erakusten dute. Batzuetan premiagatik, bestetan zaletasunagatik, mendiarte, herri eta hirietan orrialde bikainak landu zituzten odol, izerdi eta malkoez; inguruneari moldatu bai, baina sekula ez zuten haien lurraldea, jendea eta abizena ahaztu.

Bestalde, nafarrak erregearen gortean *atzerritar* sentitzen ez zirenez, eta, gaztelarrek zituzten eskubide berberak zituztenez, Nafarroa Gaztelari erantsi zitzaionetik, pertsona aristokratik Gortearen hurbileko gizonen kopurua handituz joan ziren.

Karlos II.aren garaian, hainbat nafar elkartu ziren, Madrilen boterea eskuratzearen eta pentsamendu bakarra sortzearen. Aipagarrienetariko

bat Arizkunen jaio (1656) eta hamabost urte zituela, Madrilera joan zen **Joan Goienetxekoa** izan zen. Karlos II.a eta Felipe V.aren diruzaina izanik, berehala jaso zuen erregeen laguntza. Esaterako, *BOE eta Postas*-en aurrekaria izandako Madrilgo Gazetaren negozioaren monopolioa eman zioten; halaber, Nafarroako almadia, galipot eta alkaternen salerosketa. Hura bezain bikaina izan zen **Francisco Javier** bere semea; horrek Madrilatik hurbil Baztan Berria sortu zuen. Bertan, Jose de Churrigera, Espainiako barrokoaren arkitektozik adierazgarrienak lan egin zuen; berak ere Goienetxeren etxea eraiki zuen Alcalan, gaur egun San Fernando Errege-Akademiaren egoitza. Baztan Berrian, papera, beira eta ehuna ekoizteko manufaktura-industria eratu zuen Francisco Javierrek.

Migel de Muzkiz ere, nabarmendu zen, Karlos III.aren garaian Ogasun ministroa izandakoa. Haien lurraldetik kanpo dauden ilustratuak dira. 1683ko uztailaren 7an, Madrilen elkartu ziren Nafarren San Fermin Kongregazioan. Batez ere, helburu altruista zuten, txiroei laguntzea, baina horrez gain, iragana gogoratzeko eta jaioterritik urrun zeuden nafarren nostalgia bizitzeko ere elkartu ziren. Hurrengo urtean, 400 kide baino gehiago zituen, eta gehienak lanpostu publikoetan edo merkataritzan aritzen ziren. 1695ean, taldea handitu zuten Amerikan bizi eta ongintzarako dirua igortzen zuen jendearekin.

Garai horretan, nobleen artean arrunta zen pobreei laguntza ematea, baina txiroen premia materialak betetzeko baino, euren intereserako egiten zuten, hala nola, arima salbatzearen, horixe agintzen baitzuen Jesukristoren Berriona: «nire anaia txiro eta behartsuei eman zenieten ostatu, janari eta edaria niri ere eman zenidaten. Zoazte Jainkoaren erresumaz gozatzeraz».

Sortzen ikusi zituen herria uzteko arrazoa izan ohi zen, legeak debekatzen zuela primuaren eskuetan gelditzen zen familia-jaraunspena zatitzea, eta, ondorioz, gainerako seme-alabek beste etxe bat bilatu behar izaten zutelako. Madrilen bizi ziren gehienak iparraldetik iritsitakoak ziren, batez ere, haien herrietan Frantziarekin –bereziki Bortuz haraindiko

anaiekin– merkataritza, kontrabandoa eta produktuen trukean aritutako Bortzirietako jendea.

Beste pertsonaia garrantzitsu batzuk hauek izan ziren: **Iturraldeko Joan Bautista** baztandarra (1674), Felipe v.aren garaian, Ogasun ministroa izandakoa eta erregeari hemezortzi miloi erreal utzi zizkiona; **Arizkungo Migel** edo **Uztarizko Geronimo** (Doneztebe), liberalismoaren aurrekaria eta *Theorica y Practica de comercio y marina* (1724) lanarekin sektore publikoaren defentsa egin zuena. Guztiak, elizkoiak, merkataria eta arte nahiz kulturaren sustatzaileak izan ziren. Beste nafar askok erregeorde, idazkari, diruzain karguak bete zituzten. Indietara bidean Atlantikoa zeharkatu zutenek, erregearen ordezkari gisa, aberastasun bila, eta, gehien bat, lana ematen zien senideren bat zuelako, alde egin zuten; beste batzuk, ordea, merkataritzan jarduteko edo euren lanbidean aritzeko asmoz, joaten ziren.

Nafarrak geografia unibertsalean sakabanatu ziren, baina baztandarrak nabarmendu ziren, gizartean postu garrantzitsuak betetzen zituztelako eta aitoren semeak zirelako. Guztiak, pixkanaka, erdi aroko tradiziotik atera eta mundu modernoari aurre egin zion lurraldearen adierazleak izan ziren; noblezia tituluek, merkataritzak, aurrekapitalismoak, nostalgia eta lurraldearekiko maitasunak Nafarroaren ibilera markatu zuten.

10.4. Karga militarrendako laguntza eskuzabala

Nafarroa, Frantziako mugan zegoenez, nazioaren babeserako funtsezko lurraldea zen, eta Iruñea ardatz nagusia. Horregatik, Felipe II.ak, errenazimendu-estiloa duen gotorlekua eraikiarazi zuen (1571). Horren xehetasun guztiak kontatu zituen, urte batzuk geroago, Antonio Brunel bidaiari frantsesak (1665), zeinek Nafarroak zuen garrantzi defentsiboa azpimarratu baitzuen.

Nafarrek monarkia babesten lagundu zuten, gotorlekuak eraiki, soldaduei ostatu eman, eta, batez ere, armadan parte hartu eta muga zaintzen zuten. Ahalegin horren truke, Gaztelako gorteak laguntza eko-

nomikoa eman zuen XVI. mendean, baina XVII.enean, nozitu zuen krisiak, giza eta finantza baliabideen kargak Nafarroako diru-kutxei egokitzea ekarri zuen.

Nafarrak, haien lurraldea armaz hartzen bazuten besterik ez zirela altxatuko xedatzen zuen **Foru Nagusia** behin eta berriz urratua izan zen, erregearen zerbitzurako zelako aitzakiaz. Zenbaitetan, borroka egitera behartu zituzten, baita horretarako gastuak ordaintzera ere, bereziki, gduetako lehenengo hiru egunetan. Larrialdietan, Frantziaren kontrako gerran, batik bat, forua urratzen zen eta «menpekoen betebeharra» zela argudiatzen zuten, beraz ez zegoen «borondatezko zerbitzurik». Horrela, bada, 1636an, hamar mila nafar mugiarazi zituzten; 1638an, Hondarribia defendatzeko lau mila, eta 1640an, Kataluniako altxamenduan, bi mila.

Batzuetan, Frantziako mugako herrietan, alkateek biztanle guztiak muga zaintzera behartzen zituzten, mugako bazka eta mendiak babesteko. Gotorlekuko gaztelua eraikitzeko eta mantentzeko, gurdi eta animaliak bahitu zituzten, eta jendea dohainik lan egitera behartu zuten; horrez gain, Iruñea eta inguruko familiei laboreak eta beste elikagai batzuk kendu zizkieten, erasorik jasatekotan biztanleak hornitzeko. Erribera eta Erdi Aldeko herri eta hirietan, bidegabekeria parekoa izan zen, bertatik igarotzen ziren soldaduei ostatu eta janaria eman behar zitelako. Oso maiz errepikatu zen gertaera horrek, 1512an, Albako dukeak eta Nafarroako agintariek sinatu zuten ituna urratzen zuen.

10.5. Harreman tenkatuak Frantziarekin

XVII. mendearen ezaugarria etengabeko gerrak dira. Hogeita hamar Urtekoak (1618-1648) eman zion mendeari hasiera, bertan argitu zen zeintzuk izanen ziren Europako bi dinastia nagusiak: austriarrak eta borboiak. Bestalde, absolutismoa ezarri zuen Frantziako Luis XIV.aren hedatze gerrak ere izan ziren. Horregatik, esan daiteke 1635tik 1700 urtera bitartean, Espainia errege galiarrekin etengabeko borrokan aritu zela,

azken horiek hispaniarren kontrako edozein mugimenduri laguntza ematen baitzioten, Europan zuten hegemoniari eustearren.

Luis XIV.ak (1668), bere emazte Austriako Maria Teresa espainiarrari omen zegozkion Herbeheretako dozena bat plaza eskatzeko aitzakiarekin, Karlos II.ari presioa egin zion «**Itzultzeen gerra**» deitu izan denaren bidez. Bestalde, errege frantsesak *Frantzia eta Nafarroako errege* izendatzen zuen bere burua, beraz, oinordetzako eskubideak eskatzen zituen, eta horregatik Nafarroako agintariak erasoen beldur ziren.

Mendebaleko Pirinioan beste fronte bat sortu zen. Hori zela eta, Nafarroako erregeordeak 10.000 nafarrekin Lapurdi hartu zuen (1636), Felipe IV.aren balidoari atsegin emateko; galera handiak izan ziren eta mugak ia ez ziren aldatu. Frantsesek errepresaliak hartzea besterik ez zuen ekarri; 1638an soldadu galiarrak Burgosera abiatu ziren, eta, goarnizioak urriak zirenez, muga zaintzeko gizon gehiago erreklutatu behar izan zituzten. Nobleziak, bereziki, Iruña babesteko, soldaduen multzoa zuzendu eta gotorlekuan arma eta elikagaiak bildu zituen, frantsesek, behin Orreagako eskualdea zeharkatuta, eraso egitea espero baitzuten.

Aipatu gotorlekuak izar itxura zuen eraso oztopatzeko, babeserako lubanarroa eta harresi makurrez inguratua zegoen. Barrualdean soldaduak egoteko hainbat dependentzia, elikagaien biltegi eta animalien dako ukuilu zegoen.

Nafarroako mugan baziren penintsulako beste lurraldeetatik iritsitako soldaduak, batzuk kupoia betetzen ari zirenak (Aragoi eta Gaztelakoak); beste batzuk, dirusaria jasotzen zuten mertzenarioak ziren. Gainerakoak europarrak ziren, nafarrak aski ez baitziren Frantziako mugako eskualdeak zaindu eta babesteko.

Hala ere, frantses soldaduek Orreagarantz imintzioa besterik ez zuten egin, gehienak Hondarribia aldera abiatu ziren, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, errege guztien ametsetariko bat izan baitzen huraxe eskuratzea.

Foru Nagusia berehala urratu zen, Olivares konde-dukeak (1638)

Armen Batzearen bidez penintsulako erresuma guztien laguntza militarra eskatu baitzuen, frantziarren aurka borrokatzeko. Noblezia eta Velezko markesa erregeordearen laguntzarekin, Hondarribiko setioa defendatzeko sei mila nafar erreklutatu zituen. Galoek irabaztekotan, haien bigarren helburua Iruña izanen zen, horregatik gotorlekuan erne jarraitu zuten. Espainiarrek garaitzea meritu handia izan zen, eta nafarren erregearekiko leialtasunaren adierazle; horren truke konpentsazio ekonomiko eta politikoak jaso zituzten.


Jose Moret nafarrak, *Anales del Reino de Navarra* obraren lehen zatian Hondarribian, nafarrek izandako partehartzea kontatu zuen, eta horrek erresumako lehen kronista izendatua izatea, ekarri zion.

1640tik aurrera, frantsesekin Katalunia aldean izan ziren arazoak, baina hala eta guztiz ere, Nafarroan adi jarraitu zuten. Frantsesek beste eraso batzuk egin zituzten, alegia, Aurizberri (1673) eta Ibañetako gaineko (1684) arpilatzeak, esate baterako.

Horrenbestez, Espainiako erregeak Frantziako muga zaindu eta babesten itsututa ibili ziren, eta ez ziren nafarrez gehiegi fida, ez ziren ohartu erregeari leialtasuna eta errespetua zirela nafarrek, erregearen menpeko gisa, eskaini zezaketen goarnizio eta babesik hoberena. **Nafarroa, penintsulako gainerako lurraldeak babestu zituen parapeto eta eustorma naturala izan zen.**

10.6. Mugimendu «sezesionistarik» ote?

1479tik 1580ra bitarteko mendean, –Errege-erregina Katolikoen ezkontzatik Portugaleko inkorporazioa gertatu arte– Espainia, Europa eta munduko potentzia bilakatu zen. Garrantzi handiko gorakada izan zen. Hala ere, Holandak bere independentzia lortu zuenetik, Hamabi Urteko Tregoa (1609), Utrechtko Bakea (1713) –non Felipe V.ak, Espainia eta Indietako erregeak, Europako lur guztiak galdu baitzituen– sinatu zen arteko garaian, Espainian krisi latza gertatu zen eta boterea galdu zuen. Horrela, bigarren mailako potentzia bihurtu zen.



ANALES DEL REINO DE NAVARRA. Aita Jose de Moretekin hiru liburukitan idatzitako lana da, 1654an kronista ofiziala izendatua.

Historia hori nahitaezko erreferentea da ikerlari orontzat. Bere idatziak pizgarri gertatu ziren, Nafarroako nortasuna berrezartzeko eta bere identitatea bultzatzeko, erresuma zahar gisa, bere jatorrietan oinarritua. Erresuma horretatik Aragoi eta Gaztelako erresumak sortu ziren.

Historiaren garrantzia azaltzeko, Moretekin hauxe dio: «historia, mendeetako merkataritza eta plaza publikoaren gisakoa da, zeinetan gizakiek bizi, ikusi eta nabaritzen baitituzte jada, distantzia handi handian iraganiko gertakariak, mugimenduak eta xedeak».

Moret hiltzean, Francisco de Alesonek burutu zuen haren lana.

Bizkaian (1631), Katalunian (1640), Portugalen (1640) eta Aragoien (1648) tirabira askoko garaiak izan zituzten, gobernu zentralaren ahuleziaz baliatuta, bereizketa mugimenduak, herri-matxinadak edo nobleen altxamenduak gertatu zirelako; aldiz, Nafarroan ez dugu matxinada horien berririk. Horretarako arrazoirik izan bazuten ere, ez dago konjurazio edo gizarte-mugimenduen daturik. 1516an jada, Cisneros kardinalak, Gaztelako erregeordeak, gazteluen goialdeak botarazi zituen, noble eta jaunen menpekotasunaren adierazgarri, besteak beste.

1570ean, erregeordeek erregeei **nafarren leialtasunari buruzko zalantzak** azaldu zizkieten, baita Albreten alde egon litezkeen konjurazioen berri eman ere. Baina susmo horiek ziurtatzen duten idatzirik ez dagoenez, baliteke erregeordeek haien neurritz kanpoko susmoak agertzea, soldadu eta baliabide gehiago lortzearren. Bestalde, frantsesen balizko inbasioak eta Nafarroako erakundeek foruei eta bertako interesei eusteko egiten zituzten ahaleginek –batzuetan, Koroak agindutakoari kontra eginez– etengabeko mesfidantza eta obsesioa piztu zuten Madrilen ez ote zen traizorik izanen.

Familia agramondar eta kanonista zuen **Martin Azpilikueta** nafarrak (1492-1586) ateratako ondorioak aipagarriak dira. Nafarroa Gaztelarekin batu ondoren, Felipe II.ari egindako Oroitza-Txosten batean Azpilikueta leporatzen zioten Espainiako erregeak Nafarroakoa izateko legezko titulurik ez zuela esan izana. Gerora frogatu ahal izan da Martin Azpilikueta interesak politikoak baino erlijiosoak zirela, zinez uste baitzuen: «kristauen munduan bi nazio baino ez daude, Kristoren alde borrokatzen duena eta Satanasen alde dagoena» .

XVI. mende erdialdean, Madrilgo Gorte eta Hiribildura hainbat ohar iritsi ziren; ohar horien arabera, Nafarroan, armen bidez altxatzeko konjurazioak egon zitezkeen, Frantziarekin batzeko edo independentzia lortzeko. Gertaera horien ondorioz, Felipe IV.ak, bere erregeordearen bitartez, kontrabandista eta desertoreekin zorrotzago jokatu zuen, eta, are gehiago, ingurumari arraroetan ere hildakorik gertatu zen, esaterako Miguel de Iturbide diputatua.

Erregeak, trikimailu sekreturen bat egon zitekeelako susmoa zue-
nez, nafar taldeen edozein ezadostasun, haserre edo kexaren karira, bere-
hala ekiten zion, altxamendua berehala gertatuko zelakoan. Ez dago
horrelakorik erakusten duen dokumenturik eta nafarrak batasunari leial
mantendu zitzaizkion; gainera, giza eta ekonomi baliabideekin lagundu
zuten. Talde agintaria berebat, ez zegoen Gaztelako pribilejioak galdu eta
zer gertatuko zitzaien jakin gabe Frantziarekin batzeko prest.

Azken buruan, **Luis de Guzman** erregeordeak, 1648an, Felipe
IV.ari bidalitako eskutitzean argitu zion funtsik gabea zela Nafarroan azpi-
joko sezesionistarik zegoela susmatzea: «Zaila da erresuma honetan etsaia-
rekin argi ikusiko ez litzatekeen negoziazioa izatea. Hori esan dezaket
erresumako biztanleen moztasun handia, elkarrekin duten batasun eza eta
unibertsitateen ondasun gabekia ikusita». Erregeordeak nafarrei *motz* deit-
zea ez dirudi oso egokia, baina ez ote zuen euskaraz egin eta gaztelaniare-
kin arazoak zituztela adierazi nahi izanen? *Batasun ezari* dagokionez, beau-
mondar eta agramondarren arteko borrokari buruz ari zela pentsa daiteke.

10.7. Bere historian landutako nortasuna

Nafarroako erdi aroko historiak beti piztu izan du Austriar eta Bor-
boien garaiak baino interes handiagoa, eta, horren ondorioz, argitalpen
gehiago sorrarazi ere bai. Agian, ikerlariak gehiago identifikatu dira
«erresuma zaharraren» sortzearekin (Iruñea eta Nafarroa) aro moderno-
rekin baino, alegia, Nafarroak independentzia eta, ondorioz, protagonis-
moa galdu zuen garaiarekin baino.

Baina Nafarroako ideologia eta Gaztela nahiz Europarekiko jarrera
ulertzeko, badira garai moderno honetako beste zenbait alderdi aipagarri:
gauzak lortzen ahal zituztelako konfidantza, ekonomi sistema berriarekin
baikor izatea, ondasunak sortzea, nazio-estatuak eratzea eta, guztietan
garrantzitsuena, Gaztela izeneko talde handiogoaren barne egon arren,
nafar nortasunaren ezaugarriei eusten zietelako kontzientzia.

Garrantzitsuena izan zen, nortasun berezia, lege eta erakundeak

zituen erresuman oinarritzen zen iragana bilatzea eta horri eustea, eta horrek autonomia ematen dio arazoei irtenbideak bilatzeko eta, horrela, etorkizunerantz ilusioz abiatzeko. Iragana berreskuratu eta errege absolutistei –Felipe IV.a, Karlos II.a eta Frantziako Luis XIV.a–, nafarren eskubi-deak gordetzen zituzten foruak gogorarazi eta aurre egitea zen helburua. Nafarroa Gaztelarekin batu zenetik, jendearengan nolabaiteko nabarrismo sentimendua antzeman zitekeen, baina batek ere ez zuen idatzietan islatu.

Horregatik, Tuterako **Pedro de Agramont** Nafarroaren ondare aberatsa aldarrikatzen aitzindaria izan zen; 1632an, *Historia de Navarra* idatzi zuen. Baina 1654an, **Jose Moret** kronista ofizial izendatzea, jatorria itzultzeko eta Nafarroak nortasuna berreskuratzeko, pizgarria izan zen. *Anales del reino de Navarra* lanean Moretek, eta gero **Francisco de Alesonek**, jatorrizko legeetan –erabateko botereak pixkanaka murrizten ari ziren lege horietan– oinarritzen zen erresuma berrezarri nahi izan zuten. Nolabaiteko nostalgia adierazten zuen sentimenduen bitartez, erdi aroko errege-erreginen eta erresumaren arteko harreman onak azaldu zituzten. Izan ere, maitasunez «errege-erreginak baino gurasoak bailiran aritu ziren, eta urrezko, ez burdinazko zetroa eskuan, maitasun hori merezi izaten eta betiko bihurtzen jakin izan zuten». Beste pasarte batean, erregearen eta bere herrikideen arteko adiskidetasuna aipatu eta familia batekin parekatu zuen.

Beraz, XVII. mendea Nafarroako historian funtsezkoa izan zen, biztanleek erresumaren ideia sendotu baitzuten; Gaztelari lotuta egon arren, erdi aroan sortutako historia aberatsean oinarritutako erresumaren ideia, alegia, berezko zentzua zuen lurraldearena. Beharbada, berezko *statusa* murrizteak eta urratzeak *nabarrismoa* piztu zuen kontzientzietan, eta foru-eskubideak defendatzera bultzatu. Nolanahi ere, idatziek balio izan zuten, zalantzak argitzeko eta errealitatearekin bat ez zetozen hainbat faltsukeria historiko baztertzeko.

BEREZKO ORGANISMOAK: ERAKUNDEAK**XVII ETA XVIII. MENDEAK****11.1. Gorteak**

Erdi aroko erresuma historikoen sortak ezinezkoa egiten zuen garai modernoaren hasieran administrazio bakarra izatea. Batzerakoan, Espainiako erregioek Koroa osatu zuten, baina erresuma bakoitzak Gorteak eta Kontseiluak zituen. Aragoiko eta Kataluniako erakundeek beti bere horretan iraun zuten, ondoren baita Gaztela eta Nafarroakoek ere. Austriekin ere Gaztela eta Aragoiko Koroak iraun zuen, Europako eta Indiatako lurraldeak barne, Koroaren barruan beste erresuma batzuk –Nafarroa, esaterako– eta berezko erakundeak zituela. Guztiek batera Karlos V.aren, eta ondoren Felipe II.aren inperioa handia osatzen zuten.

Gortetan hiru estamentuak eta erregea elkartzen ziren, eta batasun horrek erresuma osatzen zuen pertsona multzo osoa ordezkatzeko zuen. Baina estamentu guztiek ez zituzten eskubide berberak bilatzen, erdi aroko mentalitateari jarraiki, pertsona bakoitzak bere ondasun, titulu eta estatusari zegokion gizarte-lerruna baitzuen. Horregatik, gizarteak, hirugarren estamentu edo herri xeheari eskubide baino betebeharrak gehiago egokitzen zizkion diferentzia onartzen zuen.


XIII. mendeaz geroztik, Nafarroako erresuman, erregeak gizarteko hiru estamentuak elkartzen zituen batzarra deitzen zuen, baina horren funtzioak ez zeuden guztiz zehaztuta. XVI. mendean, Gaztelarekin batu ondoren, **Gorteen garrantzi handiagoa hartu zuten**, eta erregeordeak deitu eta zuzentzen zituen.

Hiru maila edo estamentuok osatzen zuten: **Elizarena**; horren barruan pertsona garrantzitsuak zeuden, esaterako, Iruñea eta Tuterako apezpikuak, monasterio eta abadia nagusietako abade eta prioreak. Bigarren estamentua, **militarra** edo zaldunena, titulua zuten edo jauretze edo jauregiak zituzten ehun-berrehun pertsona inguruk osatzen zuten. Eserleku eskubidea oinordetzan hartzen zen, baina behe noblezia eta erdiko aristokraziak ez zuen ordezkariarik. Leringo kondeak eta Faltzesko markesak garai batez estamentu hori zuzendu zuten.

Hirugarren estamentua, gizarteko gainerako kideek osatzen zuten, **errepublika edo unibertsitateen herriko adarra** deitutakoak (unibertsitate hitzetik dator, eta herriko biztanle guztiak esan nahi du). 38 herrik, XV. mendean, lortu zuten eserlekua izateko pribilejioa, eta hurrengo bi mendeetan, beste bik eskuratu zuten. Pertsona bakarra, bi edo bost –Iruñearen kasuan– joan zitezkeen, baina leku bakoitzeko boto bakarra onartzen zen. Gainera, aholkulari, enbaxadore, ikuskatzaile, atezain eta giltzariak laguntzen zuten.

Erregeordea hasiera eta bukaeran egon ohi zen, eta erregearen boterearen ordezkaria zen. Behin aztergaien berri emanda, *batzordeak* aukeratzen zituzten gai horien azterketa egiteko, pertsona edo erakunde ospetsuek landutako *txostenen* laguntza zutela. Hiru estamentuek arazoak batera eztabaidatzen zituzten. Hala ere, bozketa bereizita egiten zuten eta gehiengoarekin nahikoa zen. Erabakiak onartzeko, hiru aldean adostasuna behar izaten zen. 1513tik 1801 arte, 77 aldiz elkartu ziren; azkeneko aldia 1829an izan zen.

Bilerek astebete edo hilabeteak iraun zezaketen, eta hiribilduek nahiz herriek beraiek ordezkarien gastuak ordaintzen zituzten. Ez zuten horretarako eraikin finkorik, eta, gehienetan, Iruñeko katedralean elkart-



NAFARROAKO GORTEEN BILKURA. Gorteak hiru besoz osaturik zeuden: elizjendearena, noblezia edo militarrena eta unibertsitate edo herriena. Gorteak, zeregin politikoan parte hartzeko erakundea ziren. Haien lege-ahalmena betetzen zuten erregearekin batera, eta, era berean, erregeordearen eta honen funtzionarioen jokabidea kontrolatzen zuten. Halaber, *foru dohaintza* delakoa erabakitzen zuten, uneoro Nafarroako legeen arabera.

XIII. mendeko parlamentu-batzarretik 1512ko lehenbiziko Gorteetara pasatu zen. Azken bilkura 1829an egin zen eta Diputazioak bere gain hartu zituen Gorteen eginkizunak. 78garren urteko Konstituzioa eta Foru Hobetzearen bidez, berrezarri ziren, Gorteak edo Nafarroako Legebiltzarra izenburuarekin. Parlamentarioak, sufragio unibertsalaz hautatuak dira 18 urtez gorako gizon eta emakumeen artean.

zen ziren; beste batzuetan Tafalla, Tuter, Lizarra, Zangoza eta Erriberrin ere elkartu izan ziren.

Gorteen betebeharrak nagusiek Forua zuten oinarri. Beraz eskuduntza ugari zituzten: erregeak ondoren berresten zituen legeak egin, zergak bildu, atzeritik zetozen produktuei *bidesaria* kobratu; bestalde, moraltasuna, ohitura onak, garbitasuna, kultura eta errege-ondarearen administrazioa zaindu eta ongintzan aritu. Arazorik handiena «foru-baimenaren» eskubidearekin izan zuten; horren bidez, Nafarroan bete behar zen monarkiako edozein lege, Errege-Kontseiluak ikusi eta onetsi behar zuen. Horrela, Gaztelan lege bat aldarrikatzen zenean, nafarren interesen kontrakoa izatekotan, ondokoa erantsi ohi zioten: «onartzen da, baina ez da betetzen». Horrek lege hori betetzetik salbuesten zituen.

11.2. Diputazioa

Legealdi batetik bestera Gorteak elkartzeko igarotzen zen denbora luzea eta jarraikortasun eza zela eta, ordezkariak, Nafarroaren interesak eta foruak zaintzeko, beste erakunde bat eratzea erabaki zuten. 1576an, Gortek Diputazio iraunkorra hautatu zuten. 7 kidek osatu ohi zuten, Elizaren ordezkari bat, noblezia militarren bi ordezkari eta hiri nahiz hiribildu onen aldetik, azkenik, 4 ordezkari.

Diputazioa, **hiru estamentuak ordezkatzeko dituen** erakunde gisa, ez zen berrikuntza, jada Gaztelak (1525) eta Aragoik (XIV. m) erakunde hori zutelako. Nafarroakoa berankorrena izan arren, gehien iraun zuena eta jarduera gehien izan zuena izan zen; Gortek baino eskumen gehiago erdietsi zituen. 1576an, egonkortasuna lortu zuen.

Barne egitura, **Junta Nagusiak** osatzen zuen; bertan, kide guztiak, urtean bitan, elkartzen ziren, ondoren lau aldiz elkartzera pasa zirelarik. Ohiko bileretan iritziaik elkarri adierazten zizkieten eta eguneroko gertaerei buruz hitz egiten zuten.

Funtzioak Gorteen eginkizunekin bat zetozen: erabakiak betearaztea, legeak ezartzea, foru-eskubidea defendatzea, ekonomia ikuskatzea,

txanponak egitea, gerrarako nahiz muga babesteko soldaduen kupoa antolatzea, beste erresumekin harremanak izatea eta hezkuntzaz arduratzea. XVIII. mendean, aurreko funtzioei bideberriak eraikitzea gehitu zituzen.

Edozein burokrazi organoren antzera, funtzionario ugari zituen, hala nola, zerga-baliabideen jasotzaileak, kaperauak, kronistak, artxibatazaileak, biltzaileak, inprimatzaileak, mezulariak eta erakundearen beraren defendatzaileak.

Erabakiak, parte hartzen zutenen botoen gehiengoaren arabera, hartzen zituzten eta ez estamentuen adostasunaren arabera, horregatik pixkanaka estamentuen banaketak desagertu ziren. Oso sistema eraginkorra zenez, ospe eta autoritatea eskuratu zuen motelak eta eragin gutxikoak ziren beste erakunde batzuen kalterako. Hasieran, Diputazioa katedralean elkartzen zen, baina XIX. mendetik aurrera, gaur egungo Foru Gobernuaren egoitzaren eraikinean elkartzen hasi zen.

Beraz, XVII. mendean, Gorteen babespean sorturiko Diputazioa garrantzia eta eskuduntzak hartuz joan zen, gisa horretan, bere babeslea, Gorteak, alde batera utziz; Gorteen gero eta bilera gutxiago egin zituzten. Horrela, Diputazioa, erresumako oinarririk sendoena bilakatu zen; hainbat eginkizun bere gain hartu zituen, bereziki, **foruen defentsa**.

11.3. Erregeordea

Gaztelari erantsi ondoren, Nafarroak erresuma izaten jarraitu zuen arren, ezin izan zituen erregeak barne hartu, eta erregeordea izatearekin konformatu behar izan zuen. Diego Fernandez de Córdoba (1512-1515) lehenengo erregeordea izan zen, eta hari, 1808a arte, erregeen ordezkari zerrenda amaigabea jarraitu zitzaion –hirurogeita hamar baino gehiago–.

Erregea erresuman bizi ez arren, botere osoa eta zegozkion ohore guztiak zituen. Erregeordeak erregearen hurbileko pertsonak ziren, ia guztiak gaztelarrak, familia noblekoak eta esperientzia militarra zutenak –Tuterako Manuel de Sada izan ezik–. **Hurtado de Mendoza** familiako

erregeorde gaztelarrak nabarmendu ziren; Infanterriko dukeak ziren eta hogeitaz bete zuten aipatu kargua: Diego, Luis eta Monteagudoko kondea, Francisco, alegia.

Erregeordearen eginkizuna **gobernatzea eta defendatzea** zen (Kapitain jenerala), baina bazituen garrantzi gutxiagoko beste zeregin batzuk ere, adibidez, dispentsak, indultuak, luzamenduak, sariak eta abar. Arazoak Gorte eta Diputazioarekin eztabaidatu eta negoziatzen zituen, batez ere, Madriletik iristen ziren lege eta dekretuak; erregearen izenean, Gorteen aurrean foruen zina egiten zuen, eta gastu publikoa kontrolatzen zuen.

XVI eta XVII. mendeetatik aurrera, Nafarroako erregeordea «Nafarroa eta bere muga eta eskualdeetako kapitain jenerala» izan zen, frantse-sekin izandako liskarrak eta mugatik sartuta egiten zituzten erasoak zirela medio. Gotorlekuen mantenuaz, soldaduen kupoa zehazteaz eta, gerra garaletan, hornikuntzaz, arduratzen zen.

Botere handia zuen. Horregatik, erregeak gehiegikeriak galarazteko mugak jartzen zizkion; halaber, Nafarroako Gorteen eta Diputazioak jarraipen sakon eta zorrotza egiten zioten. Ekin aurretik, erakundeen iritziak entzun behar zituen; zenbaitek ez zuten egin, eta, horrelakoetan, kargutik kentzea eskatu zuten beste erakundeek.

11.4. Errege Kontseilua, Errege Gortea eta Kontuen Ganbara

Errege-Kontseiluak erdi aroan du jatorria eta, hasiera hartan, erregeari aholkua ematea zen bere eginkizuna. Aro modernoan, erregeordearen erreferenterik hoberena izan zen, eta oso helburu zehatzak zituen. **Administrazioaren ohiko kudeaketaz** arduratzen zen, eta, gainera, Auzitegi Gorenaren lana betetzen zuen, hots, erregearen aginduak foru-arauekin bat zetoze kontrolatzen zuen.

Kontseilu kideak, erregeak hautatzen zituen; presidenteak, sei aholkularik eta funtzionario ugari osatzen zuten (idazkari, fiskal, abokatu eta

abarrek). Erregeak izendaturik, eskerronekoak izaten ziren, eta, horregatik, oso gutxitan jotzen zuten erregeen interesen aurka. Errege-Gortea justizi epaitegia zen, alkatez, prokuradorez eta notarioz osaturik.

Karlos II.ak diru publikoak erabiltzeko erak eta moduak berrantolatatu zituen, eta, 1365ean, errege-ondareaz eta finantzez arduratuko zen **Kontuen Ganbara** eratu zuen.

11.5. Jaurgoa

Jaurgoa, emandako zerbitzuen merituan, noble batek jasotako lurraldearen eta bertan bizi direnen gainean duen pribilejio eta eskubi-deen multzoa da.

Erribera eta Mendialdearen artean ezberdintasun handiak zeuden. Erdi Alde eta Erriberan mendetasun handia zegoen, biztanleriaren kopuru handia jaurgoen barnean baitzegoen: Estellerrian %31, Erriberrin %25 eta Tuteran %21. 1424an, sortutako **Leringo konderriaren** (Lerin, Sesma, Villamayor, Eslaba, Arroitz, Allo, Deikaztelu, Mendabia, Carcar, Zirauki, Arellano eta Zare) eta Alonso Carrillo de Peraltaren **Faltzesko markeserriaren** (Faltzes, Funes, Martzilla, Azkoien) artean Nafarroako lurralde eta biztanleriaren erdia hartzen zuten. Erriberako beste jaurgo batzuk ordena militarrei edo abadieiei zegozkien.

Mendialdean, jaurgo ugari zegoen, baina txikiak ziren eta jaunek ez zuten eskumenik. Iruñerrian, biztanleen %1,15 eta lurraldearen %0,43 hartzen zuten eta Zangoza aldean, berriz, biztanleen %5,4 eta lurraldearen %2,2.

11.6. Ibarrek, hiribilduak eta hiriak

Nafarroako erresuma «errepublika edo unibertitateek» osatzen zuten; horiek hiri, hiribildu, ibarrak eta herriak barne hartzen zituzten.

Erdi aroko birpopulatzearen bidez sortutako hiribildu eta hiriek foru nahiz pribilejioak zituzten; erdialde eta hegoaldean zeuden. Biztanle

gehien zituztenetan, bi erakunde zeuden: **kontzejua eta erregimentua**. Kontzejua herriko erakunde nagusia zen. Itxia edo irekia izan zitekeen; herriko familia guztien artean hamaikako, hamabosteko, edo hogeiko kontzejua hautatzen zenean, itxia zen, eta familia buru guztiek batzarra osatzen zutenean, aldiz, irekia. Erregimentua, bere aldetik, alkateak, epaileak eta zinegotziek osatzen zuten, eta urtero aldatzen zituzten. Nobleziako pertsona ospetsuenen artean *terueloen* (barruan partehartzailleen izena edo zenbakia zeraman bola hutsa) bidez zozketa egiten zuten.

Nabarreria, San Zernin eta San Nikolaseko burguak batu zituen Batasun Pribilejioaren garaitik (1423), **Iruñea, alkateak** –urtero auzo desberdinekoa– eta barrutietako hamar erregidorek (2, 3 eta 5, hurrenez hurren) gobernatzen zuten; euren oinordekoak aukeratzen zituzten, eta, gehienetan, familia aberatsetakoak izaten ziren.

Iparraldean, herrien eta tokien multzoak **ibar** edo **zendea** –Iruñerria– izena zuen. Lau ibar garrantzitsuenek –Baztan, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa–, ibar edo *unibersitate* osoari zegozkion lurralde zabalak edukitzeaz gain, kontzeju bakoitzari zegozkion beste lursail batzuk ere bazituzten. **Batzarrak** (asanblada orokorrak) eta alkate batek gobernatzen zituzten.

12
BERDINTASUNIK GABEKO GIZARTEA
XVII-XVIII. MENDEAK

XVII. mendean, biztanleriaren igoera gelditu zen eta Europak 79 milioi biztanle baino gehiago ez zituen; gizaldiaren bukaeran 83 milioi pasa zituen. Hazkundera txikia izan zen, gerrak, izurriteek eta goseak heriotza tasa handia ekarri zutelako eta beste herrialde batzuetarako emigrazioa ere handia izan zelako. Nafarroak, 1553an, 160.000 biztanle zituen, eta 1700 urtera bitartean, kopurua 170.000 arte igo zen. 1631ko izurriteak, elikagaien gabeziak, Frantziarekin izandako gerrak (1635) eta Kataluniako altxamenduak (1640-1653) demografia-hazkundera sakon murriztu zuten. Eskasia larri horiek, baita urritasun ekonomikoak ere, gizartearen ezberdintasunak are gehiago handitu zituzten.

Gaur egun, legearen aurrean guztiak berdinak izateak babesten gaitu, baina hori pentsaezina zen Erregimen Zaharreko gizartean. Guretzat, hirugarren milurtekoaren atarian, zaila da legeak desberdintasuna babesten zuela irudikatzea, eta, are gehiago, gizarteak onartzen zuela pentsatzea.

Gainera, plebeiu eta nobleen arteko eskubide eta betebeharren desberdintasun horiek, janzteko eran, harremanetan, bileretan, prozesioetan, mahaian eta etxebizitzan islatzen ziren, pertsona bakoitzari toki bat zegoa.

kiolako gizarte mailan, gainontzeko guztiek errespetatu behar zutena. Orobat, emakume alargun, ezkongabe eta ezkonduen jarreraren artean ezberdintasunak zeuden, azkeneko horrek estimu handiagoa zuelako.

Nafarroa ez zegoen errealitate sozial horretatik at, eta, kontrastez beterik zegoen; ez zuen alferrik erromatar, germaniar eta musulmanen eragina jaso. Ez dugu ahaztu behar gainera, aniztasun handiko ingurune naturalak ere baldintzatu zuela. Horregatik guztiagatik, gizartearen egitura ez zen Aragoi eta Gaztelan zuten berbera.


Etxeen multzoak erkidegoa osatzen zuen, eta hori, aldi berean, ibar, hiri edo hiribildu baten barruan egon zitekeen. Aipatu kontzeptu hori Europako gizarteari hurbiltzen zaio. Zergak biltzean idatzitako dokumentuetan ikus daitezke gizartearen baitan zeuden ezberdintasunak. Horrela, *aitoren semeak*, nekazariak, bilauak edo nekazari-morroiak, jauregidunak edo armategiko kabuak eta tituludunak zeuden.

Baina aitoren seme eta nekazarien arteko ezberdintasuna ez zen horren handia zenbait lekutan, batik bat Nafarroako iparraldean, biztanle guztiak auzalorrak ustiatzeko eskubide berberak baitzituzten.

Nafarroan, legeek **elizgizon, noble eta gainerakoen** artean egiten zuten bereizketa. Lehenengo bien bizitza, legeek eta auzitegi partikularrek arautzen zuten, eta pribilejiodun izena ematen zieten; gainerakoek, hau da, gizartearen gainerako mailek ez zuten inolako babesik, eta zergak ordaindu behar zituzten, koroa eta beste estamentuen mantenurako.

Herri eta hirietan, gizartearen oinarrizko ardatza familia zen, eta etxeko *jauna edo nagusia* zen familiaren ordezkaria. Gizartea, eskubide guztiak zituzten familiek, *herritarrek*, eta komunitateko kideetat jotzen ez zituzten *biztanle* arruntek osatzen zuten.

Itxurazko bizikidetzaren horrek gorabeherak izan zituen, eta, zenbaitetan istiluak ere bai, gainerakoen matxinada edo altxamenduengatik baino, nobleen neurritz gaineko larderiarengatik; azken horiek, batzuetan, kaparetasunaren aitzakia erabilita, txiroen kontura pribilegio gehiago eskuratu nahi izan zuten.



GOIENETXE ETA INDABURUREN ARMAK, BELTZUNTZE ETA UGENAREN MARKESA (NAFARROAKO ARTXIBATEGI OROKORRA). Juan Frantzisko Baena Velluti eta Goienetxe Jaunak Beltzuntzeko markes titulua hartu zuen 1731n eta Juan Frantzisko Goienetxe eta Irigoien Jaunari Ugenako markes titulua eman zioten 1735ean, Felipe v.aren aginduz.

Nafarroan, ehun familia noble eskas claude elkarren artean ahaidetasunez edo leinuz lotuak daudenak. Erdi arora arte atzera egin behar da euren jatorriak topatzeko, eta, aro modernoan ondasunik gehienak zituzten. Halaber, tokiko erakundeak, goitik behera, haien esku zeuden, hala nola erresumakoak. Euren pribilegio sozialak funtsatzen ziren erregeak emandako noblezia tituluan eta «leinu-etxe erako jauregi» baten jabe zirelako, esan nahi baita, jatorri-etxe armadunak zituztelako. Noblezian bi maila zeuden: zaldunak eta aitoren semeak, Gortean beso militarra osatzen zutenak.

12.1. Noblezia

Gizartearen mailarik gorena zen. Hainbat pribilejio zituen: ez zuen zergarik ordaintzen, ez zuen behe mailakotzat jotzen ziren eskulanik egiten, kargu publiko eta militar gehienak betetzen zituen, eta, gainera, latifundio handiak zituen.

Bi maila zeuden: bata goikoa, **zaldunak** izenekoak, ordena militar bateko abitua zeukatenak; eta, bestea behekoa, **aitoren semeak** –duke, baroi, markes eta kondeak–. Behe nobleziak jaurerriak zituen, eta hiribildu nahiz herriak gobernatzen zituen; bestalde, liturgi ospakizunetan, prozesio eta jarduera sozialetan ohorezko postuak zituen.

Goi noblezian ehun bat familia besterik ez zegoen. Horien aitzindariak erdi arokoak ziren. Ondasun gehienak haienak ziren, hiribildu eta hiriak gobernatzen zituzten, Gorteetako adar militarra osatzen zuten eta Diputazioko postu hobereenak ere haienak ziren. Erregeak emandako tituluak zuten zaldunak ziren. Errege-jatorria zuten **Leringo** –Beaumont familia– eta **Cortesko Kondeak** –Navarra familia (1412)– nabarmendu ziren. Gainerakoak bizkonde edo baroiak ziren, esaterako, Faltzesko Markesa (1513). Felipe IV.ak hiru titulu eman zituen, Felipe V.ak bederatzia eta Karlos II.ak hamasei; XVIII. mendean borboiek 49 eman zituzten.

Nafarroan ez zen betetzen beste erresumetan nobleak eta gainerakoak bereizten zituen ezaugarria, hots, zergak ez ordaintzea, *dohaintza* ematen baitzuten; gainera, aitoren semeen familia ugari petxariak ziren.

XV. mendean, erregeak zenbait hiribildu, herri eta ibarri etxe guztiendako **kaparetasun orokorra** eman zien, adibidez, Caseda, Agoitz, Betelu, Irunberri herriei eta Baztan, Zaraitzu, Aezkoa, Lana eta Larraun ibarrei. Horrekin petxak ordaindu behar izateari utzi zioten, baina, hala ere, erregearen diru-kutxarako beste zerga batzuk ordaindu behar zituzten. Erregeek, bereziki, natura-baliabide gutxiko lurralde menditsuei ematen zieten pribilejio horrek ahalbidetu zuen biztanle kopuruari eustea eta abeltzaintzan jarraitzea. Iparraldean, aitoren semeen kopurua oso handia izan zen, XVIII. mendean, biztanleen erdia, alegia; hegoaldean, ordea, biztanleen %10.

XVII. mendean, Nafarroako biztanleen %25 aitoren semea zen: %46 Iruñerrian, %12'5 Lizarran, %8 Erriberrin eta %4'5 Tuteran.

12.2. Kleroa

Kleroa, gizartean betetzen zituen funtzioak zirela eta, ospe handieneko estamentua zen, nahiz eta jende kopuru txikiena izan. Nobleziaren antzeko pribilegioak zituen, eta ondasun pilo handia; batetik, jabego handien emaitzengatik, eta, bestetik, kobratzen zuen hamarrenarengatik (uztaren hamarren bat).

XVIII. mendean, Nafarroako biztanleen %2'1 hartzen zuen. Guztira, 4.800 pertsona biltzen zituzten elizjendeen kongregazio eta ordenak bi adarretan banatzen ziren: ordena erregeladunek (latineko *regula*-tik: araua) sortzailearen arau multzoaren arabera bizimodua egiten zuten. Esaterako, obediencia, txirotasun eta kastitate-botoak egiten zituzten; eta sekularrak (latineko *seculum*-etik: mundua) edota munduan, apezpiku eta barrutiaren babespean, bizi ziren apezak. Herrialde guztian biztanleria osoaren %6 osatzen zuten.

Elizaren estamentuan bi maila bereizten ziren: **Behe Kleroa eta Goi Kleroa**. Azkeneko horretan zeuden, elizako kargu omendunak eta hierarkiako postu garrantzitsuenak zituztenak, hala nola, apezpikuak (Iruñea eta Tuterakoa) eta foru-lurraldean barna barreiatutako monasterio eta abadia nagusietako abadeak. Nekazaritza eta abeltzaintzarako lursail zabalak zituzten, eta maizterrei zergak kobratzen zizkieten etxebizitza eta lantzeko lurrak erabili eta probetxu ateratzeagatik.

Nafarroan, Elizaren ordezkari nagusia **Iruñeko apezpikua** izan zen, gerora Tuterakoa ere izanen zena (1783). 20.000 dukatekoa zen bere urteroko errenta. Apezen bitartez, espirituaren gidari izateaz gain, *erregearren ministroa* ere bazen, eta, Gorteen burua zen; halaber, erregeordea kanpoan zenean, haren kargua hartzen zuen. Horren ondoren garrantzitsuenak Tuteran eta Orreagako Kolegio-eliza ziren; horiek, gurtzan aritzeko

eta koruan Ofizio-Errezoa kantatzeko kalonjeak zituzten. Ofizio-Errezoa puntako orduetan kantatzen zen, goizetan matutiak eta gorespenak, arratsaldetan bezperak eta arratseko-otoitzak gaez.

Egoitza horiek, baita Iratxe, Fitero, Tulebras, La Oliva eta Martzillako abadiak ere, nobleek arras gutiziatzen zituzten, bertan zeudenek lortzen zuten ospe sozialarengatik eta etekin ekonomiko handiengatik.

1580tik 1740ra bitartean, Nafarroan fraide eta mojen kopurua hala nola komentu eta abadien kopurua bikoiztu zen. Gizonezkoendako 8 monasterio –Leire, Fitero, Irantzu, Martzilla, La Oliva, Iratxe, Urdazubi eta Orreaga– eta emakumeendako bakarra –Tulebras– zegoen. Erljio ordena guztiak ordezkaturik zeuden: agustindarrek 5 etxe eraiki zituzten, dominikarrek 6, karmeldarrek 10 eta frantziskotarrek 24, jesuita eta kaputxinoak ahaztu gabe.

Baina elizaren estamentuaren zati handiena herri eta hirietako kape-rau, apaiz eta erlijiosoek osatzen zuten. Pertsona apalak ziren, batzuek ikerketan edo liburuak itzultzen jarduten zutenak. Beste batzuk, ordea, sakramentuak eta meza ematen aritzen ziren, edota fededunei arlo espiritualean –baita txiroak materialean ere– laguntzen eta hezten ere bai. **Behe Kleroa** deitutakoa osatzen zuten.

Herritarrak elizaren jabeak izanez gero, haien hautatzen zituzten apaizak, bestela, noble batek edo apezpikuak. Haien diru-sarrerak nagusiak hamarrenak ziren, nekazarien uzten eta mezen intentzioen hamarrena, alegia.

Herri txikietan, Nafarroako mendialdean, adibidez, presbitero bakarra zegoen eta egoera larrian bizi zen; aldiz, Erdi eta Hegoaldeko hiribildu eta herrietako ekonomia oso egoera onean zegoen. Lodosan, esaterako, XVIII. mendean 2.200 katoliko eta 8 presbitero bizi ziren. Hiribildu eta herrietako apaizek eliztarrengan eragin handia zuten. Beraz, haien aholkuek balio zuten bizitzarako erabaki garrantzitsuak hartzeko, hala nola, ezkontzak *konpontzeko*, hezkuntza edo nekazaritza elkarteak eratzeko edo ospitale eta umezurtz-etxeak eraikitzeko.

12.3. Petxariak

Nafarroan erabiltzen zen petxari kontzeptua ez zetorren inola ere bat penintsulako gainerako lurraldeetan erabiltzen zenarekin. Izan ere, Gaztela eta Aragoi, aitoren seme eta petxariaren arteko ezberdintasuna lehenengoaren zerga-salbuespena zen; Nafarroan, ordea, baziren gainontzeko nekazarien antzera Gorteei zergak ordaintzen zizkieten aitoren semeak, Gaztelan pentsaezina zena. Leinargi titulua eskuratzeak askori bizimodua aldatzen ez bazion ere, petxari izateak berekin zeraman desohorea kentzen zien, eta, Gaztelara bizitzera aldatuz gero, han nobletzat hartuko zituzten, eskubide osoen jabe.

Horrenbestez, **petxa** da etxebizitza edo lurren gozamenagatik edo hiribildu nahiz herri bateko herritar izateagatik, jaunei diru edo ale kopuru jakina edo animaliairen bat eman behar izatea. Petxak ordaintzen zituztenei, mesprezuz, petxari deitzen zieten. Petxa, azken batean, **errenta mota** bat zen, bere baitan jabedunena edo aitoren semeena baino gizar-te maila apalagoa zekarrena.

Petxa ordaintzen zuten aitoren semeak hura kentzen saiatu ziren, noblezia-eskubideak ez galtzarren. Aldiz, petxak jasotzen zituztenak *jauregidunen* parekoak ziren, eta ez zuten zergarik ordaindu behar.

12.4. Herritartasuna: herritar eta biztanleak

Hiri, hiribildu eta herrietan pertsonak familiaren inguruan bizi ziren; familia burua edo nagusiak, emazteak, seme-alabek, aiton-amonek eta morroiek osatzen zuten familia. Ezkontzek, maiz, ondasunak handitzeko balio izaten zuten, eta beste, batzuetan, aldiz, herritartasun-gutuna lortzeko. Herritar guztiek tokiko erkidegoa osatzen zuten.

Herritar eskubidea etxe bat zuenak lortzen zuen; horrela, besteek zituzten eskubide eta betebeharrak berberak zituen eta auzalorrak erabil zitzakeen. Era berean, zerga berberak ordaindu eta bazkalekuak nahiz aziendak zaindu behar zituen.

Iparraldean, herri-erkidegora bizitzera joan nahi zutenak gaizki

ikusita zeuden, eta, batzuetan, baztertu ere egiten zituzten. **Kanpotar edo biztanle** izena hartzen zuten. Beraz, herritartu ahal izateko, kanpoko jendeari, baita bertako norbaitekin ezkondua bazen ere, eskatzen zitzaion bere kaparetasuna edo odol garbitasuna frogatzea. Aldiz, Erriberan eta Erdi Aldean, errazagoa zen etxebizitza lortu eta herritartzea, han bertako lur zabalak birpopulatzeko irrikan baitziren.

12.5. Jornalariak eta laborariak

Nafarroan, ia ez zegoen latifundiorik, eta Elizak laborantzarako lurraldeen %5 zuen. Lur-jabe handi batzuk nabarmendu ziren, adibidez, Etxarrengo eta Azedoko Jauregikoak edo Rafolgo Markesa, zeinek Sarta-gudako 64 kolonorekin 150 erreguneurri mahasti lantzen baitzituen, baita 248 lehorreko sail eta 2.500 ureztatze-sail ere.

Laborari eta jornalarien artean ezberdintasun handia zegoen. Laborariak bere lurak edo aldi luzerako errentan hartutakoak lantzen zituen; populazioaren bi herenak laborariak ziren. Jornalariak egun baterako kontratatzen zituzten, lurak lantzeko. Azken horiek herri eta hiri-bilduetako plazetara ateratzen ziren, eta egun osoko lana –eguzkitik eguzkira– eskaintzen zieten jornalaren truke. Jornala bertan zehaztu eta lanaren amaieran kobratzen zuten .

Morroi edo neskameak oso beharrezkoak ziren Nafarroako gizartean. Kontratuak urtekoak izaten ziren, eta berritzeko aukera zegoen; soldata txiki bat, jantziak, mantenua eta ostatuaren truke, 25 urte baino gutxiagoko gazteek, jabeari etxeko lanetan edo soroetan laguntzeko konpromisoa hartzen zuten. Erdi Aldean eta Mendialdean aunitz zeuden; Iruñerrian eta Tuteran guztien %20 baino gehiago ziren; jornalariak, aldiz, Tuteran %62 osatzen zuten.

Bakarrik nekazari gutxi batzuk bizi ziren aise, eta, are gehiago, batzuek labore eta ardoaren ekoizpenean soberakinak ere izaten zituzten. Gehienak egoera larrian bizi ziren, laborantzarako oso lursail txikiak eta etxeko abere batzuk besterik ez baitzituzten, eta, gainera, artisau, ikazkin

edo egurgile lanetan aritu behar izaten zuten. Semeak jornalari, artzain, morroi edo nekazaritzako morroi izan ohi ziren, eta, alabak, berriz, familia aberatsen edo senideen neska. Haien nahia ezkontzea edo herritar titulua lortzea zen, horrek, erkidegoan edo herrian integratzea eta erkidegoko ondasunetatik etekinak atera ahal izatea zekarrelako.

12.6. Hiriak

Aro modernoan, hiriko bizimodua tradizionala zen, nolabaiteko erdi aroko kutsua zuen oraindik; **Iruñea, Tuter eta Lizarra** nabarmentzen ziren.

Iruñean, aldaketa gutxi izan ziren XVI. mendetik XVIII. mendera, 2.000 familia izatetik 2.600 izatera pasa zen. XVIII.enean, artean Iruñea oso militartua zegoen, bertan 150 soldadu eta 12 ofizial bizi baitziren. Beraz, mugatzen zuten gotorlekuak eta harresiek zabaltzea galarazten zioten. Hala ere, auzo bat, Arrotxapea, muga horretatik atera eta Arga ibaiertzean sortu zen.

Halaber, esan daiteke **Iruñea** hiri klerikala zela, bertan apezpikua-ren kuria, fraide eta moja ugari bizi baitziren, presbitero bana eta zenbait laguntzaile zituzten 15 komentu eta 4 parrokiatan banatuta; hiri aristokratikoa, bestalde, 315 familia noble baitzituen. Erresumako hiriburua zenez, pertsona aunitzek administrazioan lan egiten zuen, baina, gainera, landa-hiria zen, biztanleen laurdena nekazaritza lanetan aritzen baitzen; azkenik, hiri solidarioa zela esan behar da, etengabeko ardura baitzuen, gaixo, zahar, umezurtz eta bazterturiko gizon-emakumeei laguntza emateko. Horrela, Ospitale nagusia, Erruki-etxea, umezurtz-etxea, eta abar eraiki zituzten.

Populazio aktiboaren %35 industria txikian aritzen zen, hala nola, artisauak; erdi aroko organigrama berari eusten zioten –maisua, ofizial eta ikaslea– eta auzo edo karrika jakinetan bizi ziren, hortik datoz Zapateria (zapatariak), Cordeleros (sokagileak), Telleria, eta beste zenbait kaleren izenak. Loza eta paperaren industria eta Erruki-Etxeko oihal-industria

izan ezik, ia ez zegoen lantegi handirik. Merkatariak aipagarriak dira, horiek aberastasun handiak zituzten eta ezkontzen bidez nobleziari lotzen ziren, ohorezko tituluak eta dirua batzearren.

Lizarrak, ekonomikoki eta kulturalki bikaina izan zen garaiaren ondoren –Done Jakuerako bidearen garaia–, erakundeak eta ekonomia-sistema finkatu nahi izan zituen. Nafarroa Gaztelari erantsia gertatu zenean, Egako Hiriak interes militarra galdu zuen.

Hala ere, Lizarran bi familiaren arteko –Ponce eta Learza– tirabirak izan ziren; erregeak, alkatetzan txandakatzearen bidez, arazoa konpondu nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Bestalde, Gorteetan partehartze eraginkorra zuen, Lizarrak Tuteraren aurretik egon nahi baitzuen, eta horrek bi hirien arteko liskarra ekarri zuen; azkenean, erregeak Lizarraren alde egin eta arazoa konpondu zuen.

Egako hiriak erdietsi zuen ospearen adierazle, erregeen bisitaldiak dira, foruen zina egiteko. Adibidez, 1592an, Felipe II.ak egin zuena. Lizarrak kulturaren alorrean ospea hartu zuen *Eguía eta Amberes inprimategiei* esker eta Aita Diego Estellakoaren idatziei esker. Humanista handi horrek berpizkundeko jakituria bideratu eta transmititu zuen.

12.7. Etxearen oinordekoa: maiorazkoa

Nafarren demografiak jaiotze tasa handia –urteko milako 38 jaiotza– eta heriotza tasa handia –milako 35 heriotza– zeukan. Iparralde eta hegoaldearen artean alor guztietan zeuden ezberdintasunak biztanleriak ere erakusten zituen.

Familia, mendialdean, pertsona ugarikoa eta enbor-egiturakoa zen, hainbat belaunaldi batera bizi baitzen, gurasoak, seme-alabak, osaba-izebak, anaia-arreba ezkongabeak, aiton-amonak eta morroi-neskameak. Abeltzaintzatik bizi ziren, baina komuneko lursail gutxi zituztenez bizi-rautea nahiko zaila zen. Horregatik, **maiorazkoa erakundetu zen**; ohi-tura horretan oinordekoak hartzen zuen etxearen ardura, baita guraso eta anaia-arreba ezkongabeena ere. Anai-arrebak, *bigarren seme-alabak* deitu-

takoak, batzuk etxean gelditzen ziren oinordekoaren menpean, beste batzuek urruneko lurraldeetara alde egiten zuten, fraide, moja edo armadan mertzenario sartzen ziren; gehienek beste lanbide bat bilatzeari ekiten zioten.

Ohitura horrek gaur egun familia batzuetan oraindik irauten du, ez bakarrik etxalde txikietan, baizik eta jabego handietan ere deitura, ospe soziala eta belaunaldi askoren lana pertsona bakar batek gorde dezan.

Erriberan, berriz, familia lau pertsona inguruk osatzen zuten, eta jaraunspena seme-alaben artean banatzen zuten. Mendialdean baino gazteago zirenean ezkondu ohi ziren, errazagoa baitzen lana lortzea, jornalari-lursail zabalak zirela eta- lanbideren batean ikasle edo artisau gisa.

12.8. Ohitura lege egina

Gizakia lurrean agertu zenetik beste herriekin, bereziki inguru hurbilarekin, auzoko edo familiarekin, harremanak izan ditu, batez ere, merkataritza harremanak. Zuzenbidea, zientzia bilakatu eta paperetan islatzen hasi baino lehenago, eguneroko bizitzan kontratuak arautzeko beharra izan zen.

Nafarroako herri primitiboek ez zuten bizitzaren erritmoa bideratzeko arauak idazteko eta berresteko prestakuntza eta baliabide nahikorik. Ez zen legerik, ezta araudirik ere, bizitza soziala *ohituraren* bidez arautzen zuten, une horretan hitzartutakoaren arabera. Arrunki horrela zioten: «**nik diodana lege**»

Horrela, ohitura zuzenbidezko edukia zuten ekintzen errepikatzea litzateke, betiere, pertsona guztiak bermatzen zituztenak. Nafarroan ohiturak legeak adina indar, edo handiago izan zuen; horregatik Foru Berriak hauxe zioen: «Moralak edo ordena publikoaren kontra egiten ez duen ohitura, nahiz eta legearen kontrakoa izan, zuzenbide idatziaren aurrean gailentzen da».

Miguel Salcedoren esanetan, «ohitura hori egonkor eta orokor

bihurtu zenean, ohiturazko zuzenbidea sortu zen, Nafarroan nafar zuzenbidearen lehenengo iturritzat jotzen dena, alegia.»

Pentsamolde eta jokaera horren jatorria nafarren herrian lehenengo garaietan agintzen zuten ohituretan zegoen; familia burua agintari zuten ohitura horiek gurasoek seme-alabei ahoz transmititzen zizkieten. Guregana iritsi diren testuetan ohituraren balioa, indarra eta eraginkortasuna zuzenbide idatziarenekin parekatzen da, eta hala adierazten dute erregeek Nafarroako koroa hartzerakoan egiten zuten zinek; Teobaldo II.a eta Joan II.a eta Katalinak egindakoa, esaterako, jasota ditugu. Berebat, Bortuz haraindi errespetatzen zen, eta **ohiturak foruek beste indar zeukan**. Enrike Handiak (1608) eta Luis XIII.ak (1612) onartu zuten eta Frantses iraultza arte ohitura eta legeak berdin ezarri ziren.

Nafarroako Foru Araubidearen Hobetzeak (1982) ohitura eskubi-dearen iturritzat hartzen du. Gainera, «toki-ohiturak ohitura orokorraren aurrean lehentasuna dauka».

Beraz, esan daiteke Nafarroan **ohiturak legeak baino maila handiagoa zuela**, zaharragoa zela, eta ohitura egonkor eta orokor bihurtu zenean, ohiturazko zuzenbidea sortu zela.

Hala ere, maiz ohiturak du zuzenbidea sortzen, zuzenbide edukirik gabeko tradizio hutsa denean, alegia. Horrela, urtarrilaren seian, Fabaren erregearen koroatzea ospatzea, salerosketa baten ondoren bi aldeek bostekoa ematea, hiru behien zerga, eta abar tradizioak besterik ez dira. Ez ditugu zuzenbide gisako ohitura eta tradizioa gisako ohitura nahastu behar.

12.9. Etniak baztertuak: agotak

Aldi eta alde oro izan dira ondokoek baztertutako edo erdeinatutako gizataldeak, gaitzetsitako herriak, biztanleak edo kristau berriak, esate baterako. Diskriminazio soziala, erlijioso edo kulturala nozitzen zuten, eta horrek gainerako gizon-emakumeengandik bereizten zituen, baita kutsatzea galarazteko leku zokoratuetan bizitzera behartu ere. Herri men-

peratzaileek babesgabeen adierazten zieten areriotasun eta erdeinuak bere bakarrean bizitzera, bere burua baztertzerako edo haien Rha eta gainerako gizabanakoena bat ez zetozela sinistera bultzatzen zituen. Diskriminazioak haien eskolaren sarrarazi, eta euren lanbideetan, errito eta kultura erlijiosoetan kanpokoekin inolako harremanik izan gabe aritzera behartzen zituen. Nolabaiteko bazterketa etnikoa da.

Gizartea baztertutakoengandik urruntzen zen, batzuetan gaixotasunen bat kutsatzen ahal zieten beldur zirelako –legendunen seme-alaben kasua–, eta beste batzuetan, aldiz, arbasoengandik jasotako bekaturen bat kutsatzen ahal zirelako, eta, ondorioz, salbazioaren bidetik urrundu. Zenbaitetan bere burua baztertzen zuten, lanbideari lotutako sekreturen bat gordetzearren; adibidez, arotzek isilean gordetzen zuten forjaketaren formula.

Nafarroan, diskriminazio hurbilekoena hiribildu eta herrietan bertan **maizter, biztanle edo kanpotarrei** egindakoa zen. Herritarrek eskubide guztiak zituzten, eta *biztanleek*, aldiz, ezin zituzten auzalorretako lurrak eta zuhaitzak erabili. Bestetik, zergarik ordaindu behar ez izatea zuten bere alde. Familien %35 osatzen zuten, eta horrela deitzen zieten berezko etxerik ez zutelako, mezenasgoa debekatu izan zirelako edo beste leku batetik etorritakoak zirelako. Herritartu ahal izateko etxeko oinordekoarekin ezkondu edo gainerako herritarren oniritzia jaso behar zuten.

Kristau berriak, hots, kristaututako judutar edo mairuak, erlijio-gatik baztertu zituzten. Errege Katolikoek baino sei urte geroago, Joan III.ak eta Albreteko Katalinak (1498), judutarrak bataiatu edo lurraldetik alde egin behar zutelako, xedatu zuten. Guztiei karguak betetzea galara zi zieten; are gehiago, komentu, monasterio eta kofradietan odol garbitasuna eskatzen zieten sartu ahal izateko. *Judutarren ondorengo* ezizena eramatea erdeinuaren sinboloa zen.

Nafarroan bizi ziren musulmanen patua berbera izan zen, Fernando Katolikoak (1515) kristautzeko edo bizitokia uzteko agindu baitzuen. Askok hurbileko lurraldeetara alde egin zuten, esaterako, Aragoiko Tara-

zona eta Mallenera, baina agindua bertara ere iritsi zen 1526an. Erriberan hamaika etxe hutsik gelditu zen, eta talde bakar batzuk geratu ziren. Hala ere, *erbestetik*, musulmanak Nafarroako eguneroko bizitzari adi jarraitzen zitzaizkion, eta frantziarrek Auritz hartu zutenean, poztu egin ziren, itzultzeko ametsari eusten baitzioten. 1610ean, Logroñoko inkisizioa beste morisko talde bati jazarri zitzaion.

Bazterterik handiena, ordea, **agotek** nozitu zuten. Jatorri ezezaguna zuten, baliteke antzinako legendunen edo hereje talde albitarren ondorengoak izatea. Erdi aroan, jada, iraina zen aipatu hitza pertsona bati deitzeko erabiltzea, hatz oker edo zerriren antzekoa. Zaraitzu, Doneztebe, Erronkari eta Baztanen agota talde txikiak zeuden; herritartzea, auzalorrrak erabiltzea, elizako lehenengo ilaretan esertzea eta eskaintzak egitea debekatzen zieten. Akats fisikoak ere, hala nola, belarria itsatsita izatea edo gaizki usaintzea egozten zizkieten.

Nafarroako mendialdean, agotak kultur etnia desberdina izateagatik baino biztanleak izateagatik eta etxe propiorik (herritarrak) ez edukitzeagatik baztertu zituzten. Azkenik, agotek aita santuarengana eta gortetara jo zuten, jasotzen zuten tratua desberdina zelako eta izena irain larria bihurtu zelako –XIX. mendea arte iraun zuen–, eta, horiek hitza gaitzetsi zuten eta esatea debekatu, betiere beste pertsonari min emateko erabiltzen baldin bazen.

LANA, BIZIBIDE GISA

XVII. ETA XVIII. MENDEAK

XVI-XVIII. mendeetako nafarrak landari oso loturik zeuden, baita aldaketa atmosferikoei ere; ekonomia tradizionala zuten, izan ere pertsonarik gehienek ez zioten alferrik eskaintzen beren bizitzako urterik onenak landari. Beraz, nekazaritza eta abeltzaintza, nolabait, uztarri bereko jarduerak ziren, landa-animaliekin egiten baitziren lurreko lanak, eta animalien zimaurrek alorrek ongarrizteko balio baitzuten; gaur egunean, ongarrri ekologikoa deitzen zaio horri. Garrantzia gutxiagoko beste jarduera zenbait ere baziren, baina ia guztiek zuten nekazaritzarekin zerikusia, fabriketako ekoizpena, adibidez, zeinak 13,5 milioi errealetako balioa baitzuen; nekazaritza, berriz, 69 milioitan balioztatuta zegoen, eta abeltzaintza 72 milioitan.

Bestalde, asko kontrolatzen zituzten hiri, ibar edo hiribilduko toki-agintariek hainbat egintza, esate baterako: mahats-bilketa hasteko eguna, ardoaren, gariaren eta animalien prezioa, lan baldintzak, bai eta soldatapekoek kobratu behar zuten dirua ere. Sistema horrekin erkidegoaren interesak defendatzen ziren, nahiz partikularren kontura izan. Olexoan (Ega ibarra), XVII. mendean, herriko upeletako ardo guztiak bukatu arte ez zen utzi herritik kanpo ardo-pegar bakar bat ere erosten.

Laburbilduta, nekazaritza eta abeltzaintza ziren ekonomiaren oinarri. Ez zen aldaketa handirik izan ertaroarekin alderatuz gero, hainbat lekutan mahatsondoak kentzen zituzten alea ereiteko, beste zenbait lekutan kontrakoa egiten zuten, edo artoa erein gariaren ordeztuz, edo ureztatze-sailak gehitu ibai handiak zituzten ibarretan. Merkataritzari dagokionez, produktu-trukea egiten zuten Mendialde eta Erriberakoek elkarren artean; artisautzan, nork bere arropak, oinetakoak eta lanabesak egiten zituen, eta artile eta larrua esportatzen zen; industrian, burdinolak eta armaolak garatu ziren mugetako gotorlekuak hornitzeko.

13.1. Landako produktuak

Orografia arrazoi, Nafarroak bere azaleraren %15-20 artean lantzen zuen soilik; zehatzago esateko, XVII. mendean, Mendialdean ez zen %10 baino gehiago izaten landutako lurra, eta Mendipe eta Erdialdean, berriz, %30-40 bitartean landatzen zen.

Nafarroaren hego eta erdialdean urteko zikloa duten landareak ereiten ziren, **laboreak eta leguminosoak**, bereziki. Lugorri azalera handiak antzeman zitezkeen, urtebetean atsedean hartzeko; tarte hori hiru urtekoa ere izan zitekeen lurrak elkor eta idorrek baziren. Lur emankorrenek labore-**leguminosoa-lugorria** txandakatzen zuten. Gehien lantzen zen laborea garia zen, %60 baino gehiago, gero garagarra, oloa eta zekalea. XVII. eta XVIII. mendeetan, **artoa** –produktibitate handiagokoa zen artoa (ale 1etik 40 ateratzen ziren, eta garian, berriz, 1etik 10 ale baino ez)– eta **patatak** ordezkatu zuten etekin baxuko labore tradizionalaren laborantza. Amerikako laboreak ziren bi horiek, eta behartsu eta ganadua bakoitzak baino ez ziren erabiltzen.

Mahasti eta olibondoak lursail berean nahastuta ageri ziren; Erribera eta Erdialdean bostena betetzen zuten. Produktu horiek ez ziren baka-rik lur-eremu zabaletan landatzen, baita eguteren zeuden eremu txikia-goetan ere: Urbasa eta Andia artean, Jurramendi eta Deioeren magalean, eta Arakil eta Erronkari ibarretan.

Ureztatze estentsiboa hegoaldeko herrietan topa zitekeen, Ebro ugaldea eta bere ibaiadarretatik gertu, eta ez zuen landutako luraren %20 baino gehiago hartzen, ibaiak maiz hazi egiten baitziren, lur-sailak urez bete eta presak suntsitu egiten baitzituzten uholde indartsu horiek, osagai ahulez –egurrekin eta harri solteekin– eginik zeudelako. Zoritxarrez, errendimendu eskasa atera zitzaien lur aberats horiei, **fruta eta barazkien** uzta biltzeak oso kostu handia izaten zuelako: presak urtero eraiki eta birmoldatu behar ziren, esfortzu handia izaten zen noriak jartzea eta zailtasun handia izaten zen, produktua kontserbatzeko eta hirietaraino garraiatzeko. Horregatik berriro ere, laboreak erein, eta mahastiak eta olibondoak landatu ziren, lehorreko alorretan bezalaxe.

Ehun-landare gisa **kalamua** lantzen zen. Ezin ahaztu Leringo **baratxuri** ospetsuak (zortzi mila txirikorda urtero), ezta Azagra eta Andosillakoak ere.

Mendialdean **azienda**, belarra, bazka, egurra eta zura behar-beharrezko elementuak ziren bizitzeko eta merkataritzarako. Arro hezeetan, berriz, *menuceles* zeritzanak edo menudentziak landatzen ziren, hau da, txitxirioak, babak, dilistak, babarrunak, ailorbea, erua eta abar. Amezkoetan eta Burundan lihoa lantzen zen ehun-landare gisa. Baina, horrekin batera, ezin aipatu gabe utzi herri inguruetan jendeak baratze txikiak landatzen zituela eta etxerako barazki eta frutak bildu; baratze horietarako ura erreka eta erreketatik lortzen zuten.

Nafarroa hezean, nekazaritza intentsiboa egiten zuten lursail txikietan, eta **leguminosoak eta bazka-belarkiak** txandakatzen zituzten laborearekin. Udako landare gisa, artoa landatzea zabaldu zen –XVII. mendea–, eta tartean neguko beste labore bat sartzen zitzaion. Horretaz gain, bertako sagarrak erabilita, sagardoa ere egiten zen, gaztainak biltzen ziren eta animalien azpietarako iratzea aprobeztatzen zen, lasto gutxi zegoelako.

Nekazari bakoitzak biltzen zituen produktuak aunitz zirela ikusita, bizilagun guztiek zailtasun handiegirik gabe bizirauten ahal zutela esan daiteke.

13.2. Mendiko aberastasuna: bazkalekuak eta abeltzaintza

Mendia, itxuraz erabilera urrikoa izaki, garrantzi handiko elementua izan zen nekazariaren bizitzarendako. Belar eta bazkarik ezean, ezin izanzen zatekeen zama-animaliarik mantendu, umetzeko animali, haragi eta esne-animalekin batera.

Ziaz, pagatxaz eta ezkurrez egiten zen **bazka** eta belarra aziendarendako oinarrizko elikagaia zen. Baina **mendiak** beste baliabide batzuk ere eskaintzen zituen, adibidez: zura, egurra, hostoak aziendaren azpietarako eta elikagai gisa, lurra eltzegileendako, ehiza, arrantza, elurra edariak freskatzeko eta harriak etxebizitzak egiteko. Horretaz gain, basa-landareak ere biltzen ziren: milazka, erregaliza, lezka edo espartzua, adibidez, erabilera industrialerako, eta haritz eta arteen azaletatik lortzen zen taniñoa, larrugintzarako.

XVII. mendean, oso ohikoa zen enbor-haxeak Aragoi, Zaraitzu, Ezka eta Iratiko ugaldeetan barna **almadietan** jaisten ikustea; enbor horiek Erronkari, Irati eta Nafarroako iparmendebaldeko oihanetakoak ziren, eta armadak erabiltzen zituen, bereziki. Familiarik behartsuenek beren baliabide urriak osatzeko landare-ikatzak egiten zuten, baita alde batetik bestera egurra eraman eta etxerako altzari txikiak egin ere.

Herri-belardiak belar freskoetan aberatsagoak izaten dira, eta lanerako animalien elikagai izateko gordetzen ziren; ardi eta ahuntzek uztondoetan, lugorrietan eta mahatsa bildutako lursailetan bazkatzen zuten; **zerriek** artea eta haritza zegoen mendietan, eta gainerako lursail belardunak, beren eskorta eta guzti, **behi eta ardi-aziendarentzat** izaten ziren.

Pirinioetan urre eta zilar-meategiak zeudela zioten greziar eta erromatar historialari eta literatoen idatziek animatu egin zituzten nafarrek prospekzioak egitera Dorado bailitzan, baina emaitza gutxi lortu ziren; berun, kobre eta burdin-ustiategi batzuk baino ez ziren egin, eta burdinola eta armaola zenbait ezarri.

Mendialdean, zama-animalia **idia** zen, geldoa baina arras segurua malda handi horietan lursailak luberritzeko, eta bidexka harritsu eta altu-

ra handikoetan produktuak garraiatzeko, baita **behia** ere, zeinak, zama-animalia izateaz gain, esnea eta aratxeak ere ematen dituen. Ia familia guztiek zuten dozena erdiren bat ahuntz, baita 60 edo 80 buruko artalde txikia ere, bainaazienda gehien zutenek 500 bat buru ere izaten zituzten. Beste batzuk ganean ibiltzeko zaldiak hazten zituzten.

Erdialdean eta hegoaldean, azienda gutxiago izaten zen, inguruko mendiek altura galdu ahala bazka eta belar gutxiago izaten delako. Mandoa zen lanerako animaliarik ohikoena; egoera kaskarragoa zutenentzat, berriz, astoa.

13.3. Artisautza, burdinolak eta bestelako industria

Bizilagun gutxiko eskualdeetan etxe-eskulangintza garatu zen, eta trebetasun handiko gizon-emakume aunitzek nekazaritza tresnak, etxerako tresnak eta etxerako ostilamendua egiten zuten, baina ez ziren merkataritzarako izaten. Nekazaritza-eskualdeetan artisau aunitz zegoen: kiskus-kileak, zurginak, arotzak, eltzegileak, zapatariak, aitzogileak, larru-ontzaileak eta abar, eta lanbide horiek izateaz gain, nekazari eta abeltzain ere baziren. Prezioak eta soldadak lanbide horietako elkarteek jartzen zituzten, eta, beraz, ez zegoen apenas elkarren arteko lehiarik, eta, garrantzizko inbertsioak egiterakoan, ez zuen inork askorik arriskutzen, ez zelako prezio eta merkatu askatasunik izaten.

Hiribildu eta hirietan artisautza kualifikatuagoa zegoen, eta lanbide horrek ematen zuenetik bizi zitezkeen langileak. Gremiorik garrantzitsuenak hauek ziren: **larrugintza, ehungintza eta metalurgia**. Arrakasta ona izan zuten Lizarrako mantek edo Erronkari eta Agoizko oihalek. Hala ere, ekonomia oso tradizionala zen, oraindik, eta, beraz, XVIII.aren bigarren erdialdean, beharrezkoa izan zen prezio eta kalitateari buruzko araugintza berria, merkatua modernizatu eta errentagarri bihurtzeko; horretarako inbertsioak egin ziren, eta makina modernoagoak sartu.

Beraz, bi eratako industria-garapena nabarmendu daiteke. Batean, lehengaietatik hurbil zeuden **eskulangintzako industria txiki** zenbait

sustraitu ziren, eta bestean, XVIII. mendetik aurrera, batez ere, lana **fabrika handietan** bildu nahi izan zuten. Lehenengoak iparraldean eta ipar-mendebaldean sustraitu ziren: 30 burdinola baino gehiago. Burdina ateratzen zuten inguruko meategietatik (Gipuzkoa eta Bizkaia), baita ikatza ere, labeentzat, eta ugaldeko uraren korronteak erabiltzen zituzten hauspoak mugiarazteko.

ekoizpen apala izan zuten Eugiko burdinola eta armaolarekin –artilleriaren Errege Fabrika bihurtu zen 1766an– alderatzen baditugu, baita Orbaitzetako munizio militarerako olarekin alderatzen baditugu ere, zeinak mugako soldatu taldeak hornitzen baitzituen. Hor ere Orokietako burdinola dugu, labe garaietako galdategiak zituela. Horietako ola bakoitzaren ondoan herrixkak osatu ziren: etxebizitzak, jauregia eta eliza.

Halaber, ekoizpen handikoa izan zela jo dezakegu Lizarrako artilezko ehunen fabrika (250 langile), Fiteroko espartinena (280 langile), Iruñean zeuden Arga inguruko papergintzena eta Erruki-Etxearen oihalena (120). Erregalaz industriak zeuden Corellan (100 gizon eta 50 zaldi), Tuteran eta Atarrabian; pattar distilategiak Lerin eta Lodosan; baziren espartzu, larrugintzako fabrikak ere eta abar. Nafarroa osoan zabaldu ziren, eta merkataritzaren garapena eragin zuten.

13.4. Merkataritzaren hazkundera eta kontrabandoa.

Garai modernoaren lehenengo mendeetan, barne-merkataritza oso urria zen, eta auto-hornitu egiten ziren familiarik gehienak; horretarako, bereziki, oinarrizko hiru behar hauek asetzen zituzten: jana, oinetakoak eta janzteko arropa. Trukea egiten zuten Mendialdea eta Erribera-Erdialdearen artean: azienda eta egurra, bihia, ardoa eta olioaren truke, hurrenez hurren.

Mugimendu hori bera egiten zen **landa-eskualde** –elikagaiak eta lehengaiak– eta **hiriaren** artean –artisautza–. Produktuen joan-etorri hori merkatu (asterokoak eta hamabosterokoak) eta azoketan (seiuhilekoak eta urtekoak) egiten zen, eta merkatu eta azoka horiek astebete eta hiru



EPAROTZKO SANTA FEKO GARAIA. Portugalen, Galizian, Asturiasen eta Kantabrian ohikoa da garaiak euren bazter berdeetan ikustea. Nafarroan, ordea, salbuespena da bikorra gordetzeko moduen artean. Etxe ondoko ganbaratzat hartu da beti, gizaki eta abereendako elikagaia gordetzeko, karraskariengandik libre, hezetasunik gabe eta ongi aireztatua. Halaber, hurrengo urterako eraiketarako hazia gorde izan da.

Bi garaí mota dira: horietako baten egituran zura da funtsezko osagaia eta bestean, berriz, harrizkoak dira atalarria, hormak eta arkuak. Teilatua eta zola zurezkoak izaten dira. Era berean, «lurretik gainjaso dagoen aletegia» deitzen da eta idazkietan, Nafarroan, behintzat, lehendabiziko aldiz 1002an eta 1025ean ageri da.

Gaur egun 22 garaí dira: Aria (5), Hiriberri (4), Orbaitzeta (2), Arike, Garaioa, Garralda, Lusarreta, Ekai, Erdozain, Itzalle, Eparotz, Orbara, Zabaltza eta Iratxetan.

aste bitartean irauten zuten. Jenderik gehien bildu zuten azoka berezi-
tuak hauek izan ziren: Tafallakoa –laborantzarako azienda–, Lodosakoa
–laboreak–, Bianakoa –ardoak–, Tuterakoa, Lizarrakoa eta San Fermineta-
koa Iruñean. Azkeneko horretara frantziarrak etortzen ziren artilea eroste-
ra ehunen eta itsasoz bestaldeko produktuen truke, baita aragoitarrak,
gaztelarrak eta valentziarrak ere.

Hiribildu eta hirietan, artisauek beren lanbidetik ateratzen zuten
bizitzeko adina diru, eta ekoizpena beren lantokian bertan saltzen zuten;
hor ditugu gozogile edo argizarigileak, adibidez. Beste batzuek inportatu
egiten zituzten produktuak: kinkilak egiten zituztenek, burdinagileek,
oihalak egiten zituztenek edo itsasoz bestaldeko produktuak zituztenek,
eta, azkenik, baita okinek, arrain saltzaileek eta harakinek ere. Kontze-
juek kontrolatu egiten zituzten inportazio horiek, oinarrizko elikagaiak
falta ez zitezen.

Merkataritzarako produktu nagusiak **garia** eta **ardoa** izan ziren;
etengabe aldatzen zen horien prezioa, eta arrazoiak hau zen: klimatologiak
eraginda uzta onak ala txarrak biltzen ziren, baita uzta biltzaileek eta bil-
tegitzainek egiten zuten espekulazioa ere. Horregatik, garia eta ardoaren
prezioa bikoiztu ere egin zitekeen. Gariaren prezioa, familia behartsue-
nendako oinarrizkoa zenez, Iruñean erregulatzen zen, negoziatu ez zedin
eta, ondorioz, familia aunitz ondasun hori gabe ez gelditzeko. Horretara-
ko *pósitos* deitzen zirenak sortu ziren, hau da, udaleko biltegi zabalak
ziren. Horietan prezio onargarrian erositako pikorra biltzen zen, eta gero
prezio txikian saltzen zitzairen okindegiei, gorabeherak izan ez zitza-
n.

Garaia zen pikorra eta elikagaiak gordetzeko penintsula iparralde-
ko biltegi tipikoa; egurrez edo harri-hormez zeuden eginik, eta harrizko
6, 8 edo 10 zutaberen gainean eraikitzen ziren hezetasunetik aldentzeko.
Hor ditugu adibidez: Aezkoako Hiriberrikoa, Lusarretakoa, Iratxetakoa
edo Urraul Goitikoa.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, 1841era arte Nafarroak **adua-
nak** izan zituen, eta horrek garestitu egiten zituen produktuak. Aduanak
Frantziarekin ez ezik, Aragoi eta Gaztelarekin ere bazituen. Nafarroak 80

taula edo aduana-postu zituen. Oso defizitarioa zen merkataritza-balantza, kanpora saltzen zenaren bikoitza inportatzen baitzen.

Nafarroak, bereziki, ehun-produktuak jasotzen zituen (%35), baita itsasoz bestaldekoak ere (%42), bereziki, kakaoa, kanela, piperbeltza eta azukrea. Inportazioaren %90 Frantziatik egiten zen; prezio onean erosten zitzaion, eta Gaztela eta Aragoiri saldu kontrabandoan, eta irabazi handiak izaten ziren horrela.

Nafarroak pattarra eta ardoa esportatzen zuen, bereziki (%33), baita artile zakuak eta laboreak (%7,1), gatza, burdina eta ikatza ere. Baina zifra horiek, bikorrari dagokiona gehien batean, ez dira logikoak, ezen gariaren kontrabandoak arras bolumen handia hartzen baitzuen, eta, dudarik gabe, esportaziorik garrantzitsuena izaten zen, baina legez kanpo egiten zenez, ez zen erraz gertatzen, kontatzeko.

Kontrabandoari buruz esan, nafarrendako nahiko erraza gertatzen zela legez kanpo negoziatzea frantses, gaztelar, aragoitar, arabar eta errioxarrekin, hurbil zeudelako, alde batetik, eta, Nafarroak, zaintza oso zaila egiten zuen orografia duelako, bestetik. Legez kanpoko merkataritza nagusia **bikorrarena** zen. Gehien bat Frantziarekin egiten zen, baina gutxi batzuei egiten zien mesede kontrabandoak; gainerako bizilagunak kaltetuak gertatzen ziren, irina urritu egiten zelako, eta, beraz, prezioak gora egiten zuelako.

Bestalde, nafarrek ardoa eta azienda sartzen dute Aragoitik, eta itsasoz bestaldeko produktuak Frantziatik, bai berek erabiltzeko bai Gaztelan, Aragoian eta Errioxan berriz saltzeko, eta Frantziari, berriz, azienda saltzen zioten. Ebro ugaldetik garia pasatzen zuten Lodosatik Alkanaderra, eta ontzia bete muztio itzultzen ziren. Ega Ibarreko herritarrak mandoak gariz beteta joaten ziren Gasteiza.

Hori guztia ikusita, produktuen legez kanpoko garraioak diru sarrera handiak ekarri zizkien nafar aunitzi, bereziki Nafarroa iparraldeko, eta, beraz, aduanak kentzearen aurka agertu ziren, horrek amets eztiaren akabera ekarriko baitzuen.

HEZKUNTZA, ERLIJO ZALETASUNA ETA SORGINKERIA XVII ETA XVIII. MENDEAK

XVIII. mendeari **arrazoiaren Mendea edo argiaren Mendea** deitu zitzaion, helburu nagusia, fedea alde batera utzita, gizakien bizitza argitzea baitzen, arrazoiaren argitasuna erabiliz. Ilustrazioa deitzen zaio mugimendu filosofiko horri.

Gizarteak, burgesia kultu eta aberatsak bereziki, despotismo ilustratu edo absolutistaren aurka egiten du borroka, honetan oinarritzen baita doktrina hori: «guztia herriarentzat, baina herria kontuan izan gabe».

14.1. Letren irakaskuntza

XVII. eta XVIII. mendeetan, denendako hezkuntzan pentsatzea artean utopia zen, eta horregatik hezkuntza ez zuen Estatuak antolatzen. Herri eta hiriek gauzatzen zuten eginkizuna zen, baita erlijio-erkidegoetatik ere. Hala ere, horrek ez zuen eragotzi, XVIII.aren bukaeran, Nafarroak alfabetizatutako edo letretan ikasitako biztanleria multzo nabarmena izatea.

Herriek **maisua** kontratatzen zuten, gehienetan, gainera, elizgizona izaten zen. Horrek erakusten zizkien neska-mutikoei lehenengo letrak,

baita erlijioa, etika eta katekesia ere, izan ere, ez zuen alferrik pasatzen egun osoa haurrekin, prozesioetara ere laguntzen baitzien, baita bederatziurrenera eta mezetara ere. Horregatik guztiagatik, maisu bat aukeratzeko garaian garrantzi handiagoa ematen zitzaion bere jokaera eta bizimodu eredugarriari, eta ez horren handia, aldiz, urrezko hiru arauen jabe ba ote zen jakiteari, hau da, kontatzen, irakurtzen eta idazten ba ote zekien jakiteari.

Soldata baxua izaten zuten maisuek, eta beste lanbide batzuk ere bilatzen zituzten: sakristauak, idazkariak eta abar ere izaten ziren, hau da, enpleguaniztasuna zuten. Soldata udaletik, parrokiatik eta gurasoetatik jasotzen zuten maisuek. Gurasoek, eskolan zituzten seme-alaba kopurua-
ren arabera ordaintzen zuten, baita familiek ezarritako helburuen arabera ere; horrela, hirukoitza ordaintzen zuten beren seme-alabek kontatzen, irakurtzen eta idazten ikastea nahi bazuten. Goi Nobleziako seme-alabei beren etxeetan irakasten zieten, eta gehienetan, etxean bertan bizi ziren irakasle eta tutoreak izaten zituzten berentzat.

Baina 1781ean, 5-12 urte bitarteko neska-mutil guztientzat **Lehen Hezkuntza** derrigorrezko izatea onetsi zuten Nafarroako Gorteeek. Izan ere, agintarientzat etorkizuneko gizartea hobetzeko apustu egitea zen; hori baino gehiago, *superintendente* irudia sortu zen, haurrak eskolara joan zitezela kontrolatzeko, eta, gurasoek, beren seme-alabak nekazari, abeltzain edo artisau lanetan aritzera ez behartzeko. Ez dezagun ahantzi Ilustrazio garaian gaudela, zeinean gazteendako hezkuntza oinarritzkoa baitzen, biharko helduak usadio eta ohitura onetan hezi nahi baldin baziren. Ordutegi hau zuten: goizeko 8etatik 11etara eta arratsaldean, 1etik 4retara. XVIII. mendearen bukaeran, Nafarroan 600 maisu-maistra baino gehiago zegoen, eta 300 eskola.

Garai berean sortu ziren **neskendako eskolak** 200 bizilagun baino gehiago zituzten herrietan, eta neskek lehen aipatu ditugun eginkizunez gain, «goruan edo tornuan iruten, josten, galtzerdi eta galtzetinak egiten eta beren lan propioak diren beste zenbait zeregin» egiten ikasten zuten.

Herri handietan, goi mailako eskola gisa, **gramatika edo arteen eskolak** sortu ziren; udalek gobernatzen zituzten, eta gaztelania, latina,

filosofia eta erretorika irakasten zen. Familiarik gehienak konforme gelditzen ziren beren seme-alabek lehen hezkuntza bukatzen bazuten, eta, beraz, eskola horietara familia aberatsenetako gazteak joaten ziren, soilik. Ikasketa horiek unibertsitatearako prestatzeko balio zuten. Eskola-programak egiten espezialistak erlijio ordena eta kongregazioak izan ziren; bereziki aipagarri da, Jesusen Konpainia, zeinak Iruñeko eta Tuterako Ikastetxeak sortu baitzituen.

Unibertsitateari dagokionez, proiektu eta saiakera aunitz izan zen, hasi Teobaldo II.a, Karlos II.a eta Albreteko Joanetik, Felipe III.era eta Karlos III.era igaroz, baina horietako batek ere ez zuen emaitzarik eman, nahiz eta Europa osoan goi mailako ikasketetan eskari handia izan, medikuntza, teologia eta zuzenbide zibil eta kanonikoa ikasteko.

Krisi ekonomikoa zela eta, Nafarroak Frantziarekin zituen amaigabeko gudak zirela medio, eta beneditar eta jesuitek aurka egin zutelako, Iratxeko unibertsitatearen eta Iruñeko Anunciataren administratzaileak izaki, horien zuzendaritza domingotarren eskuetan geldituko zela beldur baitziren, betiko lehiakide baitziren, plan guztiak zapuztu zituzten. Iratxeko Unibertsitateak lortu zuen ospea, medikuntza, teologia, filosofia, zuzenbide kanonikoa eta zibila irakasten zituelako (1615); domingotarrak zuzentzen zuten Iruñeko Santiago Unibertsitateari buruz gauza bera esan daiteke (1624), baina biak itxi egin ziren gero.

Ikasle nafar askok Parisen, Frantziako Tolosan, Alcalan eta Salamancan ikasi behar izan zuten. Beste batzuek, berriz, negoziotan, armadan edo administrazioan egin zuten karrera. Valladolid, Alcalá eta Salamancako ikastetxe nagusiek katalan, valentziar eta aragoar bezain beste nafar izan zituzten 1524 eta 1699 bitartean.

Garai horretako pertsonaia entzutetsuenen artean ditugu: **Bartolome de Carranza**, Toledoko artzapezpikua eta Espainiako primatua; **Martinez de Azpilikueta**, Salamanca eta Coinbrako katedratikoa; **Francisco de Navarra**, Valentziako artzapezpikua; **Juan de Palafox**, Pueblako (Mexiko) apezpikua, eta **Juan de Ciriza**, Felipe III.aren eta IV.aren idazkaria.

14.2. Herri-erlijiozkotasuna

Baiezta daiteke jaiera herrikoia dela herri bakoitzak bere erlijio-sentimenduak adierazteko duen modua. Herrikoia aurka egiten die elizak proposatutako modu ofizialei, hau da, herri bakoitzak gauzatzen dituen debozioei buruz, kanpo-jarduerei buruz ari gara.

Barne sentimenduak adierazteko moduek nekazaritza-konnotazio handiak dituzte, eta bat datoz Eguberri, Garizuma, Pazkoa eta saildunen bestaburuekin. Txiki-txikitatik ikasitako eta gurasoengandik seme-alabengana pasatutako otoitzak, angelusa, kanpai doinuek otoitzera deitzea, antzinako otoiz laburrak, familiarrean erretratutako arrosarioak, ekaitza zegoenean pizten ziren kandelak, igandetako mezetan bedeinkatutako ogia eta abar, fededunek barne-barnean bizi zituzten erlijio-adierazpenak dira.

Jainkozaletasun horrek parroketan du bere abiapuntua, eta, bereziki, Nafarroa osoan dauden baseliza eta santutegietan. Trinitateari, Kristori, Amabirjinari eta santuei eskainita daude: Kodes, Sorladako San Gregorio, Arguedasko El Yugo, El Romero Cascanten, Villar Corellan, Muskilda Otsagin, San Migel Aralarren. Ezin ahaztu herrien sarreretan izaten ziren Humilladeros izenekoak, Fiterokoa, esate baterako, edo herri irteeratan zeuden Guruz-tokiak, Otsagikoa, kasu. Hor ditugu bestalde Xabier, Uxue edo Izagara egiten ziren erromeriak edo eritasunetatik babesteko santuenganako debozioa: San Blas, txintxurreko gaitzen kontra; Santa Koloma, hagineko mina saihesteko, eta Paduako San Antonio, maitasun gaitzak eragozteko.

14.3. Sorginkeria eta sineskeriak

1575etik aurrera, sorginei beldur zien mugimendua zabaldu zen Europa osoan. Nafarroak ere ez zion alde egin sukar horri, eta Nafarroako iparraldean izan zuen kokagune nagusia. Sukar horrek eraginda, eliza-agintariak (Logroñoko Inkisizioa zehatzago esateko) kasua ikertzera etorri ziren.



UXUEKO ERROMERIA. Nafarroan beti bereizgarri izan da bere gar erlijiosoa eta horren isla dira egiten diren peleginazioak, prozesioak eta erromeriak. Garizuma eta baraualdiaren ondotik, hau da, nor bere baitan bildurik egon ondoren, berpizkunde eta liberazioaren garaia dator. Nafarroako geografia osoan barna dauden basiliza, monasterio eta eliza ugari horiek milaka eta milaka lagunengatik topaleku bihurtzen dira. Denak ibilian doaz Jaungoikoari, Ama Birjinari edo santuei babesa eskatzeko.

Uxueko erromerian, erromesek euren gorputza eta arima garbitzen dituzte aitortzaren bidez eta gorputzaren hilduraren bidez. Ondoren, sakratuarekin harremanetan sartuko dira. Oso une egokia da Ama Birjina gurtu eta eskerrak emateko, euri oparoa eskatu eta erregutzeko eta ekaitza nahiz kazkabarren izpiritu gaiztoak alorretatik uxatzeko, ezkila hotsek ere izpiritu gaizto horiek urrunarazten dituzten bezala. «Maiatza hotz, urtea zorrotz/maiatz eurite, urte ogite». *Nicolás Ardanazaren argazkia.*

Sorginkeria prozesu hainbat zabaldu zen XVI. eta XVII. mendeetan, batez ere, Baztanen, Bortzirietan, Donezteben, Zaraitzun, Erronkarin, Anozibarren eta Orreagan. 1609an, Alvarado inkisidoreak, Baztanen (Zugarramurdi eta Urdazurin) eta Nafarroa iparmendebaldean, 400 heldu eta 1.400 gazte baino gehiago aurkitu zituen sorginkeriarekin nahasita, eta behartu egin zuen eliza arazoa azter zezan, ondoko helburura iristeko: «negozio honetan iruzur eta engainu handia dago». Ikerketa horrek ez zuen balio izan 1610 urteko fede-autoa geldiarazteko, eta, gogortasunez jardun zen, 12 exekuzio izan zirela.

Epaile, inkisidore eta lekukoak polemikan sartu ziren, aurkako iritziak izaten zituztelako eta ados jartzen ez zirelako. Batzuek errealitate zena –deabrua ikusi eta guzti egin zuten– besteentzat lehia, inbidia eta familien arteko gorrotoaren arteko nahasketa zen, edo, besterik gabe, irudimenak edo landare haluzinagarriek sortutako fantasiaren emaitza. Askok pentsatu izan zuen etxeen arteko isolamenduak eragindako zerbait izan zela, pertsonen arteko bakardadearen emaitza, baita erlijio, hezkuntza eta kultura mugimendu berriekin harreman eskasa izatearen emaitza ere.

Historia, erdi fantasia, erdi errealitateko magia nahiz sorginkeria kasuz beterik dago, zeinak, horien *boterean* sinesten zuten herri eta hirietako bizilagunen eguneroko bizitzan sustraiturik baitaude. Egia esan, onartzen ziren petrikilo eta sorginen zenbait jarduera, gizarteak ontzat hartzen zituelako, gaixoen eritasunak sendatu edo hobetzen baitzituzten. Entzutetsua da **Martija de Jauregi** petrikiloa (XVI. mendea) edo **Miguel Lopez de Ilurdoz** osagilea (XVII.a).

Beraz, *magia zuria* onartzen zuten agintariak, baina arazoa sortu zen *magia beltza* egiteko deabruaren boterea zuten sorginak azaldu zirenean. Magia beltzak haurrak eta aziendak hiltzen omen zituen, eta uztak deuseztatu. Inkisizio eta Auzitegi zibilak jazarri egin zitzaizkien sorgin horiei.

14.4. Eleaniztasuna

Herrien arteko nahasketak eleaniztasuna sortu zuen; hori historian zehar erresuma bisitatu eta bertan gelditu ziren herrien joan-etorri amai-gabearen emaitza da. Nafarroak duen toponimia anitzak hizkuntza eta kultura aberastasunaren berri ematen digu, hor agertzen zaizkigu: euskara, erromantze nafarra, gaztelera, okzitaniara, frantsesa, hebraiera eta arabiera.

Kultur aberastasun horregatik hizkuntza batzuen eta besteen arteko esamolde eta hitz maileguak gertatu ziren, baita sintaxi erabileren arteko maileguak ere. Horregatik hitz egin dezakegu euskarak dituen latinismoez eta erromantze nafarraren hitzez, eta gaztelari eta erromantzeari euskarak utzitako hitzez ere bai.

XII. mendean, Antso VI.a Jakitunaren garaian, **euskarari** *lingua navarrorum* deitzen zitzaion. Horrek ez du esan nahi erresumako biztanle guztiek euskara hitz egiten zutenik, bertako talde batek hitz egiten zuela baizik, Iruñekoari bagagozkio Nabarrerriakoek, zehazki.

Erdi aroan, nafar aunitzek hitz egiten zuen euskara edo *lingua vascongadoa*; ahozko hizkuntza da hori, eta ez da hizkuntza idatzia izanen 1545era arte, Bernat Etxeparerekin. Garaiko dokumentuak erromantzean edo latinez idazten ziren. 1587an, euskara nork hitz egiten zuen jakiteko egin beharko genukeen alegiazko marra hau da: Caseda, Uxue, Gares eta Galbarratik ipar aldera, baina XVIII.aren bukaera aldera beste galera bat izan zuen euskarak eta nekazaritza eskualdeetan gorde zen, soilik.

Hori ikusita, hizkuntzak bereizten zituen bi eremuz mintza gintezke: bat **erromanizatu**a, hegoaldean, eta, bestea, **euskaldun**a, iparraldean. Eremu horretan euskara ez zen era berean hitz egiten herri guztietan, euskalki desberdinak baitzeuden. Adibide bat jartzeko, Urdazurin «oren» esaten da, eta Etxalarren, berriz, «ordu».

Erromantzeari buruz esan, latinaren garapenetik sortu zela latinaren dialekto gisara; *ydimate Navarre terre* edo Nafarroako hizkuntza deitzen zitzaion, eta beste zenbait erromantzeren, Leongo edo Gaztelakoaren,

ahaide zen. Latina alde batera utzi zenean, XIII. mendetik aurrera, alegia, **erromantze nafarra**, bai ahozko hizkuntza, bai hizkuntza idatzi bezala, Nafarroako Erresumako hizkuntza ofizial bihurtu zen; hizkuntza horretan idatzi zen Foru Nagusia, hizkuntza horretan egiten zituzten erregeek Foruen zina, eta hizkuntza horretan idazten ziren xedapen juridikoak. Nobleziaren eta pertsona kultuen hizkuntza zen.

Hizkuntza bat edo bestea erabiltzen zuten bi eremu garbi nabarmendu baditugu ere, geografia-mugez baino gehiago pertsonen bizimodu motari buruz hitz egin beharko genuke. Beren lana zela eta, bi eremuetan ibiltzen ziren pertsonak, elebitan aritzea beharturik zeuden; horren adibide, Nafarroa iparraldeko artzainak ditugu: Bardeetara jaisten ziren, eta, beraz, erromantzea ere ikasten zuten. XIV. eta XV. mendeetan, erromantze nafarra indarra galduz joan zen gaztelanian integratu zen arte. Ez zen beharrezko izan *nafarreraren* ordez gaztelania inposatzea, dagoeneko ez baitzen bien arteko desberdintasunik. XVII.etik aurrera, nafarrek bi hizkuntzetan hitz ahal izanen dute: euskaraz eta gazteleraz.

ARTE ETA LITERATURA-SORMENA:
ERRENAZIMENDUA ETA BARROKOA
XVI-XVIII. MENDEAK

Nafarroak, errenazimenduko italiar arteari dagokionez, penintsulako gainerako herrialdeek izan zuten prozesu sortzaile bera izan zuen, hau da, Grezia eta Erromako arte klasikoetara itzuli zen. Horregatik, XVI. mendea, Nafarroako Urrezko Mendetzat jo daiteke. Herri askok ertaroko elizen oinarrizko egitura berritu edo zabaldu zuten; dorre, klaustro, portada, erretaula eta margoekin apaindu zituzten elizak, eta kultura nahiz estilo nahasketa nabarmendu zitekeen. Estilo hauek topatuko ditugu: errenazimendukoa, mudejarra, flamenkoa, gotikoa eta abar, eta lan horietan bat eginen dute atzerriko, Nafarroako eta penintsulako artistek.

XVII. eta XVIII. mendeetan, arte barrokoa zabaldu zen Nafarroa hegoaldeko hiri eta herrietan. Erriberako herriek hazkunde ekonomikoa izan zuten, eta horren adierazle da estilo horretako tenpluak eraiki eta apaindu izana. Ordena erlijiosoek hedapen handia izan zuten, bereziki karmeldarrek, jesuitek eta kaputxinoek, elizak eraiki eta handitu egin zituzten barrokoaren zabalpena aprobetxatuz.

Aipatutako estiloa, zeina Gaztelako tailerretatik baitzeterren (Gregorio Fernandez Valladolideko eskola), eta Madrilgo pintura, baita urregintza eta planoak ere, jaso egin zituzten **Nafarroako nobleek**,

beren jaioterriko tenpluak eraikitzeko, apaintzeko edo berritzeko. Era berean, jauregi edo jauretxe arkitekturaz baliatuta, landa-etxeak eraiki zituzten; horrek badu sinbolismo jakin bat: gizarte eta ekonomia goi mailakoak zirela, eta miresmena ere sortu zuten landa-etxe horiek. Adibide bat jartzeko, hor ditugu Zangozako Vallesantoro, Erreparazea Baztanen edo Marqués de Huarte Tuteran. Garai bertsuan, apainketari begira, aberastasun handiko udaletxeak jaso ziren: Iruñekoa, Bera, Biana edo Lesakakoa, adibidez.

Bestalde, prozesioetarako imajinagintza polikromatuaren artea ere garatu zen; espresioz eta dramatismoz betetako artea zen, mina eta sufri-mendua adierazten zuena.

Nafar literatura errenazimendu eta barroko ildoetan sartu zen buru-belarri, baita hurbilen zituen eredu literarioetan ere, hala frantses-euskaldunenean, nola aragoitarrenean. Baina irakurzaletasuna arras txikia zen arkitekturak, eskulturak eta pinturak zuten eskari handiaren aldean.

Literatura barrokoan nagusi da garaiko ohiturak eta bizimodua aztertzen dituen joera; hori zen beren portaeren eta jarrerren irudi fidelena. Horren adibiderik garbiena **Moret eta Aleson** ditugu, baina ezin ahantzi **Lizarraga** eta **Lopez Pachecoren** idatziak eta saiakera neoklasikoak. Ezin dira aipatu gabe utzi bertsolaritzak eta erretrauek zuten ahozko tradizioa ere.

15.1. Errenazimenduaren ideia: natura, edertasuna eta bizitza

Artean islatu zen Errenazimenduan gertatzen den ideia eta ohitura aldaketa, eta arteak ertaroan zuen garrantzia –erlijiosoa gehien batean– galdu egiten du. Orain balio duena naturaz, edertasunaz eta bizitzaz gozatzerantz garaman sentimendua sortaraztea da, gizakia izan dadin unibertsoaren gune, eta ez Jainkoa. Erlijio gizatiarragoa da bilatzen dena, zein角度an maitasunak eta eskuzabaltasunak garrantzi handiagoa duten beldurak baino, ezen bizitza ez baita heriotzarekin hasten, naturaz gozatu eta atsegina hartzarekin baizik. Giro profanoa deitzen zaion horri buruz ari

gara. Horregatik, **errenazimendua bizitzaren alderdi guztietan eragina duen mentalitate aldaketa da.**

Artean, oreka, proportzioa, harmonia eta edertasunaren bidez, formaren perfektzioa da lortu nahi dutena, gizakien anatomia eta animalien anatomia era perfektuan irudikatzeko. Beraz, berriro ere, *mezenas* direnek greziar eta erromatar arte klasikoaren idealak azalerazten dituzte. Mezenas horiek artista berriak bultzatzen dituzte, ideal hori eraikin, eskultura eta pinturetan irudika dezaten.

Mugimendu kultural eta artistiko hori –Italiatik dator– XVI. mendean hasieran zabaldu zen Europa Mendebaldean. Baina errenazimendu hitzak zentzu zabalagoa ere badu; bi mende iraunen du (XVI.a eta XVII.a), eta Mendebaldeko Europak bere irudia aldatuko du denbora horretan: nagusiki, gizarte feudala izatetik, nekazari-gizarte izatetik, beste gizarte bat eraikitzaera igaroko da, hiritarra, nazionala eta merkataritzakoa, hain zuzen. Pentsamendu kritikoa jaioko da, eta, horren bidez, zientzia esperimentatu eta arrazionalizatu egingen da.

Errenazimenduko korrante intelektualari **Humanismo** esaten zaio. *Humanus* hitzak «eskolatua», «kultura duena» esan nahi du; beraz, humanista pertsona ikasia zen, eta jakintzan interesa zuena.

Arkitekturak, pinturak, eskulturak eta literaturak balio dute gai profanoekin (amodioa, mitologia, udaberria, giza gorputzaren biluztasuna eta abar) **gizakia birsortzeko**, edertasun ideala sosegurarekin, estetika-rekin eta simetriarekin lortzeko.

Produktio artistikoak Italian du adierazpiderik esanguratsuena. Espainiako arteak ez zuen lortu italiarrak lortu zuen gailentasuna, baina badu berezitasunik. Arkitekturan platereskoa eta herrerianoa sortzen dira; eskulturan eta pinturan Italiako eraginak ere antzematen dira: hor ditugu Espainiara Rafaelen estiloa ekarri zuen Luis Morales pintorea, eta Berruguete eskultorea, berriz, Migel Anjelengan oinarritu zen. Beste herrialde batzuekin alderatuta, Espainian erlijiozko gaiak nagusitasun handia izan zuen Errenazimenduan.

15.2. Errenazimenduko arkitektura

XV. mendean eta XVI.aren azken herenera arte, Gaztela eta Aragoiko koroaren arkitekturak eta Nafarroako erresumarenak ez zuen errenazimenduko ildoen eraginik izan, eta bukaerako gotiko estiloko elizak erakitzen jarraitu zuten; garai horretakoak ditugu Segovia eta Salamancako katedralak, San Estebango komentua eta San Marcoseko Ospitalea, esate baterako. Gotikoak, garai horretan, sinplifikatu egin zituen formak: dimentsio handiko nabe bakarra izaten du edo altuera bera duten hiru nabe; izar formako gangak, eta, kanpo aldean, silarrizko edo adreiluzko horma lauak eta hormabularrak.

Escorialeko Monasterioa eraiki zenetik –XVI. mendeko azken herenean–, hasi ziren penintsulan errenazimenduko korrontetan sartzen. **Nafarroak bere ondoko herrialdeetatik jaso zituen eraginak.** Tuterako merindadeak, Aragoiko errenazimenduak zekarren estiloari jarraiki, jaso zituen elizak, hau da, igeltsuz, adreiluz eta apaingarri mudejarrekin; Lizarrak, Logroño eta Burgosko eragina jaso zuen, eta Nafarroako gainerrako lekuek Gipuzkoako arkitekturaren eragina izan zuten.

Elizei itsasten zaizkien elementuak hauek dira: **sakristiak**, objektu liturgikoak zaintzeko, fededunen erregistroak egiteko eta kontabilitatea eramateko; **kanpandorreek** ertaroko trazua zuten, eta nabearen azken zatia betetzen zuten (Torralba del Río, Urantzia); **eliz-ataria**, zurezko estalkia zuten arku-galeria zuela (Casada, Bargota), eta **portada**, garaipen-arkuarekin, frontoi eta horma-konkarekin, elizako patroia zen santu edo amabirjinaren irudia bertan ageri zela (Oibar, Azedo eta, bereziki, Biana eta Urantzia, erretaula handi baten antza baitute hor apaingarri horiek). Iratxeko monasterioaren klaustroa nabarmendu behar da, eskultura aberastasun handia duelako, baita estilo platereskoa duen Fiterokoa ere.

15.3. Eskultura: Joan de Antxietaren erromanismoa

Italiako errenazimenduko korronte berriek erantzuna izanen dute XVI. mendeko Espainiako eskulturaren ere. Amabirjina eta santuen irudiek



UXANABILLAKO SAN ESTEBAN ELIZAKO ERRETAULA NAGUSIAREN ÑABARDURA. Murtzo artistikoa estilo espresibistari dagokio, lehen errenazimendua eta erromanismoaren artean (1549-1563). Arnau de Bruselas eta André de Araozen lana da, eta Martín Gumetek muntaia egiten du. Alonso Berrugueteren, Formenten eta Miguel Anjelen eraginak nabari dira.

Lanak dituen bost kaleko hiru gorputzetan taila eta erliebe ikusgarriak, ile laxoak eta arropa dinamikoak ageri dira. Etengabea da anatomiaz dagoen kezka, Miguel Anjelen maneren arabera.

Irudiak irudikatzen du inbentzioa San Estebanen gorpuaren gainean, zeinaren heriotza eta ondorengo ehorzketa Erroman ospatzen baita. Apezpiku bat eta bere ikasleak irudia ikusten ari dira eta, azpian, bi deabruk adierazten dute haren gorputz ustelgabea.

gizakien gorputzaren proportzioa hartu zuten, eta emozio eta sentimendu erlijiosoak adierazten dituzte. Adierazpen nagusia erretaula zizelatu da, eta ez da hain maiz agertzen margoak dituen erretaula. Helburua, irudiak erabilia, kristautasunaren eszena eta misterio nagusiak erakustea da.

Nafarroan **Errioxako artista** esanguratsuenek beren inpresioa ezarri zuten erretaulatan –geografikoki gertu izaki–; hor ditugu, esate baterako, Uxanabillakoa, El Bustokoa eta Armañanzaskoa. **Aragoiko errenezimenduak** ere izan zuen bere eragina, bereziki, Tuter, Tarazona eta Zangoza inguruko elizbarrutietan; gune humanista garrantzitsua egon zen Zaragozan, eta hauek osatu zuten: Damian Formentek (Pilarko erretaula), Gabriel Joly frantsesak, Juan Morenok eta Esteban de Obrayk. Beste eskultore talde bat Garesen bildu zen, Diego Polo eta Gillermo de Oberonen inguruan, eta Iruñekoa, berriz, Migel de Espinal eta Juan de Beauvesen inguruan.

1570etik aurrera, Nafarroan, eskulturari dagokionez, joera artistiko berria garatu zen: **Erromanismo** izena hartu zuen, Erromatik zetorrelako, eta protestantismoari aurre egiteko indar gisara sortu zen. Gizakien gorputzean datza, Migel Anjelek egindako diseinuari jarraikiz (manierismoa, hau da, «-ren modura»). Beraz, berealdiko irudiak egiten dira; irudi horietatik asko biluzik ageri dira, eta nabari da gizakien gorputza xehetasunez aztertu zela.

Mugimendu horren ordezkari nagusia **Joan de Antxieta** gipuzkoarra dugu (1533). Juan de Juni eta Alonso Berrugueteren Valladolideko eskolan ikasi zuen. Nafarroan, Errioxan, Aragoi, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zabaldu zuen erromanismoa, eta Nafarroako erretaulatiko eskulturen artea goi mailan jarri zuen, kalitateari dagokionez.

Erretaula erromanistak honela daude osaturik: libre dauden eskulturez edo erliebean agertzen diren eskulturez, zeinak horma-konkan sarturik agertzen baitira. Aipagarriak ditugu Casedako eta Iruñeko Katedralako erretaula –gaur egun San Migelen dago–, baita Iruñeko Agustindar Errekoletotetan dagoen *Amabirjina haurtxoarekin* eskultura eta Katedralako *Gurutzea* ere bai. 1588an hil zen, Katedralean lurperatu zuten eta

hilartitz hau jarri zioten: «Hemen datza Antxieta, zeinak ez zituen bere obrak goraiatu ez eta beste inorenak gutxietsi ere». XVI. mendean eta XVII.aren hasieran, bere ikasleak agertu ziren, eta tailerrak jarri Tuteran, Zangozan eta Lizarran.

15.4. Joan de Landaren pintura eta errenazimenduko urregintza

XVI. mendean, pinturan Iruñerriko, Erriberako eta Zangozako zentroak nagusitu ziren, eta, bereziki, Juan del Bosque, Juan de Bustamente, Migel de Baquedano eta Ramon Oscariz nabarmendu ziren.

Joan de Landa dugu, dena den, erretaulen marrazkilari, miniaturagile, margolari eta urreztatzaile gisara nabarmentzen zaiguna. Arakilgo Hiriberrikoa jaiotzez, eta artista familiakoa. Caseda, Erantsus, Tafalla eta Ororbiako ohol eta mihiseek, baita Añorbe eta Artikan dituen bere poli-kromiek eta Tafallako erretaularen eta Misererearen (gizakundeak) zati batek ere, Landa XVI. mendeko azken hereneko Nafarroako margolaririk onena dela erakusten digute. Horregatik guztiagatik, Joan de Landa artista polifazetikoa dugu: lerroak egin, margotu, marraztu, estofatu eta urreztatu egiten zuen, baita muntaketak egin eta tailatu ere. 1613an hil zen.

Zilarra lantzeko arteari buruz esan, XVI. mendea *urrezko garai* bihurtu zela Nafarroarentzat. Nafarroa Gaztelan sartu izanak Gaztelako zilargileak Iruñeko eta Lizarrako merindadeetara inguratu zirela esan nahi du, eta Zangozak eta Tuterak, berriz, aragoitarren eta errioxarren eragina jaso zuten.

Garai horretan ehun zilargile baino gehiago ari ziren lanean Nafarroan, eta Iruñea izaten zuten bilgune. 1554an, beren estatutuak idatzi zituzten zilargileek. Iruñeko urregileak, berriz, kofradietan bildu ziren, eta lanbide horretan ikasle zirenek maisu titulua eskuratzeko eman behar zituzten urratsak zein ziren arautu zuten. Pedro de Otxobi, Anton de Borgoña edo Sancho de Urniza aipa genitzake. Horienak dira kalitate oneko obra hauek: Alkotz, Izaba edo Munarrizko *prozesio-gurutzea*, Elizba-

rrutiaren Museoko *ebangelarioa*, Orreagako *krisma-ontziak* edo Iruñeko Santa Ursularen *erlikia-ontzia*.

15.5. Kultura barrokoa

Barrokoa errenazimenduaren ondotik datorren kulturari ematen zaion izena da, hor barnean ere estilo artistikoa dagoela. XVI. mendearen azken urteetatik eta XVIII.aren hasiera bitartean irauten duen garaia dugu barrokoa. Gizakiarenganako, arrazarenganako eta errenazimenduko edertasunarenganako sinesmenari aurka egiteko sortu zen; desagertu egiten dira aurreko balore horiek, izugarritzko gatazka ideologiko, moral eta erlijiosoan barneratzeko.

Katolizismoak arrazionalismoa erruduntzat jo zuen protestanteen heresia sartu izanaz, eta horregatik arrazionala, kritikoa eta humanista zen guztiaren kontra agertu ziren, balore espiritualenekin erlijioa nabarmentzeko. Errenazimenduko arrazionalismoak lekua utzi zion zientziari, **gauza guztiak onartu baino lehen azter daitezten**. Zoriontasuna zen desiratzen zena, baina mundu honetan lortzea utopikoa zen, eta, beraz, erlijio katolikoa ezinbesteko *zilarrezko zubi* bihurtu zen bere jarraitzaileek salbazioa eta betirako paradisua lor zezaten, hori baita *erabateko ongizatea lortzeko tokia*. Erlijioa eta monarkia absolutua (erregea Jainkoaren ordezkari) dira barrokoaren funtsezko osagaiak.

Arteari dagokionez, barroko lasaia eta klasizista dugu: Velázquez; barroko joria eta sentsuala: Rubens eta arkitektura espainola; eta, finean, barroko gogoetatsua: Zurbaran.

Arkitekturari, eraikinak ez dira eraikitzen ulergarri izateko, **mirespena sortzeko** baizik. Hartara, erretaulak irudi eta apainduri aunitzez beterik daude; kupulak handi handiak dira; zutabeak ere salomonikoak dira eta ikaragarri handiak (fuste kiribildua eta torneatua). Literaturan, goieneko unea da, bi idazle on lanak direla medio: William Shakespeare ingelesa eta Miguel de Cervantes espainola.

15.6. Arkitektura barrokoa

Erljiozko arkitektura barrokoak garai gozoa bizi izan zuen, baina ez bereziki eliza (edo parrokia) berriak egin zirelako, erlijiosoen –moja eta fraideak– komentu berriak eraiki zirelako baizik. Herririk gehienek bazuten ordurako erromaniko-gotiko garaiko edo errenazimenduko elizaren bat, eta, beraz, ez zen beharrezko beste eraikin batzuk egitea. Orduan zabaldu egin ziren fededun gehiagori lekua egiteko; gurutzadura berriak egin zitzaizkien, nabe zabalagoak, edo elizari itsatsitako kaperekin, sakristiekin, dorreekin edo arkupeekin apaintzen ziren elizak. Santutegi eta baseliza aunitz sortu zen, bereziki Erriberan eta Erdialdean; Amabirjinari eskainitako santutegi eta ermitak ziren, gehienak, eta era guztietako izenak eman zitzaizkien.

XVII. eta XVIII. mendeetan, **ordena edo fundazio erlijioso** aunitzek aukeratu zuen Nafarroa beren komentu eta elizak jartzeko, eta hiri edo herriei aberastasun kultural eta espiritual handia ematen zien horrek. Eraikin horiek jasotzeak horretarako nahiko diru izatea eskatzen zuen, eta, beraz, nobleek, monarkiak edo erlijiosoen ordezkariak uzten zuten behar zen dirua.

Nafarroan, *mezenas* nagusiak Ameriketarekin merkataritza lanetan jardun eta aberastu ziren nobleak ziren, edo baita Madrilen kargu publikoetan aritu eta aberastu zirenak ere. Mezenas lana, artea sustatzeko eta gizarte-omena lortzeko egiten zuten, baita fraide eta mojek egunero beren alde errezatuko zutela jakiteko ere, bai bizi ziren bitartean, bai hil eta gero, arima salbatzeko edo iraganeko *bekatuak garbitzeko*. Ondokoak aipa daitezke: Lizarrako Errekoleten eta Santa Klararen komentua, Corellako Karmeldar Oinutsena edo Tuterako Oinetakodunena, Erriberriko Frantsiskotarrena, Arizkungo Klaratarrena edo Iruñeko Agustindar Errekoletoen komentua; azken hori Felipe III.a eta IV.aren idazkari izandako Juan de Cirizak eraiki zuen.

Barrokoko arkitektura zibilari dagokionez, berezko garrantzia izan zuen Nafarroak, XVII eta XVIII. mendeetan; garrantzia berezia hartu zuen jauregi eta jauretxeetako arkitekturak; hori guztia ez bakarrik eko-

nomiak martxa ona zuelako, baita Indietan fortuna egiten zuten nobleei esker eta Gortetan postu garrantzitsuak zituztenei esker ere bai. Horrelako jendeak beren jaioterrian jauregi bat eraikitzea erabakitzen zuen, sinbolo gisara beren handitasuna nolakoa zen erakusteko. Gune nagusiak Baztanen eta Iruñean ditugu, Erriberan eta Erdialdean dauden beste batzuk ahortzi gabe.

Jauretze eta jauregiak, hirigunearen barnean, beren handitasunagatik, beren kokalekuagatik, beren balkoi handiengatik, hainbat gorputzatan egina duten egituraketagatik eta izaten dituzten hegal apainduengatik bereizten dira beste etxeetatik. Barneko eskailera material nobleez egina egoten da, egundokoa izan ohi da eta beste gela guztietara heltzeko sarbide izan ohi da. Aipagarrienetakoak dira: Arizkunenea Jauregia, Elizondon; Gaston de Iriarte, Iruritan; Marqués de Montehermosokoa, Bigurrian; Vallesantoro, Zangozan; Gomara, Valtierran; Markes de Huarte, Tuteran; Foruen plaza, Lizarran; Azkoiengoa eta Monteagudokoa; Casa de las Cadenas, Corellan, eta Iruñean: Gendulain, Goienetxe, Ezpeleta eta Artzapezpikutza.

Jaun horiek berek, gehienak Baztan eta Bortzirietakoak izaki, beren jaioterrietako elizetako erretaulen eta eskulturen alde egiten dute, bai horiek sustatuz, bai gastuak ordainduz, batez ere, XVIII.aren erdi aldera. Estilo frantsestua zuten gorteko rococo erretaula izena hartu zuten, estilo horren bultzatzaile izan zen Jose de Churrigerari esker. Estilo hori Araba, Bizkaia, Gipuzkoa hala nola Nafarroan barna Irazusta arkitektoak (Bergarako elizaren aitzinaldekoa), **Tomas de Jauregik** (Lesakako aldare nagusia) eta Sesman jaiotako **Silvestre de Soria** nafarrak (Lekarozko eta Sorladako San Gregorioren erretaulak egin zituen) zabaldu zuten.

15.7. Erretaula eta prozesioetako imajinagintza

Erretaula barrokoak **Tuteran** du bere espresio nagusia; XVII. eta XVIII. mendeetan, bizitasun handiko tailerrak zeuden han, eta bertako

berezitasunak inguruko eskualdeei eskaini zizkien. Interes berezia hartu zuen **aldare nagusiak**; urrez pintatutako zurez eginda dago eta polikromatua da. Sagrarioa nabarmentzen zen, baita erretaulako erdiguneko irudia ere, zeina normalean elizaren patroia izaten baita. Tuteran aipatzekoak dira katedralean dauden Santa Anaren kapera eta baldakina eta Espiritu Santuaren kapera. Horietaz gain, beste hauek ere bai: Domingotarren Irakaskuntzaren eliza eta San Jorge parrokia. Erriberako hiriburutik aterata, hauek azpimarratu behar dira: Corellako eta Carcarko San Migel parrokia, Salvador Azagran eta Iruñeko Errekoletoen erretaula; hori da Nafarroako barrokoaren obrarik onenetako bat; Gurrea erretaulagileak eta Juan de Peralta eskultoreak egin zuten.

Aipamen berezia egin nahi genioke Nafarroako prozesioetarako imajinagintza barrokoari; hemengoak ez zuen izan Andaluziakoak, Gaztelakoak eta Murziakoak izan zuten izaera herrikoirik, baina garaiko sufrimenduzko eta dramatismozko debozioan nahiz erlijiotasunean barneraturik egon zen.

Fededunak lagun izaten zituzten irudiekin egindako lehen **prozesioak** Egipto inperialaren eta antzinako Grezia eta Erromaren garaikoak dira. Horietan jainkoak karrikara ateratzen zituzten herrien erlijiotasunaren seinale; herritarrek harrera ona egiten zieten opari eta elikagaiekin, eta gurtza tenplu paganoen inguruan bukatzen zen. Kristauek imitatu zuten ohitura hori, baina esanahi berria eman zioten, eta bereziki Ama Birjinaren irudiari egiten zioten gurtza. Nafarroan hondamen garaietan Santa Maria Erregina ateratzen zen prozesioan, baita Iratxeko Ama Birjina ere. Barbazan apezpikuak (1318-1355) Corpus Christi edo Bestaberri eguneko prozesioa bultzatu zuten.

Dena den, XVI. mendean, Luteroren erreformaren garaian, atzerakada izan zuten prozesioek; izan ere, erreforma luteranoak uko egiten zion Eukaristia gurtzeari, baita Amabirjina eta santuenganako benerazioari ere. Urte batzuk geroago, Kontraerreforma eta Trentoko Kontzilioari esker, *Kristoren Gorputzaren* gorespenak indarra hartu zuen berriro ere, eta Pasioaren eskulturak egiten hasi ziren. Hasieran, elizen barne aldeetan

(*Valtierrako Kristo artikulatua*) eszenifikatzen ziren Jesusen bizitzaren pasarteak, baina handik gutxira erlijio-adierazpenak Pasioaren eskultura-irudikapenen bidez egitera igaro ziren: karrika eta plazetara ateratzen ziren Pasioaren eskultura horiek prozesioan, ondoan prozesu eta aginduak betetzen zituzten disziplinatzaileak, zigortzaileak eta penitentzigileak zituztela. XVII. mendean, Iruñeko Soledad eta Vera Cruz kofradiek egiten zituzten jada, beren prozesioak karriketari barna.

Barrokoa pertsonaren **sentimen** bakoitza zorrozteko bitarteko bihurtu zen: intsentsu eta argizariarekin, usaimena; urreztatu liluragariarekin, ikusmena; abestien akorde melodikoekin, entzumena; musukatu eta ukitu ere egiten ziren pausoen gertutasunarekin, santutasun aureola askatuko balute bezala, ukipena, eta ostia sagaratuaren jaunartzearekin, dastamena.

Irudikapen onenak Erdialdean eta Erriberan daude; **Juan de Binies** artista aipatu behar da. Nahiz eta Zangozako merindadean jaio zen artista hori, bere obra nagusiak Nafarroa hegoaldean daude; adibide bat jartzearen, hor ditugu Cortes, Cintruenigo eta Buñuelgo *hiru gurutziltzatuak* edo Murchante eta Corellako *Kristoak*.

Aste Santuan egiten ziren prozesioak Nafarroa osoan zabaldu ziren, eta oraindik ere horietako batzuek gordetzen dute orain hiru mendeko zapora barrokoa, bereziki, Corellakoak: dramatismoz betetako pausoak ditu, *Ecce Homo* deitzen dena, adibidez. Iruñekoa ere ezin aipatu gabe utzi: Pasioaren hamabi eszena ditu, *Kristo Etzana* eta Novas eta Ballberen *Dolorosa*, kasu.

15.8. Berdusanen pintura barrokoa eta Paretan rococoa

Berrikuntza espresibo nagusiak pinturan gertatu ziren. Natura erreallismoz irudikatzen da; marrazkiaren gain koloreak du nagusitasuna; argi- ilunen bila, eta perspektibaren, mugimenduaren eta osiera asimetrikoen bila ere bai

Nafarroa bat dator erabat **Vicente Berdusanen** (1632-1697) pin-

turarekin. Nahiz eta Aragoien jaio zen, Nafarroa osoan utzi zuen bere pintura-argitasunaren berri, eta Nafarroako pintura barrokoaren **perso-
na nagusia** dela esan daiteke. XVII. mendean, penintsulan zegoen iturri-
rik onenetik edan zuen: Madrildik, Austriarren Gorteen egoitza eta
zalantzan jarri ezin den kalitateko gunee artistikoa, alegia. Berdusanen
margoek Tuter eta bere merindadeko, Mendialdeko eta Iruñeko eliza eta
komentuak apaintzen dituzte.

Berdusan, bere babesle Felipe IV.ak (1621-1665) zuen pintura-
-ospetik elikatu zen eta horretaz baliatu ere egin zen, Ribera, Zurbaran,
Murillo eta Velazquezen bitartez; baina gorte ingurura joan zen bizitzera,
austriarretan azkena izan zen Karlos II.aren (1665-1700) pintoreekin
batera; hor topatuko ditugu Carreño, Coello eta Rizi, esate baterako. Ber-
dusane jaso egin zituen Velazquezen hazpegi fisikoak eta pintzelkada
soltea, Rubensen dinamismoa eta mugikortasuna, eta Veneziako eskolako
Tiziano, Tintoreto eta Veronesen aberastasun kromatikoa, gorriaren
gehiegizko erabilera eta hodeietan erabiltzen dituzten urdin tonu anitzak.

Dena dela, sormen izpiritua erabat loturik zuen Tuterari. Hor bizi
zen eta hor jarduten zuen bere zereginean. Eliza eta komentuetan obra
ugari egin zituen. Bereak dira Tuterako katedraleko *Amabirjinaren ezkon-
titzak*, *Amabirjina San Joakin eta Santa Anarekin* edo *Villanuevako Santo
Tomas* agustindarra. Horretaz gainera, Nafarroa osotik, Aragoitik eta
Gipuzkoatik ere jaso zituen enkarguak. Bereak dira: Corellako museoan
dauden *Deikundea*, *Jasokundea* eta *San Frantzisko de Asis*; Milagroko *San
Fermin*, Valtierraiko *Epifania* edo Nafarroako museoan dagoen *Santa Cata-
lina*.

Vicente Berdusan ikasle abantailatsua izan zen, sona handiko mar-
golaria, eta, bereziki, maisu ona, hala erakutsi baitzuten bere jarraitzaile
eta laguntzaileek zenbait obratan. Juan Carreño nabarmentzen da; horrek
gaur egun Louvren dagoen Iruñeko *Hirukoiztarren erretaula* (1666) margo-
tu zuen.

Bestalde, XVIII. mendeko arte rococoaren Espainiako pintura arras
ongi ordezkutzen du Nafarroan Bianako elizan dagoen **San Juan del**

Ramoren kaperako *museo txikiak*. Hori gorteko pintore izandako **Luis Paret y Alcazar** madrildarraren obra da. Kapera, neoklasiko estilokoa izaki, kolorez, freskuraz eta dotoreziaz betetako rococo distiratsua erabilita, dekoratu eta apaindu zuen, eta espazio zabalak eman zizkien petxinei, kupulari eta hornei.

Bianako pinturak olioaz eta tenperaz egindakoak dira, eta Itun Zahar eta Berriko eszenak eta alegoriak ditu, adibidez, *aingeruak San Zakarias egindako iragarpena* edo *Mariari egindako bisita*. Petxinetan era guztietako apaingarri eta detaileak dituzten 4 emakume ageri dira, eta emakume horiek saindutasuna, jakinduria, irmotasuna eta kastitatea irudikatzen dute. Benetakoak direla frogatzeko bere sinadura utzi zuen artistak: «Ludovicus Paret, anno 1786».

Paret bere diseinuagatik ere aipagarria da; horren berri Iruñeko Udal Artxibategian gelditu zaigu, ezen udaletxe horrek estilo neoklasiko hainbat iturri jartzeko proiektua egin zezala, agindu baitzion: *Kontseilu plazako iturria*, Neptuno umea ageri dela; *Mariblanca*, ugaritasunaren alegoria duena; *Nabarrerria eta Errekoleten plaza*, obelisko itxura emanaz eta irudiak, lorontziak, lore apaingarriak eta zintzilik dauden girlandak dituela.

Francisco de Goyaren obrak ere baditu Nafarroak; neoklasizismoan hezi zen Goya, baina ezin da eskolaren batean sartu, berak egiten baitu bere eskola. Mundu mailako artista da, berealdiko garrantzia duela. Nafarroako museoak *San Adriango Markesaren* erretratua du, eta Nafarroako Jauregiak *Fernando VII*.arena.

15.9. Literatura barrokoa

Espainiak *urrezko mendea* barrokoarekin bizi izan bazuen, Nafarroak, alabaina, ez zuen garrantzia handiegirik izan XVII. mendean. **Jose Moret** aipatu behar da; bukatu gabe utzi zuen *Anales del Reino de Navarra* bere obra historikoa, eta **Francisco de Alesonek** osatu zuen. Euskaraz egindako literaturak haize berrietara joko du Urdazurin jaiotako **Pedro de Axularren** *Gero* prosazko obrari esker.

XVIII. mendean –Neoklasizismoaren mende gisa ezagutzen da– egonezintasun handiagoa nabari da, baina ez ditu sortzaile handiak emanen, idatzitako obra gutxi baitago. Dena den, saiakerak eta noizbehinkako argitalpenak argitaratzen dituzten pertsonekin eginen dugu topo. Euskarazko idazkietan **Joakin de Lizarraga** nabarmentzen da; Nafarroa hegoaldeko euskararen aldagai bat darabil. Hor dugu, era berean, Martzillan jaiotako **Juan Manuel Lopez Pacheco**, Hizkuntzaren Errege Akademiaren sortzaile eta *Diccionario de la lengua* izenekoaren egile.

Beste adierazpide bat aho bidezkoa izan zen, eta hor agertzen zaigu bertsolaritza, hots, bertsoak eta kantak bapatean sortzeko artea. Bertsolaritzaren iturria artzain bizitzan omen dago: aisialdian naturan inspiratzen dira, eta bapatean aritzeko duten gaitasunaz baliatuta, musika doinu hainbaten jabe ere badirenez eta azkartasun poetiko zorrotza dutenez, zalantzarik gabeko edertasuna duten bertsoak sortu eta kantatzen dituzte bertsolariek.

Halaber, herri-tradizio handia izan dute ondoko hauek: esaera zaharren bildumek, aurorek, letretan eta musikan sormen lan handia duen jotak eta iparraldeko Olentzero herri-pertsonaiaren inguruan sortu zen literaturak.

15.10. Neoklasizismo arkitektonikoa

1789ko Iraultza Frantsesarekin, Antzinako Erregimena erori egin zen, klase ertain eta herrikoiek (burgesia) aristokraziarekin izan zituzten liskarregatik. Aristokraziaren gainbeherak berarekin eraman zuen klase agintarien artea: rococoa, alegia, eta horrek krisi estetikoa sortarazi zuen. Frantziako akademiek, saiakeragileek eta literaturagileek barrokoaren kontrako hainbat kanpaina jarri zituzten abian, eta arte berria sortzeko beharra ikusi zuten edo, bestela, antzinako klasikora itzuli beharra. Azkenik, pixkanaka-pixkanaka, lortu zuten antzinako estiloa ahultzea, artean *gustu ona* berreskuratzeke; beraz, arte hori Greziara begira jarriko da Erromara baino gehiago: hortik sortuko da neoklasizismoa.

XVIII.aren bigarren erdian, arkitekturaren gainbehera etorri ziren chu-

rriguereskoaren gehiegizko apaingarriak, eta horren orde ez espazio gutxiago betetzen zuen dekorazioa egin zen; garrantzi handiagoa eman zitzairen elementu arkitektoniko klasikoei.

Horrela neoklasizismoa sortu zen. Grezian kopiatu zen fuste ildakatu duen orden dorikoa, estatuez betetako frontoiak, eta berriro ere zutabera itzuli ziren. Erromatik kupula berreskuratu zuten. Ordezkar nagusia **Ventura Rodriguez** (1717-1785) izan zen; klasizista bera, baina bazuen italiako XVIII. mendeko barrokoaren eraginik. Bere obrarik esanguratsuenak: Valladolideko agustindarren eliza, Iruñeko katedralaren fatxada eta Zaragozako Pilar elizaren berrikuntza izan ziren.

Nafarroan, neoklasizismoak XVIII. mendeko azken laurdenean hartu zuen indarra. Subizako iturburutik urak ekarri behar zirela eta, Ventura Rodriguez iritsi zen Nafarroara (1780). Akueduktua egiteko lana eman zitzaion, eta, bi urteren buruan, bazituen planoak eta memoria eginda, baina ezin izan zuen lan horiek zuzentzen aritu, eta lan hori Aranguren eta Otxandategiri egokitu zitzairen. **Noingo akueduktu** eder horren lanak 1790ean bukatu zituzten.

Bestalde, Iruñeko katedraleko eraikin erromanikoaren **fatxadak** zuen egoera kaskarra ikusita, eta Ventura Rodriguez Iruñean zela aprobetxatuta, hori konpontzeko proiektua Ventura Rodriguezi ematea pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. Planoak prest zeuden 1783rako. Estilo kontrastea ageri zen, barne aldekoa gotikoa, hiru nabe zituela, eta fatxada, bi dorre simetriko eta arkupe zabala zuela, neoklasikoa. Lanen zuzendaritza **Otxandategik** egin zuen. Ignazio Asensio ere Venturaren ikasle hartzen da, zeinak aurretik zistertarrena zen Martzillako Agustindar Errekoletoen eliza (1779) diseinatu baitzuen.

Beste eraikin neoklasiko batzuk hauek dira: Lizarrako San Juanen fatxada, Mañeru eta Alloko elizak, San Ferminen kaperaren berrikuntza, Olexoa eta Mendabiako dorreak, Corellako San Migel, eta aurretik aipatu ditugun Luis Paretan iturriak, Iruñean.

ILUSTRAZIOA ETA BEREZKO ERAKUNDEEN KRISIA XVIII. MENDEA

Karlos II.a hil zenean (1700), Habsburgotarren azkena, argilunez betetako garaia amaitu zen. Borboien dinastia berria Ondorengotza-gerrari lotu izan dugu. Gerra horrek bi alde zituen: nazioarteko enfrontamendu gisara hartzen zen, baita gerra zibil gisara ere.

Borboiek zentralismo politikoa ezarri zuten, Aragoi eta Valentziari foruak kendu zizkieten, Katalunia eta Mallorca Gaztelako legeen pean jarri zituzten, eta Hiru Probintziak Batzar Nagusietan erregearen ordezkariak onartzera behartu zituzten. Soilik, Nafarroak gorde zituen Erresuma titulua eta Gorteak, Felipe V.a erregeak Ondorengotza-gerran jaso zuen laguntzari esker.

Bestalde, Borboiek *despotismo ilustratua* jarri zuten martxan. Zuzenean koroatik gobernatzen zenez, ez ziren jada Gorteak beharrezko, eta udalen ahalmenak murriztu zituzten. *Erregalismoa* ezarri zuten; erlijio gaietan erregeek esku hartzeko zuten eskubidea zen hori, eta, beraz, jesuitak kanporatu egin zituzten. Borboiek *lege salikoa* ere jarri zuten, hau da, emakumezkoek ezin zuten tronua eskuratu. Karlos III.ak erresuma probintzietan banatu zuen, erregioek zuten tradizio historikoaren arabera.

Bizirik jarraitu zuten aurreko garaian zeuden gizarte-klaseek, eta aldaketa gutxi batzuk baino ez ziren izan. Nobleziak zerga-inmunitatea izaten jarraitu zuen; kleroa gutxitu egin zen eta eragina galdu zuen; burgesiak bere boterea gehitu zuen; industria eta merkataritza hazkunderari esker klaserik baxuenek bere *modus vivendia* hobetu zuten, eta, azkenik, hazkunde demografikoa ere izan zen; horrela, XVIII. mende hasieratik bukaera bitartean, 7 milioi izatetik 11 milioi biztanle izatera igaro zen Espainia.

16.1. Ilustrazioa eta Despotismo Ilustratua

XVIII. mendeari **arrazoiaren edo argien Mendea** deitzen zaio, XVIII. eneko ideologiak gizakien bizitza argitu nahi izan baitzuen arrazioaren argia erabilita, eta fedea eta agintaritza alde batera utzita. Mugimendu horri Ilustrazioa esaten zaio, eta eragin handia izan zuen Estatu Batuetako independentzian, bai eta Frantziako Iraultzan ere. Ideia horiek oso azkar zabaldu ziren *entziklopediari* –garaiko ezagutza guztiak gordetzen dituen hiztegia da– esker, baita Locke, Diderot, Voltaire, Montesquieu eta Rousseau filosofoei esker ere.

Bestalde, burgesiak gizartearen zuzendaritza hartu zuen, ospea, kultura eta botere ekonomiko nahikoa bazuelako, eta erregeen botere absolutuari aurka egiten hasi zen. Erregeek, berriz, *despotismo ilustratua* hartu zuten mugimendu horri aurre egiteko, eta lelo honi jarraitzen zitzaizkion: «guztia herriarentzat baina herria kontuan hartu gabe», hau da, herriaren egoera hobetu nahi duen sistema da, baina herriak zer nahi duen kontuan izan gabe.

Nafarroari dagokionez, gobernu zentraleko ministro ilustratuei kezka sortzen zieten tradizionalismoak eta foruek, Nafarroak erresuma statusa izateak, Diputazio iraunkorra izateak eta bere Gorteak izateak, baita erregeak foruei eta legeei egin behar zien zinak ere. Iruñeko Jesuitetan irakasle izandako Isla apaizak (1746) nafarrak harro sentiarazten zituen autogobernua kritikatu zuen ironikoki.

Azkenik, *Ministroen Juntako* bileratik (1796) Diputazioaren kontraforuaren ihardespena atera zen, zeinak Nafarroako Gorteetatik igarotzen

ez ziren errege-zedulak legez kanpokotzat jotzen baitzituen. Berebat, Nafarroak zuen araubide berezia, erregeek borondatezko kontzesio eta kontzesio grazioso gisara emandako pribilegio zela kontsideratzen zen. 1716tik aitzina, Nafarroak gainerako probintziekin alderatuta, politika eta instituzio bereziak zituela ikusita, erreforma orokor batzuk onestera behartu zuten Nafarroa, baina bere Gorteen eta Diputazioak atzera bota zituzten erreforma horiek, eta arrazoi hauek eman zituzten oroitza-txostenen bidez: Nafarroako **konstituzioa** osatzen duten *beren funtsezko legeen* babesa zutela.

Madriildik zetozen legeei, nafarrek egiten zieten desmen-egite horri arrazoi hau eman zitzaion, hots, erregearen soberania mugatua zela, Nafarroako arauak beteko zituela libreki zin egiten baitzuen: **absolutismoa eta foruak bateragarri bihurtzeko** saiakera izan zen, azken batean.

16.2. Felipe V.a Borboiari Nafarroak eman zion laguntza (1700-1746)

Karlos II.ak ez zuen ondorengorik izan, eta hil zenean (1700), tronua lortzeko izan ziren nazioarteko borrokek gerra zibila ekarri zioten Espainiari 1701etik 1714ra. Aragoi, Austria etxeko Karlos artxidukearen alde atera zen; Gaztela eta Nafarroa, berriz, Anjouko Dukea zen Felipe Borboiaren alde. Felipe Borboikoa Nafarroako azken errege-erreginen ondorengoa zen, Albretoko Joan eta Katalinarena, alegia. Guda erabatekoa izan zen, bi bandoetan era eta klase guztietako pertsonak hartu baitzuten parte: gazteek, emakumeek, mutikoek, monjeek, apaizek eta apezpikuek.

Beraz, Nafarroan talde esanguratsu bat Felipe V.aren alde jarri zen. Felipe V.ak 1701ean, errege gisara, foruen gaineko zina egin zuen Iruñean eta nafarrek fideltasuna agindu zioten. Bere aitona Luis XIV.aren gaitasun hartuko zituen gobernatzeko erak, eta hauxe iradokitzen zion aitonak: «gerra bat irabazteko ez da legitimitaterik behar, armak eta dirua baik», baina aitonak ez zion dirurik utzi, eta banku-gizonek eta instituzioek ematen zituzten kredituetara jo zuen.

Joan de Goienetxek, Pedro Lopez de Ortegak eta Juan de Soraburuk Felipe V.aren kausari lagundu zioten bikorrekin, hornidurekin, truke-letrekin, maileguekin eta esku-diruarekin; kleroak eta apezpikuek ere lagundu zuten kausa horretan berean. Gerrak iraun zuen bitartean, Nafarroak lotarako lekua eta jana ematen zien Feliperen aldeko soldaduei eta armada frantsesari; gehiago esatearren, Tuterako Erribera aldeko eskualdeek eta Zangozak Karlosen aldeko armaden erasoaldiak jasan zituzten, eta arpilatze eta errausteak izan ziren.

Garaipena Espainiako Felipe V.arentzat eta Nafarroako VII.arentzat izan zen (1713). Horrek berehala deuseztatu zituen Aragoi, Valentzia eta Mallorcako instituzioak (erregeordeak, gorteak, justizia eta abar), Karlosen alde atera zirelako, baina **Nafarroak aurretik zuen egituraketa instituzionala mantendu** zuen. Merkatariak poztu egin ziren garaipenagatik, ondoko herrialdearekin negoziatu ahalko zutelako, eta frantsesek ez zutelako Nafarroa etengabe mehatxatuko, ezta militarren zama jasanen ere. Baina nafar asko mesfidati zegoen, airean, zurrunbiloan frantsesen aurkako kutsua nabari zelako.

16.3. Gorabeherak aduanen aferan.

Borboiak, itxuraz, foruek irautearen alde agertu ziren, baina erregeek eta beren ministroek zentralismoaren aldeko apustua egina zuten. Aduanak lekuz aldatzea edo ez aldatzearen aferak irtenbide zaila zuen, ezen eskualde batzuentzat erabateko porrota zena, besteentzat oparotasunaren hastapena baitzen.

1717an, zenbait ministro eta Nafarroako gizartearen zati bat aduanak Frantziako mugaraino eramatearen alde zeuden, eta **kontratuzko lege** bat aldarrikatu zuten gobernu zentraleko kide askoren konfiantza lortu nahian. San Adriango markesak mahaigaineratu zuen aduanak Frantziako mugaraino eramatea, eta nafarrendako mesedegarri izanen ziren hainbat baldintza jarri zituen: Frantziarekin artile eta elikagaien merkataritza librea egitea, Indiekin elkartrukean aritzeko kai bat izatea

eta abar. Baina erregearentzat mesedegarri zena ez zen Iruñeko merkatarientzat onargarri –kontrabandoan aritzea interesatzen baitzitzaien horiei– ezta ardoa egiten zutenentzat ere, ez baitzuten zeuden aduanak desagertzerik nahi.

Azkenean, **Felipe v.ak** aduanak Ebrotik Pirinioetara eramane zituen eta Iparretik Frantziako mugaraino; helburua zen zergak igotzea eta kontrabandoa galaraztea; era berean, zergapetu egin ziren inportazio eta esportazioak, nafarrendako errenta handiagoak lortzeko. Neurri ez herriko horrek Diputazioaren haserrea eragin zuen, zeinak erresumaren oinarritzko printzipioen aurkako eta nafarren nortasunaren aurkako eraso zuzen gisara hartu baitzuen aduana aldaketa.

Erabaki horrek lau urte besterik ez zuen iraun. 1722an aduanak, berriro ere, lehengora ekarri ziren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan izan ziren etengabeko protestaldiek –*Matxinadak*– eraginda zerga-bilketa porrot itzela izan zelako, eta Frantziarekin sortu berria zen gerrarengatik, are kontrabando handiagoa eragin zuena. Dena dela, koroak lortu zuen nafarrek ordain zezatela inportatzen zituzten merkataritza-produktuengatik, eta tabakoaren alokairua ere koroaren eskuetara igaro zen; horregatik guztiagatik, bikoiztu egin zen aduanetako zainketa, inportazioa gutxitu zedin eta, era berean, Aragoiri nahiz Gaztelari ondoren egiten zituzten tabako-salmenta ere gutxitu zedin, etekin handiak lortzen baitzituzten nafarrek horretatik.

16.4. Foruak Nafarroaren identitatearen oinarri gisa

Esan izan da Felipe v.ak estimu berezia sentitu izan zuela nafarreganako, ez soilik nafarrek, bere erregealdia gauza zedin, eman zioten laguntzagatik, baita Nafarroara egin zituen hiru bisitaldietan (1706, 1711, 1719) jaso zuen maitasun, harrera eta laguntzagatik ere. Batzuetan erregeorde zentralisten aholkuen aurrean ez entzunarena ere egin zuen, Nafarroako Gorteei arrazoia emateko. Beste batzuen iritziz, ordea, Gortean zegoen eragin handiko nafar taldeak balio izan zuen foru-izpiritua- ren alde egiteko edo izpiritu hori gordetzeko.

Sentimentalismoa alde batera utzirik, nahiko objektibotasunez azpimarratu behar da errege Borboiek eta beren ministroek zentralismoa lortzeko egin zutela borroka hasiera-hasieratik, eta beren funtsezko nahiak lortu zituztenean, hau da, soldaduen kupoa, justizia administrazioa eta dirutza bilketa handia, –aduanen zerbitzuengatik eta kontrabandoarengatik konpentsazioaren bidez–, gainerako lorpenak funtsezkoak ez zirela edo bigarren mailakoak zirela pentsatzen zuten.

Argi dago, XVIII. mendeaz geroztik, foruak identitatearen seinale edo ezaugarriak direla nafarrentzat, eta Espainiaren barnean berezitasuna ematen ziela nafarrei. Foruak ez dira pribilegio ekonomiko eskukada bat, ezta bere boterea duen Taifako erresuma txiki bat ere, foruak ohorea, errespetua eta duintasuna eskatzen duten zedula moduko zerbaite dira. Bereizgarri bat dira, ondarea, herentzia, nafar guztien **statusa**. Isla apai-zak (1746), trufatu nahirik, hauxe esan zuen: nafarrek beren foruak «gurtzen» dituztela.

Horregatik, Borboiengandik jaso zituzten eraso guztien aurka irmo azaldu ziren Gorteak eta Diputazioa. Baina ministroen artean ezadostasunak sortzen hasi ziren Nafarroarekin nola jokatu behar zen erabakitzeko garaian. Ministro batzuek foralistatzat zuten beren burua, baina beste batzuek foruen aurka egiten zuten eraso zuzenean, foru-erregimena *hondatu* nahirik. Begi-bistakoa da, 1750etik aitzina erregeek, errege-zedula bidez, eta Nafarroako Gorteak alde batera utzirik, Nafarroako gizartearen bizitza pribatuan edo barne-bizitzan sartu zutela eskua, hau da, ohituretan, dibertimenduetan, hezkuntzan, merkataritzan, ongintza eta abar, eta foruaren aurkako zedula horiek ezin ziren kontraforutzat hartu.

Baina hori ez zen aitzakia izan, eta jarraitu egin zuten Gorteetarako deialdiak egiten; hori baino gehiago, erregeak berak proposatu zituen deialdiak, erreforma konstituzionalak onar zitezen, eta bertaratutakoek bilera horiek probestu zituzten, behin eta berriz, erregearenganako mendetasunik ez zutela aldarrikatzeko. Kontraesana dela dirudien arren, Borboien zentralismoa bere unerik gorenenean zegoenean, Nafarroako Gorteek askatasun eta independentzia handiagoa lortu zuten, batez ere, lege



NAFARROAKO ERRESUMAKO LEGEEN BILDUMA BERRIA, JOAQUÍN DE ELIZONDOK EGINA (1735). Foru Nafarra edo Nafarroako Foruak, indarrean dauden erresuma zaharreko berezko lege eta ohitura multzoa dira (politikoa, zibilak, administratiboak edo ekonomikoak). Antzina, nafar herriak ez zuten arau idatzirik ematen, ezta onartzen ere, ohiturak arautzen baitzuten bizitza soziala. Ohitura hori egonkor eta orokor izatera iristen denean, ohiturazko zuzenbidea osatzen du. Beraz, Nafarroako Foru Orokorra, ohituran oinarritutako arau multzoa da, errege Teobaldo I.aren gorteko legelari ezezagunek bildutakoak, alegia.

gaietan. Baina Gorteen bilerak urritu zituzten heinean, Diputazioak protagonismo politiko berria lortu zuen, hau da, eskumen berriak: fiskalak, bideetakoak, administratiboak eta abar, Diputazioa, kudeaketak egiteko garaian, azkarragoa eta arinagoa baitzen.

16.5. «Borondatezko dohaintza» eta Gorteen eraso egitea

Nafarroako Gorteen, bilkuran bildurik, dirutza jakin bat zehaztu izana foruetako bat izan zela esan daiteke. Bilkuran zehaztutako dirutza hori *borondatez* erregeei ematen zieten dohaintza gisa («borondatezkoa eta graziazkoa osotasunean edo zati batean, kopuruan, ordaintzeko moduan eta epean»); Gorteen diru hori herritarrengandik bildu behar zuten. **Dohaintza edo Gorteen zerbitzua** izena hartu zuen, eta oso sistema zaharkitua zen Borboiek zituzten asmo absolutisteki begira.

Urte askotan ez ziren zergak ezarri Gorteen biltzen ez zirelako, eta, beraz, hamalau urtetan (1731-1744) Nafarroak ez zituen zergak ordaindu. Dena den, urteek aurrera egin ahala, hiritarrendako presio fiskalak gora egiten jarraitzen zuen, eta zenbatekoa bikoiztu egin zen XVIII. mendearen bigarren erdian. 1726tik 1757ra nafarrek, batzaz beste, hiru milioi eta erdi marabedi eman zituzten, eta 1766tik aitzina, berriz, urteko 6.890.000 marabedi bildu zen.

Erregeak, gorteen deitzearen aurka azaldu ziren, fidatzen ez zirelako eta beren legeei *kontraforu* aunitz egiten zitzaizkielako; horregatik nahia-go izaten zuten *dohaintzarik* gabe gelditu beren proposamenak atzera botata gelditzea baino. **Gorteen** ez ziren konformatu Hiru Estatuek zergak eta borondatezko dohaintza bozkatzen zituzten areto soila izatearekin, eta **politikaz** eztabaidatzeko **leku** gisara hartu zuten garrantzia; bideak zaindu eta eraikitzeaz eztabaidatzen zen, tabakoaren alokairuaz edo aduanen lekualdatzeaz.

Ministro askok ez zituzten begi onez ikusten Nafarroako Gorteen, garestiak zirela uste baitzuten eta ez zutelako ezertarako balio. Garestiak, herriendako nahikoa gastu ekartzen zuelako: herriei, beren prokuradoreak

mantentzea 20.000 peso baino gehiago kostatzen zitzairen dietetan; horri Diputazioko gastuak batu behar izaten zitzaizkion, baita zezenketa-ikus-kizunetako gastuak, antzerki gastuak eta abar ere; orotara 300.000 peso izaten zen. Eta ezertarako balio ez zutenak, ezen langileak bikoiztu egiten baitziren, eta horretarako hobe zen gobernu zentral bakar bat izatea. Dena dela, benetan ministroei loa kentzen ziena errege-agintearen murrizketa zen eta erresumako erreformei jartzen zitzaizkien oztopoak.

Bestalde, Gorteen bilera deialdiak urritu ahala, **Diputazioak** esku-men berriak eta askatasuna lortu zuen, eta erresuma ordezkatu nahi izan zuen. Horretarako Errege Kontseiluarekin Nafarroako administrazioiko barne gaiak eskuratzeko arituko da nor gehiagoka. Felipe V.ak, Kontseiluarekiko zuen independentzia jurisdikzionala berretsi zuen, arintasun administratibo handiagoa zuelako. Nafarroak bideak eraikitzeke eskumenak lortu zituen eta aurrerapauso handia izan zen hori.

16.6. Monarkiaren krisia eta kinten zozketa

Fernando VI.a hil zenean (1759), zeinak bere agintaldian «bakea guztiekin, gerrarik ez inorekin» maxima izan baitzuen, Karlos III.ak hartu zuen tronua, eta zin egin zituen Nafarroako foruak 1766an. Espainia eraberritzen saiatu zen eta Ilustrazioa barneratzen. Ez zuen denbora handiegirik behar izan herriaren ezinikusia jasotzeko; Napolitik Grimaldi eta Esquilache ministroak ekarri zituenean gertatu zen hori, bereziki. Esquilacheren altxamendua sortarazi zuten bi ministro horiek. Ideia berriztatzaileak sartu nahi zituzten, eta indarrez zenbait ohitura aldatu, horien artean, adibidez, espainiarren ohiko janzkera aldatu: kapa moztu nahi izan zuten, baita kapeletako hegalak ere, aurpegiak ikus zitezen.

Iruñean ez ziren apenas nahasmen horiek nabaritu, baina Jesusen Konpainia (1767) kanporatu egin zuten, bai, izan ere Canpomanes ministro ilustratuak altxamenduen errua bota baitzuen. Diputazioari aurretik abisatu gabe, Iruñeko eta Tuterako komentuetako jesuitek lurraldea utzi egin behar izan zuten.

Jesuiten kanporatzean **Olavide** nafarrak hartu zuen parte. Olavide Sevillako unibertsitatea modernizatzeaz arduratu zen 1769an; unibertsitate hori aurretik Loiolako San Ignazioren jarraitzaileek zuzentzen zuten. Kleroari ikastea eta irakastea debekatu zion, eta Descartesen irakaskuntza eta matematikak ezarri zituen. Olavidek (1725-1803) Voltaire eta frantsez entziklopediagileak ezagutu zituen, eta Madrilgo bere etxea filosofo ilustratuen gune bilakatu zen. Olavidek, Karlos III.aren onespenez, Sierra Morenan 45 herri eta 11 hiri sortu zituen Alemaniatik eta Frantziatik etorritako etorkinekin.

Bestalde, XVIII. mendean, eta bata bestearen atzetik izan ziren gerrek eraginik, armada zabaldu egin behar izan zen, eta aurrerantzean ezin izanen zen soldadu izateagatik ordainsaririk jaso, kostu handia zuelako; izan ere, armadan egoteagatik ordaindu egiten zen eta horregatik *alfer* eta *gaizkile* aunitzek eskaintzen zuen bere burua aberria zerbitzatzeko, nahiz eta ez ziren eragingarri izaten. Orduan **kintetan** pentsatu zen; sistema horren bitartez 18-40 urte bitarteko gazte ezkongabeak zozketan sartzen ziren armadari zerbitzatzeko. Legea egin eta lege-haustek agertu; kontrako iritzi aunitz izan zituen sistema horrek eta irregulartasunak ere ez ziren falta izan. Helburua: zozketan parte ez hartzea.

Nafarroako Gorteak eta Diputazioa neurri horren kontra agertu ziren, eta maiz neurri horrek ihes egiten zien kontrolpetik. Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Katalunia batu egin ziren protesta egiteko, eta armadan sartzeko modua saihestu zuten. Ordainetan herrialde bakoitzak hitzartutako gizon-**kupoa** bidali behar zion armadari. Nafarroak 1770etik aitzina, alferrez, gaizkilez, boluntarioz edo diru bat ordainduz, zegokion kupoa ordaindu zion armadari.

16.7. Nafarrak Borboien Gortean

Karlos II.aren zorigaiztoko gobernaldiaren ondoren, Espainiako gune politikoetan haize berriztatzailerak arnasten hasi ziren, eta bidea Eguzkiaren Errege esaten zitzaion Luis XIV.aren Frantzia imitatzea zen; inbidia zitzaion, Colbert frantses ministroari esker, garai hartako Frantziak zuen erreformari eta oparotasun ekonomikoari. Espainian, Karlos

II.aren gortean eragin handia zuen frantses talde bat zegoen, baina Borboien erreformaren barnean nafar talde bat ere bazegoen, ideologia bera zuten guztiek eta nolabaiteko boterea ere bazuten gortean. Besteak beste: Karlos II.aren diruzaina (1690), Joan de Goienetxetik hasi eta Karlos II.aren ogasun ministrora (1787), Migel de Muzkiz.

Aurreko horiek Nafarroatik kanpora zeuden nafar ilustratuak ziren, eta Estatuko hiriburuan zuten egoitza. Talde hori 1683ko uztailaren 7aren inguruan sortu zen, urte horretan bildu baitzen Madrilen **Nafarren San Fermin Kongregazioa**, hain zuzen. Talde horretako kide ere baziren idazkariak, erregearen aholkulariak, fraideak, medikuak, merkataria eta abar, baita Indietatik beren dirua jarduketa humanitarioetarako ematen zuten pertsonak (zaldunak, kanonikoak, kapitainak...) ere. Horietaz gain, Cadiz eta Sevillan postu garrantzitsuak zituzten nafarrak ere bizi ziren Madrilen, zeinak gortearen berotasunera itzultzen baitziren.

Nafar asko atera zen beren jaioterrietatik sosik gabe, titulurik gabe, eta ondasun eta ohoreak lortu zituzten kanpoan beren esfortzuei eta merkataritzarako zituzten dohainei esker. Baina Madrilen bizi ziren gizon botereetsuak Nafarroa iparraldekoak ziren, Bortzirietakoak, gehien batean, eta *Partido Baztanés* ezizena erabiltzen zuten. Hor ditugu, esaterako, Goienetxe (Arizkun), Uztaritz (Doneztebe), Muzkiz, Garro, Mendieta edo Iturralde.

Karlos II.aren garaiko lehenengo nafar belaunaldia, Goienetxe buru zutela, Amerikako enprekin erlazionatu behar da; bigarren belaunaldia, berriz, **Felipe V.aren garaikoa**, erregeordetza eta administrazio zentraleko konfiantzazko karguekin erlazionatu behar da: kapitainak, funtzionarioak, diruzainak, administratzaileak eta abar ziren. Bigarren belaunaldi horretakoa da Joan de Goienetxe, Nuevo Baztango fundatzaile izan zena, baita ondoko erregeordeak ere: jaiotzez Iruñekoa zen Jose de Aramendia, Peruko erregeordea; Eneritzen jaio zen Sebastian Eslaba, Granada Berrikoa; Baztanen jaiotako Jose de Iturrigaray, Mexikokoa; Tafallakoa zen Jose Bertiz, Argentinako erregeordea; jaiotzez Lekaroztarra zen Agustin de Jauregi, Perukoa hori ere; Beireko Jose de Ezpeleta, Kolon-

biakoa, eta horietaz gain administrazioan kargu altuak zituzten beste pertsona asko ere bai.

Horiek guztiek klase burgesa osatu zuten: erregeen ondoan konfiantzazko postuak betetzeko beren jaioterriak utzi egin zituzten; Holandako jardute modua imitatu zuten horrela, hau da, kongregazioak osatu zituzten, jaiotzen ikusi zituen lurrarekiko lotura estua sentitzen zuten, eta beren deboziorako babesle gisara San Frantzisko Xabier, San Fermin eta San Migel hartu zituzten.

16.8. Frantziako Iraultza, eta horren eragina Nafarroan

Iraultza, arrazionalismoaren, ilustrazioaren eta entziklopedismoaren emaitza izan zen; balore horiek ideia politiko eta sozialak astindu zituzten gizabanakoaren eskubideak aldarrikatu zirenean: askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna, baita pribilegio guztien desagertzea eskatu zutenean ere. Burgesiak Hirugarren Estatuaren (artisansak, burgesak, nekazariak) zuzendaritza hartu zuen, eta beren eskubideak defendatu. Horri guztiorri, atzerriarekin zituzten gerra amaigabeek sortu zuten finantza-krisia gehitzen badiogu, kleroa eta noblezia zergak ordaintzetik salbuetsita zeudela eta Estatu Batuetako errebolta eskaini zuen adibidea, mundu mailako asaldaketa martxan jartzeko adina osagai ditugu.

Frantzian, Estatu Nagusiak eta Batzar Konstituziogilea eta Legegilea osatu zenean, gobernu-botereek Konbentzio izena hartu zuen beste batzar baterako deia jaso zuten; biltzar horrek erregetza ezeztatu zuen eta Errepublika aldarrikatu (1792), eta, Luis XIV.ak heriotza zigorra jaso zuen. Gauzak hartzen ari ziren itxura ikusita, iraultzaren aurkako Lehenengo Koalizioa osatu zen Espainia, Ingalaterra, Austria, Prusia, Holanda eta italiar eta alemaniar estatuen artean.

Nafarroak, 70 urtetan bakean bizi ondoren, Espainia eta Frantziaren arteko beste gatazka batekin egin zuen topo, orduan, eta, noski, ezinbesteko pieza bihurtu zen muga zaintzeko. Armada frantsesak, handiagoa eta indartsuagoa izaki, Iruñerriko zatirik handiena okupatu zuen (1794-

1795); gizon aunitz galdu zituen Nafarroak, baita galera ekonomikoak izan ere. Gorteek gurutzadak bailiran egin zituzten deiak: **erlijioa, aberria eta erregea** babesteko zela. Iraultzak aurre egin zion koalizioari, eta ederki egin gainera, iraultza atera baitzen garaile. Basileako Bakea sinatu zuten (1795), eta Frantziak bere muga natural guztiak gorde zituen.

Godoy abagune horretaz baliatu zen, Nafarroa, armadari gizonak erregularki eskaintzera behartzeko, eta berezko instituzio eta legeak erro-tik mozteko kanpaina bat hasi ere hasi zuen. 1796an, Godoyk berak Errege-Agindu bat sinatu zuen, zeinak Gorteak ixtea xedatu baitzuen; Agindu horrek ere, Nafarroako Foruak eta tabakoaren nahiz ardoaren gaia aztertzeko, Ministroen Batzar bat osatzea xedatu zuen, baita foruen eta salbuespenen iturburua, zergatia eta helburua zein zen aztertzea ere.

Nafarroako Gorteak bitan zatituta zeuden Errege-Aginduari zer nolako erantzuna eman behar zitzaion erabakitzeke garaian. Batzuek zioten foruak beste edozeren aurretik defendatu behar zirela, eta besteek, berriz, lasaitasunerako deiak egiten zituzten, ez baitzen enfrentamenduetarako sasoirik onena hura, Godoyk bere akatsa zuzenduko zuela uste baitzuten. Azken inizatiba hori irten zen garaile. Baina nafarrak ez zetozen bat beren helburuetan: batzuk Frantziako ideia iraultzaileak herrialdean sar zitezen nahi zuten, beste batzuek, ordea, foruaren erreforma bat egin nahi zuten eta garai berrietara egokitu; hirugarren batzuek beren legeak eta instituzioek inolako aldaketarik gabe iraun zezaten nahi zuten, garai hobeak iritsiko zirelakoan.

Karlos IV.a, bere erregealdiaren azken hamar urteetan, Nafarroako foruak murrizten ahalegindu zen. Godoy extremeñoak ildo beretik jarraitu zuen, indar gehiago jarritz finantza-arrazoietan eta armadarako gizonen lorpenean. Horretaz gain, zenbait Errege-Zedulak, Nafarroako Gorteen parte hartzea eskatu gabe, zergen zenbatekoa eta zerga-bilketa ezarri zuten; dudarik gabe, nabarmen bortxatu ziren nafarren eskubideak. Nafarrek ez zituzten begi onez ikusten foruaren aurkako neurri horiek, eta, beraz, Madrilekin zuzenean negoziatzea erabaki zuten; horretarako gorte-

tik hurbil zeuden zenbait pertsonen eragina erabili zuten, aipagarrienetako bat Jose de Goya y Muniain nafarra izan zen.

1796tik 1808ra foruek krisi larriagoa izan zuten, eta nafarrak bi taldetan biltzen hasi ziren: batzuek Godoy erori arte zain egoteko esaten zuten, errege berria izendatu arte, alegia; besteek zioten, erresumako askatasunak arriskuan zeudela ikusten zutenez, foru instituzioak oso larri zeudelako, hori saihesteko denborarik galdu gabe zerbait egin behar zela.

Erabat argigarria da Compostelako Santiagotik diputatu Benito Ramon de Hermidaren idatzi bat, zeinak, erresumako abokatu eta sindikatuko kide Alejandro Dolarea nafarraren laguntzaz eta horrek emandako informazioaz, Nafarroako gorte eta instituzioen gaineko iritzia eman baitzuen; ikuspegi baikorra du oso eta foruei nahiz organismoei etorkizuna ikusten zien. 1782an, beste isilpeko txosten bat idatzi zen, eta apezpikuak, erregeordeak eta Kontseiluko buruak sinatu zuten. Txosten horren arabera, neurritz gorako agintea leporatzen diete Nafarroako Gorteei, erregearen aginte absolutuaren kaltetan.

Hermidaren txostenetik beste muturrean dago Jose Yanguas y Mirandarena (1838); hauxe esaten zuen Nafarroako foru eta instituzioez: «Deusetarako balio ez duen zaharkina da, eragingarri ez dena eta kaltegarria. Garai batean, nafarren eskubideak defendatzeko balio izan zuten, baina, gaur egunean, 1812ko edo 1837ko konstituzioen antzeko konstituzio liberalago batean pentsatu beharko litzateke».

IV
XIX. MENDEA

ABSOLUTISTAK ETA LIBERALAK: KARLISTADAK

«Iraultza, askatasunak bere etsaien kontra egiten duen gerra da; konstituzioa garaile den askatasunaren eta bakearen erregimena da», horixe esaten zuen Robespierrek 1793an Frantziako iraultzen bidez Antzinako Erregimenaren bidegabekeriekin bukatzeko gizarteak zuen nahia laburbiltzerakoan.

Antzinako Erregimenaren sistema politiko, ekonomiko eta sozialaren aurka burgesia hasi berriak aurrera zeraman borroka izan zen hura; subiranotasun nazionala defendatzen zuten, hau da, herriak du boterea. Horregatik behar-beharrezkoa zen hiritar guztiek onartzen zuten konstituzio bat. 1789ko Iraultzak legearen aurrean hiritar guztiak berdinak zirela aldarrikatu zuen, monarkia absolutua kendu zuen, eta gizakiaren eta hiritarraren Eskubideen Adierazpena aldarrikatu zuen. Europa osoan zabaldu ziren ideia horiek, baina errege absolutistak saiatu ziren ideia horiek zapaltzen.

Bestalde, XVIII.enaren bukaera arte, europako ekonomia, produkzio modu gisa, nekazaritzan eta merkataritzan oinarritu zen. Industria-iraultza XVIII.enaren bukaeran eta XIX.enaren hasieran sortu zen, bereziki, Ingalaterran; horrek Europako ekonomiari aldaketak ekarri zizkion, eta eragin nabarmena izan zuen industria sektorean: ehungintzan, kotoigintzan eta

burdingintzan, batez ere. Iraultzak ere izan ziren: nekazaritzan, demografian eta garraioetan, bi gizarte-talde berri sortu zirelako: burgesia eta proletarioak.

Espainiari dagokionez, ez zen nekazaritza iraultzarik izan, ez eta iraultza demografikorik ere, eta, beraz, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban (burdina) eta Katalunian (ehunak) soilik izan zuen eragina aurreko guztiak, Espainiako biztanleen %75 oraindik ere nekazaritza bizi baitzen.

Industri iraultzak inbertsio handiak behar izan zituen, eta horri esker burgesiak gora egin zuen laister batean, burgesak bankuen, fabriken eta merkataritza enpresen jabeak baitziren. Liberalismo ekonomikoak merkantilismoa ordezkatu zuen, eta kapitalismoa garatu zen finantziario-mekanismoekin: akziodunekin, sozietate anonimoekin, banketxeekin eta burtsarekin. Energia iturri berriak ezagutu ziren: ikatza lehen lehenik, eta petrolio eta elektrizitatea geroxeago.

Estamentuak desagertu egin ziren eta gizarte klaseak sortu; mugikortasun handia zegoen klase altu (burgesia eta aristokrazia) eta baxuen (langileak eta proletarioak) artean. Azken horiek 16 ordu bitarteko lan-jardunak egiten zituzten, soldata eskaxa ordaintzen zitzaien eta egoera oso latzetan egiten zuten lan, ez zuten gizarte babesik izaten langabezia edo gaixorik egonez gero. Langileen mugimendua eta sindikatuak sortu ziren orduan.

Politikaren alorrean, Espainian XIX. mendeari frantsesen inbasioaren aurkako altxamendu nazionalarekin eman zitzaion ongietorria, eta mendearen hasieran Subiranotasun nazionala ere eratu zen, 1812ko Konstituzioa onartu zenean, hain justu. Fernando VII.aren garai absolutistak, Riego komandantearen hirurtekoak eta Isabelek tronua ondoz ondo hartzeko sortu zuten arazok, karlistadak ekarri zituzten, baina. XIX. mendearen bigarren erdiak protagonista hauek izanen ditu: Isabel II.a, moderatuak eta progresistak, Narvaez eta O'Donnellen kanpo-politika, 1868ko iraultza eta behin-behineko gobernuak, hori guztia Alfontso XII.aren berrezarkuntzarekin amaitzeko.

Nafarroari begira jarrita esan behar da, XVIII.aren bukaeran Madrilek eta Iruñeak elkarren aurkako interesak zituztela, borboiek beren politika zentralistari eutsi ziotelako, bereziki aduanen lekualdaketa eztabaidak

hor jarraitzen baitzuen eta, era berean, soldadutzaren afera zegoen. Karlos IV.ak eta bere ministro Godoyk agintea kendu nahi zien Nafarroako instituzioei eta zergak igo. Napoleonen inbasioarekin batera, Nafarroa probintzia hutsa izatera pasatu zen, eta 1810eko dekretua eman zenean, desagertu egin zen Nafarroaren forutasuna.

Fernando VII. arekin berrezarri egin zen foru erregimena, baina 1829 urtea Nafarroako Gorteen bileren akabera izan zen, eta nazioko Parlamentuari utzi zitzaion lekua.

Karlistadak ez ziren alde jakin bateko sormena izan, nahiz eta konotazio nafar aunitz izan, ez eta dinastia afera soila ere, nazio mailako ideal bat baizik, zeinak liberalismoaren eta Espainian ezarri berria zen konstituzioaren aurka borrokatu nahi baitu, eta horrek Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban bat egiten du instituzioak eta foruak mantentzeko zegoen nahiarekin.

17.1. Independentzia gerra

«Karlos IV.a Erregeak Espainiako eta Indietako tronuaren eskubide guztiak Napoleon enperadoreari uztea ebatzi du, Napoleon enperadorea baita, gauzak zein lekutara iritsi diren ikusita, ordena berriz jar dezakeen bakarra». Hitz horiekin utzi zuen tronua Karlos IV.ak; 1808ko maiatzaren 5eko Baionako Abdikaziotik ateratako hitzak dira, Napoleonek berak ezarraraziak. Napoleonek, hots, botere pertsonala erdiesteko Iraultzaz aprobetxatu zen hark, Europako enperadore bihurtu nahi izan zuen.

Napoleonek Ingalaterraren inbasioa planifikatu zuen, baina Trafalgarren garaitu egin zuten Espainia eta Frantziako flota; orduan ideia hori alde batera utzi eta Ingalaterraren aurkako kontinenteko blokeoa egitea aldarrikatu zuen. Portugal, baina, blokeo horren kontra agertu eta orduan Portugal hartzea erabaki zuen; horretarako Godoyri Portugal hirutan zatituko zuela eta hirutatik bat agindu zion. Erregeari eta bere ministroari erindako iruzur handia baino ez zen izan hura.

Fontainebleauko Tratatuarekin (1807) armada frantsesari baimeana eman zitzaion Espainia zeharka zezan Lisboarako bidean. Behin Frantziako eta Espainiako armadek Portugal hartu zutenean, ez zegoen soldadu

gehiago pasatu beharrik. Soldadu talderik gehienak Irun eta Hondarribatik sartu ziren –Nafarroako hiriak ziren garai hartan–, baina penintsulako kontrola ezinbestekoa zen Napoleonentzat, beste lurralde batzuk inbaditu nahi bazituen, behintzat, eta penintsula hartzea erabaki zuen.

Baionako abdikazioak izan eta gero, Napoleonek errege-familia Madrildik atera zedila erabaki zuen, baina madrildarrak altxatu egin ziren erabaki horren kontra, 1808ko maiatzaren 2an. Batzar Nagusia osatu zen, eta Floridablanca kondeak hartu zuen zuzendaritza.

D'Armagnacek 1808ko otsailean Iruñeko gotorlekua hartu zuen 2.500 soldadurekin, eta geroxeago, berriz, Donostia. Nafarrek ez zuten begi onez ikusi intrusismo hura, eta gainerako probintziekin bat eginez, arpilatze eta basakeriaz armadek eragindako espolioa zela eta, altxamendurako deia egin zuten.

1808ko ekainean Lizarra altxatu zen, eta ondoren Tafalla, Gares, Caseda eta Alesbes, baina borrokarik gogorrena Tuteran izan zen, agian Palafox jeneralak lagunduta; ez zuen denbora luzez iraun altxamendu horrek, armada frantsesak eta Lefebvre jeneralak berehala zapaldu zutelako. Diputazioak, berriz, egoera latza zuen erantzuna emateko, eta lasaitasunerako deia egin zuen beste zer egin zezakeen oso ongi jakin gabe. Azkenean Iruñea utzi eta Diputazioko kideak Agredan, Tarazonan eta Tuteran finkatu ziren.

Bailenen, Despeñaperros ondoan, Castaños jenerala buru zela, Napoleon garaitu zuen armada espainiarrak, eta garaipen horrek Jose I.a Espainia uztera behartu zuen, eta armada frantsesa Ebroraino atzeratzera; hor, Tuteran zehazkiago, gudua izan zen (azaroaren 23an) eta frantsesak irten ziren garaile. Napoleoni adorea eman zion horrek, eta Espainiara itzuli eta bere anaia berrezarri zuen errege gisara. Zaragozako erresistentziak –Palafox eta Aragoiko Agustinarekin– Arapileseko, Gasteizeko, San Martzialeko eta Gironako garaipenek, penintsula osoan gerrillari taldeak osatzeak –hor ditugu adibide gisara El Empecinado, Merino apaiza, eta Nafarroan **Javier Mina** (*El Estudiante*) eta **Francisco Espoz y Mina**– eta Wellingtonek (1813) zuzentzen zituen tropa anglo-espainiarrek frantsesak garaitzea lortu zuten, eta, Valeçeyko Ituna sinatu zen (1814).

Hona hemen zeintzuk ziren gerrillariak erabiltzen zuten taktikaren

ezaugarriak: ustekabeen erasotzea, bazterrak ongi ezagutzea, Nafarroa osoan zuten espia sarea, herri guztiaren laguntza izatea, eguneko 24 orduetan, udan nahiz neguan, egiten zuten etengabeko borroka, eta, betiere, umeek eta emakumeek ematen zieten laguntza.

Gerrak, Nafarroari establezimenduen txikizioak eta etxebizitzaren, elikagaien eta uzten arpilatzeak utzi zizkion; ez hori bakarrik, galera izugarriak ere utzi zizkion jasan behar izan zituzten ekarpen, zerga eta erre-kisak zirela eta; lehen lehenik, frantsesei –*foncarios* esaten zitzaien– eta gero tropa anglo-espainiarrei: oinarrizko beharrak asetzeko produktuak zirela, zaldiendako oloa zela, hornigaiak, ospitaleen mantenua eta zergak, baita gizon talde handi bat ere. Horrek guztiak krisi demografiko eta ekonomikoa ekarri zion Nafarroari.

17.2. Liskar ideologikoa: Absolutistak eta Liberalak

Iraultzen eta ilustrazioaren ideien ondorioz sortutako printzipio politiko berriak herrialde bakoitzaren konstituzio liberaletan agertu ziren; konstituzio horiek legearen aurrean hiritar oro berdina dela dioen printzipioan eta giza eskubideen Deklarazioan zeuden oinarriturik. Oztopoak oztopo, Espainian liberalismoa 1812ko Konstituzioan garatu zen. Oztopoak, ordea, handiak izan ziren. Konparazio batera: karlistadak, pronuntziamentuak eta Europak errege-erregina absolutistek emandako laguntza.

Cadizko Konstituzioak subiranotasun nazionala aldarrikatu, eta botereen banaketa egin zuen; horrela Gorteek botere legegilea beteko zuten; Erregeak botere exekutiboa, eta botere judizialak justizia administratuko zuen. Hiritar guztiak berdinak direla aitortu zen, eta inolako berezitasunik egin gabe guztiek legeak bete behar eta zergak ordaindu behar zituztela adierazi. Beraz, sistema politiko liberal batez Antzinako Erregimena ordezkatzeko modu bat zen. Konstituzioa *Pepa* izenez bataiatu zen, martxoaren 19an onartu zelako, San Jose egunean, alegia.

Cadizko konstituziogileek ez zuten ulertu estatu zentralistaren alde egiten zuen *carta magna* berriak Espainiako errealitate anitza eragozten zuela. Dena den, konstituzioa, hasiera batean behintzat, ez zen Nafarroan

ezarri, frantsesen agindupean zegoelako. Baina geroago kleroak, nobleek eta herriak ez zuten ongi hartu, eta Fernando VII.aren itzulera txalotu zuten, konstituzioa indargabetuko eta antzinako foruak birjarriko zituelakoan. Aldiz, ilustratuek eta konstituzioaren aldekoek, Nafarroak gainerrako probintziek zuten zerga tratu bera izatea eskatzen zuten, eta zerga orokor bakar bat egon zedila guztientzat. Nafar batzuk, beraz, erregimen absolutistaren aldekoak ziren, ideologi arrazoiak baino gehiago arrazoi berekoiak tarteko –beren instituzio eta legeak gorde nahi baitzituzten–.

Fernando VII.ak erregearen diru-kutxak hutsik zeudela ikusirik, Nafarroako Gorteak bilerara deitu zituen **dohaintza** onar zezaten (1817). Gorteen, alabaina, bildu aurretik beren forutasuna berrezarri zedila eskatu zuten. Hiru urte geroago Riegoren Hirurtekoaren altxamenduak (1820-1823) atzerapausua ekarri zien foruaren aldeko asmoei, eta 1820ko martxoaren 10ean zin egin zitzaion Iruñean konstituzioari; garai hartan Espainia osoa Nafarroako berezko legeen aurka eta *absolutismo usaina* zerion edozerren aurka azaldu zen.

Foruzaletasunaren aurkako mugimendu orokor hori ikusita, kontraofentsiba antolatzeko **Batzarre bat sortu zen Nafarroan**; batzar horrek kleroaren eta nobleziaren laguntza jaso zuen. Baina Nafarroan ere gainerrako probintziek zutenaren antzeko zerga sistema berehala ezarriko zutela zirudien, eta 1820ko maiatzaren 29an Diputazioak zin egin zion konstituzioari, eta bi hilabete geroago behartu egin zuten homologazio fiskala onartzera, bai eta Estatuko gainerako probintziek zuten tratu berdintasuna izatera ere.

Kleroa, orokorrean, erregimen absolutistaren alde atera zen, ez soilik foruen defentsa egiteko, baita kleroak zituen pribilegio eta salbuespen fiskalak tarteko eta jabegoen aurka egindako aurreko desamortizazioak zirela eta. Liberalen Hirurtekoan ere gerrillak antolatu ziren liberalen izpirituari aurka egiteko; gerrilla horietako askok Lakarra, Iruñeko katedraleko kalonjea, izan zuten zuzendari, baita beste hauek ere: Joaquin Merida, Barasoingo erretorea; Benito Eraso, Garinoango bizilaguna, edo Arrotxapeako Juanito.

Nekazariak ere ideia liberalen aurka azaldu ziren, ideia horiek zer-

ga-bilketa bakarra egitea aldarrikatzen baitzuten, baita gazteak derrigorez armadarako izena ematea ere.

Nafarroan, baina, ez ziren guztiak absolutisten aldekoak, eta horregatik Liberalen Hirurtekoan etengabeko liskarrak izan ziren batzuen eta besteen artean; agian, azpimarragarriena 1822ko ekainaren 10ean gertatutakoa izan zen: instituzioen eta frantsestuena aurkako altxamendua egin zen, eta gobernu-batzarrak babestu egin zuen altxamendua. Horretaz gain, ideia liberalak defendatzen zituen sektore bat ere egon zen, batez ere, politiko eta militar aunitzek osatua; ezin ahortzi Espoz y Mina, zeina Frantziatik itzuli baitzen eta milizia nazionala antolatu. Horiek Gorteetarako aukeratutako ordezkarien bidez hiritarrek parte hartze aktiboagoa izatea nahi zuten, hiru botereak ongi definituta ageri zirela: legegilea, exekutiboa eta judiziala. Liberalismoaren gailurra guztiak gobernuan parte hartu ahal izatea zen (oraindik ere emakumeak hortik kanpo geratzen ziren) eta askatasun indibidualen defentsa egitea, politikoak nahiz ekonomikoak izan.

Idea progresistei amaiera emateko asmoz Aliantza Santuak, zeina Europan absolutismoak iraun zezan arduratzen baitzen, armada frantses batek esku hartu behar zuela erabaki zuen Veronako Kongresuan; armada horrek *Ejercito de los cien mil Hijos de San Luis* izena hartu zuen, eta Angulemako dukea izan zuen buru; helburua tronuan berriro ere Fernando VII.a jartzea. Hamarkada absolutistaren edo *gaitzesgarriaren* garaia zen (1823-1833); errepresio itzela izan zen, eta Riego eta El Empecinado exekutatu zituzten.

127 pertsona auzipetu zituzten Nafarroan, eta berrezarri egin ziren foru instituzioak, **Gorteak eta Diputazioa**, alegia. Erregimenak iraun zezan, probintzia guztietan 2.500 gizonen osatutako boluntario taldeak eratu ziren. 1828 eta 1829an bildu ziren Nafarroako Gorteak azkeneko aldiz hainbat gai argitzeko, izan ere Fernando VII. arekin ez zetozen bat ondoko gaietan: armadarako Nafarroak eman behar zituen gizonen kopuruan, Estatuari ordaindu beharreko zergetan, hezkuntza arloan eta udalerrak eguneratzeko hainbat lege ezartzean. Handik gutxira, aurre egin behar izan ziren foru-sistemak beste eragozpen batzuei, ezen foru-sistema sistema zentralista berrian hartzeko azterketa egin baitzuten

monarkiak.

17.3. Isabeldarrak eta karlistak

Fernando VII.a indarra galtzen ari zen absolutisten artean, liberalen aurkako zigorrak bigundu egin zituelako, eta horiengana, zertxobait, inguratzen hasi zelako. Horretaz gain, kontuan izan behar da garai horretan La *Pragmática Sanción* argitaratu zela, eta horrek Lege Salikoa indargabetu zuen; horrela bada, emakumeek tronura iristeko eskubidea lortu zuten. Horrek guztiak tradizionalisten sektore batek Fernando VII.aren anaia Karlos jaunaren eskubideak defendatzea eragin zuen.

Karlos Maria Isidro Borboikoa Madrilen jaio zen 1788an, eta Tries-ten (Italia) hil 1885ean. Ez zuen bere iloba Isabel II.a erregina gisara onartu nahi izan. 1833an, bere burua Espainiako Errege aldarrikatu zuen Portugalen; handik Ingalaterrara joan zen, eta gero, 1834an, Zugarramurditik Nafarroan sartu zen armadak koordinatzera.

Fernando VII.ak 3 urteko alaba Isabel izendatu zuen ondorengotzarako, eta erregeordetzan Napoliko Maria Kristina bere laugarren emaztea jarri zuen Isabel adinez nagusi izan arte. Lehenengo gerran (1833-1840) Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gunea garatu zen, eta **Tomas de Zumalakarregi** izan zen heroia. Zumalakarregi zauritu egin zuten Bilbo hartzen saiatzen ari zela, eta Isabelen aldekoa zen Esparterok garaituta erori zen; beste gune bat ere garatu zen, Katalunia eta Levantekoa, alegia, hor ageri zaigu *Cabrera Maestrazgoko Tigrea*.

1837 urtera arte zalantzatia izan zen gerra. Karlistek Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba ia erabat menperatuta zituzten, baita Nafarroako zati bat ere, baina ez zuten lortu hiririk nagusienetaz jabetzea, eta garaitu egin zituzten Bilbo setiatu zutenean. 1837an Karlos V.a Madrilera inguratu zen (Errege-espedizioa), baina berriro ere porrot egin zuten. Gomez jeneralak eta On Karlosek zuzendu zituzten penintsularen barne aldera egindako espedizioek ere porrot egin zuten, eta adoregabezia zabaldu karlisten artean, batez ere armada kristinatarrak indar handia zuela jakin zutenean. Agintariek –zatituta zeuden– Bergarako Ituna (1839) sinatu zutenean traizio egin zioten karlismoari; itun hura **Maroto** jeneral karlis-



LEHEN GERRATE KARLISTAKO IRUDIA (1833-40). Karlismoa, gizarteko sektore garrantzitsu baten bilgune bihurtutako mugimendu politikoa izan zen, Espainiako iparraldean, bereziki. Jaungoikoarengan, Aberrian eta Erregearengan oinarritutako ideal erlijiosoak eta deszentralizatzaileak zituzten. Horregatik, jarraitzaileek Karlos v.a jarri zuten tronuan, Fernando VII.aren anaia, alegia. Karlistentzat huraxe zen Fernandoren oinordeko bakarra eta zilegia. Horregatik, uko egin zioten iloba Isabelen ondorengotzari. Nafarroak hala nola Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak lehenbiziko ideal horiek baliatu zituzten, izpiritu erlijiosoa eta foru eskubide historikoak aldarrikatzeko, liberalismoa atzerriko inposaketa zelako. Karlos v.a, Maroto, Zumalakarregi, Cabrera, Merino Apeza eta Lakar, Deikaztelu eta Lizarra bezalako leku gogoangarriak etorkizunerako zizelatatutako izenak dira. Jurramendi karlisten mendi sakratu bilakatu da.

tak eta Isabelen aldeko **Esparterok** egin zuten.

Marotok Bergarako Itunean ingelesak eta frantsesak bertan egotea eskatu zion Esparterori, adostasunerako oinarriak berma zitezten ondoko gaitan: Karlos eta Isabelen arteko ezkontzan, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak gorde zitezten, amnistia orokorra eman zedin, eta karlisten titulu eta graduak gorde zitezten. Jeneral isabeldarra ados zegoen azkeneko bi eskakizunekin, eta Konstituziora egokitu zitezkeen foruak gordeko zituela egin zuen zin.

Karlisten aldeko altxamendu guztiak erregearen boluntarioek egin zituzten; ez ziren armada arautu baten kide, eta erdi mailako agintariek

zuzentzen zituzten, ezen armadaren zatirik handiena, administrazio zentrala eta kleroa Isabelen alde atera baitziren, eta, beraz, hura garaile. Horregatik hobe litzateke gerrilla bidezko gerraz hitz egitea.

Merino apaiza gerrillari ausartetako bat izan zen. Villodiadoko (Burgos) erretore zen, eta aurretik ere parte hartuta zegoen Independentzia Gerran. 64 urte zituela aldarrikatu zuen errege Karlos jauna, eta bi astetan txapel gorriz osatutako 14 batailoi biltzea lortu zuen; Gaztelako meseta zeharkatu zuten Madrilgo atarira iristeko. Ondoren atzera egin behar izan zuen Errioxako lurretara iritsi arte, eta Gaztela Zaharreko kapitain jeneral izendatu zuten. Berak ez zuen lur zabaleko batailarik egiten, gerrillen gerra baizik, etsaiari segadak eta iruzurrak eginez. Zaldiak ziren bere zaletasuna, eta horregatik eramaten zituen bere alboan beti bi zaldi.

Karlismoak penintsularen iparraldean laguntza aunitz izan zuen. Nafarroan, noble txiki eta nekazari ugari sartu zen iparraldeko frontean Bilbo hartzeko asmotan, baina Diputazioa eta Iruñeko Udala isabelarren alde atera ziren. Karlistek ez zuten soilik legezko erregearen alde borrokatu, baita erlijio katolikoaren alde eta beren foruen alde ere.

17.4. Karlismoaren atzealdea

Denboran atzera egiten badugu, karlismoak, itxuraz, tira-bira dinastikoetan du abiaburua, zeina Alfontso X.a Jakintsuaren *Partidetan* sortu baitzen: «gizonezkoek eta emakumezkoek eskubide bera dute Espainiako Koroaren jabe izateko». Felipe V.aren Lege Salikoak deuseztatu egin zuen hori: «emaztekiak Koroaren ondorengotzatik bazterturik gelditzen dira». Fernando VII.a, berriz, *Pragmática Sancion* delakoaren bitartez, Partiden sistemara itzuli zen, eta Maria Kristina bere emazteak berretsi egin zuen hori seme bat izan bitartean. Baina, Fernando VII.ak, gaixo zegoela, baliorik gabe utzi zuen Pragmatika eta, berriro ere, Lege Salikoa berrezarri zuen eta handik gutxira, berriz, indarrrik gabe utzi bere alaba, Isabel II.a, erregina izan zedin. **Karlos Maria Isidro**k uko egin zion Isabel Asturiasko Printzesa gisara onartzeari, eta liskarra sortu zen.

Karlismoaren baitan bi atal desberdindu behar dira: **mugimendu**

karlista, alde batetik. Erreakzio herrikoia izan zen, nekazariak hezurramitu zuten eta honako lelo tradizionalan oinarritu zen: Jainkoa, Aberria eta Erregea. **Zuzendaritza karlista** dugu, bestalde; zuzendaritza horrek herriaren mirespena aprobetxatu zuen Karlos errege bihurtzen saiatzeko. Bi korronte horiek ez ziren beti elkar hartuta egon, bereziki, bekaizkerien eta tronua lortu nahi zutenen interesen erruz. Egile aunitzek uste du, karlistadak foru sistemaren defentsan eta zentralismo liberalaren aurka euskal nazionalismoak egindako gerrak direla; beste batzuek laguntza soziala eta militarra izan zuen mugimendu espainiar gisara ulertzen dituzte, zeinak nafarrek, gipuzkoarrek, bizkaitarrek eta arabarrek zituzten interesetaz baliatuz tronua lortzeko borrokan aritu baitziren.

Itxuraz, tira-bira dinastikoa zatiketa karlistaren arrazoi izan zitekeen; honako esaldi hauek eman izan dituzte hainbat egilek karlisten eta karlistaden gainean: «zaharkitutako fanatikoak», «gizonezko bat edo emakumezko bat tronua jabe egiteko gutuziak sortutako gerra absurdoa», «karlistek denboran atzera egin zuten», «aurreko mendekoak ziren», «ertarokoak ziren».

Iritzi eklektiko batez baieztatu daiteke gertaera dinastiko horiek zorizkoak izan zirela edo *aitzakia*, bestela, sen tradizionala eta erlijio-izpiritu bizirik mantentzeko zedin borrokatzeko, eta arbasoek esfortzu handiz lortu zituzten foruak eta legeak mantentzeko. Ideia liberalak atzerritarren inposaketa izan ziren, ohiturak, tradizioak eta nekazariak zuten bizitzeko modu arrunta hankaz gora jartzen zituztenak.

Ezin da ziurtatu, beraz, foruen defentsa altxamenduaren arrazoia izan zenik, baina bai, ordea, Antzinako Erregimena mantentzeko nahia izan zela; horren barnean, inplizituki, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako berezko instituzio eta legeak gordetzeko interesa eta ahalegina zegoen. Aitzitik, liberalek liskar horietan konstituzioa defendatzeko arrazoia ikusten zuten, baita legearen aurrean guztion berdintasuna eta probintzia guztiei onura berbera aterako zien zerga-sistema defendatzeko arrazoia ere.

Nafarroa probintzia izatera igaro zen, eta 1839an **Diputazio berria** osatu zen, zeinak instituzioen, Kontseiluaren eta Erresumako Diputazioa-

ren botereak bildu baitzituen. 1841eko abuztuan, Lege Itunduaren bitartez, desagertu egin ziren Nafarroako Gorteak, Erresumaren Diputazioa eta Nafarroako Kontseilua, mugak eta aduanak Frantziarekin muga egiten den lekuraino eraman ziren, eta gainerako probintziek zuten udal-araubide, antolaketa politiko, judizial eta militar berbera izatera pasatu zen Nafarroa.

Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak *–salbuetsitako probintziak* izena zuten– urte batzuetan beren foruak mantentzea lortu zuten, baina Nafarroan Diputazioa liberalek zuzentzen zutenenez –horien artean zegoen Jose Yanguas y Miranda– garai modernoekin bat eginen zuen erreforma egin nahi zuten, baina ahalik eta eskumen gehienak gordez. Azkenean **ogasuna eta udalerrriak administratzeko eskumenarekin** gelditu zen Nafarroa.

17.5. Egunkari karlistak: gerrari buruzko informazio ona.

XVIII. mendean Espainia ez zen nabarmendu sortu ziren egunkari berrien kopuruagatik; alderantzizkoa esan genezake, hain zuzen, egunkarigintzari dagokionez garai iluna izan zela, batez ere, lehenengo gerra zibilak iraun bitartean.

Paradoxikoa da, dena den, 1834 urtea izan zela karlisten aldeko egunkari batek argia ikusi zuen lehenengo aldia. Informazio ona jasotzen zuen egunkari horrek, eta iturri onetatik edaten zuen, batez ere, liberal eta karlisten arteko gerrari zegokionez.

Giro horretan sortu zen *Boletín Carlista* izenez ezagutu zena; 36 ale argitaratu ziren. Geroago *Gaceta Oficial Carlista* izena hartu zuen, Zumalakarregik eman zion izen hori; azkenik, Karlos Maria Isidro Oñatin finkatu zenean, berak eman zion beste izen hau: *La Gaceta del Real Oñate*.

La Gaceta, bereziki, informazio-buletina zen, eta ez iritzi-katedra bat, non *luma zorrozdunek* luze eta zabal jarduten zuten beren ideiak eta ikuspuntuak ematen. Honetan aritzen zen *La Gaceta*: berriak edo gerra-partreak laburki ematen, erretagoardia karlistaren bizitzari buruzko erreportajeak argitaratzen, jai erlijiosoak eta herrikoiak deskribatzen, garrantzi bizia izan zuten operazio hainbat aipatzen, gerrari buruzko dekretuak justifikatzen, eta, *gizarteko berrien* atalean, Karlosen Gorteko

gizarte bizitza kontatzen zuen.

Ez zen egunero argitaratzen, eta maiztasuna, gertatzen ari ziren ja-zoerek ezartzen zuten. Arruntena astean bitan edo hirutan argitaratzea izaten zen, baina gehiagotan ere argitaratzen zen, baldin eta garrantzizko garaipenen bat lortu izatekotan, *errege dekretuak* argitaratu behar izateko-tan edo familia karlistari garrantzizko albisteren baten berri edo jarraitu beharreko arauen baten berri eman behar izatekotan.

Egunkarian idazten zutenek ez zituzten artikulua sinatzen. Jardu-teko modu hori Zumalakarregiri zor zaio; *La Gaceta* gerra-buletin baten itxura izatea nahi zuen Zumalakarregik, protagonistak helburu bateratu baten alde –Jainkoa, Aberria eta Erregea– frontean anonimoki borrokatzen ari ziren gizonak baitziren, beren izen-deiturekin. Zenbait idazleren berri dugu, ez artikulua sinatzen zituztelako, baizik eta Oñatiko Gortean zuten eraginagatik; horrelakoak ditugu erlijio gizon zenbait, Fray Antonio Casares kaputxinoa, esate baterako. Oñatin eta Baionan bizi izan zen, berri freskoak ekartzen zituen Frantziatik, eta, noski, argitaratu egi-ten ziren.

La Gaceta-k berriemaile onak izan zituen Espainiako toki guztietan, mugimendu karlistak indarra zuen toki guztietan, alegia: Iparraldeko probintzietan, Gaztelan, Katalunian, Castellonen eta Valentzian, Armada karlistek ekiterakoan, berehala jasotzen zuen fidagarritasun osoz. Omen handi handikoa izan zen. Horregatik, Madrilgo *La Gaceta*-ren balio dokumentala gainditu zuen. Izan ere, oso maiz Madrilgo berripaperak Oñati-koaren aipamena egin behar izaten zuen, eta, are gehiago, artikulua osoak ere aldatu behar izaten zituen, egunkari fidagarri bakarra baitzen gerra zibilari dagokionez.

La Gaceta harremanetan egon zen Frantzian kide zuen prentsarekin, batez ere, Karlosen alde egiten zuenarekin. Foro de Bayona, El Centinela de los Pirineos, La France, L'Europe monarchique-ko berriemaileek beren kronikak bidaltzen zituzten Oñatira, eta, beraz, egunkari karlistak ospe handia izan zuen Espainiako gainerako egunkarien artean.

Bestalde, Cabrerak, zeina Levanten ari baitzen borrokan, Zumalaka-regik egindakoari jarraitu nahi izan zion, eta 1836an *Boletín del Ejército Real* izeneko buletina argitaratu zuen; aldizkari ofizial baten antzekoa

zen, zeinetan errege dekretuak, aginduak, indultuak eta ezkondeiak argitaratzen baitziren. Baina Cabrerak aldizkariari ildo atseginago, didaktikoago eta literarioagoa eman nahi izan zion, eta horretarako poesiak eta abestiak sartu zituen erregearen ohoretan eta batailetatik garaipena eskuan zutela ateratzen ziren jeneralen ohoretan. **Mariano Ruquer** izan zen zuzendari; Cabreraren irakasle izana zen Cabrera Tortosako apaizgaitegian apaiz izateko ikasten ari zela. 200 zenbaki baino gehiago argitaratu ziren.

Madrilgo gobernu liberalak ahal zuen guztia egin zuen *La Gaceta* eta *El Boletín del Ejército* desagerrarazteko. Atzematen zituen ale guztiak erre egiten zituen, eta horregatik oso zaila gertatzen da zenbait ale zehatz aurkitzea. Egunkari horietaz gain, lehenengo karlistadan, karrikan botatzeko orriak eta panfletoak agertu ziren, fronte desberdinetan borrokan ari ziren boluntarioak animatzeko. Saihestu ezina gertatzen zen orri horiek zabaltzea, horiek ordezkatzun baitzuten gaur egungo irratia, telegrafoa eta telebista. Izena izaten zuten orrialde guztiek, batzuetan, gainera, barregarri samarra: El Centinela, La Verdad, Cabra Facciosa.

Baina buletin eta panfleto horiek agertzea prentsa berri baten aurreapena baino ez zen izan; antolatuago, mekanizatuago zetorren, irakurle gehiago izanen zituen, eta nazio mailan itxura katoliko-monarkikoa zela esan zen. Joera liberaleko gainerako egunkari nazionalekin aritu zen lehian, nahiz eta hiriburuko gobernutik horren aurkako kanpainak egin ziren.

1839an Madrilen, *La Esperanza* ideologia tradizionalista zuen egunkaria jaio zen; urtetik urtera garrantzi handiagoa hartzen hasi zen, eta 1844an, Pedro de la Hoz zuzendari zuela, oposizioaren egunkari bihurtu zen. Gaitzetsi egiten zuen ustelkeria, moralitate eza eta gobernu liberalen despotismoa. 1852an irakurleen aldetik Espainiako lehenengo egunkaria izatera pasatu zen, baita ale kopuruaren aldetik ere, gaintu egin baitzuten *El Orden*, *El Heraldo* eta *La Época* mitikoak.

El Católico izan zen beste egunkari karlista bat (1840); idazle sonatuek hartu zuten parte egunkari horretan, Jose Cuadrak eta Monescillo kardenala izanen zenak, esate baterako. 1844an *El Pensamiento de la Nación* egunkaria azaldu zen, Balmes filosofo katalanak sortu zuen. 1855ean *La*

Regeneración kaleratu zen, eta azken karlistada bukatu arte iraun zuen; ondoren, aldiz, *La Reconquista* agertu zen. Egunkari horiek guztiek liberalen aurkako ideiak zabaltzen zituzten.

18

NAFARROA, PROBINTZIA HUTSA

18.1. Nafarroako Foruen Legea

Lege gutxi eztabaidatu eta aztertu izan dira 1841eko abuztuaren 16ko legea bezainbeste. Horren gaineko iritzia emana dute historialariek, politikoez, zutabegileek, informatzaileek, juristek eta abar: batzuek Nafarroako eta Espainiako organismoen arteko itun egokia dela uste dute; beste batzuek, berriz, diote liberalen inposaketa izan zela, kontraforu argia ikusten dutenak ahantzi gabe edo Antzinako Erregimenaren egitura absolutistak modernizatzeko erremedioa topatzen dutenak ahaztu gabe.

Antzinako erresuma desagertzea errealitatea zen ordurako, eta *foru-tradizioen* hondakin bakan batzuk baino ez ziren geratzen, Konstituzio batu bakarraren baitan bukatzeko. Erdi aroko eta garai modernoetako foru Nafarroa *itunaren* eta *hobetzearen* gaur egungo Nafarroara iristeko urratsa ematera zihoan; foruek erreferentzia arina baino ez zuten izanen, eskubide historikoak aldarrikatzeko aitzakia gisara baino ez.

Nafarroak Erresuma izaera galdu zuen, eta batasunaren eta Konstituzio monarkikoaren baitan egituratu ziren bere foruak. Lege horrek, foruak aldatzeko, aurreikusten zuen behar zela Gorteen aurrean Gobernu zentralak egindako proposamena, betiere Nafarroako Diputazioaren

informazioa aurretik jasota izanik. Azkenean, onetsi egin zuten Kongresuak eta Senatuak –1841eko abuztuaren 16an– **Nafarroako Foruen Lege** gisara. 26 artikulua ditu, eta artikulua gehienek, *probintziak* gainerako erregioek duten araudi orokorrera nola egokitu behar duen, arautzen dute. *Lege Itundua* esaten zaio, bi gobernuen artean izan zen ituna gogorazteko.

Seigarren eta hamargarren artikulua dira bereziak estatuko gainerako probintzien aldean. Seigarrenean boterea ematen zaio Diputazioari udalerrietako fondoan, eskubidean eta jabegoan barne-ekonomiari dagozkion udalen ordainsariak kontrolatzeko. Hamargarren artikuluan, berriz, esaten da probintziako Diputazioak kudeatuko duela Foru-ogasuna, tabakoa eta gatza saltzeagatik zerga izan ezik. Azkenik, urtean 1.800.000 erreale ordaintzera behartzen du Nafarroa zerga-ekarpen gisara.

Hori ikusirik, eta legeari jarraiki, **erregeordeak, Gortek, Errege Kontseiluak, Kontuen Ganbara eta aduanak** desagertu egin ziren. Horretaz gain, sistema judiziala eta militarra, baita soldadutzarako gizonak *kintoen sistema* bidez ematea eta hauteskunde sistema ere, gainerako probintzietarako onetsita zeuden arauak arautuko zituzten. Nafarroaren berezko lege gisara, herentzia, ondorengotza, jabegoa eta abarren arloko gaietarako Nafarroako eskubide zibila gelditu zen indarrean, sei eta hamargarren artikuluek gain.

Horrela, Nafarroa *probintzia hutsa* izatera igaro zen, hori bai, hainbat abantaila fiskal eta administrazio-abantaila gorde zituen. Hala ere, Madrilgo Gobernuak 1839ko Legearen paragrafo bat erabili zuen, zeinak foruak baieztatzen baititu «batasun instituzionalari kalterik egin gabe», autonomia behin betirako desagerrarazteko. Adibidez, izaera liberala zuen Diputazioa aukeratu zuen, diputazioa baitzen instituzioen eta foruen defentsa egiten ahal zuen Nafarroako organismo bakarra.

Dena den, itxuraz aplikazio erraza zuen legea zela bazirudien ere, praktikan arazo aunitz sortu zitzaizkion hainbat artikulua interpretatzerakoan, batez ere, diru-gaiei buruzkoetan.

18.2. Beste karlistada bat

Lehenengo karlistadaren ondotik, Espartero Espainiako gizon esan-guratsuena bihurtu zen, eta bere handizaletasunak eraginda Maria Kristina alboratu eta bera jarri zen erregeordetzan (1840-1843). Titulurik eta ohorerik handienak jaso zituen: Garaipenaren duke, Lutxanako konde, Bergarako printze eta Espainiako erregeorde.

Nafarroan, Lege Itunduaren ondotik, hazi egin zen nahigabea pent-samendu karlista eta Antzinako Erregimena txalotzen zutenen artean, baina liberalek, aldiz, goretsi egin zituzten haize berriztatzailak. Horrela, lurraldea probintzia modernoagoa bilakatu zen eta gainerakoek baino autonomia handiagoa gorde baitzuen. Ordura arte instituzioen eta foruen defentsa karlisten kausaren elementu edo osagai bat baino izan ez bazen, hortik aurrera eragingarri nagusia izatera pasatuko da, hots, borroka erreibindikatioan goratu beharreko ikur bihurtuko da.

Esparterok –indarrez hartu zuen boterea progresisten laguntzarekin (1840)–, urtebetera arma berberak erabiliz boterea kendu nahi zioten moderatu talde batekin egin zuen topo. Madrilen, Zaragozan, Gasteizen, Bilbon eta Iruñean altxamendua egiteko antolatu ziren.

O'Donnell jeneral liberala, Nafarroako eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako kapitain jenerala izaki, Iruñeko gotorlekuan sartu (1841eko urriaren 1ean), eta kuartelak bisitatu zituen adoretzeko hitzaldiak emateko, baina ez zuen uste bezainbesteko erantzunik jaso soldaduak beraz fidatzen ez zirelako eta bere iragan liberala ageri-agerian zegoelako. Dena dela, 3.000 soldadu bildu eta hirigunea bonbardatu zuen, eta ondoko hirietatik errefortzuak noiz iritsiko zain gelditu zen. Errefortzuak ez ziren sekula heldu porrot egin zutelako, eta orduan Azkarraga koronelari utzi behar izan zio agintea, eta Frantziara alde egin zuen.

O'Donnellek, Nafarroan, beren ondarea modu ez oso etikoan hantitzeko kezkarik izan ez zuten alderdi moderatuko hainbat gizonen laguntza jaso zuen; aipatzekoak dira **Ribed** eta, bereziki, **Nazario Karrikiri**; negozio-gizona zen, senatari eta diputatu, burdindegien sustatzaile, zeina desamortizatutako ondasunen salmentaz baliatu baitzen aberasteko.

Alderdi moderatua boterean izanik, ideia aurrerakoiek harrera ona

izan zuten herriarengan, eta bigarren urrats bat eman nahi zen: herria modernizatu aurrerapen berriak erabiliz. Sufragio zentsataria ezarri zen, berrikuntza teknikoak egin ziren, trena agertu zen, administrazioa zentralizatu zen eta horrekin baita milaka pertsona lanean zituen burokrazia ere.

XIX. mendeko bigarren erdia hasteko bi gertakari nagusi ditugu: Isabel II.a adinez nagusi egin zen –13 urte–, eta boterea diktadura hutsa bilakatu zuen Narvaezek (1844-1851) Espartero boteretik bota zuen; jeneral aditua izan zen Espartero, baina politiko traketsa, nonbait. 1845ean Konstituzio berria aldarrikatu zen, eta Isabel Francisco de Asis Borbonekin ezkondu zen, baina beren erregetza jauregiko presio-taldeen arteko borroka baino ez zen izan. Hiru urte geroago Unión Liberal deitutako alderdia sortu zen, eta behin boterea lortu zuenean, –hor ziren O'Donnell eta Narvaez, alderdiko gizonik adierazgarrienak– Marokoko, Mexikoko eta Ozeano Bareko gerretan hartu zuten parte.

Dena dela, Katalunian **Bigarren Karlistada** sortzeko zorian ze-goen; Karlos V.aren semea erregetzarako aldarrikatu zuen pertsona talde batek altxamendua egin zuen (1846). Ez zen izan bataila handiegirik, ez eta ongi antolatutako armadarik eta jeneral eraginkorrik ere. Isabelen aldekoen aurka altxatu ziren boluntario taldeak izan ziren altxamendua egin zutenak; lehen-lehenik Katalunian, baina Valentzian, Gaztelan, Aragoi eta Nafarroan zabaldu ziren gero boluntario talde horiek.

Nafarroan enfrentamenduak **Añorben, Odietan eta Tafallan** izan ziren; denbora laburra behar izan zuten karlisten buruak preso hartzeko, hainbestetan eskatutako errefortzuak ez baitziren sekula iritsi. Domingo Morionesek zuzentzen zituen talde errepublikanoek ere hartu zuten parte enfrentamenduetan, baina baldintza kaskarragoetan aritu ziren borrokan, Nafarroa behin betiko gobernu zentralaren eskuetara igaro zelako (1848).

18.3. Azken karlistada

1868an Serranok, Primek eta Topetek gidatu zuten mugimendu iraultzailea gertatu zen; horren ondorioz, Isabel II.ak Espainia utzi egin

behar izan zuen, eta Victor Manuel II.a Italiako erregearen semeak, Savoia-ko Amadeok, ordezkatu zuen (1871-1873). Alderdi politikoek erakutsi zioten etsaitasunagatik abdikatu egin behar izan zuen, eta Lehenengo Errepublika aldarrikatu zuten (1873-1874). Baina ideologikoki hain desberdinak ziren hainbeste alderdi politiko egonik eta lehendakaria hainbestetan aldatu zela ikusirik –Figueras, Pi y Margall, Salmeron eta Castellar–, estatu kolpea eman zuen Pavia jeneralak eta Borboien dinastia berrezarri zuen, Alfontso XII.a errege izendatuz (1874) eta bi alderdi politiko laguntzaile paratuz, Canovas del Castelloren alderdi kontserbatzailea eta Sagastaren alderdi liberala. Erregea hil zenean (1885), Alfontso XIII.ak, hots, hil osteko semeak, ordezkatu zuen hura.

Epe horretan **bigarren edo hirugarren karlistada** izan zen (1872-1876), baina historialari aunitzek ez dute bigarren karlistada aintzat hartzen eta soilik bi karlistada izan zirela aipatzen dute. Azken karlistada hori Lehenengo Errepublika kaotiko eta anarkikoaren baitatik sortu zen, ezen boterera iritsi nahian partidu aunitzek (estremistak, moderatuak, unitaristak, federalak) elkarren artean izandako borroketan garatu baitzen, ez baitziren Konstituzioaren lehenengo artikulua onesteko ados jartzeko gai ere izan. Ordenarik ez zegoen, diziplinak eta aginteak porrot egin zuten, eta anarkiak ekintza bortitzak egiten zituzten. Horregatik guztiagatik, karlisten beste altxamendu bat izan zen Nafarroan hala nola Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan; **Karlos VII.a** tronuratu nahi zuten.

Soldadu karlisten artean bertso-lerro hura errepikatzen zen behin eta berriro: «ia bizigarririk gabe gaude, kimurik gabe/ arimarik gabe, bizitzarik gabe, argirik gabe, Kixoterik gabe/ oinik eta hegorik gabe, Santxorik gabe eta Jainkorik gabe».

Karlos VII.ak adoretzeko hitzaldi guztietan aipatzen zuen behin boterea erdiesten zuenean antzinako foru eta askatasunak ezarriko zituela berriro ere Nafarroan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, Aragoi, Katalunian, Valentzian eta Mallorcan, galdurik baitzituzten ordurako: «Espainiako erregionalismoa eta foru sentimendua hain espainiar eta naturalak ziren, legeetan, ohituretan, hizkuntzan eta izateko moduan hain anitza

den herrialde bateko hain berezko ziren, ezen liberalismo iraultzaileak baino ezin izan ditu desagerrarazi».

Gerra 1872ko udan hasi zen, eta berehala **Orokietako** batailan garaitu egin zituzten karlistak, eta baliogabeturik gelditu zen Iparraldeko frontea; orduan gatazka Kataluniara igaro eta han garatu zen, soil-soilik. Zornotzako Itunak, baina, indultu orokorra eman zuen, eta berrantolatatu egin zen orduan Nafarroa eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako frontea; erasoak hasi egin ziren berriro ere iparraldetik; hiri nagusi bat hartu nahi zuten karlistek, eta **Bilbo** setiatu ere egin zuten (1874), baina Concha de Somorrostro jeneralak eta bere taldeak berehala garaitu zituzten karlistak.

Iparraldeko mendi garaiak eta haran sakonak oso egokiak izaten dira operazio militarrek loturarik izan ez dezaten; horrelakoetan nabarmendu egiten dira ekintza indibidualak, gertaera heroikoak eta armen, munizioen eta elikagaien hornikuntzarako zailtasunak ere.

Karlos VII.ak **Lizarran jarri zuen bere Gortea**, eta Madrilgo gobernuaren ahultasunari esker nahikoa askatasunez ibili ahal izan zen, eta estatu txiki bat antolatzeko aukera ere izan zuen. Madrilgo gobernu ahul zegoen arazo aunitz zituelako: lehen lehenik, Kubaren independentzia nahia piztu zelako sortu zitzaizkion arazoak, eta Espainian armadak diziplinarik ez zuelako, eta, bigarrenik, Katalunian altxamendu kantonalista eta karlistak izan zirelako.

Enfrentamendurik lazgarrienak **Jurramendin** (1873ko udazkena), **Abartzuzan** (1874ko udaberria), **Deikaztelun**, **Mañerun** eta **Lakarren** izan ziren, eta horietan karlistak irten ziren garaile. Animu horri eutsita eta liberalek atzera egin zutelak ikusita, Iruñea **blokeatu** zuten, baina, berriro ere, porrot egin zuten, lehen Bilbon gertatu zen bezala. 1874 urtean Alfontso XII.a aldarrikatu zuten errege.

Tropa liberalek Kataluniako frontea errotik erauzi zutenean, liberalen indar guztia iparraldeko fronteari begira jarri zen. 1876ko otsailaren 19an Lizarran sartu ziren, eta nahiz eta karlistek lubaki-gerra egin, garaitu egin zituzten, liberalekin alderatuta haiek zuten artilleriaren, infanteriaren eta zalditeriaren erdia zutelako karlistek.

Nafarroan harreman estua egon zen karlismoa eta euskararen artean.

Euskarak, eremu euskaldunetan, ideia liberalen aurkako hesi babeslearen lana egin zuen, eta bereziki herrietako erretoreek bultzatua. Nafarroako hegoaldeko eremua, aldiz, ideia liberalen aldekoagoa zen, eta horretan zeresan handia izan zuten gaztelerak eta prentsak.

Karlismoaren gaia bukatzeko, hainbat topiko argitu behar dira: Lehenengoa: «karlismoak oihartzun handiena nekazarien artean izan zuen», egia da, baina ez dugu aiantzi behar jenderik gehiena nekazaritza-tik bizi zela; bigarrena: «beren armadetan gehienak boluntarioak ziren», ezin kontrakorik esan, baina gogoratu behar da Bigarren Karlistadan boluntario gehiago zegoela liberalen taldean karlistenean baino; hirugarrena «karlismoak arrakasta nekazaritza eremuetan izan zuen soilik, eta haietatik elikatu zen», zentzu batean logikoa zen, ezen hiri batean armada bat osatzea estatuko aparatu guztia aurka duzula, tropa militarrek barne, hasi baino lehen gerra galtzea zen. Horregatik esan behar da karlisten soldaduen artean nekazariak, hirietako gizonak eta gizarte alor guztietako pertsonak zeudela.

18.4. Tejada-Valdoseraren Ituna

Alfontso XII.ekin borboien monarkia itzuli eta Espainiarentzat egonkortasun, askatasun politiko, pluralismo eta matxinadarik gabeko garaia hasi zen. 1875 urtea Canovas del Castillok gobernuan txandakatze sistema jarri zuen urtea izan zen; txandakatu egiten zuten gobernuak Canovasek berak zuzentzen zuten kontserbadoreen alderdiak eta Sagastak zuzentzen zuten liberalenak.

Dena dela, normaltasun horrek ez zuen demokraziarik ekarri, ezen nazioko pertsona esanguratsuenek zuzentzen zituzten *tokian tokiko kazi-keek* Estatu osoa gainbegiratu, maneiatu eta kontrolatu baitzuten. Ez zuten jakin gizartearen *muinera* iristen, hau da, ez zuten jakin nekazaritza-erreforma egiten, hasi berria zen industria txikia laguntzen, ez eta langileen egoera penagarriei erantzuten ere, zeinak lan ordu aunitz egiten baitzituzten, baldintza higieniko txarrak baitzituzten eta ez baitzuten gaixotasunagatiko asegururik izaten.

Gainerako probintzietan zegoen giroa zegoen Nafarroan ere, eta gerra bukatu bazen ere, oposizioko taldeak bizirik zirauen. **Cerralboko markesak** eta **Vazquéz de Mella** ideologoak zuzentzen zuten orain oposizioko taldea. Jurramendi hartu zutenean jo zen bukatutzat gatazka eta, era berean, Primo de Rivera Lizarran sartu (1876) eta Alfontso XII.a Taconeratik Iruñean sartu zenean.

Karlistek gerra galtzeak ondorio oso txarrak ekarri zituen Nafarroarentzat; 1876an Gorteetan onetsitako Lege proiektua dugu horren adibide, lege proiektu horrekin foruak desagertzea lortu nahi zuten, baita fiskalki Nafarroa gainerako probintziekin parekatzea ere; horretarako Canovasek batzorde bat era zedila esan zuen 1841 urtean ezarri zen zerga-ordainketa berraztertzeko. **Tejada-Valdosera Itunak** (1877) –izen hori hartu zuen komisari gisara bidali zen nafarrak izen hori zuelako– zerga-ordainketa aldatu zuen, eta 8 milioi errealetan ezarri. Nafarroak horren ordainetan gobernu zentralari eskatu zion 1841eko Legeari egiten ahal zitzaizkion aldaketak egin zitezela aurrez Diputazioaren onarpena izanda. Baina Diputazioak emandako aholku eta egindako eskaerei ez zien jaramonik egin, eta Madrildik bidaltzen zizkieten, onartu ahala, errege-aginduak, dekretuak eta abar, lehen lehenik gatzaren zerga eskatzeko, gero alkohol eta edariei zegokiena eskatzeko eta horrela bata bestearen atzetik etenik egin gabe. Dena den, Nafarroak gorde egin zituen 1841 urtean hitzartu zituen araudi fiskal berezia eta udalen baitako kontrola.

18.5. Alderdi politikoaren aniztasuna

Estatu mailan ideologia aukera zabala zegoen, Nafarroan ez zen gutxiago, eta gainera mugimendu berriak antzeman zitezkeen karlisten alderdiaren barnean. Alderdi politiko hauek zeuden: liberalak, kontserbadoreak, karlistak, integristak, errepublikarrak eta foruen aldeko mugimendua.

Karlismoak, nahiz eta 1876ko gerra galtzean krisian sartu zen, 80ko hamarkadan goratu egin zuen bere ahots-tonua, eta 1890 urteko hauteskundeetan oso emaitza onak izan zituen Nafarroan. Vazquez de

Mellak bere hitzaldi, diskurtso eta panfletoen bidez berpiztu egin zuen karlisten garra. Horretarako herri eta barruti-batzarrak sortu ziren eta gune katolikoak zabaldu ziren Lizarran, Tafallan, Bianan, Lodosan, Urantzian eta abar. Mugimendu horretan ezin ahaztu 1834 urtean, *Gaceta del Real Oñate*-rekin sortu zen prentsa idatzia, zeina orain *La Lealtad Navarra* eta *El Pensamiento Navarro*-rekin (1897) indartuta baitator. Egunkari horiek jarraitzaileak gehienak Lizarrako merindadean eta Iruñerrian zituzten: herritar soilak, klase ertainekoak eta parrokia xumeetako apaizak ziren, gehien batean landa-eremukoak.

Berehala nabaritu zen elkarren aurkako ideiak zituzten bi adar zehelak karlisten artean: legitimista bat, zeina moderatuago baitzen erlijio gaietan, eta integrista, bestea, zeinak muturrerago zeuden ideiak baitzituen erlijio gaietan. Zatiketa ekarri zuen horrek eta Karlos VII.ak bota egin zituen bere jarraitzaileak, baita bere zenbait egunkari ere, adibidez, *El Tradicionalista* egunkaria. Erradikalak ez ziren gehiegi errotu herrian (neokatolikoak eta klero ilustratua), eta katolizismoaren ikurra goratzen zutelako bereizten ziren, baita gainerako alderdi politikoeekin izaten zituzten etengabeko liskarreatatik ere.

Bestalde, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, beren foruak galdu zituztelako (1876) eta instituzioak zentralizatzeko egin zen ahaleginagatik, foruen aldeko mugimendua sortu zen; helburua zen *euskaltasunari* lotutako gauza oro berreskuratzea. Bi urte geroago, Nafarroan **Euskara Elkar-goa** sortu zen; Juan Iturralde y Suitek bultzatu zuen, zeinak Iruñeko bere etxean Nicasio Landa, Arturo Campion, Estanislao de Aranzadi, Salvador Etxaide, Florencio Ansoleaga eta abar bildu baitzituen; guztiak ziren liberal moderatuak eta karlistak. Euskara gorde, zabaldu eta aztertu nahi zuten, baita euskal historia eta literatura ere, eta Lege Itundua sinatu ondoren Nafarroak zuen egoeraren berri eman nahi zuten. Talde horren ideiak zabaltzeko *Euskara* aldizkaria argitaratu zuten, euskaraz eta gazteleaz.

Talde horrek ez zuen alderdi politikorik osatu, baina izan zuen zer esana gizartean, eta beren arreta kultura arloan nahiz arlo politikoan jarri zuten. «Zazpiak-bat» zen beren leloa, eta beren intsignian Gernikako

arbola ageri zen, gurutze bat eta zazpi mendi zituela. Horiek zazpi lurralde historikoak ordezkatzeko zituzten. Beren ikurra *Jaungoikoa eta Foruak* leloan oinarritu zen, eta beren egunkari nagusiak *El Arga*, *Lau-Buru* eta *El Aralar* izan ziren.

Ideologo nagusia **Arturo Campion** izan zen. Campionek aldarrikatu zuen, euskal herria definitzen duen funtsezko osagaietako bat bere hizkuntza dela, eta Sabino Aranaren nazionalismoari kontrajartzen zaio, Aranak *arraza* goraituzten baitzuen. Hizkuntza «ezaugarri nagusia da ezaugarri guztien artean» esaten zuen Campionek. Euskaroek, beraz, helburu foralistak eta federalistak zituzten, estatuaren berrantolaketa nahi zuten, lurralde bakoitzaren berezitasunak errespetatu ahal izateko. Beren ideiek ez zuten behar adinako babesik izan, eta mugimendu hori 1883an hil zela esan daiteke

18.6. Gamazada

Alfontso XII.a hil zenean (1885), Maria Kristinak hartu zuen errege-ordetza, eta boterean txandatze sistema ezarri zuen Sagasta eta Canovasen artean. 1890ean Kuban eta Filipinasen espainiar kolonien matxinadak sortu ziren, eta horri Marokoren altxamendua gehitzen badiogu, krisi ekonomiko larri batekin egiten dugu topo, eta sosik gabeko Ogasunarekin, zeinak baliabide berriak behar baitzituen. Orduan, baliabide berriak lortzeko gogortu egin zen gobernuaren politika fiskala.

1893ko maiatzaren 10ean, Valladoliden **German Gamazo** Ogasun ministroak lege proiektu bat aurkeztu zuen, Nafarroan gainerako lurraldeek zituzten **kontribuzio, zerga eta errenta berberak** ezar zitezten, proportzionaltasun irizpidea erabiliz. Diputazioa kexatu egin zitzaion Madrili, erabaki hori 1841eko Lege Itunduaren aurkakoa zela esanez.

Berri hori berehala zabaldu zen hiri eta herrietan, eta manifestazioak egin ziren Iruñean, Tuteran, Tafallan, Lizarran eta Zangozan. Herriak egindako erregu hori aprobetxatuta, **Alberto Larraondo** Iruñeko alkateari eskatu zitzaion hiriburuan manifestazio handi bat antola zezala. **1893ko ekainaren 4an**, igandearekin, Nafarroako udalerrri guz-



FORUEN OROITARRIA IRUÑEKO SARASATE PASEALEKUAN. 2003an ehun urte beteko dira irudi hori bukatu zenetik. 1893ko Gamazadak balio izan zuen nafar guztiek, baturik, euren erakundeak eta legeak defenda zitzaizten. Urte hartako ekainaren 4ko manifestazioan bildutako jende alde izugarriak, eta ondorengo sinadura bilketak (120.000) balio izan zuten Gamazo ministroa kargutik botatzeko eta, behin betiko, desagerrarazteko Nafarroako kontribuzioak gainontzeko probintziakoekin berdintzeko lege-proiektua.

tietako bizilagunek eta ordezkariak hiriko karrika nagusiak zeharkatu zituzten, eta ondoren sinadura bilketa egin zuten. 120.000 sinadura bildu zituzten.

Estatuko egunkariak zabal eman zuten manifestazioaren berri, eta aurkaritza hori ikusita, Gobernu zentralak zuzendu egin zuen testua, baina Diputazioak, hainbeste jende bildu zuen manifestazioak emandako babesari helduta, ez zuen onartu, eta negoziazioak bertan behera utzi zituen. Gai korapilotsu horrek Sagasta eta Gamazoren artean liskarrak sortu zituen, eta Gamazo kargutik kendu zuten. Madrilgo Gobernuak zituen kanpo arazoek –Kubako gerra– eta eskubide historikoen alde Nafarroan antolatzen ziren etengabeko mugimenduek beldurra sortu eta gauzak zeuden bezala uztea eragin zuten, eta aurreko sistema fiskalak jarraitu zuen indarrean.

Garaipen horrek mesede egin zien Nafarroak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarekin zituen harreman onei, eta «Laurak bat» leloa bultzatu zuten. Horretaz gain, Sabino Aranak garai hori aprobetxatu zuen Iruñera etorri (1894 urteko otsaila) eta foruen aldekoekin elkarrizketatzeko, baita, bide batez, Nafarroan euskal nazionalismoaren oinarriak sustraitzeko ere.

Manifestazio herrikoi handi haren oroimenean –orduz geroztik Gamazada izenez ezagutzen da– **Foruen aldeko Monumentua** jaso zen. Martinez de Ubagoren obra da (1903) eta gaur egungo Sarasate pasealekuan dago, Diputazioaren aurrean. 25 zentimoko gutxieneko kuota eta 25 pezetako gehienekoa ezarri zen, nafar guztiek monumentua egiten lagun zezaten; foruak defendatzeko garaian batasunaren eta elkarlanaren sinbolo da. Monumentuak goialdean 5 metroko garaiera duen brontzezko andere handi bat du, Nafarroaren irudia da, eta bere eskuineko eskuan Foru Legea du ikusgai.

NAFARROA HIRITARRAREN ETA INDUSTRIALAREN BIDEAN

XIX. mendea gainbehera etortzeko garaia eta krisi garaia izan zen Espainian. Izan ere, gerra ideologikoen, borroka sozial eta politikoen, baita Espainiak zuen geldialdi ekonomikoak eta Kuba nahiz Filipinetan zituen koloniak galdu izanak, bigarren mailako potentzia bilakatu zuten Espainia.

Nafarroan, nabarnuen kaltetu zuten ekonomia Independentzia gerrak eta Karlistadek, jasotako uzta txarrek, nekazaritzan berrikuntza teknologiko gutxi sartu izanak, jabetzaren planifikazio ezak eta nekazaritza ustiapenak. Iraupenezko nekazaritza baino ez zen egiten, XIX. mendeko lehenengo erdian.

Mendearen bigarren erdiak argitasun handiagoa ekarri zuen, baita baikortasun handiagoa ere: lurrak luberritu ziren, herri-lurrak ustiatu ziren, alorretan belarri-goldearekin hasi zen lan egiten, ardoaren prozesua modernizatu zen, eta lehenengo aurrezki kutzak sortu ziren. Nafarroak berandu heldu zion industrializazio prozesuari, gerra zibilek eraginda biztanleria gutxitu zelako, baliabide mineral eta energetiko gutxi zituelako, eta itsasora zabaltzeko kairik ez zuelako.

19.1. Autohornikuntzatik nekazaritza-ekoizpenera

Nafarroak nekazaritza-probintzia izaten jarraitzen zuen ia bere osotasunean. **Nekazaritzan eta abeltzaintzan** oinarritutako ekonomia zuen, eta, beraz, biztanleen %83 nekazaritza-herri eta herrixketan bizi zen; lan gogorra zuten egiteko, egitura zaharkituak eta garatu gabeak zituzten. Nekazaritza-ekonomiaren oinarria alorretatik ateratzen zituzten produktuetan zegoen: laboretan, mahatsondoetan eta olibondoetan. Nekazaritza-iraultza ez zen iritsi XIX.enaren azkenera arte, labore-teknika aurreratuagoak sartu ziren orduan, adibidez, golde simple batetik belarri-goldea izatera pasatuz. XIX.aren hasieran patata landatzen eta artoa ereiten hasi ziren, mahatsondoak gehitu egin ziren, baina, dena den, nekazaritza-ekonomia **autohornikuntzan** oinarritu zen mende horren lehenengo zati osoan. XIX. mendearen bukaeran biztanleen bi heren baino gehiago oraindik ere nekazaritzatik bizi zen.

XIX. mendearen bigarren erdia itxaropen handiagorekin bizi izan zen, ezen aukera berriak ireki baitzituzten desamortizazio zibilak (1855), lehorreko lurren luberritzeak, trena azaltzeak, mahatsondo gehiago jartzeak, nekazaritza teknika berriak abian jartzeak, ureztatze sistemak hobetzeak eta banku berrien sorrerak.

Laborearen ekoizpena sustatu zen, inportazioak gutxiagotzeko. Baina oraindik ere gutxi zen ereiten zen azalera (azaleraren %25); gehien, portzentajeetan, laborea ereiten zen, gero mahatsondoa, eltzekariak (babak, babarrunak, barazkiak eta bazka-landareak), eta olibondoak, eta mendearen bukaeran azukre-erremolatxa. 1879 urtetik 1906 urtera, ordura arte lantzen ziren 250.000 hektareetatik 274.000 hektarea landatzera igaro zen. Frantzia filoxeraren izurritea antzeman zen, eta, beraz, eskari gehiago izan zituen esportaziorako ardoak, baina kalitate hobea eta prezio baxuagoa zuten beste herrialde batzuetako laboreek hemengoei egiten zien lehiak ekoizpenaren murriztea eragin zuen.

Erdialdean eta Erriberan, bereziki, Bardeetan eta Zierzo mendian egin ziren korralizetako lurren luberritzeak etekin handia ateratzen zien laboreei. Baina horrek ardi-azienden buru kopurua gutxitzea ekarri zuen, ezen partikularrek ez baitzuten lekurik buru horiek bazka zezaten. Korra-

liza horiek desamortizaziotik zetozen, eta esku pribatuetara igaro ziren batzuk; besteak errentan hartzen zituzten, edo utzi egiten zieten udalek edo kontzejuek. Beraz, behi-azienda baino ez zen geratu, baina ez bazkaleku-komunetako hedadura handietan, bazkekin elikatutako ukuiluetan baizik.

Lurrak bazka-lurrak izatetik lur-emankor izatera aldatzeak istilu larriak sortarazi zituen (Erriberri, Tafalla). Izan ere, udalek edo lur-jabeek korralizeroei eskatzen zieten lurrak itzultzeko, ezin baitzituzten nekazaritzarako erabili. Baina uko egin zioten lurrak itzultzeari, ezen etekin hobea ateratzen baitzuten landutako lurretatik larreetatik baino. Erriberan ez zen halako gora-beherarik egon, erosleek lurren eskubide guztiak lortu zituztelako, eta berehala egokitu zirelako teknika berrietara. Nafarroa iparraldean abeltzaintza tradizionalak jarraitu zuen aitzina, komunal gutxi saltzen zelako.

1896an, **filoxeraren izurritea** azaldu zen Etxaurin, eta berehala mahastiak zituzten 50.000 hektareatan barna zabaldu zen; gertaera hori bat etorri zen Frantziara egiten ziren esportazio kopuruen beherakadarekin, eta 1882an esportatu ziren 11 milioi hektolitrotatik, 1.200.000 hektolitro izatera igaro zen, 1901ean. Izurrite horrek krisi ekonomiko larria sortu zuen ardoa egiten zen eskualdeetan, bereziki Nafarroa hegoaldean, baina lurrak beste nekazaritza-produktu batzuetarako erabiltzea eragin zuen horrek.

XIX. mendearen azken urteetan **nekazaritza-kooperatibak** sortu ziren; helburua indarrak batzea produktuaren kalitatea hobetzeko. Lurren gaineko ikerketak egin ziren, eskualde bakoitzerako nolako laboreak komeni diren aholkatu zen, hitzaldiak eman ziren eta zein ongarri botatzea komeni zen aholkatu. 1896an sortu zen Diputazioaren Probintziako Nekazaritza Zerbitzua, eta mahatsondoen ikerketari ardurua handia eskaini zitzaion: mintegiak landatu ziren, mahatsondoaren txertoetan saiakuntzak egin ziren eta dirulaguntzak eman ziren zergen beharpen sistemaren bidez.

Nafarroan alde hauek bereiz ditzakegu: Mendialdea edo alde hezea, hedadura handiko belardiak daude eta artoaren laborantza intentsiboa egiten da; Iruñerrian, laboreak ereiten dira (garagarra eta garia)

mahatsondoaren kaltetan; erdi-ekialdean, laboreak eta mahastiak; erdi-mendebaldean edo Estellerrian, azpieskualdeen arabera, abeltzaintza, laboreak, mahastiak, barazkiak eta bazka; Erriberan, laboreak, mahatsondoa, olibondoa eta barazkiak.

Ekoiuzpenaren hazkundera benetakoa izan zen ordurako, lursailek hartu zuten hedadurarengatik eta produktuen kalitateagatik, ongarri kimikoengatik, golde berriengatik, sega makinengatik eta eultzitzeko makinengatik.

19.2. Oihan eta abeltzaintza-ustiapena

Baso-ustiapena ezinbesteko erreferentzia da aberastasun iturri garrantzitsua delako, batez ere, mendi aldean. Azpimarragarrienak hauek dira: makaldiak (Erriberan); sagarrondoak, urkiak, gaztainondoak (alde atlantikoan); basa-pinua eta pinu beltza (Pirinioetan); artea (Lokiz, Andia eta Deierren), eta pagoak eta haritzak (Kintoan, Iratin, Urbasan, Andian, Aralarren eta abar). Almadietan garraiatzen zituzten ugaldeetan barna. Horretaz gain fruituak ere biltzen ziren: hurrak, intxaurrak, gaztainak gizakiaren kontsumorako edota ezkurra, aziendarendako.

Almadien trafikoak, dokumentazio zaharrenen arabera, XIV. mende-koak dira. Zaraitzu, Eska, Irati eta Aragoi ugaldeak almadiekin egiten zen ibai-garraiorako erabiltzen ziren. Almadiak elkarri lotzen ziren hainbat egurrez egindako baltsak ziren; ibaian behera eramaten ziren eta arraun luzeekin gidatzen, ugaldean barna. Zangoza merkataritza gune nagusi bilakatu zen, batez ere, XVIII. eta XIX. mendeetan, baina XX. mendean gainbehera etorri zitzaion Esako urtegia egin zelako, eta garraioak errepidez egiten hasi zirelako.

XIX. mendean abeltzaintzak garrantzi handia hartu zuen, baina nekazaritzak baino neurri txikiagoan. Garrantzi handien mendi aldean hartu zuen abeltzaintzak, ezen hegoaldean korralizak labore-lur bilakatzeko horrekin, aziendak beherakada izan baitzuen. Aziendaren artean **behiak** ditugu alde batetik, behi txikiak dira eta kolore arre-gorrixka dute; **ardiak** ere baditugu, Nafarroako *latxa* eta *rasa* arrazak, baita *txurrak* eta mestizoak ere; **zaldiak** ere badira, Burgete arrazako zaldia esate baterako, edo Nafarroako behorra, eta, azkenik, **zerriak**, mendiko-zerrama nagusi dela.

Aziendak herri-lurretan bazkatzen du (ibarraren edo kontzejuen herri-lurrak), baita partzuergoetan ere. Partzuergo horiek kontzeju, udal-herri edo probintzien artean hitzartutako akordioen bidez hainbat jabereren lursailak izaten dira; hitzarmen horien bidez mugakide ziren herrien artean izaten ziren kexa, liskar eta istiluekin bukatu nahi zen. Azalera osoaren %8 izaten zen. Bazkatzeko beste modu berezi bat **trashumantzia** izaten zen. Beheranzko trashumantzia egiten zen batetik, hau da, Mendialdeako artaldeak udazkenean hegoaldera (Bardeak) jaisten ziren, elurretatik eta hotzetik ihes egiteko. Goranzko beste trashumantzia bat ere bada, hau da, hegoaldeko aziendak uda partean mendialdera emigratzen du elikagai bila. Mistoa ere bada: azienda-taldeak inguruetan bazkatzen du eta gauean artegi, *saroe edo txabolak* dituzten bordetara biltzen dira artzainak atseden har dezan. Aipagarriena **Bardeetara, Urbasara eta Andimendira** azienda ekartzea zen.

Azienda leku batetik bestera garraiatzeko **abelbideak edo altzubi-deak** sortu ziren. Abelbide horiek, zuten garrantziaren eta zituzten dimentsioen arabera, errege-abelbideak, zeharkakoak, iraganekoak edo abelbideen adarrak izan zitezkeen. Garrantzitsuenak hauek dira: Taustetik Urbasa-Andiara doan errege-abelbidea, zeinak 135 kilometro baititu; Milagrotik Aezkoara doana, zeinak 135 kilometro baititu; Murillo el Frutotik Zaraitzura doana, zeinak 95 kilometro baititu, eta erronkariarren errege-abelbidea, zeinak 135 kilometro baititu.

Ehiza eta arrantza ere aipatu behar dira, baina gehiago ziren familiako ekonomiaren osagarri eta horri laguntzeko, lanbide edo negozio baino. Tradizio gehien duenetako bat Etxalarren sareekin egiten den usoaren ehiza da, baina estatuko gainerako lekuetan debekaturik dago. XVIII. mendera arte ehiza nagusia erregeek eta nobleek baino ez zuten egiten, baina suzko armak zabaldu ziren heinean, eskualde guztietako bizilagunen artean zabaldu zen ehiza-mota hori. Basurdea, oreina, orkatza eta adarزابala ziren gehien ehizatzen ziren animaliak. Ehiza txikian, berriz, untxia, erbia, usoa, eperra, oilgorra, birigarroa eta usapala. Arrantzan, aldiz, amuarraina eta izokina arrantzatzen zen batik bat; izokina, gainera, ia Bidasoa eta Ezkurra erreketan bakarrik aurki daiteke.

19.3. Azokak eta merkatuak

Nafarroak behin betiko galdu zituen ordura arte Gaztela eta Aragoiren mugan jartzen zituen aduanak, Gobernu zentralak hala aginduta; asmoa estatu osoan produktuen merkataritza librea egitea zen, eta prezioak jaitea. Baina bertan jarraitu zuten *kateen* kontrolak. Izen hori hartu zuten bideetan, pasabidea oztopatuz, trabak jartzen zirelako, eta horrela merkantzien garraioa behatzen ahal zuten.

Hegoaldeko ekoizleentzat neurri horrek onurak ekarri zituen, laboreek eta ardoak bizilagunen artean zabaltze handiagoa eta salmenta handiagoak izanen zituztela ikusten baitzuten. Baina iparraldeko eskualdeek kalteturik ikusi zuten beren burua muga Pirinioetara lekualdatu zelako, ordura arte Frantziarekin harreman estua izan baitzuten, gutxieneko arantzelak ordaintzen zituzten eta estraperloan aritzen ziren. Frantziarrei merke erosten zizkieten produktuak, eta gero Gaztela eta Aragoiri saldu, irabazi handiak atereaz.

Baina ez da bat ere garbi geratu hegoaldeko jauntxoek irabazi handiak lortu zituztenik aduanak kenduta, ez eta iparraldearentzat halako kalteak ekarri zituenik ere laboreen, ardoaren eta artilearen salmentak. Bestalde, eskualdeetako bizilagunek ere erosteko ahalmen handiegirik ez zutenez, ezin inportazio handiak egin, eta, beraz, oihalak, altzairua, beira, kakaoa, azukrea eta espezieak baino ez zituzten erosten.

Barne merkataritzak ez zuen garrantzia handirik hartu, autohornikuntzarako joera baitzegoen. Produktuen soberakinak XII. mendera arte burguetan komertzializatzen zituzten, eta XIII. mendean asteroko azoketan. Garai modernoan ere produktuen trukea egiten jarraitu zen, eta trukeak gora egin zuen XVIII. mendean, bide berriak egin ziren, beraz, produktuak batetik bestera garraia zitezkeen eta salerosketak egin, feria eta azoketan. XIX. mendearen hasieran, hileroko, hamabosteroko edo asteroko 30en bat azoka zegoen Nafarroan, baita urteroko edo biurteroko feriak ere; nekazaritza-soberakinak eta produktu manufakturuak salerosten ziren.

San Ferminekoa, Auritzekoa, Otsagikoa, Lizarrakoa, Altsasukoa eta Tafallakoa ziren **azienda feria** aipagarrienak, zeinetan zama-lanetarako animaliak (idiak eta mandoak) erakusten baitziren, baita hazteko azienda

(behiak, ardiak eta txerriak) ere. Lizarran astero ostegunetan egiten den azoka 1164 urtekoa da, San Andresko feria 1251ekoa eta Iruñekoa, berriz, 1381ekoa. Estatu osoko produktuak saltzen ziren: likoreak, oihalak, nekazaritzako azken aurrerapen teknikoak, eta, nola ez, azienda. Etxabee-tan jartzen diren dendak ez ziren oso ohikoak izaten, eta, Nafarroa iparaldean izan ezik, feria eta azoka horiek aprobetxatzen ziren urtean zehar lortzea zail gertatzen ziren produktu eta tresnak erosteko.

Nafarroa iparraldean batez ere, gizarteko zenbait sektorek elementu bat gehiago batzen zioten etxeko ekonomiari: kontrabandoa. Logikoa denez, ez da jarduera horri buruzko daturik, baina XVI. mendetik XVIII.ene-ra oso jardunbide zabaldia izan zen, bai Frantziako muga, bai Gaztela eta Aragoikoetan. Baina XIX. mendean sekulako krisian sartu zen kontra-bandoa, alboko probintziakin muga egiten zen eremuan zeuden aduanak desagertu egin zirelako, Frantziarekin muga egiten den eremuan jarriz.

Horietariko askok, dena den, ez zieten legeei jaramonik egin; beren ondasuna arriskuan jarri zuten, baita, batzuetan, beren bizitza ere, edozein eratako produktuz beterik mendiak, bideak eta ibarrak zeharkatzen zituzten, eta, noski, egintza horiekin agintariei burla egiten zieten. Arrazoiz deitu izan zaio jarduera honi **kontrabandoaren industria**, produktuak merke erosi eta gero, bat ere zergarik ordaindu gabe, garesti saltzea negozio handia baitzen.

Benetan interesgarria da A. Ayestaranen *El Iruñea del 88* irakurtzea; Ayestaranek Gazteluko Plazako Iruña kafean bizi zen giroaren berri ematen digu: «Iruñea kafea beti nabarmendu izan da bertan izaten den baserritar giroagatik. Hara joaten dira gure inguruko nekazariak eta mugakide diren ibarretakoak ere. Badakite igandearen onena larunbat arratsaldea izaten dela. Giro ekonomiko eta kuxkuxero horretako salerosketa txikiaren usaina duen ororen kontratazio loja eta durundi-kutxa da, zeinetan ez duen gutxi jokatzen Iruñerriko laborarien azerikeriak. Burt-saren unea zein den usaindu ere egiten da, hori izaten baita, herritarren azken zalantzak islatzen dituen termometroa. Finean, karrikako jakinduriaren unibertsitatea baino ez da. Izan den eta izanen den guztia eztabai-datzen da hor».

19.4. Industria hasi berria eta aurrezki kutxa gutxi sortzea

Europar bizitza ari ziren industria iraultzaren mugimendua oso urrun zebilen Nafarroatik. Espainiara ez zen mende bukaera arte iritsi, eta, zehazkiago esanez, Katalunia aldean eta Euskadin finkatu zen. Nafarroan berriz, hasi berria baino ez zen, eta, beraz, ez zen nahikoa herrialdea hornitzeko, oso langile gutxik egiten baitzuen lan industria horietan. Esan ere ezin esan fabrikak zirenik, artisau-tailerrak baino ez baitziren, batzuetan, gainera, familiartekoak. Oro har, ez zuten 20 langile baino gehiago izaten, eta XVIII. mendeko teknikak erabiltzen zituzten.

Artisautza gisa ulertu behar dugu, nagusiki eskuekin egiten den jarduera, nahiz eta makinak erabili jarduerari laguntzeko, baita produkzio gutxi izaten duten jarduerak ere, hau da, lantze txikiak dituztenak, eta, horietaz gain, langile gutxiarekin egiten diren jarduerak dira artisaulanak. Pascual Madoz nafarrak XIX. enaren erdi aldera 17 burdinola zeudela dio Nafarroa hegoaldean, zeinak zaharkituak baitzeuden eta jarduketa gutxi baitzuten Bizkaiko burdinak egiten zien lehiagatik. Zentzugabekeria litzateke Bizkaitik burdin-minerala ekarri, eta hemen ateratakoarekin nahastea, ezen burdin garestiagoa ekoiztuko bailitzateke, eta, gainera, klase okerragokoa.

XVI. mendetik XVIII. enera jarduerak ehungintzan, larruaren eta metalaren sektorean finkatu baziren, XIX. enean **industria minoritario eta bazterrekoa** hasi zen, gehienetan nekazaritza eta abeltzaintza jardueratik eratorritakoa; lehen Karlistadatik aitzina artisaugintza, nekazaritza eta basogintza garatu zen.

Orbaitzetako ola aipa genezake: mendialdean eraiki zen, burdina gertu zuelako, baita basoak ere; munizioa egiten zen ola horretan, eta Nafarroak parte hartu zuen gerra guztien mira izan zen. Suntsitu egin zuten frantsesek, berreraiki egin zen gero, geldiarazi egin zuten ondoren eta bertan behera utzi zuten, azkenik, 1873an. Produktuak garraiatzeko bide faltak eta hain urrun egoteak garestitu egiten zuten produkzioa. Beste industria txiki batzuk hauek izan ziren: Atarrabia eta Oroz Beteluko paper-fabrikak, Lizarrako txapel-fabrika, Agoizko iruleen fabrika, Bera eta Altsasuko galdategi txikiak eta elikagai eta kontserba-industriak.

XIX. mendera arte Nafarroak burdin meategi txikiak izan zituen. Burdinoletan ustiatzen ziren meategi horiek, baina XIX.mendean ez zen ordurako errentagarri gertatzen, eta gauza bera esan genezake, kobre, berun eta zilar meategiei buruz, bai eta Getzekoei buruz ere; gatz potasioenak eta magnesitenak baino ez zuten iraun. Irabazi handirik ere ez zuten izan Belateko zohikatz eta Jaitzeko huila eta lignito ustiatuek ere.

Mendearen azken bi urteetan nekazaritza transformazioko bi enpresa eraiki ziren: Tuterako (1899) eta Martzillako (1900) **azukre-lantegiak**. Energia elektrikoa noiz agertuko zain egon beharko dugu, produkzio industrialari ezarri ahal izateko.

Industria loratzen ari ez bazen, logikoa da banku etxeak ere pixkanaka pixkanaka eta gutxi agertu izatea. 1864an Crédito Navarro y el Agrícola sortu zen, nekazarietako maileguak emateko asmoz. Iruñeko jende xumearen artean, alabaina, konfiantza eta harrera hobea lortu zuen Udal Aurrezki Kutxak, zeina Udalak sustatu baitzuen 1872an, bai eta baserri-tarren kutxek ere, zeinak herrietan ezarri baitziren nekazaritza arloko aholkuak emateko, eta nekazari eta artisau-dendei maileguak emateko.

Nafarroan, **Kreditu kooperatibak edo kutxa ruralak** Tafallan (1902) eta Erriberrin (1905) izan zuten hasiera, soroetarako ongarri artifizialak lortzeko eta nekazarien elkarreentzako nekazaritza-makinak erosteko, nekazariak batu egin baitziren baliabideak errentabilizatzeko. Beraz, esan daiteke, kasu askotan enpresa-mugimendua, helburu bera zuten bizilagun batzuk bildu zirelako sortu zela, edo, gauza bera dena, elkarre bat sortu eta haren baitatik, eta ez kreditu bat eskatu zuen jaun baten ekimenetik edo enpresa eraikitzeko aski diru bazuen jaun baten ekimenetik, baizik eta nekazari txiki eta ertainen talde batetik. Enpresak, beraz, kooperatibismoaren baitatik sortu ziren.

19.5. Errepide bidezko garraioa

Gizakien asentamenduak beti egon izan dira harremanetan komunikabide naturalekin, gizakiak isolaturik senti ez zitezten, beste herri batzuekin harremanetan baizik, eta horrela beren sinesmenak, ohiturak, bai

elikagai, bai azienda soberakinak, eta beren eskulanak elkar trukatu ahal izaten zituzten. Gertaera jakinak zirenean familiak elkarrekin bildu zitezkeen, bideei eta garraioari esker.

Nafarroak beti izan ditu geografiaren lau puntu kardinalak zeharkatu izan dituzten bideak; erromatarren galtzadekin eta Donejakuerako bideekin hasi ziren. 1740an ugaritu egin ziren bide horiek errege-bideak egin zirelako.

Foru Orokorrek bide hauek bereizten zituen: Donejakuera zihoan ibilbidearen bide-frantsesa, errege-bideak, zeinak estriboak eta hankak zabalduz zaldiz zihoazen hiru gizonendako lekua izan behar baitzuten, herritik herrira zihoazen herri-bideak eta lau oin zabal ziren bidexkak.

Beraz, garraio sistema nagusia **lurrez** egiten zena izan zen, bereziki, errepideak eta trenbidea, baita ontziendako ibaiko bideak ere Erriberan, eta iparraldean almadiak. 1782an Diputazioak **botere guztiak** izan zituen Nafarroan komunikabideen sarea antolatzeko, eta *bideetako langileen* (1825) taldea sortu zuten ezpondak eta bideak egoera onean egon zitezten. Garrantzia handiko proiektua izan zen, eta plangintza orokor hark xx. mendean ongi sartu arte iraun zuen. Nafarroa betidanik bereiztu izan da kilometro aunitzetako zabalera duelako, baita beti herri guztietara iritsi izan delako ere, nahiz eta oso bide bihurria izan. Bideak XIX. mendean hedatu ziren eta xx.enean finkatu; mende horretan zoladura zaindu egin zen, bideetan ibiltzen ziren ibilgailuak nolakoak ziren kontuan hartuta.

Zailtasun orografikoei eta hidrografikoei tunelak, zubiak eta mendateak eginez egin zitzairen aurre; helburua: herrien arteko komunikazioa erraztea, eta alboko probintzietara eta Frantziara heldu ahal izatea. XIX. mendean oso ohikoa zen **bideak jendez gainezka** ikustea: batzuk azoketara etortzen ziren produktuak saldu edo erostera, beste batzuk erromerietara edo merindadeko hiriburuetara etortzen ziren. Iruñeko San Fermin feriak, Lizarrako San Martin feriak, Tafallako San Sebastian feriak eta Martzillako San Bartolome feriak jende asko biltzen zuten, jaiak bailiran, eta maiz *bistetara joateko* ere probesten zen, zeinetan gurasoek, behin ezkontzeko hitz emanda egonik, beren semea edo alaba feria horietara eramaten baitzuten bere senargaia edo emaztegaia ezagutu zezan.

Garraibide ohikoena gurdi bidez egiten zena zen, baina garestia eta deserosoa gertatzen zen, eta lineako kotxe gisa erabiltzen zen. **Diligentzia** edo «hezur-hauslea» ere erabili zen garraiorako; horrela deitzen zitzaion, bideak egoera onean ez zeudenez, etengabeko mugimendua zeramalako. 10 lagunendako lekua zuen eta posta ere diligentziaz eramaten zen alde batetik besera. Aurrez eginik zituen zenbait ibilbide; Zaragozatik Tolosara zihoana, Tuterara eta Iruñetik igaroz; Nafarroako hiriburutik Lizarrara, Elizondora edo Sauzera zihoazenak, eta Belatetik, Dantxarinetatik eta Beratik Frantziara zihoazen ibilbideak. Dena dela, trenak, XX.mendearen hasieran, negozioa ito zuen, eta abian egon zen azken diligentzia Iruñetik Olaguen barna Lantzera zihoana izan zen, 1920an.

Garraiatzeko beste modu bat colleras delako **kotxeak** ziren, lau gurpiletako karroza moduko bat zen, eta laurdako lekua izaten zuen; ezin **omnibusa** ere ahortzi, bidaiariendako soilik ziren eta zortzi leku zituen gurdi itxia zen. **Berlinak**, **kalesak** eta **zalgurdi deskapotagarririk** familia aberatsenen gurdi partikularrak ziren. Errekurtso ekonomiko gutxi zituzten familiak orgetan ibiltzen ziren batetik bestera; orgak lau gurpil zituzten gurdiak ziren, aurreko gurpilak atzekoak baino txikiagoak ziren, oinarri laukizuzena zuten eta nekazaritza lanetarako erabiltzen ziren. Familiarik xumeenek mando ganean, zaldi edo asto ganean bidaiatzen zuten.

Merkantzien garraioa egiteko animalien bizkarra edo hainbat mandok eramandako gurditxo, gurdi edo orgak erabiltzen ziren; mando horiek ezkilttoak izaten zituzten zintzilik, oinezkoei bidean zetozela adierazteko, eta mandazain batek zuzentzen zituen. Sarbide zaila zuten lekuetan, bide estuak zituztelako, arrastelu eta lerak erabiltzen zituzten merkantzien garraioa egiteko; egurra edo iratzea garraiatzeko elur-lera moduko gurdiak dira lerak.

Erriberan bidaiatzeko eta produktuak garraiatzeko modu ezin hobea **txalupa** izan zen, ugaldeak gurutzatu eta ugaldeetan gora eta behera ibiltzeko. Sonatuak izan ziren Aragoiren Ubide Inperialean barna ibiltzen ziren gabarrak eta Zaragozatik Tuterarako ibilbidea egiten zuen *San Valero* ontzia; lau egun behar izaten zituen bide hori egiten. Ibilbide-

aren bukaeran *El Bocal* ostatua zegoen, baita beste zenbait ostatu, jatetxe eta benta ere.

Bidaiatzeko modu horiei, gehientsuenak deserosoak eta gorputzeko atalik ñimiñoena ere minduta uzteko modukoak izaki, batzuetan **bidelapurren lapurretak** gehitzen zitzaien. Ezagunak egin ziren oso «Corellako 24 bidelapurrak»; 1810 urtetik eta 1819 urtera Erribera eta Errioxako garraioei egiten zieten lapurreta. Bidelapurrak atzematen bazituzten zigor gogorak jartzen zizkieten, urkatu edo zatikatu ere egin zituzten zenbaitetan, beren lagunak lezioa ikas zezaten.

19.6. Trenbidearen agerpena

Dudarik ez da, Madozen hitzetan «aurrerapenen aurrerapena», hau da, garraioaren iraultzarik handiena trenaren sorrerarekin gertatu zela. 1848 urtekoa da lehenengo linea, Bartzelona eta Mataro lotzen zituen linea hark, eta hiru urte geroago, Madril eta Aranjuezkoa. Orduko 50 kilometro hartzen zituen.

Dena dela, estatuko gainerako lekuetan trenbide sarea egin bazen ere, **Nafarroa sare horretatik kanpo** geratu zen, eta Irundik Madrilera-ko ibilbidean bi lotura-gune baino ez zituen lortu: Castejon eta Altsasun, hain zuzen ere. Beharrezkoa izan zen orduan Castejon eta Iruñea artean lotune bat egitea (1860), eta, geroago, Iruñeko eta Altsasu artean. Azken lotune horrek Zaragoza, Madril eta Donostia bitarteko linea telegrafikoak lotzeko balio izan zuen. Bide zabaleko ibilbide bakarrak ziren, beraz, ezen Alduden eta Kintotik igarotzen zen pirinioz gaindiko proiektuak porrot egin baitzuen, laguntza politiko eta ekonomikorik izan ez zuelako eta orografi zailtasunak zeudelako. Ibilbide horiek ez ziren beti errentagarri izan, gauzatze eta mantentze gastuak aunitz baitziren eta bidaiari eta merkantziak ez beti uste edo nahi adina.

Espainia guztian bide estuko trenbideak sortu ziren garaia zen, baina beti bide nagusien adar gisa erabili izan ziren. Nafarroan, bide estuko lineak eta trenak hauek izan ziren: *Tarazonikoa*, Tuterata-Tarazona ibilbidea egiten zuen (1885-1953); Cortesetik Borjarako ibilbidea egiten



«VASCO-NAVARRO» DEITUTAKO TRENAREN GELTOKIA, LIZARRAKO LLANOETAN (1927). Garraiobiderik erabilienak zamariak, gurdiak eta karretak izan ziren; eta kotxe-lineatan, dilijentzia, colleraskoa eta omnibusa. Hala-xe zioen Nafarroako jota batek: «Cojo la vara y mi carro y voy por la carretera, no hay venta que no me pare ni moza que no me quiera». (Makila eta gurdia harturik, banoa errepidean barna, ez dago gelditzen ez naizen bentarik, ezta maite ez nauen neskarik ere).

Trenaren etorrerak batzuk poztu eta beste batzuk atsekabetu zituen. Izan ere, mandazainek, gurdizainek eta espartingileek trenaren aurka jo zuten bitartean, industria txikietako jabeek eta herrietako alkateek itxaropentsu eta pozik hartu zuten. Nafarroa ez zuten kontuan hartu trenbide-proiektu handietako planetan eta trenbide meharreko lehenbiziko konpainia nafarrak arazo politiko eta ekonomiko larrietan nahasita egon ziren, errendimendu txikia zela medio, hala pasaiariena, nola garraio gaiena. Bakar bakarrik, Castejon eta Altsasurentzat mesedegarri gertatu ziren trenbide zabaleko trenak. Hartara, xx. mende hasierako Irati, Tarazona, Plazaola, «Vasco-Navarro»-a eta Bidasoako trenak historian geratu dira eta bakar batek ere ez zuen bizirik iraun.

zuen trena (1888-1955); Iruñetik Zangozara *Irati* trenarekin (1911-1955); Iruñetik Donostiara *Plazaolarekin* (1914-1953), gehienbat produktuak bidaltzeko erabiltzen zen; Elizondo-Irun ibilbidea *Bidasoarekin* (1916-1956), merkantzia garraioa egiten zen, eta Lizarra-Gasteiz ibilbidea *Vasco-Navarro* trenarekin (1927-1967), zeinak 40ko hamarkadan bidaiari aunitz ibili baitzituen.

Bide estuko tren horiek oso motelak izaten ziren, horregatik kon-tatzen du Jose Maria Iribarrenek ondokoa: «Cortes-Borja ibilbidea egiten zuen treneko makinista behin baino gehiagotan lotsagorritu zela bidaiari-

riak abian zegoen trenetik jaitsi, mahatsak hartu edo ubidetan pegarrak bete eta berriro, lasai asko, trenera igo eta beren eserlekuetan esertzen zirela ikusten zuenean. Eta ez du gezurra izan behar, orduko tren-ordute-giari begiratzan badiogu. 1946 urtean, aurrerapena ekarri zuen erraldoi hark ordu bat eta bost minutu behar izaten baitzituen Borjatik Cortesera zeuden 18 kilometroak egiteko, eta ordu bat eta hamar minutu Cortestik Borjara joateko. Dirudienez, aldapagora baitzen eta minutu batzuk gehiago behar izaten baitziren ibilbidea egiteko».

Baina pertsona guztiak ez zeuden ados trenaren sorrerarekin. Dili-gentziaz edo gurdiz egiten zen garraioa desagertzeko zorian zegoen, eta horrekin baita mandazainak eta gurdizainak ere. Trenari *pobre-hiltzaile* deitzen zioten; nekazariak kexu agertzen ziren makinaren txinpartek beren uztak erretzen zituztelako, espartingileek beren salmentak jaitsi egin zirela nabaritu zuten oinez gutxiago ibiltzen zelako, eta, azkenik, *burdinazko sugearen* aurkakoez gezur hau zabaldu zuten: tren-makinak desagertutako umeen gantzarekin labaintzen zituztela. Ume horiek herri eta hirietako karrika eta plazetan bahitzen zituztela esan zuten, eta hortik sortu zen **Sakamantekasen edo Gantz ateratzailearen** kontu zaharra. Gurasoak eta aiton-amonak istorio horretaz baliatu ziren hurrei beldurra sartzeko, eta horrela, hurrek beren aginduak obeditzen ez bazituzten, «sakamantekasi deituko» zietela egiten zieten mehatxu.

Baina gizartea berehala konturatu zen trena funtsezko tresna zela edozein herriren edo hiriren industria-hezurramitzeko, eta, beraz, toki agintariak beren eskuetan zegoen guztia egin zuten beren herrietan tren-geltoki bat izan zedin lortzeko. XX. mendean sartu bezain laster, garraioak itzuli osoa egin zuen belozipedoekin, hau da, autoekin eta autobusekin, eta geroago edukiera handiko kamioi, hegazkin eta itsasontziekin.

NEKAZARITZARI LOTUTAKO GIZARTE TRADIZIONALA

Europar, industria antolaketa berriak eraginik, hiri-guneek goiko maila jo zuten, nekazari askok eta askok bizimodua aldatu, eta nekazaritza eremuetatik hirietara joan ziren. Etxebizitza berriak eta eraikin publikoak jasotzeko beharra zegoen, eta horrek eremu-antolaketan eragin zuen. Alde zaharra berri zuten Madrilek, Bartzelonak, Parisek eta Londresek eta hiribide berriak eraiki zituzten, baina, batez ere, bizitegi-auzoak eraiki ziren burgesendako.

Beste gizarte talde bat azaldu zen, diru-zirkulazio handiagoa zegoe-lako eta industria berriek hala eragin zutelako: **goi burgesia**. Bankariek, enpresariek, merkatariak eta funtzionarioek osatu zuten burgesia altu hori; politikan parte hartze zuzena izan zuten, eta luxuzko eremuetan jarri ziren bizitzen fabrika eta ke kutsakorretatik urrun. Horretaz gain, **hiriko klase ertain** bat ere sortu zen: abokatu, mediku, jabe txiki eta bestelako lanbide liberalak zituztenek osatu zuten klase hori. Orain, beraz, politikan parte hartzeko ez da titulu baten jabe izan behar edo noble-odola izan behar, kultura eta dirua izatea aski da.

Baina fabrikek eta enpresa berriek eskulan merke aunitz behar zuten. Eskulan merke hori, langileek, meatzariek, eraikuntzako langi-

leek, zerbitzariak, nekazariak, artisau zentroetako ikastunek osatzen dute, eta oso osasungarri ez ziren auzoetan eta auzo marjinaletan jarri ziren bizitzera. Horiek guztiek osatzen dute **beheko klasea**: lanegun amaigabeak izaten zituzten soldata xume baten truk, lanerako egoera latza zuten eta ez zuten gaixotasun-asegururik izaten.

Sistema ekonomiko kapitalista berria sortu zen. Hainbat akziodunak osatutako sozietate anonimoak sortzen hasi ziren, akziodun bakoitzak enpresan partizipazioak izaten zituen, eta saldu edo erosi egin zitezkeen balioen burtsa deitutako merkatu batean. Beste zenbaitetan, enpresariak banketxeetara jotzen zuen dirua mailegutuzan jasotzeko.

Hiriek, XIX. mendean zehar hobekuntza nabariak izan zituzten: zaldiz egindako autobus garraioa zuten, baita tranbiak eta txirrinduak ere, karrikei zoladura jarri zitzairen, txorrotako ura etxeetan, ur zikinak eramateko hodiak jarri zituzten eta argi elektrikoa sartu.

Mendearen azkenean Espainiak Ameriketara zituen koloniak galdu zituen, eta horrek gizartean haserrea sortu zuen. Horregatik, intelektualetan talde batek erreforma politikoa eskatu zuen Espainia berri zedin. **1808ko Belaunaldiaz** ezagutzen duguna da. Ildo berean, Giner de los Rios-ek zuzentzen zuen Institución Libre de Enseñanza sortu zen; erakunde horrek eskola berri nahi zuen, heziketa laikoa, aktiboa eta modernoa ezarri, eta emakumearen heziketa ere sustatu nahi zuen.

Nafarroak, zoritxarrez, ez zuen Europako gainerako herriek izan zuten erritmoa jarraitu, talde politiko esanguratsu batek, mendeetan, beren aurrekoen ohiturak eta ideiak iraun zezaten eta mantentzeko nahi izan baitzuen, eta horrekin batera erlijioan zenbat sinesten zen kontuan hartzen badugu, atzeratu egin zuten aurrerapenari buruz, instituzioen modernizazioari buruz, nekazaritza-ekonomiatik ekonomia hiritartu eta industrializatura igarotzeko buruz hitz egitera zetorren mugimendu liberal oro. Burgesia, merkatari eta industria gizon talde txiki batek osatzen zuen. Nafarroa XIX. mendearen bukaeran eta XX. enaren hasieran batuko zaio garapen horri.

Antzeman zitezkeen ordurako zenbait gizarte-ardura; 1872rako Iruñean jarrita zegoen I. Internazionalaren mendeko federazio bat, eta

1901ean sortu ziren Unión General de Trabajadores sindikatua eta La Conciliación, langile eta nagusien sindikatu katolikoa. Baina langileak, oraindik ere, gutxi ziren nekazarien aldean.

20.1. Hazkunde demografiko motela eta emigrazio handia

Nafarroak XIX. mendean nekazaria izaten jarraitzen zuen, eta biztanle aktiboen %60 nekazaritzatik bizi zen. Horren eraginez, kosta egin zitzaien sartzea, bizimodu berriei eta pentsatzeko modu berriei sartzea, ezen historiak, hau da, iraganak eta beren arbasoen kulturak zeresan handia baitzuten artean ere.

Pixkanaka pixkanaka liberalismoa gizaratean sartu zen, eta desamortizazioak eta jabego pribatuen sorrerak aldatu egin zuten sistema tradizionala. Baina industria, artean, ez zen ezertxo ere: burdinola zenbait, elikagaien industria zenbait eta kitto. Iruñean, **artisans zentroak zeuden**, baina ez zegoen fabriketako ekoizpenik.

Biztanleei dagokienez, oso poliki hazi zen Nafarroan biztanle kopurua, etengabeko gerrateek ez baitzuten astirik uzten galdutako denbora berreskuratzeko. Dauden datuak ez dira beti fidagarriak, zenbat jende zegoen kontatzeak helburu bakar bat baitzuen: helburu fiskala, alegia, eta horregatik isilean gordetako biztanle aunitz egon zitekeen. Godoyren erroldaren arabera, Nafarroak 221.728 biztanle zituen (1797); 1833 urtean egin zen kontaketa 260.925 pertsona zituen; Diputazioak beste kontaketa bat egin zuen 1844an, eta, orduan, 233.747 biztanle zituela atera zen. Beherakada nabaria nabarmentzen da kontaketa horretan, eta **karlistadek eta kolera izurriteak** eragin zuten beherakada hori. Madozen Hiztegian 280.000 pertsona kontatu ziren 1849an eta 1900ean, berriz, zifra 307.000 pertsonetara da. Horrek hazkuntza xumea izan zela adierazten du.

Biztanleak herrietan biltzen ziren oraindik ere. Iruñea, mendearren hasieratik bukaerara, 15.000 biztanle izatetik 30.000 izatera igaro zen; Tuterara 6.000 izatetik 10.000 izatera; Lizarra eta Tafalla 7.000 biztanleren inguruan mantendu ziren. Godoyren erroldaren arabera, biztan-

leen %49k soilik egiten zuen lan, eta horietatik %81ek nekazaritzan jarduten zuen.

Baina emigrazioak zeresan handia izan zuen hazkuntza demografiko motel horretan. Lur eskasiak, jaraunspen bakarrak, garraioa merkatu izanak, burdinolen porrotak, miseriak, goseak eta gerren iraupenak jende aunitz bultzatu zuen Nafarroa utzi eta Ameriketako lurretara joatera. Ameriketako herrialdeak idealizaturik zeuden, dirutza erraz egin zitekeelakoan, eta horietariko askok bazuten han jada, lanean ari zen lagunen bat edo familiartekoren bat.

Helmuga herrialde ohikoenak Argentina, Uruguai, Mexiko, Venezuela, Kuba izan ziren, eta 1848 urtetik aitzina Kalifornia, bai urrearen sukarrak itsututa, bai lurralde zabal haietan artzain gisara aritzeko. Ontzi konpainiek beren *harrapalariak* bidaltzen zituzten herriz herri Ameriketari buruz ezin hobeki hitz egitera, eta bidaian izena ematen zuten pertsoneri «Amerika jan egingen zutela» zin egiten zieten.

Baina, tamalez, «urrutiko intxaurrak hamalau, joan bertara eta lau», eta etorkin aunitz hemen bezain behartsu bizi izan zen han ere bai, nahiz eta gehiengoa behar bezala finkatu zen. Talde txiki bat baino ez zen beren jaioterrietara itzuli (indianoak), eta diru arazorik gabe itzuli, gainera. Horiek aberastasun handiko oinetxeak edo jauregiak eraiki zituzten jaioterrian Ameriketatik ekarritako diruarekin. Oraindik ikusgai ditugu horietako asko, bereziki, Nafarroa iparraldean.

Ameriketarantz egiten zen migrazio-mugimendu horrek erne jarri zituen Nafarroako agintariak, eta emigrazioa geldiarazten saiatu ziren, gazteek alde egiten bazuten hustu egiten baitziren eskualdeak, jaiotze tasak jaitsi egiten ziren eta biztanleria zahartu egiten zen herrietan.

20.2. Esku mortuetan zeuden ondasunen eta lursailen salmenta: desamortizazioa

Espainiako erregimen liberalak errotiko aldaketak ekarri zituen: Antzinako Erregimenaren akabera ekarri zuen, eta aldarte liberala zuen

beste garai politiko bat ezarri. Bi erreforma nagusi gertatu ziren: batetik, sistema politikoa aldatu zen, bi konstituzio aldarrikatu zirelako, bata 1837koa –Kadizekoan oinarritzen zen– eta bestea 1845eko konstituzio kontserbadorea, eta, bestetik, desamortizazioa izan zen.

XIX. mendean lurrik gehienak udalerriena, elizarena eta nobleena ziren, eta lurren %60, gainera, azkeneko bi talde horienak ziren. Nafarroan 1840an, klero erregeladunak, hau da, ordena eta kongregazio erlijiosoek, 30.000 erreguneurri zituzten nekazaritza-aberastasunetan eta 435 hiri-lursail; klero sekularrak, hau da, apezpikuek eta elizbarrutiek 50.000 erreguneurri zituzten nekazaritza-jabegotan, eta 860 hiri-jabego.

Desamortizazioarekin, nobleen, elizaren eta herrien **jabego pribilegiatua jabego pribatu** bihurtu nahi izan zen. Izan ere, jabegoa ondare osoari atxikirik zegoelako ezin izan zen saldu Erdi aroaz geroztik. Bestalde, ekoizpen gutxiko lurrak ziren, eta desamortizazioarekin saldu egin nahi ziren ondasun horiek.

Neurri horiekin liberalek lursail horiek saldu nahi zituzten, arrendamendu kontratu berriak egin, lursail horietan teknika modernoak ezarri, ekoizpena hazteko.

1720urtetik aurrera, desamortizazio batzuk egiten hasi ziren, dirua bildu eta gerrak aurrera eraman ahal izateko. Jovellanosek lugorriak gutxitu eta pribatizatu zituen; Godoyk estatuaren diru-kutxa hutsak betetzeko lurrak desamortizatu zituen, geroago hori bera egin zuten Bonapartek eta Riegok Liberalen Hirurtekoan. Baina desamortizazio nagusia Lehenengo Karlistadaren ondoren egin zen. Orduan liberalek baliabiderik ez zuen administrazioarekin egin zuten topo; horretarako **Juan Alvarez de Mendizabalek**, 1836ko eta 1837ko legeekin, hamarrena indargabetu zuen eta kleroari –erregeladunari eta sekularrari– beren ondasunen gaineko jabetza kendu zion. Enkante publikoan jarri behar ziren gero ondasun horiek guztiak, eta hori egin zen pixkanaka pixkanaka, batez ere, Esparkoaren garaian.

Udal-ondasunak 1850urtean saiatu ziren salmentan jartzen. **Pascual Madozek**, 1855eko legearekin, estatuaren, elizaren eta udalen jabego ziren lur guztiak sal zitezten agindu zuen, herri-lanak eraikitzeko eta Estatuaren zorra gutxitzeko.

Nafarroan, elizaren ondasunen desamortizazio nagusiak Espartero erregeorde zela egin ziren. Klero erregeladunak, 1850ean, 45 fraideren komentu eta monasterio zituen, eta mojenak, berriz, 22. Klero sekularra-
ren aberastasun nagusiak Iruñeko eta Tuterako Katedraletan eta Orreaga-
ko Kolejiatan zeuden, baina Nafarroa osoan zituzten ondasunak. Eros-
leak, gehien bat, **Nafarroako burgesak** eta Nafarroan jabegoak izan bai-
na Madrilen bizi ziren **lurjabeak** izan ziren. Horiek, salmentan jarri ziren
baldintza onei probetxua atera zieten.

Baina ez soilik desamortizazioa, liberalak, 1838tik aurrera, komen-
tu eta monasterioak kendu zituzten, bereziki, gizonezkoenak; hor aipat-
zekoak dira: Leireko monasterioa, Iratxekoa eta La Olivakoa. Baina Filipi-
netara edo Ameriketara joateko misiolariak prestatzen zituzten apaizgai-
tegiak bere horretan utzi zituzten, adibidez, Monteagudoko Agustindar
Errekoletoenak. Gorde egin ziren Orreaga, Iruñeko Katedrala eta parro-
kiak, eta Estatuak bere parte jarri zuen kultuari eusteko eta kleroari
laguntzeko, ezen liberalen helburua ez baitzen kleroa deuseztatzea, klero-
aren ondasunen jabe egitea baizik.

1855ean ondasun publiko eta herri-ondasunen desamortizazio pro-
zesua hasi zen. Ondare gutzia jarri zen salmentan, Estatuaren zorrak
kitatzeko, eta tren linearen eraikuntza prozesua hasteko. Udalek, salduta-
ko lurren trukean, diruaren zati bat zor publiko gisara jaso zuten, hau da,
maileguak balira bezala.

Nafarroan desamortizazio zibila **lehian sartu zen Diputazioare-
kin**, udalak eta beren ondasunak Diputazioak kontrolatzen baitzituen.
Azkenean, afera honela konpondu zen: salmenten atala udalei utzi zit-
zaien, baina Diputazioak gorde zuen horien gaineko kontrola. Horrela,
herri-lurrak ziren jabego aunitz ez zen salmentara atera, bereziki Nafarroa
iparraldean. Bertze batzuk, berriz, jarri ziren salmentan, baina udalek
hala eskatu zutelako, eta ez kanpotik ezarri zutelako.

Erdialdean eta Erriberan, lur-jabeek presioak egin zituzten udal-
ondasunak salgai jar zitezten, ezen lur-jabe horiek zorretan baitzeuden
aberatsenekin, aberatsenek emandako maileguak baitzituzten aurretik.
Udalek, beraz, korralizak deitutako bazka-lurrak jarri zituzten salgai; lur

horiek, noski, diru gehien zutenek erosi zituzten, eta gainerako bizilagunak egoera kaskarrean gelditu ziren, beren aziendarendako bazka lekurik gabe gelditu zirelako. XIX. mendean eta XX.enean, batez ere, Tafallan eta Erriberrin, korralizen aferak liskar aunitz sortu zituen aziendarendako ziren larreak laboresoro bilakatu nahi zirelako.

Desamortizazioak Nafarroan, ez zuen estatuko gainerako lekuetan izan zituen ondorioak izan, klero sekularraren ondasunak lursail txikiak (minifundiak) baitziren, eta klero erregeladunaren ondasunek ez baitzuten hedadura handiegirik.

Hala ere, klase xumeak jasan zituen kalterik gehien, batez ere, errentariak, ezin izan baitzuten ondasunik erosi; desamortizazioarekin, gainera, errentak igo egin ziren, jabeek ez zituzten nekazaritzarako tresna berriak erosi, eta zaharkituta gelditu zen makinariarekin egin behar izan zuten lan, eta, noski, etekinak ere halakoak izan ziren: txikiak. Asko eta asko zorretan sartu ziren, eta miseria gorrian bukatu zuten. Beraz, desamortizazioa hondamena izan zen lurrak lantzen zituenarentzat, gastuak igo egin zitzaizkielako eta titulartasun-truke bakarra zutelako.

20.3. Moda, jantzietan

XIX. mendeko gizartearen eguneroko bizitza oso xaloa zen, hau da, belunaldiz-belaunandi pasatzen ziren familia-tradizioetan oinarrituta zegoen, batez ere tradizio erlijiosoetan. Lanaren alorrean gremioetan eta kofradietan biltzen ziren. Leku batetik bestera diligentzietan edo gurdietan joaten ziren batzuk, beste batzuk, ordea, beren mandoetan, eta mende bukaeran, trenez.

Gizarte desberdintasunak eta desberdintasun ekonomikoak jantzerokotan eran nabari ziren gehien, eta zer kargu zuten eta zer egoera zibil zuten ere jantziek adierazten zuten. Hasiera batean, jantziak gizon-emakumeak hotz-berotik babesteko izaten ziren, baina denborak aurrera egin ahala bereizgarri bat izatera igaro ziren, pertsonen kultura-maila, gizarte estatusa, adina zein zen eta zer nolako jarduera zuten jakiteko. Gainera bereizketa zeinua eta izaera zeinua ere bazen, baita norbera erakargarri bihurtzeko eta gizon edo emakumeak erakartzeko zeinu ere.

Hala ere, modak **klase aberatsetan** zuen eragina; XIX. mendearen bukaeran antzeman daiteke hori; honela janzten ziren gizonezkoak: gorputzari estututako trajeak janzten zituzten, baita atorra zuria, eta, gainean, oihalezko tximeleta edo orratz burudunez eutsitako korapilo lodiko gorbatu, lebita, kapa bizkarrekoarekin, urrezko erlojua txalekoaren gainetik jarrita, eskularruak, makila, kapela edo txapela eta puntadun botak ere.

Klase altuenetako andreek Frantziatik ekartzen zituzten «liztor gerria» zuten soinekoak. Gorputzari estutzen zizkioten eta gorputza estilizatzen zuten kortseak erabiltzen zituzten, baita berokiak, eskularruak («emakume dotorea eskularruengatik antzematen da hala dela»), loreez apaindutako kapelak eta eguzkitakoak ere. Aldamenetan zortzi botoi zituzten bota luzeak janzten zituzten, eta ilea harrotu eta mototsak egiten zituzten buruaren goiko aldean, eta motots horiei apain-orraziarekin edo urkilekin eusten zieten.

Umeek galtzerdi beltzak eta almidoiztatutako lepoak janzten zituzten; adats luzexkak izaten zituzten, eta pubertaroaren hasieran belauetan lotzen ziren galtza bonbatxoak janzten zituzten. 15 eta 18 urte bitarteko neskatilak soineko luzeak janzten zituzten, gizarteari ezkondu gabe zeudela, eta beraz, ezkontza-garaiak zirela adierazteko.

Baina herritarren gehiengoa, hau da, **jende xumea** ahal zuen moduan janzten zen XIX. mendean. Gizonezkoek, gerrikoek estutzen zituzten galtzak janzten zituzten, lepo-zerrendadun atorra, txalekoak, espartinak, bortzegiak edo abarkak; neguan, txamarrak, txonbergak, burusiak, ongarinak eta berokiak janzten zituzten, baita tapauka edo bufandak ere. Mendearen bukaeran panazko galtzak, artilezkoak edo pañozkoak erabiltzen hasi ziren, baita koadrodun atorra eta txamarreta ere. Emakumeek atorra, blusa, azpikogona, galtzerdiak, orkatiletarainokogona eta espartinak, eta jaiegunetan, berriz, zapatak.

Umeek txabusinak, mandarrak eta espartinak, janzten zituzten, eta 14 urte bete eta eskola uzten zutenean, mutilek, galtza luzeak, eta neskek soinekoa, galtzerdiak, takoidun zapatak jantzi eta txirikordak mozten zituzten.

Familiarik gehienek oso arropa gutxi izaten zuten, eta horregatik nahi izaten zuten jantziek ahalik eta gehien irautea; horretarako behin eta

berriz josi eta konpontzen zituzten jantziak eta galtzei belaunetakoak eta adabakiak jartzen zizkieten; atorre lepoa aldatzen zitzairen eta zaharkitutako mahukak mozten zizkieten; umeen arropak, maiz, aitaren edo amaren arropa zaharrak erabiliz egiten ziren. Hortik esaera zahar hau: «Estoy loco de contento/de lo que ha hecho mi madre/unos pantalones nuevos/de los viejos de mi padre».

Horietaz gain, zenbait lan, kargu edo lanbidetarako jantzi bereziak erabiltzen ziren: nekazariak, bonbatxoa; zurginek, zapatariek eta arotzek mandarra; ganadu-tratulariek, kapa, eta alkateek, makila. Emakume guztiek zekiten josten, baita ardatza eta gorua erabiltzen ere, horregatik egiten ziren jantzirik gehienak etxeetan. Ezkontza, bataio edo jaunartzeak bazeuden, jostunarengana joaten ziren, egun horretarako jantzia egin ziezaien.

XIX. mendearen bukaeran atorra-dendak, jostundegiak eta kortse-dendak azaldu ziren hirietan. 1894 urtean Jakoba andreak **Casa Matxiñena** izeneko denda zabaldu zuen, eta berehala lortu zuen ospea, oihalak eta modeloak egunean zituelako Parisko azken joerekin bat etorriz. Modara joateak, arropak Jakoba andrearen etxean erosi zirela esan nahi zuen. San Nikolas karrikan, **Madrileña** izeneko kortse-denda zabaldu zen, eta hor mota guztietako barneko arropak topa zitezkeen. Gaztelu plazako *La Perla* ostatura Parisko modaren *pret à porter*-a ekartzen zuten jostunak etortzen ziren.

20.4. Elikadura

Gizartearen bizimodua zein den ezagutzeko beste modu bat, elikadura aztertzea izaten da, hau da, leku jakin bateko herritarren elikatzeko ohitura guztiak aztertzea. Oso desberdina zen Nafarroa iparraldekoen elikadura hegoaldekoenarekin; iparraldekoek txerri, behi edo ardi haragia jaten zuten, baita eltzekariak eta esne-produktuak ere, eta hegoaldekoek, berriz, mediterraneo aldeko produktuak izaten zituzten gehiago, eta garrantzi berezia zuten irinak, mahatsak eta olioak, baita eltzekariak, barazkiek eta ahari haragiak ere.

Erromatarrak etorri zirenean, otorduak erregulatu egin ziren, eta kalorietan aberatsagoak ziren elikagaiak jaten hasi. Arabiar eta berbereek barazkiak zabaldu zituzten, orburuak eta zainzuriak, esate baterako.

Ohitura horiek guztiak finkatu egin ziren, eta XIX. mendean oraindik ere iraun egiten zuten, baina Ameriketatik ekarritako produktuak gehitu zitzaizkien: artoa eta patata. Otordu nagusiak hauek ziren: **gosa-ria**: nekazariak, basokada bat pattar hartzen zuten, baita ogia (ogi-kozkorra), taloa (artirinez egina) edo zekalez egindako ogi beltza ere; hiritarrek, berriz, kafea eta malta; umeeak eta emakumeak esnea, txokolatea eta ogia. **Hamarretakoa**: baba platerkada bat edo patata egosiak arrautzekin, txingarra, txistorra edo txerri saiheskiak, hori izaten zen hamarretakoa.

Bazkaria: eltzekariak eta txerriak zerbitzatzen ziren platera bakar batean, edo bestela hiru platera desberdinetan, lehendabizi salda, gero eltzekariak eta hirugarrenik haragia edo arraina. Bazkariak familia izaerako erritoak izaten ziren, etxeko suaren inguruan egiten ziren (sua familia biltzeko gunea zen). Mahaia agertu zenean, sutegitik aldendu egin ziren. Hasieran azpil bakar batetik jaten zuten, kuxeta edo eskua sartuta; oraindik ohitura hori dute arabiarrek. Elikagaien inguruan berriro ere esertze-ko une aproposa **askariak** eta **afariak** izaten ziren.

Erljio-debozioa ere arras loturik zegoen familiarteko bizitzari. Aitaren egiten zuten hamarretakoa eta askaria hartu aurretik; bazkari eta afari garaian otoitz egin eta jakiak bedeinkatzen zituzten, eta gauetan batzuetan arrosarioa errezatu. Estellerrian oso ohikoa zen otoitz hau: «Belenen sortu zen Haurrak bedeinka dezala mahai hau eta egin gaitzala zeruko mahaiaren partizipante, amen». Lagunarteko bazkarietan, doinu barregarrian, hau esaten zuten: «*La bendición de san comamos o del gitano, que no vengan más de los que estamos*». XX. mendera arte pertsonarik zaharrenak bedeinkatzen zuen mahaia, gero, ordea, haurrik gazteenak.

20.5. Familia

Etxe bereko kideak izenagatik, ezizenagatik edo lehenengo abizenagatik ziren ezagun. Etxea, enbor-sistemaren funtsezko gizarte-instituzio bilakatu zen, eta ondasun guztiak ondorengo bakar bati uzten zaizkiolako



UDAREN ETORRERA ETA UZTA BILKETA. Kohesioa eta egonkortasuna, horra familia nafarrak zer izan duen bereizgarri. Zentzu erlijiosoaren eta maiorazkoaren ondorio gertatu da horrela. Maiorazkoak oinordekoarengan metatu ditu, noski, etxeko ondasun guztiak. Ekonomia nekazaritzan zetzan eta, horregatik, senide guztiak, buru belarri, aritzen ziren soro eta alorretan, uzta bilketaren garaian, batez ere. Laborea eskuz moztu behar izaten zen udamian. Igitaia edo sega erabiltzen zuten eta zurezko eskularruaren antzekoa erabiltzen zuten, ezker eskua babesteko, kaixuleta edo zoketa izenekoa. Emakume eta haurrek gari moztua espaletan biltzen zuten eta espartzua erabiltzen zuten, lotzeko. Garibalak larrainera gurdietan eramaten ziren, han eultzia egiteko. Eultzia, idiek tiratutako ohol bat zen, azpian burdinazko hortzak edo sukarrizko puskak zituena. Bikorra lastotik bereizten zuen. Egun bakarrean ondoko hau guztia egiten zen: laborea garraiatu eta larrainera eraman, barreiatu, galburuak xehatu, gero dena pilatu eta sardeekin goratu eta haizatu, haize kolpeez baliatuta. Sakanan, hauxe esaten zuten: «San Agustin zirikiton, iruntziko haize on!» (San Agustin eguna abuztuaren 28a baita, haize ona eultzitzeko, alegia). *Nicolás Ardanazen argazkia.*

iraun du denboran zehar, hau da, bai ondare materiala (ondasunak) bai simbolikoa ere, hots, abizena, etxearen ospea, eta familia osatzen zuten guztien gaineko aginpidea ere. Sistema hori ohikoagoa zen Nafarroa iparraldean hegoaldean baino.

Ezkontzarik gehienak, batez ere, oinordekoenak, gurasoek *hitzartzen* zituzten, ondare guztiak bere horretan iraun zezan edo, bestela, hazi zedin etxe oneko beste familia bateko kideren batekin ezkonaraziz. Bigarren semeari edo alabari *dotea* ematen zioten beste etxe bateko oinorde-

koarekin ezkon ahal zedin. Horregatik ohikoena hau izaten zen: oinordeko gizonezkoa oinordeko ez zen emakumearekin ezkontzea, eta oinordeko emakumea oinordeko ez zen gizonezkoarekin ezkontzea.

Ezkondu baino lehen, hiru ezkondeiak egiten ziren hiru igandetan segidan, eta bertsolariak bertsoak botatzen zizkieten emaztegaiei. Ezkontza nekazaritza-lan gutxien zegoen sasoiari egiten zen, otsailan, batez ere; horrek esan nahi du ekainetik azarora arras ezkontza gutxi egiten zela. Ezkont-egunean, senargaia eta haren familia, emaztegaia etxera joaten ziren, handik guztiak elkarrekin elizara joateko. Ondoren, bazkaria egiten zen bietako baten etxean, eta, ezkontza bukatu aurretik, neska ezkongabeek, idiek tiratutako gurdiaren aurrean egiten zuten dantza; gurdi horretan eramaten zituzten ezkondu berriaren ezkonsaria, altzariak eta bestelako tresnak etxe berrira.

Ugalkortasuna beharrezko dohaina zen, familian aunitz balio zuena. Haur guztiak ziren ongi etorriak, laguntza handia eskaintzen baitzuten nekazaritza-lanetan. Horregatik esaten zen hau: «ardiak eta andrea umedun, nekazaria zoriondun» eta «Bostendako mahaian, sei aisa». XIX. mendean lauzpabost bat ume izaten zen familiako, baina jaiotze tasa altu hori haurren hilkortasun tasa altuak geldiarazten zuen, mila hurreko 145 hitzen baitzen. Nafarroa iparraldean, hala ere, jende gutxi bizi zen ezkongabe asko zegoelako, jendea urte gehiago zituela ezkontzen zelako, eta haurren hilkortasun tasa handiagoa zelako. Hegoaldean, aldiz, herentzia anaien artean banatzen zenez, baliabide ekonomiko gehiago zutenek, beste familia bat osatu ahal izateko etxe bat erostea errazagoa zenez, eta gazteago zirela ezkontzen zirenez, biztanleen indizea handiagoa zen.

XIX. mendeko gizartean ez zegoen aisialdirako gune edo leku gehiegirik, eta are gutxiago nekazaritza-eskualdeetan. Aipatzekoak dira herrietako jaietan egiten ziren dantzaldiak, herrietan zeuden pilotalekuak –jendea ere biltzen zen noiz nahi pilotan aritzeko– (Mañuetan, Iruñean), baita kafe-ostatuak ere, zeinak tertulian aritzeko balio baitzuten, hor dugu adibide gisara 1888an ireki zen Iruña kafea-ostatuak. Emakumeek, berriz, hau egiten zuten aisialdi denboran: herriko jaietan plazan dantzan aritu, paseoan ibili igandetan, familiakoei edo gaixoei bisita egin, behar zituz-

ten produktuak erosi eta liturgia-ospakizunetan parte hartu; halakoetan arroparik dotoreenak janzten zituzten, batez ere jai-egunetan.

20.6. Bizi-baldintzen hobetzea

XIX. mende bukaeran nafarren bizi kalitatea hobetu egin zuten nabarmen hainbat berrikuntza teknikok. Nafarroan, **argi elektrikoa** Iruñean ezarri zen lehendabizi. 1887an San Zernin elizan goritasun-lanpara bat ezarri zitzaion Bideko Amabirjinari; handik urtebetera *Café Iruña*-n sartu zen argia, gero Tafallan eta Atarrabian, Antzoki Principal deitutakoan. 1894 urtean Tuteraren txanda izan zen.

Beste berrikuntza bat Artetako iturbegitik Valentzia pasealekuan jarri zen urmaelera **edateko ura** ekartzea izan zen, hiria edateko moduko urez hornitzeko (1895); Bainu Etxea ere zabaldu zen. Egia da, dena den, Noingo akueduktuari esker, ur-putzuei esker eta Arga errekarari esker aurreko mendean ere bazegoela ura biltzeko modua iturri publikoetan.

Etxeak oso arruntak ziren, erosotasun handiegirik gabekoak. 1900 urtetik aurrera hasi zen Iruñean Lehenengo Zabalgunea eraikitzen, 1875era arte lubanarroek eta harresiek ixten baitzuten hiria; zubiak jaso egiten ziren ilunabarrean, hirira inor sar ez zedin. Hiri erdian ezin zen eraiki tokirik ez zegoelako, eta hiritik kanpo ere ez, alde militarra zelako.

Garraioaren iraultzari ere harrera ezin hobea egin zitzaion; 1878an agertu ziren belozipedo edo bizikloak; aurrean bi metro eta erdiko alturako gurpila zuten, eta atzean beste gurpil txikiago bat. Ibilgailu hori garatu eta hobetu egin zen, eta hortik sortu zen 1893an bizikleta; hasieran ez zen bat ere eroso, eta nekazaritza eskualdeetan ez zuen oso arrakasta ona izan, animaliak izutu egiten zirelako beren ingurutik bizikletaren bat pasatzen zenean. Bestalde, leku batetik bestera joateko bide eta errepide bidezko garraioa hobetzea gainditu beharreko erronka zen, diligentziak eta gurdia zikinak eta arriskutsuak zirelako eta hezurrak «zartatzeko» adinakoak, horregatik gogo biziz hartu ziren biskuterrak eta automobilak. Frantziatik heldu zen lehenengo autoa Iruñera: peugeot bat zen (1894) eta lilura sortarazi zuen.

20.7. Eliza liberalismoaren aurka eta gobernua elizaren aurka

Eliza egoera hobean egon zen Antzinako Erregimenaren gobernuarekin gobernu progresistekin baino. Izan ere, 1835ean monasterioak deuseztatu zituzten progresistek. Handik urtebetera elizaren ondasunak saldu zituzten, eta 1837an gizonezkoen ordenu erlijiosoak eta inkisizioa utzi zituzten bertan behera. Hala ere, progresistek ez zuten erlijioa ezeztatu nahi izan, gizartearen bakeari eusteko bidea ikusi baitzuten erlijioan, bai baitzekiten entzute handia zuela fededunengan.

Horretaz gain, politikari progresistek bazekiten kleroaren kide gehienak ideia tradizionalisten aldeko zirela, eta kleroa kontrolatu nahi izan zuten; horretarako Eliza eta Erromaren arteko harremanak murriztu zituzten eta gobernu progresistarenganako **leialtasun ziurtagiria eskatu zioten kleroari**.

Handik urte batzuetara, liberalek ordena erlijioso batzuk itzul zitezten ahalbidetu zuten, kleroa mantentzeko ardura hartu zuten, eta 1851ko Konkordatuarekin hobetu egin ziren Eliza eta Estatuaren arteko harremanak. 1880an Elizak Canovasen Konstituzioa onartu zuen, baina eskumen gehiago eskatu zien gazteak hezi eta hazteko, zenbait egunkari liberal eta antiklerikal zentsuratzeko eta gizartearen ohitura moral onen zaintzaile izateko. Horrela, Basilio Lacort, *El Porvenir Navarro* egunkariko zuzendaria eskumikatu egin zuen Ruiz Cabal Iruñeko apezpikuak, ideia errepublikazaleak eta antiklerikalak zituelako, eta Romero Robledo, barne ministroak (1890), berriz, iparraldeko apaizak salatu zituen, euskara erabiltzen zutelako ideia liberal konstituzionalei aurka egiteko.

Nafarroako kleroaren ideiak eta mentalitatea nolakoak ziren ezagutzeko modu bat apezpikuaren **gutun pastoralak** berrikustea da, baita apezkek mezetan botatzen zituzten **sermoiak** berrikustea ere. Ilustratu eta liberalen aurka egiten zituzten etengabeko erasoak nabari dira, eta ez zioten zirrikiturik uzten prentsa askatasunari eta erlijio permisibitateari.

XIX. mendearen bigarren erdian, gizarte eta industria aldaketa hasi zuen gizarteak, baina elizak ez zuen egin bizimodu berriaren aldeko apustu irmo eta indartsurik, eta horren aurrean sakramentuak administratu eta karitate-lana baino ez zuen egin. Beharrezkoa zen langileen artean

egotea, sindikatu katolikoak sortzea eta fabriketan sartuko ziren apezak izatea, zeinak lan-munduaren hobekuntza aldarrikatuko baitzuten. Leon XIII.aren *Rerum Novarum* (1891) entziklika lan-munduaren aldeko apustu hasi berria izan zen.

Erlijio esperientziei dagokienez, XIX. mendean herri-erlijiotasunez betetako giroa bizi zen, hori baitzen barne-bizitzaren eta kulturaren beste adierazpide bat. Nafarroan erlijio debozioari landa-eremuen usaina zerion, hau da, liturgiari folklorea erantsi eta gisa horretan bizi eta sentitzen da, lagunartean. Otoitzak, erromeriak, saindu babesleak, Andre Mariarenganako debozioa eta lilura, irudiak eta kofradiak espiritualtasunari laguntzen zioten kanpoko keinu herrikoiak ziren.

Erlijio-adierazpen hori, gehien bat, ermita eta santutegietan ageri da irudikaturik, Nafarroa osoan «ez baita mendirik gabeko herririk, ermitarik gabeko mendirik, ez eta erromeriarik gabeko ermitarik ere». Horietan hiru elementu uztartzen dira: erlijioa (eukaristia eta «bozkarioak») gastronomia (ardo eta ogi banatzea) eta jolasa eta entretenimendua (jendea elkarrekin egoteko lekuak izaten ziren, bai bizilagunekin, baita beste herri batzuetatik etorritako familiakideekin topatzeko lekua ere).

Nafarroan, beraz, bazuen garrantzia erlijio kontzientziak, eta Pazkoarekin bete egiten zuten nafarrek; hori guztia gizarte tradizional eta nekazari-gizarte baten ondorio da, eta parrokiatako erregistroek hala dela adierazten dute. Erregistro horietan presbiteroak jaunartu zutenen eta aitortu zirenen izenak apuntatzen zituen urtean behin, gutxienez. Dena dela, Nafarroa iparraldean jende gehiagok hartzen zuen parte erlijio gaietan, apaizgai gehiago ateratzen zelako herrietatik, eta horiek gehiago inplikatzeko zirelako jendearen bizitzan.

XIX. mendearen azken urteetan egintza liturgiko eta sakramentu egintzetan jendeak parte gutxiago hartzen zuela nabari daiteke, bai ideia liberalak indartsuago sartu zirelako, bai industrializazio hasi berriak eragina izan zuelako, eta bai langile eta artisauek lan gehiago izaten zutelako ere.

GIZARTE HEZIA ETA IKASIAREN ALDE

Hauxe zioen Hagmanek: heziketa «etxean hasten den, eskolan bukatzen den eta bizitza osoa irauten duen prozesu pausatu eta garrantzitsua da». «Norbaitek heziketa duela» diogunean, hauxe esan nahi dugu: esperientzia bat izan duela, zeinak gaitasunen bat eman dion, eta, gaitasun berri horrek aukera eman dio antzeko beste esperientzia batzuei, are modu eraginkorragoz, aurre egiteko.

Historiak ez ditu gertaera soilak ikertzen, giza-egintzak baizik; gizon-emakumeek ez dute jarduten mekanikoki sen inpulsiboek eragirik, beren pentsamendu zuhurrek eragirik baizik. Beraz, historiak ez ditu gertaerak begiratu soilik egiten, gertaera sortu duen inguruari ere begiratzen dio, baita izaten ahal duen harremanari ere, eta, bereziki, hori etorkizunean nola irakatsi hartzen du kontuan. Hortik, beraz, heziketa gizakien alor guztiak eta adin guztiak hartzen dituen giza eta gizarte-errealitatea izatea, nahiz eta haurtzaro eta gaztaroa heziketarako behar gehiago dituen garaia izan.

XVI, XVII eta XVIII. mendeetan zientziaren aurrerapenak eta heziketa sistema ez ziren batera garatu. Horregatik, XIX. mendean ideia eta hezkuntza-joera berriak sortu ziren, Rousseauk, Pestalozzik, Montessorik,

Decroly belgikarrak eta abarrek defendatzen zituztenak, hain zuzen. Ideia eta hezkuntza-joera berri horiek ikasteko modu bezala naturalismoan eta gauzak zuzenean ikustean oinarritzen ziren.

Pestalozzik (1827an hil zen) lege naturala aurkitu nahi izan zuen, eta ikasketa eta irakaskuntza beharrezko eta funtsezko zerbait izatea nahi zuen, ezen heziketa, bere ustean, haurrak hazi gisara dituen gaitasunak garatzea baita. Heziketa beharrik ez duen haurren ontasunean sinesten du, beraz.

Alabaina, XIX. mendearen erdi aldera ordura arte eraso egiten zitzairen erlijioaren egietara itzuli zen berriro, eta neoeskolastizismoa ezarri zen, **Santo Tomasen doktrina** sartu baitzen berriro ere hezkuntzan. Joe-
ra horren bultzatzaile nagusi Pio IX.a eta Leon XIII.a aita santuak izan ziren, baita jesuitak ere Italian, eta Lovainako eskola, Belgikan; **arrazoia eta fedea** uztartzen zituzten. Espainian eskolastikara itzuli zela adierazten digun pertsonaia Jaime Balmes izan zen (1810-1840); *El Criterio* izeneko liburua idatzi zuen eta hizkuntza arrunta erabili hori idazteko. Balmesek dio gauzen egiara iristeko giza-jarrera bat hartu behar dela; ospetsua da jada Vicheko idazlearen leloa: «Ez da tolerante intolerantzia jasaten ez duena».

1876an **Institución Libre de Enseñanza** sortu zen Madrilén; korrante jantzi eta arrazionalista gisara sortu zen, aurrerapen asmoak zituela, forma tradizionalista ofizialei aurre egiteko. Hor ikasi zuten burgesiako seme-alabek, eta beste herrialde batzuekin lehenengo trukaketa-kulturalak egin ziren hortik.

Ideia horien sustatzaileek haxe zioten: Espainian Elizak babesten zuen heziketa sistema baino ez zegoela, arras klerikala zela eta oroimenezkoa baino ez zela, gehien batean. Horregatik Institución Libre de Enseñanza elkarteak laikotasuna, arrazionalismoa eta heziketa aktiboa defendatu zituen. Instituzioak boterea kendu nahi izan zion nekazaritzan oinarritzen zen gizarte nobleari, eta horren ordeztu espiritu liberala zuen burgesia ilustratua jarri nahi zuen boterean. Giner de los Ríos aipatu behar dugu zeregin horretan, baita Bartolome Cossio, Riosen laguntzailea ere; kultura herriari zabaldu nahi izan zioten, eta ez soilik talde minoritarioei.

XIX. mendearen bukaeran, **Eskola Berria** izeneko mugimendu pedagogikoa sortu zen; izen horren pean adar aunitz batu ziren, adibidez: eskola aktiboa, baserri-eskola, lan-eskola, eskola-erkidego askeak eta heziketa etxeak. Ondoko printzipioetan oinarritu zen: autojarduketan, askatasunean, komunitatean, heziketa funtsak berrikustean, prozedurak moldatzean, irakaskuntza pasibotik aktibora igarotzean, lan indibidualetik elkarren artean egindako lanera igarotzean, irakasgai indibidualizatuetatik orokorretara igarotzean, eta hori guztia printzipio bakar batera heltzeko: «heziketa orok autoheziketa behar du izan», hau da, haurra da grabitate gunea, eta irakaslea, berriz, *laguntza* baino ez da; ikaslea lan-erkidego batean sartzen da.

21.1. Bigarren Mailako Irakaskuntza finkatze bidean

Biztanleria tradizionala eta nekazaritzari lotua zuelako nabarmendu zen XIX. mendea Nafarroan; gizarte horrek garrantzi handiagoa ematen zion «familia aurrera ateratzeari –horretarako familiako kide guztiek ordu aunitz egiten zuten lan- oinarritzko hiru arauak jakiteaz arduratzeari baino». Nafarren erdiak ez zekien ez irakurtzen, ez idazten ere, eta hirietatik herrietara inguratzen bagara, arras ongi antzeman daiteke eskolara joateko interes handiegirik ez zegoela: behar baino lehenago uzten zioten eskolara joateari edo nahiago izaten zuten nekazari lanak egin heziketa jaso baino.

Baina 1818ko Nafarroako Gorteak kezkatuta zeuden, eta Hezkuntza Batzordea osatu zuten hezkuntza hobetzeko asmoz, baina ez zen sekula lan hura gauzatu. 1828ra arte itxaron behar izan zen, eta orduan osatu zen Hezkuntzaren Batzorde Gorena; helburua antzinako erresuman hezkuntza sustatu eta bultzatzea, eta horretarako Plangintza Orokorra erabili zuten. Ikasketa planak eta araudiak egin zituzten, bereziki, zeinak lehenengo letren eskolek zuten garrantzia aipatzen zuten, baita gramatika eta latin eskolek eta goi mailako zentroek zuten garrantzia ere.

XIX. mendearen lehen erdia baino lehen sortuta zegoen jada, irakas-

kuntza ertaina; horren bidez gramatika eskolak ordezkatu ziren eta Bigarren mailako Irakaskuntzaren Institutuak sortu. Alor horietan egin zen promozioa hainbestekoa izan zen, ezen irakasleak prestatzeko Irakasle Eskola Arrunta sortu baitzen (1842) Iruñeko San Jose plazan, baita udalak zuzentzen zuen Marrazketa Eskola ere.

Baina, nola finantzatzen ziren? Nafarrek elkartasuna adierazi zioten elkarri, eta, horrela, gurasoak, bizilagunak, eliza eta udalak elkartu egin ziren ikastetxeek zabalik iraun zezaten. Iruñeko udala, adibidez, irakasleek eta baliabideez arduratu zen, zentroak berritu zituen eta ikasle batzuk, baldintza hobekak zituzten beste zentro batzuetara bidali zituen.

Mende bukaeran, Canovasek bigarren mailako ikastetxeak bultzatu zituen Espainia osoan (1876), eta fraide eta mojak izan ziren, batez ere, irakaskuntza horren ardura hartu eta klaseak eman zituztenak. Goi mailako bi zentro agertu ziren Nafarroan, Xabierko jesuitak eta Lekarozko kaputxinoak. Ezin ahanzi, langileen igandeko zentroak sortu zirenean, helduen irakaskuntzari eman zitzaion bultzada; aipatzekoak dira Azkoiengoa, Tuterakoa, Gareskoa eta Iruñekoa. Eustakio Olasok (1881) sortu zuen Iruñekoa. Egia esan berotasun handiagoa jarri zuten irakasle eta instituzioek egintza horretan, pertsona helduek interesa baino.

21.2. Euskal kultura eta euskararen atzerakada

Gobernu zentralak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako foruak kendu zituenean (1876), *euskal pizkundea* izena hartu zuen sentimendua sortu zen, eta Europa guztian sortu zen mugimenduaren kultur ñabardurak jaso zituen. Garai bertsuan –bi urte geroago, alegia– Nafarroan **Euskara Elkargoa** sortu zen; asmoa, Nafarroako alderdi politiko guztiak batzea zen foruen defentsa egiteko (foruzaletasuna), eta onarpen handia jaso zuen. «Jaungoikoa eta Foruak» leloaren babesean egindako lau probintzien batasun moduko bat izan zen; alderdi estatalak batasun horretatik kanpo utzi zituzten, eta zazpi euskal probintziak batu nahi izan zituzten (zazpiak bat).

Mugimendu horrek, Nafarroan, politikan eta kultura arloan abiatu zuen bere zeregina, arrandia handiko pertsonaiak buru zirela: **Iturralde y Suit, Arturo Campión, Nicasio de Landa, Estanislao de Aranzadi** eta abar, eta izen oneko bi egunkari zituztela: *Arga* eta *Lau-Buru*.

Pertsona horiendako euskararen defentsa egitea funtsezko kontua zen herriaren jarraipena bermatzeko; gehiago esan daiteke, euskaldunak berak izan ziren euskara galdu izanaren erantzule. Dena dela, erakunde horrek ez zuen inoiz aipatu Estatutik independentzia lortu behar zenik, ez eta banandu behar zenik ere, bestera baizik, espainolak zirela aldarrikatu zuten, eta Nafarroa foru probintzia gisara berreskuratu nahi zuten, Nafarroak zuen nortasun berezi eta independentea gordez, baina, betiere, Gaztelari loturik.

Euskara Elkargoa euskal kulturaren akademia gisara garatu zen, batik bat, eta harremanak izan zituzten euskal sentimendu horrekin bat egin zuten Europako pertsonaiekin, batez ere Frantziakoekin. Literatur lehiaketak eta sariketak antolatu zituzten, baita lore-jokoak ere; horretaz gain, kirolak, bertsoaritza, dantzak eta euskal gastronomia indartu zituzten. Erromantizismoak, literatur korronte gisara, euskal kultura sustatzen lagundu zuen; interes gune, herrikoitasuna eta niaren gorespina izan ziren, eta nobela historikoak ere sortu ziren, Arturo Campión, Juan Iturralde y Suit eta Francisco Navarro Villosladak egin zuten lanari esker.

Euskal kultura eta euskara sustatzeko sortu zen korronte hori egonagatik ere, XIX. mendearen erdialdera euskararen ezagutza murriztu egin zela nabari daiteke. **Luis Luciano Bonaparte**, hizkuntzalari frantsesa eta Napoleon I.aren biloba, Nafarroara etorri zen euskararen egoerari buruzko azterketa egitera: eskualde elebidunak zein ziren, euskararen ezagutza handiena zuten eskualdeak zein ziren eta euskara atzera egiten ari zen eskualdeak zein ziren aztertu nahi zuen, baita euskalkiak ere. Horrela euskararen mapa egin zuen, 1863 urtearen aurretik zeuden datuekin. Mapa horretan antzeman daiteke Estellerrian euskara, ahozko hizkuntza gisara, ia desagertu zela, eta bide berean zeudela Tafalla eta Zangoza. Ordurako euskara Iruñerrian, Irunberri aldean, Arakil ibarrean eta Pirinioetan soilik hitz egiten zen.

XIX. mendean eskoletara oso haur gutxi joaten bazen –gazteleraz ematen ziren klaseak–, logikoa da pentsatzea euskara are gutxiago erabiltzen zela heziketa hizkuntza gisara, eta beraz, ahozko hondar-hizkuntzaren zereginetarako geratu zela, batez ere, Nafarroa iparraldeko nekazaritza--eskualdeetan; horregatik da hain urria geratu zaigun idatzizko dokumentazioa. Euskaldunek euskara familiartean baino ez zuten erabiltzen, eta sermoietan eta erretoreek ematen zituzten katekesietan ere entzuten zuten euskara, meza latinez izaten zelako. Haatik, testu idatziak zabaldu ez zirenez, hizkuntza ez kultu izatera igaro zen, eta Nafarroaren hegoalde- edo erdialdera joaten ziren etorkinek familiartean euskara hitz egiteari ere utzi egin zioten.

21.3. XIX. mendeko pertsona ospetsu nafarrak

Ideiak defendatzeko bizi osoa emateko prest zeuden pertsonak izan zituen Nafarroak. Batzuk ideia ilustratuak eta liberalak defendatu zituzten Nafarroa tradizional eta nekazaritzari lotutako hura aldatzeko; beste batzuek iraganeko ondare historikoari heltzen zioten nostalgiak hartuta, eta nostalgia hori gorde eta ondorengo belaunaldiei utzi nahi izan zieten. Fede onez jokatu zuten bi aldeetakoek, eta diskurtso, ideia edo idatziekin beren lurralde eta jendearendako zegoen onena lortzeko borrokatu nahi izan zuten.

Serafin Olabe, Sevillan jaio zen (1831), baina nafarra sentitzen zen bihotzez. Minaren ondoan egin zuen borroka erregimen liberalaren alde, eta oso denbora gutxian kadete izatetik teniente koronela izatera igaro zen. Filipinetan eta Conchinchinan Espainiako armaden buru izan zen berrogei eta hamarreko hamarkadan.

Militar ilustratua izan zen eta armadari buruzko zenbait monografi idatzi zituen. Serafin Olabe foruzale eta errepublikazale gisara kontsidera daiteke. Kalagorrin hil zen 1884ko urtarrilean. Francisco Javier Paredesek esan zuen bezala: «Nafarroa ez zen esker oneko izan Nafarroa hainbeste defendatu zuen harekin. Ez zuen haren jaiotze toki izan nahi, eta ez zuen haren gorpu hotza lurrez laztandu nahi izan».

Jose Alonso (Corella, 1781-1855). Legelari eta magistratua izan zen; Isabel II. arekin alderdi progresistatik Justizia ministerioa izan zuen bere gain bi agintalditan. Hainbat epaile kargutik kendu zituen, bere ideologia bera ez zutelako, eta bere saileko funtzionario guztiei zalantzarik gabe gobernuari atxikitzeko eskatu zien; horrela botereen arteko banaketa eta independentzia aldarrikatzen zuten arau liberal guztiak urratu zituen. Estilo liberalez idatzi zuen liburu hau argitaratu zuen: *Recopilación y comentarios de los Fueros y Leyes del Antiguo Reino de Navarra*.

Francisco Javier González de Castejón y Elio (Iruñea, 1848-1919), Vadilloko markesa zen, aristokraten familiakoa. Diputatu izan zen, baita Zuzenbide Naturalaren eta Prozedura judizialen irakasle ere, Madrilen. Grazia eta Justizia, Nekazaritza eta Gobernadore ministro zela, Madrilen, alderdi liberal kontserbadorean sartu zen. Nafarroan, kontserbadorismoaren giltzarritzat hartu zen Vadilloko Markesa.

Basilio Lacort (Bera, 1851-Iruñea, 1908). Errepublikanismoaren ideologo handia izan zen. Karlistadan hartu zuen parte gobernuaren aldeko taldean, Elizondon, eta Kuban ere egon zen. El Porvenir Navarro sortu zuen: errepublikazalea, laizista eta antiklerikala zen, eta liskar handiak izan zituen Iruñeko apezpikuarekin.

Juan Iturralde y Suit (Iruñea, 1849-Bartzelona, 1909). Bordelen eta Parisen erromantizismoaren iturritik edan zuen; merkataritza ikasi zuen han, eta Iruñera itzuli zenean mugimendu foruzalean sartu zen. 1878 urtean *Nafarroako Euskara Elkargoa* sortu zuen, *Euskara* aldizkariaren zuzendari izan zen, eta *El Arga*, *El Eco* eta *Lau Buru* egunkarietan kolaboratzaile izan zen. Horretaz gain, historiaurrea ikertzen aritu zen, arkeologoa baitzen, eta berak egiten zituen olio-pinturekin bere artikulak ilustratu ere egin zituen.

Pascual Madoz (Iruñea, 1806-Genoa, 1870). Liberal progresista izan zen, El Catalán egunkariko zuzendari, Bartzelonako (1854) eta Madrilgo gobernadore, Kongresuko Presidente eta Ogasun ministroa; desamortizazio bat egitea agindu zuen ministro zela. Bere obrarik sonatuena: *Diccionario geográfico, histórico y económico de España* da.

Labur bada ere, beste hauek ere aipatu behar ditugu: Antonio Aparisi eta Guijarro, eta Juan Cancio Mena, *karlista amorratua*. Jose Sánchez Marco abokatua; Milagron jaio zen (1865-1949), Nafarroako alderdi integristaren kide gailena izan zen, eta giza-katolizismoan eta *La Conciliación* sindikatu mistoan parte hartu zuelako nabarmendu zen. Pedro Uranga Esnaola, Hernanin jaio zen eta Iruñean hil; Nafarroako nekazaritza defendatu zuen, nekazaritza-kredituak bultzatuz; Diputazioaren idazkari eta aholkulari izan zen, eta borroka egin zuen Nafarroako Nekazaritza Bankua sor zedin, bai eta Tafallako Nekazarien Kutxa ere. Nafarroako seme kuttun izendatu zuten, 1927ko Itunaren alde lan aunitz egin zuelako. Kontserbadorea izan zen eta Mauraren aldekoa.

21.4. Lumaren artezale eta arpegiozale nafarrak

XIX. mendean, Espainian Independentzia Gerrak, borroka politiko eta zibilek, eta demografia eta industria geldialdiak kultur-prozesua geldoa izan zedin eragin zuten, nahiz eta batzutan akuilu eta bultzagarri ere izan ziren maila intelektualean eta artistikoan jenio handiak azalarazteko.

XIX. mendearen lehen urteetan hasi zen literaturarik adierazgarriena **erromantizismoa** izan zen, baina ez zen 1835 urtera arte sendotu; Martínez de la Rosa, Espronceda, Rivasko dukea eta Larrarekin gertatu zen hori.

Nafarroan mugimendu erromantikoak Espainian izan zuen prozesu bera jarraitu zuen: gehiegizko idealismoa nabari zen, sentimentalismoa erabiliz hunkitu nahi zen, naturarenganako maitasun handia sentitzen zen eta gai herrikoiak lantzeko afizioa zegoen. Dena dela, badira zenbait berezitasun: Nafarroan ia ez zen antzerkigilerik eta poetarik izan, eta ap ez aunitz zegoen, zeinak oso gai zailak eta korapilotsuak idazten baitzuzten hizkuntza dotorez.

Nafarroa, alabaina, maila handia ezarri zuen mugimendu erromantiko batengatik nabarmendu zen: **nobela historikoarengatik**, alegia. XIX. mendearen hasierako urteetan *Ivanhoe* sortu zuen Walter Scott nobe-



JULIAN GAIARRE TENOREAREN ERRETRATUA (1844-1890). Erronkarin sortua, gazte gazterik, artzain hasi behar izan zuen eta, geroago, arotz, ogia atera ahal izateko. Iruñera joana, Joaquin Maya eta Eslabak «benetako harribitxia» antze-man zuten mutil erronkariarrarengan.

Lehenbiziko urratsak ez ziren batere errazak gertatu eta Madril, Tuteran, Milan, Varese, Parman eta beste tokietan barna ibili behar izan zuen abeslari onaren ospea lortu artean. Azkenik, tenore lirikorik gorenaren maila eskuratu eta, 1876 eta 1886 bitarteko hamar urteetan, Europako antzokirik garrantzitsuenetan aritu zen.

Gaiarre, historiako abeslari onenetarikoa izan da, izarretako bat: gizon-ahotsa baitzuen eta gozoa, ederra baitzen zinez ahotsaren tinbrea, eta, aparteko erraztasuna baitzuen tonu zolietara, garbi garbi, igotzeko. 1950ean, Alfredo Kraus abeslari zendua protagonista izan zen Gaiarrerren filma biografikoan eta, 1985ean, José Carrerarek Gaiarrerena egin zuen *Romanza final* izenburuko filmean. Gaiarrek esaten zuen, amak bi aldiz sortu zuela bera, lehenbizi mundura eta gero artera. Aitak, lilurak hartuta, hauxe esan zuen semea *La Favorita* kantatzen entzun zuenean: «Inork ere ez du kantatzen etxeokoa bezain ongi».

lagile ingelesa izan zen genero horren bultzatzaile; mistizismoz eta zaldunen izpirituz betetako ertaroko istorioak gogorarazten ditu. Nobela historiko horiek Europa osoan zabaldu ziren.

Espanian berehala zabaldu zen nobela genero hori, baina genero horretan hobekien idatzi zuena Enrique Gil y Carrasco izan zen, *El Señor de Bembibre* nobelarekin. Baina **Francisco Navarro Villoslada** nafarra ez zitzaion atzean geratu, eta nobela historiko hauek idatzi zituen: *Doña Blanca de Navarra* eta *Doña Urraca de Castilla*, eta gehien irakurri izan dena, dudarik gabe, *Amaia edo VIII. mendeko euskaldunak* (1877); prosaz idatzitako poema da, nafarren iragan erromantikoa gogoratzen digu, eta horretarako deskribapen zabalak erabiltzen ditu.

Navarro Villosladak biografia aberatsa du: politiko, kazetari, poeta, antzerkigile eta nobelagile izan zen. Haren birbilobek Nafarroako Unibertsitateari utzi diote idazlearen artxiboa; horrela Carlos Mata Indurainek dokumentazio guztia katalogatu eta Villosladaren bizitza eta obra aztertu du. Beste zenbait idazkiren artean, argitaratu gabeko nobela bat kaleratu du; Bilbon girotutako nobela da, eta izenburua: *Doña Toda de Larrea edo la madre de la Excelenta* (Excelenta Fernando Katolikoaren alaba zen). Bianak –hor jaiotzen idazlea– ere ahal izan duen guztia egin du Villosladaren obrak zabal daitezzen, «seme kuttun batek merezi duen bezala». *Viana en la vida y obra de Navarro Villoslada* izeneko liburua argitaratu dute. Hauxe dio López Antónek: «Villoslada beste ezer baino lehen katoliko espainol amorratua da, zeina harrotu egiten baita bere euskal jatorriaz».

Amaia nobelak ez zituen esku-zarta handiak jaso argitaratu zenean, arrakasta handiagoa izan baitzuten Pereda eta Galdosen ohitura-nobelek, eta Villoslada, gainera, karlista alderdikoa zen, eta horrek ere izan zuen eraginik; bere etsaiek bizkarra eman zioten. Honetan datza nobela: Amaia, Aitorren ondorengo baten alaba (Aitor euskal herria eratu zuena izan zen) eta duke godo baten alaba da (euskaldunek gorrotatu egiten zituzten godoak). Musulmanek lurraldea beren mende hartu nahi dute, eta mehatxu horretatik defendatzeko ordura arte aurkari izan ziren eus-

kaldunak eta godoak batu egin behar dira eta elkarrekin borrokatu. Bide horretatik Amaia euskaldunen ikur eta sinbolo bilakatu zen, zeinak askatasuna eta nortasuna berreskuratu behar baititu. Nobelan euskal elezahar-rak deskribatzen dira, erlijio tradizioekin batera.

Arturo Campionek, *Blancos y Negros*, *La Bella Easo* eta *Euskarianas* lanekin eta Juan Iturralde y Suitek ere, *Tradiciones y Leyendas Navarras* liburuarekin, gai historikoak landu zituzten, eta horretarako erromantizismo pausatua eta lirikoa erabili zuten. Jose Yanguas y Miranda ere ezin aipatu gabe utzi, *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra* gai historikoa argitaratu zuen, eta zenbait atal satiriko ere sartu zizkion.

Felix Urabaien (Ultzurrun, 1884-Madril, 1943) maisua eta Irakasle eskolako irakaslea izan zen; *Don Amor volvió a Toledo*, *Bajo los robles navarros* eta *El barrio maldito* lanak idatzi zituen; azken hori Baztanen zeuden agotei buruzkoa zen. Liburu horiei guztiei muzin egin zitzaien eta baztertu egin ziren.

XIX. mendeari **musikarien mendea** ere dei diezaiokegu. Beethovenek adierazpide iraultzailea, askea eta energikoa erabiliz estreinatu zuen mendea; Schubert austriarrak, Schumann alemaniarrek edo Chopin poloniarrek ideal erromantikoak irudikatu zituzten. Nafarroan, berriz, hauek nabarmendu ziren: Hilarion Eslaba (1807-1878) bere operengatik eta *Miserere* izeneko obra erlijiosoarengatik; Emilio Arrieta garestarra (1832-1894) *Mariana* izeneko zartzuarengatik; Joakin Gaztanbide (1822-1870), horrek ere zartzuela egin zuen; Pablo Sarasate (1844-1912) biolin jole handia, baita konpositorea ere, *Navarra* obra egin zuen, eta Julian Gaiarre erronkariar tenorea (1843-1889), munduko antzoki onenetan aritu zen. Gaiarrerren gorpuzkinak Benlliurek Erronkarin egin zuen mausoleoan dautza.

Aipatzeko beste pertsonaia batzuk Gelbenzu, Larregla –*Viva Navarra* jota egin zuen– eta Miguel Astrain –*Vals de San Fermín* egilea– dira. 1891 urtean Remigio Mugikak *Orfeón Pamplonés* edo Iruñeko Orfeoia sortu zuen.

ARTEA ETA ESTILO NAHASKETA

Europar, XIX. mendearen lehenengo urteetan, gorde egin zen neoklasizismoa. Gero, lekua utzi zion estilo horrek arkitektura erromantikoari, eta horrek neogotismo eta eklektizismoarekin erdi aroko estiloak imitatu zituen, estilo nahasketa eginez. Alabaina, arkitekto modernistek beren diseinuak osotasunaren ikuspegitik egiten zituzten. Pinturak asko baldintzatu zuen eskultura, eta monumentu zibilak egin ziren gehien bat. Rodin izan zen aipagarriena *Pentsalaria* edo *Calaisko burgesak* lanei esker; monumentu horietan bolumena eta forma dira aipagarri, baita argia nola sartzen den ere.

Pintura erromantikoak hautsi egiten du neoklasizismoa eta paisaian zentratzen da; pintura erromantikoaren ordezkari Delacroix frantziarra dugu, eta bere margoei kolore bizia eta mugimendua ematen die. XIX. mendearen azken laurdenean erreakzio bat sortu zen erromantizismo eta errealismoari aurre egiteko: pintura inpresionistak, zeinak beren obrak paisaiez eta ibaiko ikuspegiez betetzen baitzituzten, argiz eta kolorez, eta objektuen forma iragankorra eta aldakorra zen zerbait bezala ikusten zuten, eta horretaz gain pintzelkada soltea, laburra eta indartsua izaten zuten. Aipatzekoak dira: Monet, Degas, Renoir, Manet eta Cézanne.

22.1. Arkitektura neoklasikoa, modernista eta eklektikoa

Nafarroan, esan behar da, estilo berriek zekartzaten aurrerapenak eta haiek finkatzea motelagoa izan zela, ezen XIX. mendea aurrera eginik ongi egon arren, arkitektura neoklasikoa zen oraindik ere nagusi. Mendi-zabalen desamortizazioa egin zenean (1836), komentu aunitz hustu egin ziren, eta, horrekin batera, **altxor artistiko handiak galdu ziren**. Monasterioak, baratzeak, barne aldeko klaustroak eta abar beste gauza batzuetarako erabili ziren, oraindik ere Iruñea zen plaza indartsuaren barnean leku falta zegoelako. Horietariko asko armadaren eskuetara pasatu ziren, Carmen, Merced eta Compañiako komentuak, esate baterako.

Karmeldar Oinutsen antzinako komentuaren gainean **obra zibilak** eraiki zituzten: *Teatro Principal* eta *Diputazioaren Jauregia*; azken hori Jose de Nagusiak (1843) egin zuen; estilo neoklasiko soila du, eta arte erromatarrean inspiratutako frontoi eta zutabeekin egindako apaingarriak ditu. Beste obra zibil bat Tafallako *Plaza Berria* dugu; Martin Sarazibarrek (1856) egin zuen, eta hainbat karrerape ditu eta Udaletxearen aurrealdea nabarmentzen du. Azkenik, antzinako *Merkataritza Eskola* edo *Irakasle Eskola* jaso zen –hori ere neoklasikoa– Katedralaren ondoan; Maximiano Hijónen obra da, eta kanonikoen etxeak desamortizatu zirenean eraiki zen.

Estilo neoklasikoaren barnean, baina obra erlijioso bezala, hauek nabarmendu daitezke: Azkoiengo parrokia (1829-1833), Lizarrako *San Juan* elizaren barne aldea eta fatxada berritza (1849) eta Mendigorriako sakristia.

I. Vatikanoaren (1869-1870) aire berriztatzaileek ere izan zuten eragina arkitekturan, ezen arkitekturak bere estilo berria ertaroko erromaniakoan eta gotikoan oinarritzen baitzuen. Eklektizismo izena hartzen du bi eraginak batera izanez gero edo neorromanikoa edo neogotikoa, bestela. Korronte horien barneko dira ondokoak: Iruñeko *San Lorentzo* eta *San Agustín* elizen fatxadak neorromanikoak dira eta Florencio Ansoleagak diseinatu zituen, eta *Aldapako San Ferminena*, berriz, Julian Arteagak egin

zuen. *Xabierko Gazteluaren* eta basilikaren zaharberritzea eklektiko estilokoa da, eta Angel Goikoetxearen lana.

Dena dela, Iruñeak XIX. mendearen bukaera arte mugatuta ikusi zuen bere burua harresien artean. Armadaren buruak ez zeuden harresiak botatzeko prest, ez eta hesitutako eremuaren barnean nahiz kanpoan etxebizitzak eraikitzeke prest ere, beldurra baitzieten inbasio berriei edo karlisten altxamenduei. Iruñea plaza indartsua zenez, ezin zen zabaleran hazi, eta, beraz, altueran egin behar izan zuen; horretarako eraikitzen zen etxe bakoitzari bost solairu ere jasotzen zizkioten. Karrika estuetan eraikitzen ziren etxeak, ertaroko eran, eta etxebizitza askok ez zuen sekula eguzkirik ikusten; leku falta zegoenez, baldintza higieniko eskaxak zituzten eta familiakide aunitz bizi ziren etxebizitza bakar batean.

1888 urtean hiriko hainbat alde botatzen hasi ziren, eta Zitudadela-ko izar formako gotorlekuari bi punta jan zizkioten. Hainbat eraikin militar eta etxe partikular jaso zen. Lehenego Zabalgunea da. Horretaz gain, garai hartako mugimendu artistikoei jarraiki, hainbat etxebizitza eta eraikin publiko ere eraiki ziren: Mankomunitatearen gaur egungo egoitza, neo-mudejar estilokoa, Goienetxearen obra izan zen; *Ogasun Ordezkaritza*, modernista da eta Martinez de Ubagok egin zuen; *Entzutegia*, estilo klasizista du, eta Arteagak egin zuen edo *La Agricola* eraikina, gaur egun liburutegi nagusia dagoen eraikina, modernista hau ere.

Eskulturari, Francisco Sabando eta Carlos Pedduzy nabarmendu ziren; San Ferminen tenpleteko eskulturak landu zituzten (1819), baita Jose Piquer katalana ere; horrek Iruñeko Katedraleko klaustroan dagoen Espoz y Minaren mausoleoa zizelatu zuen marmol zuria erabiliz.

22.2. Margolari nafarrak eta emigrazioa

Erromantizismoarekin arte garaikidea hasi zen European, eta erromantizismoaren atzetik errealismoa eta naturalismoa sortu ziren. Baina, horietaz gain, arte ofizialari aurka egiten zioten beste forma estilistiko

batzuk ere agertu ziren: inpresionismoaz, modernismoaz eta fauvismoaz ari gara.

Nafarroa ez zegoen prestatuta abangoardiako korronte berri horiek barneratzeko, ezen ekonomiak, kulturak eta, batez ere, politikak –gerraz gerra zebilen Nafarroa– ez baitzuten apaindura askotarako ematen. Gainera, burgesiak ez zuen *mezenas* papera bete. Horregatik oraindik ere neoklasizismoak mantentzen zuen arte tradizionala garatu zen, nahiz eta berrikuntza horien arrasto batzuk egon badauden, eta arrasto horiek mugatu zuten, hain zuzen, errealismo eta naturalismoaren sarrera, Nafarroan.

Iruñeak ez zuen pintura-mugimendu handiegirik. **Arte eta Ofizioen Eskola** eta **Asarta edo Zigaren Akademia** zeuden, baina txiki geratu ziren eta bertako ikasleek Madrilgo *San Fernando* eskolara joan behar izaten zuten, edo Erromara edo Parisera bestela, inpresionismoaren sorleku baitziren. Artista gazte horiek, titulua besazpian zutela, Nafarroara itzultzen ziren heinean, porrot egitera itzuli zirela nabaritzen zuten, publikoak ez baitzuen ulertzen *modernismo* hura; ez zegoen arte-merkaturik ez eta galeriarik ere, Diputazioko edo Udaletzeko aretoetan egiten ziren erakusketak izan ezik. Horregatik, emigratu egin behar izan zuten beren lurraldetik eskola gehiago eta sormen artistiko handiagoa zegoen hirietara.

Pintura-girorik ez zegoenez, XIX. mendearen azken hamarkadetan tertuliak jaio ziren; kafetegiak, denda-atzeak, etxeak eta establezimenduak izaten ziren tertulietarako leku aproposak. Leku horietan intelektualak, pintoreak, musikariak eta abar elkartzen ziren, gai hagitik desberdinak eztabaidatzeko. Jende gehien Eslaba karrikan zegoen Navarra Artística-n biltzen zen; arrakasta bere jabeari esker lortu zuen, Francisco Sánchez margolari eta dekoratzaileari esker, alegia. Hantxe biltzen ziren Nafarroako *gaina eta lorea*, baita ondoko artistak ere: Antonio Cabases, Jesus Basiano, Javier Ziga, Millan Mendia, Enrike Zubiri, Inocencio Asarta, Victoriano Juaristi mediku eta intelektuala, Victor Eusa arkitektoa, Ignacio Baleztena idazle eta politikoa... Arteari buruz, historiari

buruz eta, batez ere, pinturari buruz hitz egiten eta eztabaidatzen zuten. Eta leku horretan beretan erakusketak egiten eta pintura koadroak saldu ere saltzen ziren.

Nafarroan XIX. mendeko pinturari buruz ari garela, hiru etapa bereiz ditzakegu: lehenengoak 1875 urtera arte hartzen du, bigarrenak mendearen bukaera arte, eta, hirugarrenak, pintore historizistak ditu.

Lehenengo etapa. Lientzoaren artea lantzeko eta sustatzeko interes gutxi zuen Nafarroarekin egiten dugu topo, eta, beraz, horretan etorki-zun gutxi zuen Nafarroarekin. Horregatik beste eremu batzuetatik ere ez zen etortzen pintorerik apenas, eta nafarrek, aldiz, pinturaren aldekoagoak ziren estatuko beste leku batzuetara joan behar izan zuten ekonomiko-ki bizi zitezen. Egoera horrek ere badu eragina pintore horien emaitzetan, hau da, beren pinturak zapo tradizionala zuten, eta garaiko mugimendu modernistak ez ziren ia antzematen beren lanetan. Garai horretako guztiak pintore eta irakasle izan ziren.

Enrike Zubiri (Luzaide, 1868-Iruñea, 1943) Nafarroan bizi izan zen pintore bakarra dugu. Arte eta Ofizioen Eskolan irakasle aritu, eta nafar margolari aunitzen aita izan zen. Errealismoaren eta naturalismoaren baitan jardun zuen, detaileak xehetasunez zaintzen ditu eta marrazkia eta kolorea ongi menperatzen. Paisaia eszenak eta erretratuak birsortu zituen, eta gehiegi erabili zituen hondo neutro eta tonu ilunak irudia nabarmen zedin, adibide gisara, *Paulino Caballero* jar genezake. Zubiriri arras baturik daude Eduardo Carceller eta Ricardo Baroja (1871-1953). Baroja Beran hil zen, eta estilo inpresionista izan zuen, paisaiak, erretratuak eta barne aldeak egin zituen.

Salustiano Asenjo (Iruñea, 1834-Valentzia, 1897) neoklasizismo eta erromantizismo estiloen eraginpean hezi zen, eta argiz betetzen zituen historiako marrazki eta pinturak egin zituelako nabarmendu zen, baina, batez ere, bere erretratuak egin ziren ospetsu: *Eslaba*, *Sarasate* eta *Gayarre* bereak dira; Iruñeko Udalak agindu zion erretratu horiek egin zitzan. Valentiako San Carlos Eskolan irakasle izan zen.

Inocencio Garcia Asarta (Gastiain, 1861-Bilbo, 1921). Formazio

handia izan zuen, eta Gasteizen, Bartzelonan, Madrilen, Erroman eta Parisen ikasi zuen. Estilo pertsonala du, errealismo eta inpresionismoaren arteko nahasketa egin zuen; bere marrazkietan ongi nabarmendu daiteke nahasketa hori, baita argi-ilunetan eta perspektibetan ere. Genero historiko eta kostunbrista guztiak landu zituen: bodegoi eta paisaiak, baita barneko eszenak ere, gris tonu gehiegi erabiliz. Bilboren erretratugile ofiziala izan zen. Paperaren gainean pastela erabiliz, 1895ean, *Retrato de la Niña* izeneko lana egin zuen; estilo errealista zuen, aurpegia fisikoa izate-tik harantzago doa, eta bere barnera garamatzen begi malenkoniatsuak ageri ditu.

Andres Larraga (Valtierra, 1861-Bartzelona, 1931). Parisko giroetan hezi zen, eta hortik, gero, Kataluniara igaro; Katalunian Oloteko Eskolan egin zuen lan, Jose Armetekin batera. Estilo tradizionala modernoarekin nahastu zuen, eta bodegoietan nabarmendu zen, baita folklorean (*Andaluziakoa*) ere, eta, batez ere, sona handiko paisajista izan zen, tonu gris eta argiekin egindako *Puerto* izeneko lanean nabarmen daitekeenez.

Nicolas Espartza (Tutera, 1872-Sestao, 1928). Bilbon ikasi zuen pintura eta gero Sestaoko Arte eta Ofizioen Eskolan marrazketa katedra bete zuen. Erretratugile handia izan zen, eta bere konposizioa eta teknika *Ayudando a la lectura* lanean nabari daitezke; tonu soilekin egin zuen lan hori, eta burgesen bizitza azaltzen du.

22.3. Mende bukaerako pintura abangoardista

1875etik aurrera Nafarroako pintura garaikidearen bigarren etapa hasi zela esan daiteke; aurrekoa baino aberatsagoa izan zen, ezen lehenengoan Nafarroako pintore gehienek beren lurraldetik at joan behar izan zuten, Nafarroan ez zegoelako ez girorik, ez eskolarik, ez bizi ahal izateko baliabide ekonomikorik ere. Beraz, artisten bigarren belaunaldi hori xx. mendearekin elkartzeko zubi izan zen. Nafarroan bizi izan ziren margolariak dira: Ziga eta Basiano Iruñean bizi izan ziren, Etxenike Elizondon eta Maeztu Lizarran.



DIPUTAZIOAREN JAUREGIA EDO NAFARROAKO JAUREGIA, JOSE DE NAGUSÍA JAUNAK EGINA (1843). ESTILO NEOKLASIKOA DU. Estatuarekin egindako itunaren emaitza Lege Itundua izan zen (1841), eta, lege horren ondorioz, Nafarroak bere erresuma izaera galdu eta probintzia bihurtu zen. Hala ere, bere autonomiari eutsi zion hein handian, eta, Diputazioa izan zen herentzia horren bermatzailea, araubide ekonomikoari eta administratiboari dagokionean, batez ere. Konstituzioaren (1978) eta Foruaren Hobetzearen (1982) onspenaren bitartez, Nafarroak bere gorteak berreskuratu zituen, Parlamentua ere deitzen dena, eta, era berean, Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernuua. Gobernuko lehendakariak eta kontseilariak eginkizun exekutiboa betetzen dute, Jauregitik zuzendua.

Javier Ziga (Iruñea, 1877-1960). Madrilgo maisu handiekin hezi zen, baita pintura flamenkoarekin ere Belgikan eta Alemanian. Parisen, joera progresistekin bizi izan zen, tonu grisetan egindako hiri-paisaiekin eta efektu atmosferikoak zituen inpresionismoarekin. Iruñera itzuli zenean inpresionismoaren eraginak zituen estilo errealista garatu zuen; bistak egiten ditu argia mimatuz, koloreek oreka ageri dute eta garrantzia ematen dio detaileari.

Bere ospea Baztanen ikusi zituen eszena kostunbristei esker (*Baztango azoka*) lortu zuen; horrek euskal ezaugarriak eta izaerak definitzen ditu. *Taberna* izenburuko lientzoan egindako olioia da aipagarri, Iruñeko alde zaharretik atera zuen; ezin ahaztu erretratuak ere: *El Doctor Balda*,

kasu. Erretratu horri begiratuta aurpegia arimaren irudia dela dirudi, zuzen egindako marrazkia du eta argi bereziz jantzi zuen.

Jesus Basiano (Murtxante, 1889-Iruñea, 1966). Nafarroako paisaia lientzo batean irudikatzen hobekien ikasi zuen artista dela esan daiteke. Urtaro desberdinetan ikusitako mendiak eta ibarrak sentimendu, bizipen eta inpresioen iturri agortezin izan ziren Basianorentzat. Dario Regoyosek eta Euskal Herriko pintoreek eragin handia izan zuten Basianorengan, horiek hurbildu baitzuten inpresionismora.

Nafarroako paisaiak koadrora pasatzen ditu zuzenean, argiz beterik eta koloreetan nahaste zabala eginez. *In situ* margotzen ditu, han bertan, goroldio, garo eta pagadi usaina darion begirada orokor bati loturik. Aipagarri dira: *Otoño* eta *Puente Viejo de la Rochapea*; azken hori hiru elementuak, airea, lurra eta sua, batzen dituen olio da.

Francisco Etxenike (Elizondo, 1880-1948). Ez zen ikasten aritu, bere kontura zaletu zen paletaren artearekin. Pintore eta marrazkilaria izan zen, eta bere obra Baztango paisaian gauzatu zuen. Errealismo eta naturalismotik inpresionismorako urratsa egin zuen; estilo horretako da *Mirando a Lekaroz* obra, tonu finetan egindako neguko egun bat ageri digu.

Gustavo de Maeztu (Gasteiz, 1887-Lizarran, 1947). Nafarroatik kanpo jaio zen arren debozio eta grina handia sentitu zuen Egaren hiriarekiko. Bere bizitzaren lehenengo etapan, gerra zibila bitartean, Espainian barna ibili zen herriz herri, eta era guztietako paisaiak eta herri-ohiturak margotu zituen, adibide gisara: *Los novios de Vozmediano* edo *Eva*, emakume biluzia ageri du hondo urdinen aitzinean; bilo beltz eta atxabitxi koloreko begiak dituen eta gorputz joria duen emakume espainola irudikatzen du. *Eva* izeneko koadroa Bilbon aurkeztu zenean, izugarritzko eskandalua sortarazi zuen.

Bere bizitzaren bigarren etapa, Lizarran bizi izan zuen ia osorik. Garai horretan gerra-ondorenak sortarazten zizkion emozio eta sentimendu ezkorrak adierazi zituen, eta nabarmen erori zen bere kalitatea lan horietan.

22.4. Pintore historizistak eta Diputazioaren Jauregia

Urte garaikideetako margolari nafarren bi etapa horiek aipatu eta gero, hirugarren bat ere aipatu behar dugu: pintore historizisten edo historiari buruzko pinturaren garaia, alegia. Nafarroan sustraitze handia izan zuten, **Diputazioaren Jauregia** eraiki zelako, batik bat. Pintura historizista 1850 urtetik 1875era garatu zen –garai isabeldarra dugu– nafar guztiak ordezkatzeko zituen eraikina apaintzeko, bereziki, Tronu-Aretoa (1861-1865).

Apainketa **Maximiano Hijón** logroñoarrak egin zuen. Berak aukeratu zituen laguntzaileak, Nafarroako historiari erreferentzia egiten zioten pinturak nabarmendu eta egin zitzaten. Hormetan Antzinako Erresumako oinarrizko gertaerak irudikatu nahi ziren. Horrela, bigarren gorputzeko arkuetan Nafarroako erregeak ageri dira: gorputz osoko erretratuak dira, eta ate eta aurrealdean gainean Navas de Tolosa eta Orreagako batailak irudikatu zituzten, baita Antso Handiaren testamentua, Gorteen bilkura bat eta San Ferminen erlikiak aurkitu ziren unea ere. Alejandro Ferrant, Francisco Mendoza, López Corona eta Francisco Aznar izan ziren obra horren egileak.

Aipamen berezia merezi du jauregia apaintzen aritu zen nafar bakkarrak: **Martin Miguel Azparren** izan zen, Eugin jaioa bera. Nafarroa irudikatzen duen eszena bat egin zuen sabaian; andere handi bat margotu zuen, kolore biziko jantzi oparoak zituena; forma obalatua eman zion eta bertute kardinalak –zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta neurritasuna– irudikatzen dituzten lau alegoriez inguratu zuen. Pintura ez da oso espresiboa, irudi hieratikoa dituen eta garaiko italiar eskolek zuten estiloarekin bat dator oso.

V
XX. MENDEA

XIX. mendetik XX.enera pasatzeak aldaketa handia ekarri zion pentsamolde politikoari. Alde batetik, aurrera doa historiaren bilakaera ziklikoa eta, beste alde batetik, ateak zabaltzen zaizkio beste gatazka bati. Gatazka horretan eraisten dira aurreko gizaldiaren zibilizazio liberal eta burgesaren balorearen oinarriak.

Ekonomiari dagokionean, bigarren **industria-iraultza** gertatzen da. Izan ere, ekoizpen handiak daude, finantzabide berriak eta izugarritzeko aurrerapen zientifikoak. Maila sozialari dagokionean, burgesia finantzari handiak botere politikoaren eta ekonomikoaren sokari heltzen dio. Politikagintzari dagokionean, burgesiaren garaipena nabarmendu beharra dago hautaketa demokratikoaren sistema erabilia, sufragio unibertsalaren bitartez. Halaber, potentzia handiek nazioarteko politika kontrolatzen dute. Azkenik, kulturari dagokionean, naturalismoaren aurka jotzen duen mugimendua sortzen da, inpresionismoari eta sinbolismoari ateak zabaltzeko.

Kapitalismo finantzariak langile olde handiak behar ditu, **proletarioak**, elkarte edo sindikatuetan elkartzen direnak euren eskubideak aldarrikatzeko (Langileen Konfederazio Orokorra, Trade Unions). Era

berean, sozialismoa sortzen da, kapitalismoaren aurkako sistema soziala eta ekonomikoa, alegia, Owen eta Karl Marxek bultzatua; halaber, komunismoa sortzen da, hau da, azken ondorioetaraino eramandako sozialismoa, klase borroka eta langileen diktadura defendatzen dituena.

Elizak aurreko mendeetako **funtsezko zeregina eta zeresana galtzen du**. Hala ere, saiatzen da liberalismoari, sozialismoari eta modernismoari aurre egiten, Pio IX.a eta Leon XIII.aren garaian, Vatikanoko I Kontzilioaren bitartez. Dena dela, industrigune handietako langile oldeek ez zuten elizatik hartu eskatutako sostengua eta mugimendu berrien alde jo zuten.

Espanian, mendea hasi bezain laster, Alfontso XIII.a tronuratzen da (1902), 1876ko Konstituzioa onartzen delarik. Bere erregealdian, gizarte-arazoak larriagotzen dira: badira grebak, hilketak eta atentatuak, Kuba eta Marokoko aferak ahanzi gabe. Alde horretatik, Annualetako Hondamena 1921ean gertatzen da. Alderdi kontserbadoreak, Maurak zuzendua, erreka jotzen du –Bartzelonako Aste Tragikoa– (1909). Canalejasen heriotzak (1912) eta 1917ko Greba Orokorrak, armadak zapaldua, egoera larriagotzen dute.

Gauzak horrela, estatu-kolpeaz baliaturik, Primo de Riverak diktadura ezartzen du, burgesiaren eta oligarkiaren sostenguarekin; geroago, II Errepublikak errotuko da eta, azkenik, Gerra Zibila gertatuko da eta, ondoren, Francoren erregimena, 40 urtez iraunen duena. Francoren heriotzaren ondotik, Espainia trantsizio prozesuan sartuko da. Horrela, konstituzio demokratikoa bozketa bidez onartzen da. Horrek oinarria ematen dio, herrialde libre gisa, Europako erakunde guztietan parte hartzeko. Eginkizun nagusia du gainera, elkarren arteko moneta –euroa– ekarriko duen Europako Batasunaren eraikuntzari begira.

23.1. Motibazio politiko eskasa

Gamazadaren garaipen laburrak (1893) hats eman zien nafarrei xx. mendeari indarrez ekiteko, **fuerismoa** (foruzaletasuna) deitutako mugimenduaren bitartez. Dena dela, XIX. mendearen akaberan krisi ekonomi-

koa gertatu zen. Frantziako lurraldean ardoa sartzeko debekuak gainera, krisia larriagotu zuen.

Beste alde batetik, **pentsamendu historizista** sortzen da. Horren arabera, erregioen aniztasuna eta bereizitasuna ez datza gizabanakoengan, ezta jokatzeko moduan ere, baizik eta talde-kontzientzian. Horrexek ematen dio nortasuna erregioari. Horrek tradizionalistak eta nazionalistak iratzarri zituen.

Historizismo juridikoaren eraginez, **erromantizismora** jo zuten, herrien eta hirien iragan historikoan funtsatua. Araba, Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan, euskal nazionalismoaren mugimendua ekarri zuen, eta are gehiago, independentzia lortzeko borroka ere bai.

Intelektual, liberal, karlista eta foruzale talde batek politika molde hori bultzatuko dute (1876-1877). Haiekin bat egingen dute izen handiko politikariek, iraganeko garai ospetsuei buruzko ikerketa lan historikoen nahiz juridikoen bidez. Konparazio batera, **Serafin Olave** ageri da, *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales de Navarra, Aragón y Valencia* (1875) idatzi zuena edo **Navarro Villoslada Amaia** edo *VIII. mendeko Euskaldunak* liburua idatzi zuena. Azken istorio horiek erdi errealitate, erdi fikzio dira.

Beraz, badago Nafarroa eta Hiru Probintzien arteko hurbilpena. Horrela, 1877an, Iruñeko Euskara Elkargoa sortzen da hala nola *Unión Vasco-Navarra* delakoa. Horren ondorioz, Euskalerrriako izeneko Alderdia eratuko da. Pausu bat gehiago ere ematen da: galdutako erakundeak berriz ere edukitzeko aldarrikapena, alegia.

Horregatik, Nafarroako Kontseilu Administratiboa eratzen da, geroago **Foru Kontseilua** (1898) deituko zena. Diputazioari nola halako sostengua eman nahi zitzaion, foruak hobetzeko ahaleginean, eskubide historikoak mehatxupean ikusten baitzituzten. 19 kide zituen eta gehienek ondare handiak zituzten. Erakunde fiskalizatzailea eta aholku-emaitzailea zen hura, baina XX. mendean barna ahuldu zen eta ez zuen botererik eduki.

Alderdi gehienek foruzaleztat zuten euren burua eta Gamazadak biztuaraziak zituen aldarrikapen-sentimenduak, ez baita ahaztu behar Gamazadaren manifestazio jendetsua aitzindari izan zela Espainia garai-kidearen historian. Dena dela, hiritarren partaidetza erakundeetan oraindik hasi-masitan zegoen, hainbat arrazoi zirela medio: lehenik, hauteskundeetan, halako lanbide zehatzetan zihardutenek eta zergak ordaintzen zituztenek besterik ez zezaketelako botoa eman, eta, bigarrenik, **ez zitzaielako politika interesatzen.**

Hortaz, itxuraz, demokratikoak ziren gobernu eta erakunde liberalek **ez zuten gizarte-sostengurik jasotzen.** Politikan jarduteko gogorik eza nagusi zen, jendea ez zen mugitzen eta gehienak ez zeuden ezein alderdi politikotan izena emanik. Beraz, gizarteari ez zitzaizkion kontu politikoak interesatzen, politikariek ez zuten gizartearen bermea eta politikariek, sentitzen zuten hutsune hori, bete behar izan zuten Administrazio nazionalako, probintzialeko eta lokaleko funtzionarioen bitartez. Bestela esanik, jauntxokeriak politikaren hariak mugiaraziko zituen.

Afera politikoetan parte hartzeko gogorik ezak isla du Nafarroan gertatzen den abstentzioan. Esate baterako, 1907ko hauteskundeetan, %41,80 izan baitzen eta Espainiako gainontzeko lurraldeetan, aldiz, %33. Hala ere, urtetik urtera parte hartzea gora doa hauteskundeetan; horrela, 1916an, abstentzioa %20koa da Nafarroan, eta, oro har, Espainian %31,5. 1923an, %26 eta %35,5, hurrenez hurren.

Alderdi politikoei dagokienean, **karlismoak** oso ospe handia izaten segitzen zuen Nafarroan. 1909tik aitzinera, jaimista deitu zitzaion (erregegai berria Jaime baitzen, Karlos VII.aren semea, alegia). Hauteskunde guztietan, diputatu postua erdiesten zuen Madrilen eta Iruñean, hala nola alkatete eta zinegotziak. Karlisten artean bigarren zatiketa gertatu zen (lehenbizikoa integristena izan baitzen XIX. mendean), hots, Vázquez de Mellaren tradizionalistena, eta, Nafarroan bat egin zuen horiekin **Víctor Praderak**. Errepublikan bat egin zuten Comución Tradicionalista izena hartuz.

El Pensamiento Navarro izan zen egunkarien artean karlismoa gogotsuen, su eta gar, defendatu zuena. Izan ere, 1897ko urriaren 17an plazara-

tu zen lehen aldiz, egunkari karlista gisa, «Jaungoikoa, Aberria eta Erregea» goi-ikurrean oinarriturik. Egunkari berriak *La Lealtad Navarra* izenekoa ordezkatu zuen, diru arazoak zirela medio, itxia. El Pensamiento Navarro, oroz gain, *katolikoa zen, elizaren zentsurari lotua* zegoena. Bere lehenengo zuzendaria Eustaquio Etxabe de Sustaeta izan zen.

Jaio eta hiru urtera, gorabehera handia jasan zuen (1900), itxiarazi baitzuten Sagastaren Gobernu zentralaren aginduz. Izan ere, Katalunian, karlistei leporatutako altxamendua gertatu zen (1900ko urriaren 29a). 4 hilabetez ez zen karrikara atera, baina esan beharra dago, historia osoan zehar, gorabeherarik franko izan zuela, diru-afereengatik, bereziki, eta beti moldatzen ziren jarraitzaileek, euren borondatez, emandako diruaren bidez.

1969an, zuzendaria, Javier María Pascual, erbestera igorri zuten (Riaza, Segoviako probintzia). Erbesteratuak berak eman zuen arrazoiak: «Nire egunkaria oztopoa baita On Joan Karlos Errege izan dadin». Behin-betiko itxiera 1981ean gertatu zen eta honela justifikatu zuen azken zuzendariak, José Luis Larrionek: «El Pensamiento Navarro hil zen XIX. mendean bizitzen segitzen zuelako».

Alderdi nazionaleri dagokienez, liberalak desagertzen dira Nafarroako mapa politikotik, elizaren aurkako jokabidearengatik. Liberalek manifestazio jendetsua egin zuten eta kontramantestazioan atera ziren, berriz, ohitura erlijiosoan zale zirenak. Mauraren alderdiak ere ez zuen sostengurik jaso, ezta Eduardo Datorenak ere.

23.2. Euskaltzaletasuna

Gamazadaz geroztik (1893), bizkaitar talde batek bat egiten du aldarrikapen nafarrarekin eta Castejonera doa (30rren bat lagun) Diputazioako ordezkariari elkartasuna adierazteko, nafar ordezkariak atzera itzultzen direnean Madrilgo negoziazioen ondotik. Euskal nazionalismoa Bizkaian hasten da (1894) eta sustatzen dute euskal kultura bat, hizkuntza bat (euskara), erlijio bat (katolikoa) eta, **Sabino Aranarentzat** garrant-

zitsuagoa zena, hots, arraza bat ere bai, Euzkadi independentea erdiesteko bizirik iraun behar duena, Nafarroa ere barne harturik. Arrazaren nagusitasunak eta goraipamenak liskarra eragiten dute karlistekin. Karlistak foruekin bat zetozen eta euren burua jotzen zuten foruen fede-emailletzat.

Idea hauek, hala nola arrazaren defentsa, laster milaka gizon-ema-kumeren gogoan sustraitu eta mugimenduari atxikimendua adierazi zioten. Halaber, lagungarri gertatu ziren espainolek zituzten arazoak, tristeziaz eta nostalgiaz ikusten baitzuten Itsasoz bestaldeko azken kolonien galera eta Errestaurazioaren sistema politikoaren hondatzea. Aldi berean, Nafarroa ere oso une larriak bizitzen ari zen. Izan ere, **Diputazioa** etengabeko liskarrean ari zen Estatu liberalarekin, 1841eko legearen interpretazioari buruzko desadostasunengatik. Diputazioak bere buruari *foral* deitzen zion, 1867az geroztik.

1903an, *Diario de Navarra* agertzen da, eragin eta indar handiko egunkaria. Diario-ren helburua zen Nafarroa eta bere foruak defendatzea, hala nola nafar gehienen erlijioa. Beste alde batetik, euskal nazionalismoa indarra hartzen ari da eta, 1904an, Donostiako Euskal-Etxea zabaltzen da; 1907an, Gasteizkoa (Arabak, ordea, euskara galdua zuen herrialde gehienez) eta Iruñekoa, 1910ean.

Afera erlijiosoaren gaineko liskarrak krisia larriagotzen du. Alde horretatik, 1906an, Iruñean manifestazio handia egiten da, Canalejasen elizaren aurkako politikari aurre egiteko eta *Jaungoikorik gabe* izenekoek beste bat egiten dute. Nafarroan sekulan egindako bigarren manifestaziorik jendetsuena da. Bestalde. XX. mende honetako lehen herenean, Nafarroan badira desagertzen diren mugimendu politikoak; beste batzuk, aldiz, euren errautsetatik berpizten dira edo ibilbideari lehen aldiz lotzen zaizkio: nabarristak, karlistak, errepublikazaleak, euskal nazionalistak eta erregezaleak.

Sabino Aranaren nazionalismoak muturrera jo zuen, bizkaitarrek sostengaturik. Horrela, batasun etnikoa azpimarratzen dute, foruen defentsa bigarren mailan uzten dutelarik. 1915ean, Eusko Alderdi Jeltzalea zatitu egiten da: alde batetik daude euskal Estatu bakarraren alde-



PRENTSA NAFARROAN. Nafarroako kazetaritzak ez du eragin handirik izan maila nazionallean. Dena dela, ezin dugu erresuma zaharreko historia ikasi eta aztertu, herrialde mailako eta tokiko argitalpenei aipamenik egin gabe.

xix. mendean, 150 argitalpen baino gehiago agertu ziren. Batzuek tankera politikoa zuten, besteek kulturala, profesionala edo erlijioso. xx. mendetik aitzinera, ordea, kazetaritzara kontzeptu berria iritsiko da, hots, prentsa negoziobide gisa.

1903an, *Diario de Navarra*, sortzen da. Bere jarduera garatzeko gakoa xede ekonomikoan zetzan, eta, handik hamar urtera, *El Eco de Navarra*, *El Demócrata Navarro*, *la Voz de Navarra*, *El Pensamiento Navarro* eta *Tradición* egunkariei aurea hartu zien alekopuruan eta onarpenean. Hurrengo urteetan eta Francoren diktaduran, *Diario de Navarra* nabarmendu zen errepublikaren aurkako eta «erresuma zaharreko» berezitasunaren aldeko kanpainetan. *La Voz* desagertzerakoan, *Arriba España* sortzen da. 70ko eta 80ko hamarkadetan, *Arriba* eta *El Pensamiento* ixtearekin batera, *Gaceta del Norte*, *Deia*, *Egin*, eta *Navarra Hoy* plazaratzen dira. Azken hori, *Diario de Noticias*-ek bereganatu zuen 90ko hamarkadan. *Diario de Navarra* mantendu zuen beti lidergoa.

koak, konstituzioa eta guzti (**unitarioak**), eta, beste alde batetik, **federalistak**, Aranaren pentsamoldea proposatzen zutenak.

Arturo Campion nafarrak muin muinean, errotik, bizi izan zuen izpiritu euskaltzalea, nazionalismo foruzale moderatua defendatuz, separatismoa alde batera uzten zuena. Ideia horiek Aranarenganako gatazka sortu zuten. Engrazio Aranzadi nazionalista gipuzkoarrak, bere aldetik,

beste ildo bat urratu zuen, Espainiako probintziekiko federazioa defendatzen zuena, Aranaren independentziaren aurka. Beraz, puntu honetara iritsita, hiru joera topa ditzakegu: lehenik, Espainiatik bereizitako Euskadi proposatzen duena; bigarrenik, zazpi euskal herrialdeen federazioa proposatzen duena, eta, hirugarrenik, binomioa: erregimen autonomikoa Estatu espainolaren barnean eta euskal herrialde bakoitzaren autonomia Euskadiren barnean.

1921ean, Napar-Buru-Batzarra azken binomio horren aldekoa zen. Jaimistekin jarrerak hurbildu eta zenbait hauteskundetean elkartu ziren. Horrela, Gorteetan lehenbiziko aulkia 1918an lortu zuten, eta, beste bat, 1921ean, Diputaziorako, Manuel Irujori egokitu zitzaiona.

Iruñean, bada, 1910ean Nafarroako Euskal-Etxea zabaltzen da eta, zenbait urte geroago, *Napartarra* egunkaria karrikatzen da, EAJk zuzendua. Hauek zioten egunkari huraxe zela foruzaletasunaren erreferente bakarra, eta karlistak beti saiatzen ziren hori ukatzen. Horregatik, 1915ean, El Pensamiento Navarro egunkariko zuzendariak, Etxabek, *El partido carlista y los fueros* liburua idatzi zuen, foruzaletasunaren benazko zentzua zehazteko asmoarekin. Hirugarren batek ere heldu zion eztabaidari: Garcilaso izan zen, Diario de Navarra-ko zuzendaria, alegia. Azken honek kontatzen zuen nola agertua zen euskal nazionalismoa Nafarroan. Karlisten prentsak aurka egin zion.

Eztabaida horrek guztiak balio izan zuen ildo berriak zabaltzeko eta argi uzteko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekiko harreman kulturalak izanik ere, nabarmendu behar zirela Nafarroako **nortasun** eta **ezaugarri** bereziak. Vázquez de Mellak Víctor Praderaren (1899) ideiak bermatzen ditu, foruzaletasun espainolista defendatuz eta Nafarroa mantenduz euskal autonomiatik kanpora, mauristek eta integristek berretsi zutena. 1917tik 1936ra, Diario de Navarra izanen da ildo horren aldeko sostenguaen hauspoa. Hortaz, Lehen Mundu-Gerrak iraun bitartean, foru erreintegrazioaz mintzatzen zen, 1839ko eta 1841eko legeetan galdutako eskubideak berreskuratze aldera.

Víctor Praderak eta Aranzadi euskal abertzaleak, elkarren kontrako

eztabaidan segituko dute bi gai giltzarriotan: eskubide historikoak eta forua. Euskal nazionalistak, Nafarroan, lelo hau defendatzearen aldekoak ziren: «Gu Euzkadirentzat, Euzkadi Jaungoikoarentzat»; Praderak, ordea, ondoko liburu honen bidez erantzun zien: *Por Navarra para España; por España para Dios*.

Euskadi eta Nafarroaren arteko batasuna helburu zuten programek eta «*Euskalerriko*» estatutuaren osaketak behin eta berriz porrot egin zuten (1917-1932). Nafarroako izen handiko pertsona ospetsu batzuek Nafarroako bereizitasuna eta euren arbasoen ondare aberatsa defendatu zituzten Erresuma Zaharraren bilakaera historikoan. Gertakari horiek arazoak handitzen zituzten, bi aldeak gero eta urrunago jarritz elkarren arteko estatutua lortzeari begira.

1920an, historiaren interpretazioari buruzko liskar dialektikoa sortzen da, Labriteko errege-erreginek (1522) Amaiurren egindako defentsari dagokiona, zehazki. Euskara Elkargoak gogor kritikatu zuen Fernando katolikoaren jokabidea, Amaiur traizio bidez konkistatu zuena. Aitzitik, Víctor Praderak zioen traidoreak Labritarraren defendatzaileak izan zirela.

23.3. Langile mugimendua

Nafarroak ez zuen xx. mendearen lehen erdian langile mugimenduak eragiteko moduko zabaltasuna zuen industria-azpiegiturarik eduki. 1901ean, Iruñean UGTri lotutako Nafarroako Langile Federazio bat zegoen, tankera sozialistakoa. 1920an, tokiko taldeak zituzten Erdi Aldeko eta Erriberako herririk handienetan. Presio handiak jaso zituzten katolikoek propagandarengatik.

Martzillako, Cortesko eta Tuterako azukre-lantegiaren ezarketari esker, arestian aipatutako talde horietako batzuk bereizten dira CNT osatzeko, Lanaren Konfederazio Nazionala, alegia, sindikatu anarkista. 1902an, Nafarroan sortzen da **Partido Socialista Obrero Español** izenekoa. Alderdi hau ez da Erdi Aldean eta Tuteran zabalduko xx. mendeko bigarren erdira arte.

Elizak aurreko langile mugimendu horien ideia marxistei eta anarkistei aurre egin nahi izan zien *Acción Católica* izeneko taldearen bitartez, eta emakumeak afiliatu zituen, bereziki (Langileen Sindikatu Katolikoa eta emakumezkoen hainbat lanbideren Sindikatua). Halaber, elizak nekazaritza kooperatibetan lan egin zuen eta bultzatu zuen Nekazaritza Sindikatu Katolikoaren Nafarroako Federazioa. Bertan, jornalariak, maizterrak eta nagusiak, bereizi gabe, sartzen dira.

Hiritan *Kontziliazioa* sortzen da, enpresarien eta langileen arteko auzietan bitartekaritza lana egiteko. 1912an, Nafarroako Sindikatu Katoliko Libreak sortzen dira.

23.4. *Euskalerria* eratzeko saiakera: 1931ko Lizarrako biltzarra

Primo de Riveraren diktaduraren etorrera (1923-1930) nola halako poztasunez hartzen dute sektore tradizionalistenek. Artean, gizarteko zati garrantzitsua integrismoaren alde zegoen, 1896tik aurrera eta 1920 arteko hauteskundeetako emaitzetan ikus daitekeen bezala.

Diktadoreak beste norabide bat eman nahi izan zien Nafarroarekiko harremani. Izan ere, 1841eko legea egokitu beharra zegoen sistema autoritaria. 1924ko estatutua aldarrikatu zen, lurralde espainol osoaren tokiko administrazioa bultzatzeko. Hori Nafarroan zehaztu zen **Nafarroako Administrazio Kontseiluaren** sorreraren bidez, ahalmenak zituena nafar udalerrriak arautzeko. Nafarroak hala nola Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak autonomia aldarrikatu zuten eta, geroago, kataluniarrek ere bat egin zuten aldarrikapenarekin. Primo de Riverak, ordea, uko egin zion.

1931ko apirilaren 14ko udal hauteskundeen ondotik, karlismoaren eta euskal nazionalismoaren arteko itun politikoa osatu zen, *foru erreintegratioa* lortzeko Estatuaren antolamendu federalaren modeloaren barnean. Horren emaitza, geroago, Lizarrako Estatutua izanen da.

Gobernuak zeraman politika zela eta, haserre zebiltzan alderdi demokratikoak Donostian bildu ziren (1930), errepublika berriz ere

ezartzeko. Urtebete geroago ezarriko da eta, 1931tik aitzinera, nazionalismoak berrindartzen dira, estatutu baten bitartez arautzeko Estatuaren eta autonomien arteko harremanak.

Estatutuari sostengua eman zioten bai euskal nazionalistek, bai errepublikaren aurkako alderdiek, karlismoak eta eskuin katolikoak bezala. Kontra agertu ziren, ordea, indar errepublikazale eta ezkerreko indar guztiak. Eskuinak, hasieran, estatutuaren alde jokatu zuen. Ez, berez, bat zetorrelako, baizik eta, hein handian, errepublikazaleen erlijioaren aurkako politikari aurre egiteagatik.

Aipatutako estatutuan, Nafarroari nola halako **nagusitasuna** aitortzen zitzaion Euskal Estatuan, eta **Iruñean** ezarriko zen Batzorde Exekutiboko egoitza. Dena dela, ez zen oso demokratikoa, erakundeen hauteskundeak ez baitziren sufragio unibertsalaz egiten, baizik eta zeharkako bidez. Horrez gain, izaera konfesionalekoa zen errepublikaren laizismoaren aurrean. Horregatik, hasieran, karlistek eta katoliko kontserbadoreek horren alde jokatu zuten. Indalecio Prietok esan zuen bezala, «Euskadi, Gibraltar vatikanista bihurtu nahi zuten».

1931ko maiatzaren 13an, Diputazioak batzorde bat eratu zuen Nafarroarako Estatutua aztertu zezan. Bi proiektu aurkeztu ziren, Nafarroakoa eta gazteleraz *Vasco-Navarro* izenekoa; azken hori jo zen komenigarritzat, uste baitzuten Nafarroak ez zuela bere nortasuna galduko eta beste honengatik ere bai: «lau erregio hauen arteko batasun estuak dakarren indarrarengatik, hizkuntzazko eta arrazazko lokarrien bidez lotuak baitaude».

EAJk **Euskal Udalerrien Biltzarra** deitu zuen Lizarrarako (1931ko ekainaren 14a). Lau herrialdetako 427 ordezkari bertaratu ziren, baina txikia izan zen Nafarroako partaidetza; «*Euskalerriko*» Estatutua onartu zen.

Alabaina, programa autonomiko osoa goitik behera erori zen Bigarren Errepublikaren Konstituzioarekin (1931ko abenduaren 9a). Izan ere, erregioen autonomia Estatu osotuaren barrenean barne hartzen zuen; beraz, batera ezina zen, modelo federalean, burujabetasuna eta euskal

herriaren eskubide historikoak aitortzen zituen Estatutuarekin. Gestora batzorde batzuk osatzen dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan, beste proiektu bat egiteko, *Gestoren Estatutua* deitutakoa.

Laster, alderdi politiko nafar batzuek hiritarrak ohartarazi zituzten estatutu bakarrak Nafarroari ekar liezazkiokoen arriskuez, eskubide historikoak eta eskuratutako forutasuna murriztu litzakeelakoan. Berriz ere, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkarien arteko bilera deitu zen, testua birmoldatzeko, Lizarran onetsitako pasarte aunitz ñabartuz. Testu berriak ez zekarren «Euskal Estatutua» izenburua, baizik eta hauxe, «batasun autonomo politiko-administratiboa Estatu espainolaren barnean». Gaztelaniaz honela izendatuko litzateke: «País Vasco-Navarro» edota euskaraz, «Euzkadi edo Euskalerrria». Era berean, irakaskuntza elebiduna bermatzen zen alde euskaldunetako eskoletan.

Sozialistek eta errepublikazaleek ez zuten estatutu hori onartu, Nafarroari alde txar gehiago ekarriko zizkiolako alde onak baino, eta, klaseen elkartasuna, **arrazen elkartasunarengatik** ordezkaturako zelako. Halaber, Comución Tradicionalista delako taldea aurka atera zen Konstituzio errepublikano, laizista eta zentralistara egokitzeagatik. Horren aurrean, foru erreintegrazioa defendatu zuen.

Azkenik, 1932ko ekainaren 19an, alkate guztiak bildu ziren behinbetiko testu bakarra onartzeko. Ustekabea gertatu zen, ordea, nafarrek estatututik bereiztea erabaki zutenean. Alde txikia izan zen. Estatutu bakarraren alde 109 udalak eman zuten botoa, 135.600 bizilagunen ordezkari zutenak; aitzitik, proiektuaren aurka 123 udal agertu ziren, 185.606 bizilagunen ordezkari zutenak; 35 udal abstenitu ziren, 28.860 bizilagunen ordezkari zutenak. Proiektua atzera bota zuten udal asko eskuinekoak ziren, baina tartean errepublikazaleak eta sozialistak ere izan ziren, eta ezin da bereizketarik egin Iparraldea, Erdi Aldea eta Erriberaren artean. Hortaz, errefusatu zen udal gehienek proposatua ez izateagatik eta populazioaren bi herenen sostengua ez lortzeagatik.

Nafarroako eskuinak bazter uzten du euskal estatutuaren bidea, foru erreintegrazioa aldarrikatzeko, nabarrismoaren alde jokatzuz, hala

nola separatismoaren aurka ekinez. Nafar forutasuna proposatzen zuten Espainiako nazionalismoaren barnean. Hortaz landara, beldur ziren Nafarroa, nekazaritzari lotua, ez ote zen zokoratua geldituko indar, ekonomia eta populazio handiagoko Hiru Probintzien aldean.

1932a urte giltzarria gertatu zen zinez, nazionalisten eta tradizionalisten zein foruzaleen arteko alde ideologikoa handitzeko. Batzuk eta besteak bide berean ibiliak ziren, baina une horretan, gehiago ziren bereizketako arrazoiak batasunerako guneak baino. Hala ere, nazionalistek ez zuten amore eman eta behin eta berriz saiatu ziren Nafarroa Euskadin sartzen. Horrela, 1936an, Manuel Irujo nafar nazionalista Erromara joan zen Aita Santuarekin edo Idazkariarekin hitz egiteko asmoz. Ez zuten hartu. Irujoren asmoa zen eskatzea euskal herri osoa, Nafarroa barne, ordezkatzeko lukeen artzapezpiku bat izenda zezatela.

Erbestean eratutako **Euskal Kontseilu Nazionalak** hauxe zioen Londresetik, Manuel Irujo buru zuela (1941): «Euskal lurraldea osatzen dute Nafarroako erresuma historikoa osatzen zuten lurraldeek, Bizkaiak, Gipuzkoak, Arabak, Errioxak, Moncayok, Ebro Garaiak, Mendialdeak eta Aragoi Garaiak». Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak ez zuten autonomia lortuko 1936a arte, EAJren eta Fronte Popularraren eskutik. Alabaina, 1937an, hondatu zen, Gerra Zibilean, Erreketeek Bilbo hartu zutenean. Behin-betiko, 1979ko abenduaren 18koa izanen da Gernikako Estatutua aldarrikatzeko eguna.

23.5. Ezkerreko Biurtekoa (1931-1933)

La Voz de Navarra egunkari independenteak horrela iragarri zuen azalean, orrialde osoan, bigarren errepublikaren aldarrikapena, 1931ko apirilaren 14an: «Ongi etorri Errepublika. Akabera iritsi zaio luzaroan bazterrak zapaldu dituen makinatarrari».

1931ko apirilean egindako udal hauteskundeetan, errepublikazaleak eta sozialistak garaile atera ziren hiri nagusietan, eta, horrek erregearen dimisioa eragin zuen hala nola **Bigarren Errepublikaren** ezarpena. Biurteko horretan lehen presidentea Alcalá Zamora izan zen eta bigarrena

Manuel Azaña. Biurteko Sozial-Azañista deitu zitzaion (1931-1933). Hauexek izan ziren ezaugarri nagusiak: izaera antikatolikoa, komentuak eta elizak erre baitziren eta eskoletan gurutzeak kendu; istilu sozialak, grebak, matxinadak, mugimendu iraultzaileak gertatu baitziren, Asturiaskoak bezalakoak (1934) eta anarkia.

Bigarren Errepublikak hiru fase izan zituen: sozialista (1931-1933), tankera ezkertiarra izan zuena; Lerrouxen errepublikazalea, CEDA eskuindarrak sostengatua, eta Fronte Popularrarena, (1936), errepublikazale aurreratuek, sozialistek eta komunistek osatua.

Nafarroan, udal hauteskundeak 129 udalerritan egin ziren eta emaitza hauxe izan zen: iraultzaren aurkako 765 zinegotzi, 91 errepublikazale eta 43 sozialista. Apiriletik ekainera udalen mugimendua gertatu zen Estatutu Vasco-Navarroa esaten zitzaiona ezartzeko, Eusko Alderdi Jeltzaleak babestua.

1931ko ekainaren 28an, Gorte Eratzaileetako diputatuen hauteskundeetan, eskuinak erabat galdu zuen. 51 diputatuk baizik ez zuten Madrilen aulkia erdietsi eta horietarik 5 **Nafarroako Koalizio Katoliko Foruzalekoak** ziren. Koalizio horretan tradizionalistak zeuden (Joaquín Beunza eta Rodeznoko kondea), nazionalistak (Jose Antonio Agirre, Getxoko alkatea zena eta Nafarroan aurkeztu zena. Gizon hau gero lehendakari izan zen eta «Euskal Errepublika» aldarrikatu zuen Errepublika Espainolarekin federatua) eta demokrata kristauak (Rafael Aizpún eta Miguel Gortari). Beraz, eskuinak oso emaitza onak erdietsi zituen Nafarroan, boto guztien %63, zehazki. Sozialistek eta errepublikazaleek, ordea, %36 lortu zuten. Partaidetza %83koa izan zen.

Biurteko errepublikazale sozialistaren akaberan, Gorteetako eztabaidetan, diputatuen kritikak izan ziren, Casas Viejasen (Kadiz), ordena publikoko indarrek nekazarien aurka erakutsitako jokabide gogorrenengatik. Kritiken poderioz, **Azañak dimisioa aurkeztu zuen**. Trabarik handiena, ordea, afera erlijiosoarengatik sortu zen, Gobernu eta Toledo-ko artzapezpikuaren arteko ika-mika gertatu baitzen, elizgizon horrek

bere burua errepublikaren aurkakotzat jo baitzuen. Dibortzioa ezarri zen, ezkontza zibila, irakaskuntza laikoa.

Nafarroan liskarrak sortzen dira ideologi ezberdinen artean. 1933ko abuztuan, ezkertiarrek eraso egiten diete nazionalisten eta tradizionalisten aretoei: Círculo Jaimista eta El Pensamiento Navarroren aurka lehenik, eta, geroago Iruñeko Euskal-Etxea eta La Voz de Navarraren aurka. Errepublikazaleek bestalde, Diario de Navarra, El Pensamiento Navarro eta Tradición Navarra egunkariak aldi baterako itxi zituzten hala nola Euskadiko egunkari nazionalistak eta eskuindarrak.

Alcalá Zamora hautatu zuten Errepublikako Presidente eta Manuel Azaña Gobernuburu. Saiatu ziren armada berritzen, eskolak sortzen eta *Institución Libre de Enseñanza* deitutako Erakundeak lan handia egin zuen herri-kulturgintzan. Halaber, nekazaritzaren erreforma proposatu zuten jabe txikien eta maizterren klase ugaria sortzeko, giza horretan latifundismoari aurre egiteko. Alabaina, ia ez zen lur desjabetzerik egin eta etengabeak izan ziren laborarien matxinadak. Beste alde batetik, Kataluniako Estatutua onetsi zen (1932), gobernurako organoa eta guzti, Generalitat deitutakoa, alegia, eta Legebiltzarra ere bai.

23.6. Eskuineko Biurtekoa

1933ko amaieran egindako bozketek hauteskunde-mapa irauli zuten; ezkerreko indarrek ia 200 aulki galdu zituzten Espainiako Gorteeetan eta ordezkari gehiago eskuratu zituen, aldiz, Eskuin Autonomoen Konfederazio Espainolak (CEDA), José María Gil Robles buru zutela; ondotik, ordezkari zari dagokionez, zentro-eskuina zegoen, 104 diputatu zituztela, eta, Calvo Sotelo edo Primo de Rivera bezalako lider eskuindarrak sartzen dira Gorteeetan. Azken horrek Espainiako Falangea eratu zuen. Partaidetza %83koa izan zen.

Urte hauetan nekazaritzaren erreforma geldiarazi zuten, baita politika antierlijioso ere. Lluís Companys Generalitateko presidentek hauxe aldarrikatu zuen 1934an: «Kataluniako Estatua Espainiako Errepublika

federalaren barnean»; bi urte geroago, José Antonio de Agirre Euskadiko Gobernu autonomoko lehenbiziko lehendakaria izendatu zuten.

Nafarroan ere eskuinak askoz indar handiagoa erdietsi zuen, partaidetza aurreko legegintzaldian baino txikiagoa izan baldin bazen ere (%80 eta %83, hurrenez hurren). **Rafael Aizpunen** *Unión Navarra* taldea zen eskuinaren ordezkaria (Espainiako demokrazia kristauaren aitzindaria). Aurreko biurtekoan, gizarte eta nekazaritza politikan, batez ere, gertaturiko desengainuaren ondorioa izan zen emaitza hori. Eskuinak boto guztien %71 lortu zuen, Nafarroak zituen 7 aulkiak eskuratuz; PSOEek %14 erdietsi zuen, Hegoaldean, Iruñean, Sakanan eta Erronkarin, batez ere; eta EAJk %9, Ipar-mendebaldean lortutakoak.

Eskuinean, Adolfo Domínguez izan zen bozka gehien lortu zituena, 90.068 boto, zehazki; sozialisten artean, Ricardo Zabalzak 21.316 boto erdietsi zituen. Zerrenda irekien bitartez egiten zen aukeraketa, eta hautesle bakoitzak bost hautagai hauta zitzakeen.

CEDA, Gobernu zentrolean sartu zenez, ezkerreko taldeek muturrera jo zuten eta saiatu ziren elkarren artean batzen. Iruñean, 1934ko otsailaren 1ean, UGTko *Federación Local de Sociedades Obreras* delakoaren III Ohiko Biltzarra bildu zen ezkerreko talde guztiekin indarrak bateratzeko eta langileria osoak fronte komuna osatzeko, hots, **Ezker Errepublikarra**.

Istilu, gatazka eta barne borroken ondorioz, berriz ere hauteskundeak egin ziren, oraingo honetan 1936ko otsailaren 16an. **Fronte Popularra** deitutakoan, ezkerreko alde osoa zihoan, hau da, errepublikazaleak eta eite marxistako langileen alderdiak. Azaña eta Prieto giltzarri dira batasun horretan.

Aitzitik, eskuineko indarrak bereizita zihoazen. Horrela, CEDA eta Falange Española y de las JONS, zein bere bidetik zihoan, eta, Bloke Nazionallean elkartu ziren, aldiz, erregezaleak, tradizionalistak eta Kataluniako Lliga. Beraz, ezkerren eta eskuinaren arteko lehia zen.

Ezkerrekoek 272 diputatu lortu eta garaile atera ziren. Eskuinak, berriz, 212 erdietsi zituen. Manuel Azañak bere gain hartu zuen Gober-

nuko buruzagitza. Azañaren arazorik handiena ordena mantentzea izan zen. Izan ere, egunero liskar odoltsuak gertatzen ziren komunista, falangista, anarkista eta sozialisten artean. Uztailaren 12an, bi hilketa gertatu ziren: batetik, pistolari eskuindarrek José Castillo tenientea hil zuten, ezkertiarra, eta, ezkerreko guardiek, aldiz, Calvo Sotelo eskuineko gizona. Bi hilketa horiek gerraren hasiera azkartu zuten. Izan ere, 1936ko uztailaren 17an, Melillako Komandantziako tropak Errepublikaren Gobernuaren aurka altxatu ziren. **Gerra Zibila hasia zen.**

Sumina eta ernegazioa nagusi ziren, eta, ez bakarrik alderdien arteko liskarregatik, baizik eta baita beste afera batzuegatik ere: krisi ekonomikoa, nekazarien matxinadak, administrazioan gertatzen zen ustelkeria, sozialisten artean zeuden Sobiet Batasunaren aldeko jarrerak, Elizak aurka egiten zion ideologia errepublikazaleari, eskuinaren jokabide autoritarioak, beldurra ere bazegoen ez ote zen kolpe militarrik gertatuko eta, batez ere, talde politikoek gerrarako agertzen zuten desioa, elkarren aurkako ideiak zirela kausa. Hasi anarkistengandik eta falangistenganaino.

Gerra hasi aurreko giro hartan, Nafarroak bestela jokatu zuen Estatuarenin, oro har, alderatuta. Izan ere, 1936ko hauteskundeetan, berriz ere **Eskuinak** irabazi zuen, boto guztien %70 lortuz. Nafarroako Fronte Popularrak %21 erdietsi zuen eta EAJk, azkenik, %9. Gauza berbera gertatu zen Balearretan, Guadalajaran, Cuencan eta Palentzian.

Antolamendu marxistek behin eta berriz bilerak egin zituzten ezkerreko langile mugimendu guztiak biltzeko, sozialista eta komunista gazteek egindako batasunaren bide beretik joateko. **Karlistak**, ordea, batu ziren altxamendua egiteko eta Molarekin negoziazioetan sartzeko, Mola baitzen eskuartze militarren *burua*. Azkenik, 1936ko uztailaren 15ean, Utrillo teniente koronelak herria animatu zuen altxatzera, Erreketeen Ikuskari Militarra zen aldetik.

GERRA ZIBILA ETA NAFARROA (1936 -1939)

Espainiako Gerra (1936-1939) izan da xx. mendeko gertaerarik aztertuenetakoa. Oso bertsio ezberdinak egin dira, elkarren aurka ere badaudenak, azterketaren egilearen arabera. Bertsio klasikoenak dio elkarren kontrako bi bando izan zirela: altxatuak edo nazionalak, kontserbadoreen laguntza izan zutenak, eta errepublikazaleak, *gorriak* deituak, komunistek sostengatuak. Beste batzuek gerra hori agertu nahi izan dute prozesu historikoa ulertzeko bi modu bezala: faxismoa edo demokrazia; eta izan da bi Espainiei buruz mintzatu den historialaririk, hau da, aipamena egin nahi izan diote auzolagun, adiskide, ahaideen arteko, eta, are gehiago, anai-arreben arteko, hiltzerainoko gorrotoari.

Egia hauxe da: 1936ko uztailaren 18a eta 1939ko apirilaren 1aren artean, Espainiak borroka zibilaren tragedia bizi izan zuela. Hasieran, behintzat, irudi zuen hura egun gutxi batzuk iraunen zuen kolpe militarra zela, baina egun gutxiren buruan, anai-arreben arteko borroka bihurtu zen, eta izugarria izan zen isuritako odola.

Nafarroan, **José Sanjurjo** iruindarrak (1872-1936) buruzagi ukaezina izan behar zuen, altxamendu nazionalari hasiera emateko. Portugale-

tik atzera zetorrela, ordea, aire istripu batek, Nafarroako hiriburuan mugimenduaren buru jartzeko ilusioak eta planak eragotzi zizkion.

Beste alde batetik, Emilio Molaren bizitza (1887-1937) Nafarroari atxikia gelditu zen Gobernu espainoleko presidentek, Casares Quirogak, Iruñeko Komandantzia Militarera igorri zuenean, konspirazioetatik urrunarazteko. Presidenteak ez zen ohartu *otsoaren* *ahora* bidalia zuela, Iruñea baitzen Errepublikaren aurka altxatzeko gogorik handienetakoa zuen hiriburua, Errepublikak erlijio katolikoaren aurka emandako agindu eta egindako eraso zuzenengatik. Nafarroa benetan laidotua sentitzen zen, gar erlijioso sakona nagusi baitzen. **Militarren eta karlisten** arteko akordioa gogorra gertatu zen, baina, azkenean, batasuna lortu zuten altxamenduari ekiteko.

24.1. Gerraren hasiera

Calvo Soteloren erailketak mugimendu militarra piztu zuen. **Sanjurjo** jeneralak altxamenduko burua izan behar zuen, baina **Mola** izan zen konspirazio militarren hariak mugiarazi zituen eta, azkenean, **Franco** jeneralak heldu zion nazionalen egitura zuzentzeari.

Militar hauei erreketen sektoreko zibilak ere erantsi zitzaizkien, Molak erakarrita, eta, era berean, falangistak eta erregezaleak. Talde horri mugimendu nazionala deitu zitzaion, nekazaritza-eskualdeek sostengatua. Bereziki, Galizia, Leon, Gaztela Zaharra (Santander kenduta), Nafarroa, Aragoiko zati bat eta Caceres, hala nola Kanariak eta Maroko. Andaluzian, haien alde zeuden Kadiz, Granada, Kordoba eta Sevilla bezalako hiriak. Halaber, hiru enklabe zituzten alde errepublikanoan: Santa María La Cabeza Santutegia, Toledoko Alkazarra eta hiri bat, Oviedo.

Espainiako gainontzeko eskualdeek Errepublikarekin bat eginik segitu zuten, Madril,artzelona, Valentzia eta Bilbo bezalako hiri adierazgarriak barne zirela. Errepublikaren mendean industria gunerik garrantzitsuenak zeuden, hala nola itsas flota.

Nafarroa giltzarri izan zen 36ko altxamenduan eta gerraren bila-

kaeran. Izan ere, 30ko hamarkadan, herrialde osoa nekazaritzari, ideia kontserbadoreei eta katolizismoari tinko atxikia bizi zen. Karlismoa arras errotua zegoen lurralde honetan eta printzipio tradizionalistei eta katolikoei eusten zien. Espainia osoan, 36ko hauteskundeetan, Fronte Popularrak irabazi zuen bitartean, Nafarroan **eskuinak** aulki guztiak eraman zituen.

Mola Iruñera iritsi zenean, guztiz gauza eragingarria izan zen karlismoaren altxamendua prestatzeko mugimendu horren beso armatuaren bitartez, hots, **Erreketearen** bitartez, errepublikazaleen aurka, jakina. Gai-nontzeko probintzietan ez bezala, Nafarroan jende olde handiak bat egin zuen matxinadarekin. Boluntario aunitzek parte hartu zuten eta Nafarroako Diputazioak nahiz erakundeek laguntza ekonomiko eta politiko handia eman zuten. Nafarrentzat *gurutzada* bezalakoa izan zen, eta, horregatik, nazionalen garaipena, hein handian, erreketen laguntzari zor zaio.

Alabaina, Nafarroa osoak ez zuen bat egin altxamenduarekin, 1936ko hauteskundeetan, ezkertiarren koalizioak %21,68 eskuratu baitzuen. Bazen ideia horiekin bat zetorren sektore bat eta, bestalde, aurreko urteetan, nekazaritzan gertaturiko gorabeherak ere eragina izan zuten. Euskal abertzaletasunak, bere aldetik, %9,50 lortu zuen.

Errepublikako osoan barna, tradizionalistak antolatzen dira, konspirazioa bururaino eramateko. **Antonio Lizarza** erreketen delegatua zen, eta gizon hau izan zen, 36ko udaberrian, karlisten eta militarren arteko negoziazioen bultzatzaileetariko bat, elkarren arteko altxamenduari begira. Erreketek karlisten adar armatua ziren eta Urbanan, Andimendian eta Izagan egiten zituzten instrukzio-saioak. Herri guztietan mitinak eta bilkurak egiten zituzten, eta toki guztietan gazte batzuek izena ematen zuten. 1936ko uztailean, 8.500 izatera iritsi ziren, gutxi gorabehera. Halaber, Nafarroan bazen gerrarako prestatzen ari zen falangista talde bat. Horrela, Urantziatik hurbil, 400 falangista bildu ziren.

Errepublikako Gobernua ohartu zen hiru jeneral giltzarri zirela mugimendu iraultzaileetan; horrexegatik, 1936ko hasieran, Franco Kanarietara igorri zuen; Goded Balearretara eta **Mola Iruñera**. Baina,

azken jeneral hori altxamenduaren bultzagarria izan zen, Burgoseko, Logroñoko eta Iruñeko ofizial multzoaren buru jarri baitzen Errepublikaren kontrako ekinean. Orain, herritarren sostengua eskatzen zuen.

1936ko Sanferminak aitzakia izan ziren Espainia osoko ehunka militar Iruñeraino joateko. Azkenean, Comución Tradicionalista eta Falange taldeek erabateko sostengua eskaintzen diote Molari. Errepublikazaleak ohartaraziak zeuden, baina ez zuten uste Molak traizio egingen zienik. Erantzun nahi izan zutenerako, ordea, berandu zen.

Altxamendua Marokon hasi baldin bazen ere, **Nafarroa** zen, probintzia guztien artean, altxamenduari tinkoen eta irmoen hasiera eman nahi ziona. Uztailaren 19an, *gerra egoera* aldarrikatu zen Gaztelu Plazan; Beorlegi koronela guardiazibilez arduratu zen eta, goiz horretatik bertik, «Iruñea zen bide guztien helmuga». Nafarroa osoko ehunka boluntario Molaren aginduetara jarri ziren. Lizarran, Cayuela koronela altxatu zen, erreketek eta falangistek lagunduta, besteak beste Ricarte eta Ruiz de Alda zeudela. Zutabe batzuk Altsasurantz, Gasteizerantz, Tuterarantz eta Erriberako inguru batzuetarantz abiatu ziren.

24.2. Boluntario nafarrak

Erreketek giltzarri gertatu ziren iparraldean. Izan ere, 16.000 gizon ziren, gogo biziz aritu ziren eta bazekiten instrukzio militarrean. Gogo eta gar hori gerrakideei kutsatu zieten. **Soldaduen bi herenak boluntarioak izan ziren**, eta, tartean ere izan zen 15 urteko gazterik. Boluntario falangistak 6.500 baino gehiago izan ziren. Halaber, 18.000 nafar inguru armetara deitu zituzten.

Beorleguik mugimendu osoa egituratu zuen, hamaika tertzio edo unitate osatuz. Oso izen ezagunak izan zituzten. Esate baterako: Nafarroako Tertzioak, Abartzuza, Lakar edo Jurramendikoak. Talde hauek **Lizarratik eta Iruñetik** abiatu ziren, bereziki. Batzuek penintsulako erdi aldera jo zuten (Huesca, Somosierra eta Guadalajara) eta beste batzuek, aldiz, iparraldera (Bizkaia, Gipuzkoa eta, geroago, Santander eta Asturiasera).

Dena dela, **errepublikazale** kopuru handia ere izan zen, eta, euskal nazionalistek ere ez zuten bat egin altxatuekin. Iruñean, taldeak azaldu ziren Arrotxapean, Jarautan, Descalzos karrikan eta, bereziki, Corellan, Azagran, Lodosan, Mendabian, Tuteran eta Alfaron. Altsasun, 300 lagun baino gehiago mendira joan ziren muga gurutzatzeko eta beste batzuek Errioxa, Aragoi eta Gipuzkoara jo zuten.

Nafarroan burutu zen altxamendua erabatekoa izan zen, hala erakunde zibilen aldetik nola herriaren aldetik, ez baitzen ia erresistentziarik izan. Herriaren onespina, arestian erran dugun bezala, zor zaio erreketean aldetik Gurutzadaren zentzua eman izanari eta elizaren aldetik ere bai. Elizako burua Olaetxea izan zen, Iruñeko apezpikua, alegia. Halaber, tokiko prentsaren sostengua hartu zuen, Pensamiento Navarro-rena, batez ere.

Foru Diputazioa argi eta garbi altxatuen alde agertu zen, bi helburu nagusi zituela: **batetik, izpiritu erlijiosoa berrezartzea, eta, bestetik, foru askatasunak gordetzea**. Horregatik, Molari diru kreditua eman zion. Era berean, Udal eta Herrialdeko Aurrezki Kutxek, La Vasconia eta Crédito Navarro bankuek lagundu zuten.

36ko akaberan, Francok alderdi politiko guztiak bateratu nahi ditu, *idea nazionala* sustraitzeko xedearekin. Baina Falangea eta Comución Tradicionalista taldeen arteko ezberdintasunak gehiago ziren batasunerako arrazoiak baino. Dena dela, karlista nafarrekin zenbait aldiz elkarriketatatu ondoren, Francok lortu zuen batasunerako dekretua argitara ematea. Honela deituko zen: Falange Española Tradicionalista (F.E.T.) y de las J.O.N.S. Karlistek onartu zuten, baina ez zeuden ados.

24.3. Zapalketa eta alderdi politikoak

Altxamenduak gerrari bidea eman zionean, ezkerreko alderdiak eta errepublikazaleak debekatu zituzten eta euren aretoak itxi. Bestaldetik, alderdi horietako buruzagi nagusiek **zigor gogorra** nozitu behar izan zuten: batzuek erbestera jo zuten; besteendako espetxea, tratu irainga-

rriak, edota, are gehiago, heriotza, fusilamenduaren bitartez. Ez da erraza jakitea zenbat hil zituzten, baina ziur esan daiteke mila baino gehiago izan zirela, horietako asko susmagarri izateagatik edota mugimenduaren ideiekin bat ez etortzeagatik. Zapalketa hura gogorragoa izan zen Fronte Popularraren aretoak eta zentroak zeuden herri eta hirietan hala nola Erriberako nekazarien artean.

Dena dela, exekuzio horiek ez ziren beti izan Komandantzia Militarren edo Karlisten Buruzagitza Erregionalaren aginduz egindakoak, baizik eta talde inkontrolatuak ere ibili ziren, eta, batzuk mendeku hut sarengatik aritu ziren, inolako etikarik gabe auzolagunak hiltzen zituztenak, baita adiskideak ere, ideologia ezberdinekoak zirelako.

Bitxia da nola errepublikazale edo jarraitzaile ugari dagoen funtzionario publiko eta maisu-maistren artean. Nafarroan, 1936an, 1090 maisu-maistra zeuden eta horietarik 275ak zigorra jaso zuen. Izan ere, entxufismoz jokatu zen azterketak egiterakoan edota Magisterioko gorputzean sartzerakoan, maisu-maistra errepublikazale eta kidekoen alde, errepublikazaleak agintean zeudela.

Euskal nazionalistek ohartarazi zuten neutralak izanen zirela borroka horretan, erlijio katolikoari buruzko maitasunarengatik eta euren ideia foruzaleengatik. Dena den, hori ez zen oztopo izan Martzillan, Lakuntzan, Atrabian e.a. aretoak ixteko. Iruñeko zentroak ere karlistek itxiarazi zituzten. Falangistek La Voz de Navarra egunkaria hartu zuten (1936ko abuztuaren 1ean), EAJkoa zena, eta tailer horietan lehendabiziko egunkari falangista argitaratu zuten: *Arriba España*. Horrela, ia erabat desagertu zen Nafarroatik euskal mugimendu abertzalea.

Euskal nazionalisten artean, **Fortunato Agirre Lukin** nabarmendu beharra dago (Arellano, 1893), Osasuna Futbol Taldeko fundatzaileetariko bat; oso gizon saiaturia izan zen, Lizarrako alkatea (1933), Napar Buru Batzarreko kidea eta Lizarrako Euskal eskolako sortzailea. 1936ko uztailean, preso hartu eta fusilatu zuten. Halaber, **Manuel de Irujo** lizartarra euskal abertzaletasunaren jarraitzaile gartsua izan zen, Sabino Aranaren eta Manuel de Aranzadiren adiskidea; erbestera jo zuen 1939an.



ERREKETEAK. Defentsarako antolamenduak ziren, eraikin erlijiosoa edo elkarte katolikoak zaintzeko. Halaber, mitinak eta ekitaldi politikoak babesten zituzten. Errepublikaren aurkako altxamenduaren karira (1936-1939), erreketek armadaren konpainiak osatu eta haien jarduera batzuk giltzarri gertatu ziren garaipenari begira.

Altxamendu nazionala zela eta, ehunka lagunak erreketen taldeetan izena eman zuten, herrietan nahiz hirietan. Mola jeneralak Madril eta Valladolidera igorri zituen batzuk, beste batzuk Aragoirantz eta gainerakoak, mugakide ziren probintzietara, 11 tertziotan elkartuta. Hona hemen izenik ezagunenak: *Roncesvalles*, *S. Fermín*, *S. Francisco Javier* edo *Zumalacarregui*. Gerra garaian, *Requeté* egunkaria argitaratu zen, leloa hauxe zelarik: «Una patria: España, Un caudillo: Franco». *Nicolas Ardanazen argazkia.*

24.4. Gazte karlistak: erreketek

Erreketek hitzari dagokionez, iritzi asko dago. Argi dago, 1834an, Erreketek deitzen zela Nafarroako III Batailoia, eta, Zumalakarregiren unitateetako batek ere izen hori bera zeraman. Historialari batzuek diote *Glorias de Navarra* batailoia pasahitzetik datorrela. Beste batzuek diote, hitza jatorrian frantsesa dela, ehiza larriaren hizkeratik datorrela, zehazki: *requête*, «ehiza-txakurren deia»; handik Nafarroara pasatu zen.

Laster, izen hori eman zitzaien, auzoen arteko borrokaldietan parte hartzen zuten gazte tradizionalistek. Ondoren, 20 urte beheko gazteek bakarrik deitzen zitzaien horrela. 1872-1876ko gerran, erreketek irmoki jokatu zuten.

Baina hitz hori ez da behin betiko finkatuko XX. mendera arte. Izan ere, Comución Tradicionalista taldeak erabaki zuen hitz hori erabiltzea **gazteria karlistek** deitzeko. Gazteak antolamendu eta instrukzio militarrean prestatzen zituzten, alderdia bizirik mantentzeko. Karlistek, altxamenduaren alde jokatzeko erabakitzerakoan, erreketek abangoardiako zeregina izan zuten errepublikazaleen aurkako bataila guztietan.

Espainiako gerra zibilean, erreketek haxe sustatu zuten: balorea, sasoi fisikoa, erresistentzia eta erantzukizuna, hiru oinarrizko zutabeotan sostengaturik: balore erlijiosoaren defentsa, aberriarekiko maitasuna eta arbasoen onddarearekiko begirunea. Arbasoengandik *lekukoa* hartzen dute, hain zuzen ere, etorkizuneko belaunaldiei pasatzeko.

Erreketen tertzioek gurutze handia zeramaten zurezko haga batean, eta horrekin batera, Jesusen Bihotzaren medailoi eta argazkiak, jantzetan josita. Izan ere, ziur zekiten gurutzada batean ari zirela, erlijio katolikoaren defentsaren aldeko borrokan. Tertzio bakoitzak kaperaua zuen, kanpainako meza egiten zen egunero, eta, iluntzean, arrosarioa otoitz egiten zuten. Soldadu bakoitzaren bizkar-zakuan ere ez zen falta *Erreketen Otoitz-liburua*.

Beste giltzarria **abertzaletasuna** zen, Nazioaren esanetara eta zerbitzura beti, agintarienganako leialtasunean oinarriturik eta borrokari

erabat emana. Ez zen heriotzaren beldur eta horren isla dira borrokari ekiterakoan abesten zituzten kantuak. Horregatik, nafar populazioaren parte handi batek, gizonik onenak gerrarako emateaz landa, bestelako laguntzak ere eman zituen, urrea eta dirua bezala. Familiarik pobreenek eskuz arropa berogarriak egiten zituzten, eta, jertseak, tapaukak, galtzerdiak eta eskularruak bidaltzen zituzten tertzioetara.

Erreketeek bandera errepublikanoak kenarazi zituzten eraikin publiko (ordezkaritzak, ikastetxeak, estankoak, loteriak) eta pribatu guztietatik, kolore morea arbuiauz eta horren orde, bi koloreko bandera hori-gorria altxaraziz.

Erreketearen uniformeak honelakoa zen: galtza berdeak eta atorra kafia, Borgoinako gurutzea zuela, botak, eta ehunezko azpantarrak galtzerdi zuriarekin. Neguan, longainak, kaparen antzeko berokiak zirenak, baina maukadunak eta ez horren lasaiera handiarekin. Buruan, beti txapel gorria, borladunak, mailaren arabera.

24.5. Gerraren ondorioak

Gerra zibilean zuzenean parte hartu ez zuten pertsonen artean, garaipen giro pozgarria nagusitu zen eta elkartasun giroa ere bai. Alabaina, nekazaritza lur asko bazter utzi ziren nork landurik ez zegoelako. Ezin zen uztarik bildu. Orduan, prezioak igo eta produktu guztien neurritz gorako espekulazioa hasi zen. Arrazionamendua ezarri zen, bere liburuxkarekin eta plater bakarra egun osorako; geroago, postrerik gabeko eguna soldaduei bidaltzeko. Eskea hamabost egunetik egiten zen elizetan.

1937ko urrian, Alfonso Carlos Ospitalea zabaldu zen, gaur egungo apaizgaitegian, mila ohe zituela. Halaber, Ospitale Militarra, gaur egun Hezkuntzaren eraikinak hartzen duen orubean, Santo Domingo karrikan, alegia. Antolamendu handia eratu zen gerrako zaurituei eta elbarriei laguntzeko *Margaritas* deitutako Elkartearen bitartez; falangistek, *Auxilio de Invierno* izenekoa eratu zuten, geroago *Auxilio Social* deituko zena. Jantokiak zine Olimpiaren etxabeetan ezarri ziren.

Nafarroak ez zituen in situ bizi izan gerraren enbatak. Hegazkinek hiru aldiz besterik ez zuten Iruñea bonbardatu. Lehenbizikoa, 1937ko maiatzaren 22an izan zen, Frantziako Portaletik hurbil. Emakume eta haurren atsedean tokia eta jolaslekua zen hura. 10 hildako gertatu ziren eta 25 zauritutako; bigarren bonbardaketak, azaroaren 12an, Sarasate pasealekua eta Yanguas y Miranda harrapatu zituen. Zenbait kalte eragin zituen autobus geltokian eta Diputazioaren Jauregian, eta 8 hildako eta 20 zauritutako gertatu ziren. Azkenik, 1938ko urtarrilaren 18an. Pertsona bat hil zen.

Ezkabamendiko Gotorlekua espetxe bihurtu zen eta, 1938an, bederatzehun espetxeratu ihes egiten saiatu ziren eta 300 hil zituzten. Errepublikaren plazari Gaztelu plaza izena paratu zitzaion eta Pablo Iglesias plazari, berriz, Mola Jeneralaren plaza.

Bestaldetik, Etxarri Aranazko eta Beratik hurbil dagoen Endarlatsako zubiak lehertuak gertatu ziren; Tutera 1937ko abuztuan bonbardatu zuten. 13 hildako eta 20 zauritutako gertatu ziren; Irunberrin, 1937ko irailaren 25ean, eliza eta 13 etxe suntsitu zituzten: 6 pertsona hilik gertatu ziren eta 3 zauritutako ere bai.

Nafarroak, funtsean, tradizionalista izaten segitzen zuen, sentimendu erlijioso sakona zuelarik. Horregatik, aurreko urte errepublikano eta laizisten aurpegia garbitu nahi izan zuten. Hartara, gurutzeak eskoletan paratuko dira, neskatico eta mutikoen bataioak arautuko dira, ezkontzak eliza bidez eginen dira, kanposantuei eta ehorzketei zentzu kristaua itzularaziko zaie eta saiatuko dira «moralitatea eta ohitura onak gizartean ezartzen». Horregatik, sexu edukia duten filmak zentsuratuko dituzte, literatura marxista, erlijioaren aurkakoa edo pornografikoa suntsituko dute, eta «juramentuak erratea» debekatuko, isuna pean. Horrez gain, gizon eta emakumeei eratasuna, itxura ona eta janzkera ez probokagarria eskatuko zaie

FRANKISMOA, TRANSITZIOA, KONSTITUZIOA ETA FORU ARAUBIDEAREN HOBETZEA (1939-1999)

25.1. Francoren diktadura (1939-1975)

Gerra bukatutakoan, Francisco Franco Bahamondek aparteko bote-reak bildu zituen bere baitan. Beraz, diktadura dei dakiokete etapa horri. Franco hau guztia izan zen: Estatuburua, Gobernuburua, 1973a arte, Mugimenduaren Nazio-Buruzagia eta hiru armadetako Buru Gorena (Jeneralisimoa). Maiz aski lege-dekretuz gobernatu zuen, Gorteak kontuan hartu gabe.

Frankismoak 1939tik 1975a arte iraun zuen, eta **alderdi politiko guztiak debekatu zituen**, *Falange Española Tradicionalista y de las JONS* izeneko taldea izan ezik. Gainontzeko taldeek klandestinitatean bizi behar izan zuten. Beraz, Estatu frankista, familian, udalerrian eta sindikatuan oinarritzen zen. Sindikatu bakarra zegoen, bertikala, eta bertan sartzen ziren enpresariak, langileak eta teknikariak.

Francok, bere agintealdian, printzipio politikoak *erakundetu* nahi izan zituen, oinarritzko zazpi legeren bitartez: Lanaren Forua, Gorteen Legea, Espainolen Forua Fraga Iribarneren Prentsa Legearekin, Erreferendum nazionalaren Legea, Estatuko buruzagitzarako Ondorengotzaren

Legea, Mugimenduaren printzipioen Legea eta Estatuaren Lege Organikoa.

Erakundeei dagokienez, Gorteez gain, Erresumaren eta Erregeordetzaren Mugimenduaren Nazio-Kontseilua ere eratu zuen.

Nazioarteko harremanetan, hiru aldi nabarmendu daitezke: lehena, neutraltasuna Munduko Bigarren Gerran (1939-1945); bigarrena, Espainiako isolamendua, NBEk, 1946an, ezarritakoa, eta, hirugarrena, harremanen irekiera, 1950etik aitzinera, Espainia eta Estatu Batuen arteko alde biko akordioen bidez hala nola Konkordatuaren bidez, Espainia eta Vatikanoren artean sinatua (1953).

Alabaina, Francok, erregimenari kontra egin ziezaiokeen edozein **jarduera politiko zapaldu zuen**. Alderdien egoitzak, egunkariak eta tresna guztiak bahitu zituzten. Alderdi Komunistak, 1945ean, Frantziatik espainolez osaturiko talde armatu errepublikanoa bidali zuen. Estaturuaren aurkako herri altxamendua bultzatu nahi zuten. Makiak deitutakoak ziren. Ez zuten xede hori erdietsi eta borrokaldietan, 2.300 maki, 950 herritar eta 350 guardiazibil hilik gertatu ziren.

Halaber, sindikatuek erregimenaren aurka jardun zuten, ikasle mugimenduen bitartez, eta, batez ere, Asturiasen egindako meatzarien grebaren bitartez (1962). Langile Sindikal Batasuna (USO), Langile Komizioak (CCOO), UGT eta CNT bezalako antolamendu klandestinoak istiluak eragiten hasi ziren.

Aurkako oihuak ere izan ziren alderdi batzuen artean: Felipe Gonzálezek sozialistak, José María Gil Roblesen demokrata-kristauak, Santiago Carrilloren komunistak eta Alderdi Karlista, buru Karlos Hugo Borboi-Parmakoa zuela. Era berean, Kataluniako, Galiziako eta Euskadiko nazionalistek ere erregimena errefusatu zuten, jakina. 1966tik aitzinera, ETA antolamenduari aurre egin behar izan zion. 1970ean, Burgosko prozesu entzutetsua egin zen: sei heriotza-zigor ezarri ziren, biziarteko espetxe-zigorraz ordeztuak.

25.2. Harreman tenkatuak karlisten eta falangisten artean

Gerra Zibilaren ondotik, Nafarroak foru araubideari eutsi zion gerra garaian emandako laguntzei esker. Sistema zentralistan arraroa zen 1841eko legea errespetatzea; hala ere, Caudilloak, Nafarroak eskainitako zerbitzuen ordaina eman zuen. Lehenago, Franco, emaztea eta alabarekin batera, Iruñera joan zen, 1937ko azaroaren 9an, zehazki, Nafarroari, bere osotasunean, saria emateko: «Nafarroak Mugimendu Nazionalean izandako balentria heroikoaren oroitzapenetan eta arrazaren dohainak horren sendo eta irmo dauzkanaren gorazarre, Nafarroako probintziari San Fernandoren Gurutze Laureatua ematen diot, gaurdanik goiti bere armarrarian zizelkatu beharko duena». Ongi etorriko kartel guztietan, San Andres gurutze karlista ezarri zen, falangisten uztarria eta gezien gainean.

Nafarroa ohiturei atxikia egon zen frankismoaren garaian, arront erlijiosoak, kontserbadorea, eta, nekazaritzari lotua. 1960tik aurrera, ordea, gauzak aldatuko dira; **funtsezko aldaketa** gertatzen da: ideologia anitza, bere eskubideak aldarrikatzen zituen langileria ageri da, industria-egitura ere, gizartea sekularizatuagoa dago eta elizaren eragina ez da horren handia.

1940an, Foru Kontseilu Administratiboak Diputazioa hautatu zuen, lau karlistez osatua (Rodeznoko kondea, Javier Martínez de Morentin, Santiago Ferrer eta Julio Pozueta), bi falangista (Amadeo Marko eta Francisco Uranga) eta independente bat (Cesáreo Sanz Orrio).

Bestaldetik, Franco saiatua zen indarrez **falangistak eta karlistak** bilarazten, lege-dekretu bidez, baina nabaria zen ideia ezberdinak zituztela; are gehiago, karlismoa gerrarako giltzarri izan baldin bazen ere, gerra bukatutakoan, mugimendu karlista bigarren mailara ere pasatuko da, falangea izanen delarik eragile nagusia, Francok halaxe agindurik. Egia da karlistek izanen dituztela kargu gehienak udaletan eta Diputazioan, baina ez zeuden eroso eta, errepresalien beldur, zer gerta ere, Francori fidel izan zitzaizkion.

Diputazioak nahiago izan zuen aintzakotzat ez hartzea bi indarren arteko ideien ezberdintasunengatik gertatzen ari ziren desadostasunak eta

indarrak bildu zituen Nafarroara zetorren **krisi ekonomiko larria gainditzeko**. 1941eko legearen bidez, Diputazioa eta Estatuaren artean, berretsitako hitzarmenean, igo zen Gobernu zentralari eman beharreko ordainketaren kopurua, 6tik 21 milioi pezetara, zehazki, urtero. Bestaldetik, Diputazioak borroka egin zuen foru araubideari eusteko eta lortu egin zuen, Estatuak errespetatu baitzuen 1841eko urriaren 16ko legea. Lorpenak lorpen, Nafarroara etorri ziren Nafarroako foru sistema ezagutzen eta ulertzen ez zuten gobernadoreak. Ika-mika larriak izan zituzten tokiko agintariekin, kaleko protestaldiak eta guzti. 1954tik aitzinera, harremanak leundu ziren, gobernadore berrien ulermenari esker, Carlos Arias Navarro bezala.

Karlisten eta falangisten arteko harremanak gero eta gehiago tenkatu ziren eta alderdi karlista erregimen berritik bereizi zen tirabirak eta guzti. Horrela, 1945ean, Iruñeko Karlisten Aretoa (Círculo Carlista) itxi eta 85 karlista baino gehiago atxilotu zituzten. Gorabehera horri alderdiaren barne zatiketa erantsi behar zaio, ildo berriak sortzen baitira: On Javierrena, On Joan Borboikoa (Rodeznoko kondeak lagundua) eta erregeordetzarena.

Karlisten argitalpenei eraso gogorak egin zitzaizkien eta El Pensamiento Navarro libratu zen elkarte anonimo gisa eratua zegoelako. Karlistek bizirik iraun ahal izan zuten euren ideologia estali zutelako antolamendu kultural eta erlijiosoaren bitartez: esaterako, Voluntarios de la Cruz, *Jurramendirako Gurutze-bidea*, ekitaldi erlijioso gisa, antolatu zutenak (1943); dena dela, ekitaldi horrek laster eite antifrankistak hartu zituen, mitin politikoak eta guzti. Karlisten arteko zatiketa horrek, ordea, On Joan eta On Javierren artekoak, batez ere, indarrak ahulduko ditu, 1958tik goiti, bereziki.

25.3. Félix Huarte, industria-sustapenean giltzarri

Diputazioak, une honetaraino, bere betiko printzipioei lotua segitzen zuen eta ez zien aterik zabaltzen ikusmolde ekonomiko berriei, eta ez

zituen baliatzen ere Nafarroako fiskalitatearen abantailak foru lurraldean ezarriko ziren enpresendako. Beste probintzi batzuetako ordezkariak, ordea, begi txarrez ikusten zuten erregimen berezia.

Foru Diputazioaren hautaketa, zeinek aginte exekutiboa betetzen baitzuen, demokratikoki egiten zen. 7 diputatu ziren, bana merindade bakoitzeko eta beste bana bizilagun gehieneko bi merindadeentzat, hots, Iruñean eta Tuteran (Lizarra 70ko hamarkada arte). **Amadeo Marko** nabarmendu beharra dago (1900-1987), boluntario erreketek izandakoa, behin eta berriz Zangozako merinerrian diputatu hautatua izan zena. 1971tik aurrera eta 1979a bitartean, Diputazioko presidenteordea eta presidentea izan zen. Halaber, Félix Huarte nabarmenduko dugu, Diputazioko presidenteordea eta Gorteetan prokuradore izan zena.

Horregatik, Miguel Urmeneta eta Félix Huarte Diputazioan sartu zirenean (1964), akuilu gertatu zen, foru erakundeari arnas berria emateko. **Félix Huarte** (Iruñea, 1896-1971) Nafarroako industria-garapenaren eragile nagusia izan zen 60ko hamarkadan. Proiektuak lantzeko bulego batean lanean hasi eta ordu libreetan marrazkigintza, musika eta biolina ikasten zuen. 1927an, *Huarte y Malumbres* sozietatea eratu zuen eraikuntzaren alorrean. Iruñean hasi zen, baina laster kontratatu zuten Madrilen obrak egiteko: Ministerio Berriak, Filosofia eta Letren fakultatea eta Valle de los Caídos-ko multzoa.

50ko hamarkadan, Huartek bere inbertsioak hasi zituen metalgintzan eta mekanikan (Imenasa, Inasa, Torlojogintza Fina, Eraikuntza metalikoak, e.a.), Sarriako Jaurerriko laborantza-ustiategia ahaztu gabe. 60ko hamarkadan, politikan sartu eta diputatu, prokuradore eta Diputazioko presidenteordea izan zen.

1964tik goiti, Huartek **Diputazioa modernizatu** eta erakundeetatik industria-jarduera bultzatu zuen Industria-Sustapenerako Planaren bitartez. Gisa horretan aurrerratu zitzaien Espainiako gainontzeko lurraldetan ministro teknokratek aurrera eramandako proiektuei.

Bere heriotzan, 1971n, bidea libre utziko zuen zenbait urte geroago, 1982an, onartu zedin, inbertsiorako eta enplegurako laguntza finant-

zarien Araudiaren Foru Dekretua (onura fiskalak, laguntzak fondo galdura, industriguneen eraikuntza eta inbertsio nazionalak nahiz atzeritarrak erakartzea).

1974an, hiriburutik kanpoko industriguneak sortu ziren: Tuteran, Tafallan, Lizarran, Altsasun, Agoitzen eta Zangozan. 1964tik 1974ra jarduera hauek 307 enpresari onurak eman zizkieten, 28.000 lanpostu sortuz. Neurri hauen xedeak hauexek izan ziren: emigrazioa geldiaraztea, industria-aberastasuna sortzea, ordura arte laborantzaren eskutik baizik ailegatzeko ez zena eta eskualdeen ekonomia piztea, bizilagunek ez husteko eta bizilagunek Iruñera ihes egin ez zezaten.

1975a arte, Nafarroa etengabe puri purian egon zen foruaren afera zela medio, baina beti onik atera zen, Zuzenbide Zibil foralaren Konpilazioa edo Nafarroako **Foru Berriarekin** gertatu zen bezala (1973). Francok onetsitako legea izan zen hura, Nafarroako foru araubidea berresten zuena.

25.4. Karlismoaren krisia eta era askotariko antolamendu politikoak

1957an, **On Hugo** oinordekotzat hartu eta karlismoak ezkerreara jotzen du. Oinordeko berria Javier de Borbón y Parmaren semea da. Gertakari horren eraginez, elizjendeak eta beste kide nahiz jarraitzaile askok alde egin eta mugimendua ateka larrian sartuko da. Bestaldetik, ez dute Francoren ondorengotzat Joan Karlos Borboikoa hartzerik nahi eta, horregatik, Espainiatik kanporatzen dute errege-familia karlista.

1971n, Karlos Hugok alderdi karlistako agintea hartu eta bat egingen du inspirazio kristauan oinarritutako ideia sozialistekin. Tradizionalistak ez datoz bat horrekin eta alde egiten dute muturreko antolamenduetan sartzeko, esate baterako, *Errege Kristoren Gerrilleroak* izenekoan. Ildo tradizionalistak hautagaizat aldarrikatzen du **Sixto Enrique de Borbón Parma**, Karlos Hugoren anaia gazteena. Karlista gehienak Karlos Hugori fidel jarraiki zitzaizkion, Euskadiko Karlista Alderdia sortuz. Zatiketa horrek berriz ere jarraitzaile aunitzen gogoia zapuztu eta antolamenduotatik alde egiten dute. Bi atalen arteko liskarrak goia jo zuen

1976ko maiatzean. Izan ere, **Jurramendiko** festan, bi taldeek elkarren aurka jardun zuten, eta, horren ondorioz, Karlos Hugoren bi jarraitzaile hilik gertatu ziren.

Francoren heriotzarekin batera, karlismoa indarra galtzen joanen da, boto emaileak antolamendu erregezale edo sozialistetara lerratu baitziren. Horren isla 1977ko hauteskundeetan ikusi zen, karlistek arrontean porrot egin baitzuten. Azkenik, Karlos Hugok politika utzi zuen 1979an.

Bestaldetik, frankismoaren azken urteetan, saioak izan ziren **oposizio**ko **alderdiak** berrantolatzeko. Mexikon, konparazio batera, gune horietako bat sortu zen, Constantino Salinas eta Nafarroako Kontseiluarekin, baina iraupen laburrekoa gertatu zen, 1945etik 1953ra, zehazki. Oposizioa, ordea, 60ko hamarkadaren azkenean hasi zen gorpuzten. Ahalginak izan ziren UGT berpizteko, PSOEk lagundurik, baina ez du indarrik hartuko 1974a arte. Vatikanoko II Kontzilioan oinarrituriko gizarte-erreformek eraginik, HOAC sortzen da (Ekintza Katolikoaren Langile Anaitasunak) eta JOC (Juventudes Obreras Católicas). Ezkerreko sindikalismotik Langile Komisioak eta LSB-USO eratzen dira.

Nafarroan, alderdirik indartsuena ORT izan zen, (*Organización Revolucionaria de Trabajadores*), ildo maoistari jarraitzen zitzaiona; ezkerreko alderdia zen, sindikalista eta langilez osatua. Nafarroako sozialistak eta komunistak Euskadiko Alderdi Sozialistan eta Euskadiko Alderdi Komunistan sartuta zeuden, baina oso indar apalarekin. Sozialistek euskal autonomia errefusatu zuten 30ko hamarkadan eta gero, berriz, Euskal Estatu-tua eskatu eta defendatu zuten, Nafarroa barne, frankismoari aurre egiteko. 60ko hamarkadan, ETAk bere indarkeria gogortu zuen Euskadiko independentziaren eskean (Euskadi Ta Askatasuna), eta Nafarroa barne hartzen du Euskadiko proiektuaren baitan. Horiei FRAP eta Koordinadora Abertzale Sozialista erantsi behar zaie.

Nafarroan, alderdi demokristauak, sozial-demokratikak eta liberalak sartu ziren José Joaquín Sagredoren Nafarroako *Agrupación Popular*-ean, Jesús Aizpunen Alderdi *Demócrata eta Liberal*-ean eta Jaime Ignacio Del

Burgoren Alderdi *Social Demócrata Foral*-ean. 1975eko akaberan, jomuga politiko berria zabaldu zen, Franco hiltzerakoan. Talde guztiek aldi eratzaile demokratikoa eskatu zuten, gizarteak modu librean botoa eman ahal izan zezan alderdi politiko ugarien artean, Espainiako Alderdi Komunista barne, bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz.

25.5. Trantsizioa

1975eko azaroaren 22an, Asturiasko Printzeak, Alfonso XIII.aren bilobak, Gorteen aurrean zin egin zuen Espainiako errege gisa, **Joan Karlos I.a** izenarekin. Ez zuen Joan III.a izena hartu nahi izan, aita ez haserrazteko, izen hori egokituko baitzitzaion errege izatera, ezta Joan IV.a ere, horrek adierazi nahiko baitzuen aitari errege izaera aitortzen ziola, eta Franco horren aurka agertu zen beti.

Errege berriari demokrazia berrezartzea egokitzen zitzaion hala nola tratamendu zuzena ematea erregionalismoen eta nazionalismoen afera bihurriari, Euskadin, Katalunian eta Galizian, batez ere. **Carlos Arias Navarro** berriz ere lehen ministro karguan hautatua izan zen, liberalez ere osatutako gobernuan. Esate baterako: José María de Areilza, Manuel Fraga eta Antonio Garrigues. Dena dela, kutsu frankista zuen gobernu hori ez zen gainerako alderdien gustuko izan. Urte hartan gainera, Gasteizko eta Jurramendiko gertakariak gertatu ziren eta terrorismoa ere areagotu zen. Horrexegatik, dimititu zuen (1976ko uztailearen 1ean).

Erresumako Kontseiluak erregeari hirukote bat aurkeztu zion Gobernuburu izateko: López Bravo, Francorekin ministro izana, Silva Muñoz, katolizismo kontserbadorearen burua, eta **Adolfo Suárez**, Mugimenduko idazkari nagusia. Erregeak azken hori aukeratu zuen demokraziaranzko eta erreforma politikoranzko trantsizioa aurrera eramateko.

Nafarroari dagokionez, 60ko hamarkadan, bizilagun gehienak ez zeuden ados Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari lotzeko. Hori are gehiago areagotu zen gainera, euskal nazionalistek errepublikazaleen alde jokatu eta pentsamolde tradizionalista nahiz erlijio katolikoaren defentsa bazter utzi

zutenean. Komunistek eta sozialistek, ordea, 70ko hamarkadan, pisuzko arrazoiak ikusten zituzten Nafarroa Euskadin sarrarazteko, arrazoi historikoak, hizkuntzazkoak eta etnikoak, bereziki.

Idea horren aurkakoak alderdi hauexek ziren: *Demócrata Liberala*-a, *Social Demócrata Foral*-a eta Nafarroako *Agrupación Popular* zeritzona. 1977an, hiru alderdi horiek, bat egin zuten Unión de Centro Democrático eratzeko. Nafarroa forala defendatzen dute, Espainian sartua eta Euskaditik kanpo. Nafar herria litzateke erreferendumaren bitartez azken erabakimena izanen lukeena.

1977ko Ekaineko Gorteetarako hauteskundeetan, nafarrek euren **isuri eskuinzaleak** erakutsi zituzten eta 3 aulki eman zizkioten UCDri (Aizpún, Astráin eta Pegenaute) eta 2 PSOeri (Urralburu eta García); senatuan, 3 UCDrentzat izan ziren (Del Burgo, Sarasa eta Monge) eta bat, aldiz, sozialisten eta nazionalisten koalizioarentzat, hots, Manuel Irujo lizartarrak hartu zuena, Bigarren Errepublikan ministro izanak, alegia.

Nafarroa berriz ere aho mihi guztietan dabil, Euskadiko parlamentarioen eta Estatuaren arteko negoziazioak direla medio, Euskadiko errejimena aurreautonomikoa erabakitzeari begira. 1978ko urtarrileko bi lege dekretutan zehazten da hori. Lege dekretu horien arabera, egingarri ikusten zen Nafarroa eranstea elkarren arteko proiektu autonomikoari, nahiz eta nafarren foru araubide berezia aitortzen zuten, 1841eko Lege Itundutik zetorrena. Horrez gain, azken instantzian, Euskal Kontseilu Nagusian sartzea ala ez, Diputazioak erabaki zezakeenaren mendean zegoen eta nafar herriaren erreferendumaren mendean ere bai.

Bestaldetik, PSOEn aldaketa ideologikoa gertatu zen. Izan ere, ez ziren jada, mintzatzen Euskadirekin batera elkarren arteko proiektua osatzeaz, ez baitzen une egokia gaiaz hitz egiteko. Hartara, afera *sine die* atzeratu zuten. Nolanahi ere, beti nafar foruak errespetatu beharra zegoen, ondoko erreferendumaren bitartez. 1981ean, **Nafarroako Alderdi Sozialista** eratu zen, Euskaditik berezia, eta pixkana pixkana foru Nafarroaren ideari eutsi zion, Euskaditik berezia. EAJk ere atzera jo behar izan zuen eta, printzipio demokratikoen arabera, nafarren erreferen-

dumaren betebeharra onartu behar izan zuen. Jarrera horrek alderdi abertzaleetatik urrunarazi zuen, zeinek ETAk babesturik, defendatzen baitzuten Nafarroak Euskadiko proiektuan sartu beharra zuela.

25.6. Nafarroa eta 1978ko Konstituzioa

Espektrorik nazionala ordezkatzeko zuten zazpi parlamentarioen batzordeak konstituzio-testuaren zirriborroa idatzi zuen. Denak sartzeko moduko zabalera zuen markoa zen hura, inor ere baztertuta sentitu ez zedin.

Konstituzioak dio burujabetasuna herritik datorrela, funtsezko eskubide eta askatasunak bermatzen ditu (bizitokia, greba, manifestazioa, asoziazioa, bilera, adierazpena), Estatuaren konfesionaltasuna kentzen du, 18 urtetan ezartzen du adin-nagusitasuna, irakaskuntzako askatasuna aldarrikatzen du eta aitortzen du «nazionalitateen edo erregioen» autonomiarako eskubidea.

Alianza Popular taldeak ez zuen nazionalitateak hitza erabili nahi izan autonomiei deitzeko, nazio espainol bakarria izatearen aurkakoa zelakoan. Aitzitik, euskal nazionalistek ez zuten Konstituzioa onartu –haien iritziz– euskal herriaren eskubide historikoak aitortzen ez zituelako.

Nafarroari dagokionez, UCDek ez zuen Konstituzioak islatzerik Nafarroa Eusko Autonomi Erkidegoaren baitan sartzeko aukera. Hartara, EAJk bere baiezko botoa horren mendean jarri zuen. Adolfo Suárez akordiora iritsi zen Nafarroari buruzko hiru xedapenak eransteke: **lehenbiziko xedapen gehigarria**, foru lurraldeen eskubide historikoak babesten dituen; **xedapen indargabetzailea**, 1839ko eta 1841eko foruak berresteko legearen indarra aitortzen duena, eta **laugarren xedapen iragankorra**, Nafarroako balizko atxikimendua Eusko Autonomi Erkidegoari arautzen duena, Foru Organo Eskuduneko kideen eta nafar herriak emandako botoen gehiengoak onartu behar dutena.

Konstituzioa, azkenik, eroldaren %67k erreferendum bidez onartu zuen, 1978ko abenduaren 6an. Baiezko botoak %88 izan ziren.



FORU HOBETZEA. Foru hitza latinezko *forum* hitzetik dator, eta, hori zen hiri erromatarretako plaza nagusia, non epaiketak egin eta legeak eztabaidatzen baitziren. Epaiketetan legea aplikatzen zen, eta hortik dator forua, gaur egun, arau, eskubide edo legearen sinonimoa izatea.

Hasieran, ahoz transmititutako ohiturak ohitura idatziak adinako indarra zuen, errege-erreginek herri bakoitzari emandako tokiko foruetan bildu ziren arte (Lizarrako forua, Jakakoa, Iruñekoa, Tuterakoa). Teobaldo I.aren bidez, (XIII. mendea) arau multzo osoa bildu eta *Nafarroako Foru Orokorra* sortu zen.

Nafarroa Gaztelari erantsi zenetik aurrera, eraso handiak hartu zituen –kontraforuak– eta foruen alde borrokatu behar izan zuen. Gauza bera gertatu zen Lege Itunduaren ondotik. 1978ko Konstituzioak eta Foruaren Hobetzeak argi eta garbi zehaztu zituzten Nafarroako ahalmenak eta eskumenak.

Nafarroan, abstentzioa %34koa izan zen eta partaidetza %66,6koa. Konstituzioari «baitz» erran zioten 182.241 pertsonak eta aurka, berriz, 40.801 boto izan ziren.


25.7. Foru Araubidearen Hobetzea

Erakundeak demokratizatzeko gogoz, Diputazioarekin bat, 1979ko urtarrilaren 26ko Lege Dekretua onartu zen, foru organismoen antolamendua eta hauteskundeak arautzen zituen.

Foru Legebiltzarra sortu zen. 1979ko apirileko hauteskundeetan, honela osatu zen: 20 aulki UCDrentzat; 15 PSOErrentzat eta 13 UPNrentzat. Alderdi abertzale guztien artean 20 aulki erdietsi zituzten, Karlista Alderdiak 1, eta beste bat Koalizio independenteak. Parlamentarioen helburu nagusia hauxe izan zen: oinarriak diseinatzea **Foruaren Hobetzea** negoziatzeko.

1977ko hauteskundeen ondotik, UCDk, PSOEk eta UPNk, kontsensu bidez, erabaki zuten 1841eko legea gaurkotzea, foru araubidea babesteko eta galdutako eskuduntzak nahiz erakundeak berreskuratzeko, Nafarroako Gorteak berrezartzeko asmoarekin, batez ere. Negoziazioak gogorrak izan ziren, ministro batzuek eta beste probintzia batzuetako politikariek ez baitzuten deus ere ulertzen «eskubide historikoak, foral, status edo itundua» hitzei buruz. Madrilgo ordezkariak, bereziki, ez zuten ulertzen, ezta onartu nahi ere, Kontuen Ganbara, Erresumako Kontuen Auzitegiaren edo Auzitegi Administratiboaren eskuduntzak murrizten zituelako, eta halakorik ez zen gainerako erkidegoetan. Hala ere, onartu zen **Legebiltzarra** edo Nafarroako Gorteak eta **Gobernua** edo Foru Diputazioa izenak, berdin, erabiltzea.

Azkenik, akordioa egin zen **Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari** buruzko Lege Organikoaz, 1982ko abuztuaren 16koa, zeinean Nafarroa **Foru Erkidego** gisa eratzen baitzen. Nafarroa da foru erkidego bakarra. Izan ere, Zuzenbide Publikoari dagokionean, Nafarroak besterik ez du, etenaldirik gabe, nola halako burujabetasuna mantendu, jatorrian





Nafarroako Legebiltzarraren bilakaera


erresuma izan zenetik gaur eguneraino. Horregatik, *foruak* edo *izaera forala* erreferente moduan gelditu da beti, berezko gauza bezala, mendeen joanean defendatzen jakin izan duena.


2. artikulua halaxe dio: «Botere publikoek Nafarroako Foru Erki-degoaren jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta xedapen osagarriari, Lege Organiko honi eta Konstituzioari jarraikiz». Lege honek, adierazitako eskumenez landara, bere eginkizunak ere zabaltzen ditu osasunaren, hezkuntzaren, antolamendu ekonomikoaren eta lurralde-antolamenduaren alorretan. Hobetzea hitza –amejora-


KONTZEPTUZKO MAPAK














IRUÑEKO ETA NAFARROAKO
ERRESUMAREN SORRERA
IX-XIII MENDEAK







**DONE JAKUE BIDEAREN
EKARPENA
X-XIII MENDEAK**




DINASTIA FRANTZIARRAK
XIII-XV. MENDEAK




NAFARROAKO ETA ESPAINIAKO ERREGE-ERREGINAK (XVI-XX M.)







BERE IDENTITATE BEREZIAREN KONTSERBAZIOANTZ XVII M.







«PRECIOSA» DEITUTAKO ATEA IRUÑEKO KATEDRALEAN. Ate hau Nafarroako Gorteak biltzen ziren tokirako sarbidea zen.









HIRIAK

Egitura

Iruñea

- Erdi aroko eitea.
- Bizimodu tradizionala.

- Apaiz-girokoa.
- Aristokratikoa.
- Erresumako hiriburua.
- Nekazaritzari lotua.
- Solidarioa.

Iruñeko jarduera

Lizarra

- Populazio aktiboaren %35: industria txikiaz bizi zen.
- Artisauendako karrika eskusiboak: Zapatariena, Sokagileena.
- Lantegi gutxi: oihalak, ontziak, papera, bolbora.

- Interesa militarra galtzen du Gaztelan sartzean.
- Ponce eta Learza familien liskarra.
- Tuter eta Lizarra arteko lehia.
- Inprentako industriak.
- Felipe II.aren bisitaldia.

MAIORAZKOA

- Oinordekoak etxea eta lurra bere gain hartzen ditu, familia barne.

OHITURA LEGE EGINA

Lege gisa

Ohitura gisa

- Egintzak edo erabilpenen errepikapenak, gehienetan pertsona guztiak abalatuak. Egonkor izatera iristen direnean, ohiturazko Zuzenbidea osatzen du.

- Ohiko jokabide soilak, eduki juridikorik gabe.

Kontzeptua

ETNIA BAZTERTUAK


- Euren auzolagunek bazterturiko edo mezprezatutako gizataldeak.


Populazioa

Zergatiak

- Bizilagunak: familien %35.
- Kristau berriak, juduak edo musulmanak
- Agotak.

- Eritasuna kutsa lezakete.
- Pekatua kutsatzea.
- Autobazterketa.





HEZKUNTZA, ERLIJO ZALETASUNA
ETA SORGINKERIA
XVII-XVIII. MENDEAK

- Alfabetatze maila handia.
- Maisuak lehen letrak eta heziketa erlijiosoa irakasten du.
- Jokabidea jartzen zen jakintzaren gainetik maisua kontratatzerakoan.
- Nork ordaintzen zuen ikasleen heziketa: udalek, eliz-parrokiek eta gurasoek.

Erak

Lehen mailakoa

LETREN
IRAKASKUNTZA

- 1781ean onartua.
- 5 eta 12 urte arteko haurrak.
- "Superintendente" postua sortzen da.
- Eskolara ez joatea justifikatu gabe.
- Ordutegiak: goizez 8-11. Arratsaldez 1-4.
- 600 maisu eta 300 eskola.

- 200 bizilagunetz gorako herriak.
- Helburua: irun, josi eta soinekoak egin.

Unibertsitatea

Emakumeendako
eskolak

- Ezartzeko saiakerak, baina gauzatu gabe.
- Iratxekoa Aiegin, Santiago eta Anunciata Iruñean.
- Ikasle aunitz Parisa, Toulouse, Alcalá eta Salamancara joaten dira.

- Ematen zen: gaztelania, latina, filosofia eta erretorika.
- Udalek eta ordena nahiz kongregazio erlijiosoek zuzenduak.
- Familia aberatsen semeak baizik ez.
- Prestaketa ere bazen Unibertsitatearako.

Kontzeptua

Gramatika
eskolak

- Herri bakoitzak bere sentimendu erlijiosoak adierazteko dituen erak, kanpoko ekintza edo debozioen bidez.
- Agerpide asko izaten dira liturgi-zikloetan: Eguberriak, Garizuma, Pazkoa eta santuen egunak.

Lekuak

HERRI
ERLIJOZKOTASUNA

- Elizparrokiatan, basiliza eta santutegietan izaten da.
- Arreko Trinitatea, Sorladako S.Gregorio, Arguedasko Yugo, Corellako Villar, Otsagiko Muskilda, Aralarko S.Migel.

Auziak

- Harremanak izaki arraroekin, deabru eta sorginekin.
- Iparrean maizago.
- Sorginkeria auziak Baztan, Doneztebe, Zaraitzu, Erronkari, Orreagan.
- Urdazurin eta Zugarramurdin, Inkisizioak 400 heldu eta 1400 gazte ikertu zituen. 12 pertsona hil zituzten.


Zalantzak

- Batzuek sorginengan sinesten zuten. Beste batzuek uste zuten familien arteko inbiriya eta gorroto kontuak zirela, akusatzeko.
- Zerk eraginda: bakardadeak, belar aluzinogenoek, heziketa eskasak.


SORGINKERIAK
ETA
SINESKERIAK


Tolerantzia

- Onartzen da magia zuria eta petrikiloen lana.
- Ospetsuak: Mortija de Jauregui kuranderoa, Miguel L. De Ilurdoz Saludadorea.





ARTE ETA LITERATURA-SORMENA:
ERRENAZIMENDUA ETA BARROKOA
XVI-XVIII MENDEAK





ILUSTRAZIOA ETA BEREZKO ERAKUNDEEN KRISIA XVIII. MENDEA





NAFARRAK BORBOIEN GORTEAN

Karlos II. arekin

- Nafar multzoa borboien berrikuntzen barnean.
- S.Fermin de los Navarros inguruan.
- Harremanak enpresa amerikarrekin.
- Herriminak hartuta bizi dira.
- Gehienak Iparrekoak dira.
- Izenak: Goienetxe, Ustariz, Muzkiz, Garro, Iturralde.

Felipe V. arekin

- Konfiantzazko postuak hartzen dituzte erregeorderrietan eta administrazio zentralean.
- Izenak: Javier Goyenetxe eta Peru, Granada Berria, Mexiko, Argentina, e.a.ko erregeordeak.
- Babesleak: S. Frantzisko Xabier, S.Fermin eta S.Migel.

FRANTZIAKO IRAULTZA ETA NAFARROA

Jatorria

- Arrazionalismoa, ilustrazioa, entziklopedismoa eta giza-eskubideak.
- Burgesiak bere gain hartzen du hirugarren estatuaren zuzendaritza.
- Krisi finantzaria, gerrak eta elizjende nahiz nobleziaren zerga-salbuespena direla kausa.
- Estatu Batuetako iraultzaren adibidea.


Foruen aurkako erasoa

- Karlos IV.ak foruak eta legeak murriztu nahi ditu Gorteak alde batera utzita.
- Negoziazio zuzena Madrilekin.
- 1796tik 1808ra, krisi larria foruentzat.
- Yanguas y Mirandak dio: "Foru eta erakunde nafarrak deusetarako ez diren gauza zaharrak, ez eraginkorrak eta kaltegarriak dira".

Nafarroa


- Giltzarri, muga gordetzeko.
- Iraultza Koalizioari nagusitzen zaio.
- Iruñea hartu (1794) eta Gorteek dei egiten dute frantziarren aurka borrokatzeko.
- Godoyk kanpaina egiten du, armada handiagotzen laguntzeko eta nafar erakundeei azpiak jateko.
- Nafarren arteko zatiketa: batzuek aire liberal berrietara jo nahi dute eta beste batzuek tradizioak mantendu.


ABSOLUTISTAK ETA LIBERALAK: KARLISTALDIAK XIX MENDEA





LEGE ITUNDUA. Lege Itunduaren oroitzapenezko koadroa. Lege horren bitartez Nafarroak bere erresuma izaera utzi zuen, Espainiako probintzia hutsa izatera pasatzeko.





NAFARROA HITARRA ETA INDUSTRIALAREN BIDEAN XIX MENDEA

NEKAZARITZA EKOIZPENA

Ekonomia. XIX. mendearen lehen erdia

Ekonomia. XIX. mendearen bigarren erdia

- Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritua.
- Populazioaren %83 hiribildu eta landa-herrietan bizi zen.
- Produktuak: laboreak, mahatsondoa, olibondoa, patata eta artoa.
- Populazioaren bi herenak nekazaritzatik bizi ziren.
- Autohorniketa XIX. mendearen hasieran.

- Beste lursail batzuk luberritu eta mahastiak ere zabaltzen dira.
- Nekazaritza-teknika berriak, ureztatzeko lurak hobetzen dira.
- Gainazalaren %25 ureztatzeko lurak dira.
- Frantziara ardoa esportatzen da.
- Laboreen inportazioaren lehiakortasuna
- Nekazaritza-kooperatibak.
- Korralizen luberritzeak (Erdi Aldea eta Erribera) behi-azienda murrizten du
- Ekoizpena gora doa aurrerapen teknikoengatik.
- Filoxera, mahastiak murrizten dira.

- Makaldiak Erriberan.
- Sagarrondoak, gaztainondoak alde Atlantikoan.
- Pinu gorria eta mendi-pinua Pirinioetan.
- Arteak Lokitzen, Andimendian eta Deierrin.
- Fagoak eta haritzak Kintoan, Andimendian, eta Urbanan.
- Almadiak, zuraren garraioberdiker erabiliena.

Oihanekoa

OIHAN ETA ABELTZAINZTA-USTIAKUNTZA

Abeltzaintza

- Batez ere, Iparrean garatzen da eta, hein txikiagoan, Erdi Aldean eta Hegoan.
- Motak: ardi-azienda, behi-azienda, zaldi-azienda eta zerri-azienda.
- Bazkalekuak auzalorretan eta faserietan.
- Goranzko eta beheranzko trashumantzia, ardidibe, altxunbide edo abelbideetan barna.
- Errege Ardidibidea Tausten, Milagron, Murillo Fruton eta Erronkarin.

- Laguntza osagarria etxeko ekonomiarentzat.
- Ehiza larria eta txikia.
- Arrantza: amuarraina eta izokina Bidasoa eta Ezkurra ugaldetan.

Erak

EHIZA ETA ARRANTZA

Barne merkataritza

AZOKAK ETA MERKATUAK

- Desagertzen dira eta produktuen salerosketa librea da, bidesaririk gabe.
- "Kateen" kontrola, alternatiba gisa.
- Ez dago argi on eta kalte nori egin zion.

- Azokak eta feriak (30 Nafarroan), asterokoak, hamabosterokoak eta urterokoak.
- Non: Iruñea, Auritz, Otsagi, Lizarra, Altsasu eta Tafalla.
- Salgai: zamabereak, hazteko abereak, eta pattarrak, ehunak, e.a. eta artisautza gaiak.

Aduanak

Kontrabandoa

- Lantegi guneak hutsalak dira.
- XIX. mendearen erdian, 17 ola daude, Madozen arabera.
- Ehungintza, larrugintza, metalgintza, nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintza.

- Iparrean, kontrabando mugimendu handia, XVI. mendetik XVIII.enera.
- XIX. mendetik aitzinera krisi larria, aduanak kentzean.
- Dena dela, legez kanpokoari zigor gogorragoen bidez jazarri zitzaion.

Industria

INDUSTRIA HASBERRIA ETA BANKU GUTXI SORTZEN ZEN

Aztarnategiak

- Orbaitzeta: munizioak.
- Atarrabia eta Orotz-Betelu papertegiak.
- Lizarra: txapelak.
- Agoitz: iruteko makinak.
- Bera, Altsasu: galdategiak.
- Artisautza-tailerrak.

- Belateko zohikatza, Jaitzeko huila eta lignitioa.
- Burdin harria, kobre, berun, gatz potasiko eta zilar-meatzak.


Non

Bankuak eta kutxak

Eraldakuntza

- Gutxi, industria ere gutxi zelako.
- Crédito Navarro (1864) eta Agrícola.
- Udal Aurrezki Kutxa eta Kutxa Ruralak (Tafalla eta Erriberri).

- Martzillako eta Tuterako Azukre-lantegia.
- Elikadura-produktuak.



ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Eskumena

Bideak

- Bideak eta garraioa, komunikaziorako oinarria.
- Nafarroak beti bide onak izan ditu, herriak eta hiriak lotzen dituztenak.
- Motak: Donejakue bidea, errege-bideak eta publikoak, herrietako xenderak.
- Geroago, errepideak eta trenbidea.

- Diputazioak erabateko eskumenak ditu (1782) errepideen sarea antolatzeko.
- Plan hura mantendu da XX. mendea ederki sartu arte.
- XVIII. mendea, bideak egiten dira; XIX.an, zabaldu eta XX.an, errotzen da.
- Orografia zaila gainditu zen tunel, zubi eta mendateen bitartez.

Garraioak

- Erabiliena gurdia da: dilijentzia, colleras-autoa, gurdi itxia, berlinak, kalesak eta deskapotagarria.
- Beste batzuk: galerak, bi gurpileko gurdia, eta mando, zaldi edo asto gainean.
- Txalupa eta gabarra ibaian ibiltzeko.


TREN BIDEAREN AGERPENA


Hastapena

- "Aurrerabidearen aurrerabidea" (Madoz).
- Lehen linea: Bartzelona-Mataró (1848) eta Madril-Aranjuez.


Nafarroa bazter gelditzen da

- Sare nazionalak ez zion onik egin.
- Castejón eta Altsasukoko adarrak, Iruñea Irun-Madrilekin lotzeko.
- Trenbide meharreko lineak: Tuter-Tarazona; Cortes-Borja; Iruñea-Zangoza; Iruñea-Donostia; Elizondo-Irun; Lizarra-Gasteiz.
- Aurkakoak: mandazainak eta gurdizainak, espartingileak.
- "Gantz ateratzailea".







GIZARTE IKASIA ETA HEZIAREN ALDE XIX MENDEA




ARTEA ETA BERE ESTILO KONBINAZIOA XIX MENDEA





**NAFARROA ETA EUSKADI
1900-1935**





GERRA ZIBILA ETA NAFARROA (1936-1939)





FRANKISMOA, TRANTSIZIOA, KONSTITUZIOA ETA FORU ERREGIMENAREN HOBEKUNTZA (1939-1999)

